

CONSEJO
ESCOLAR
DE NAVARRA
NAFARROAKO
ESKOLA
KONTSEILUA

Informe
Txostena

2022
2023



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua



Consejo Escolar
de Navarra
Nafarroako Eskola
Kontseilua

***Nafarroako Hezkuntza Sistemari buruzko
txostena***

2022-2023 ikasturtea

**Nafarroako Eskola Kontseiluaren osoko bilkurak onetsia
2023ko abenduaren 20an**

**NAFARROAKO HEZKUNTZA SISTEMARI BURUZKO TXOSTENA, 2022-2023
ikasturtea**

Egilea

Nafarroako Eskola Kontseilua / Hezkuntzako Batzorde Nagusia
Hezkuntza Departamentua. Nafarroako Gobernua

Idazkaria

M^a Cruz Planchuelo Aranguren
Ana Reclusa Burgui

Lege-gordailua

LG NA 1662-2000

2022-2023ko NHSTko edukien aurkibidea

1.- SARRERA.....	9
2.- HEZKUNTZAREN TESTUINGURUA	23
2.1. Araudiaren gaineko alderdiak	23
2.1.1. Europa	23
2.1.2. Espainia	29
2.2. Alderdi demografikoak	31
2.2.1. Biztanleria eta haren osaera	31
2.2.2. Hiri eta landa eremuetako biztanleria	40
2.2.3. Atzerritarrak.....	43
2.2.4. Familia-egitura.....	51
2.2.5. Eskolako adinean den biztanleria.....	56
2.3. Alderdi sozioekonomikoak	59
2.3.1. Barne-Produktu Gordina	59
2.3.2. Sektore ekonomikoak	60
2.3.3. Lan-merkatua	63
2.3.4. Familien ekonomia... ..	80
Per capita BPGd-a... ..	80
Diru sarrerak eta banaketa	80
Pobrezia eta gizarte-bazterketa... ..	84
Hezkuntzan egindako gastua... ..	97
2.3.5. Berrikuntza eta ikerketa... ..	102
2.4. Alderdi soziokulturalak... ..	103
2.4.1. Ezaugarri orokorrak... ..	103
2.4.2. Hizkuntzak... ..	105
2.5. Hezkuntza alderdiak	114
2.5.1. Biztanleria helduaren ikasketa-maila.....	114
2.5.2. Hezkuntzaren interesa alor instituzionalean.....	123
Nafarroako Parlamentua.....	123
Nafarroako arartekoa.....	123
2.5.3. Hezkuntzaren interesa alor sozialean.....	124
Komunikabideak	124
Baliabide profesionalak.....	124
3.- HEZKUNTZAKO BALIABIDE MATERIALAK ETA LANGILEAK.....	125
3.1. Sailkapen funtzionala.....	125
3.2. Gastuaren azterketa	128
3.3. Gastuaren exekuzioa	128
3.4. Hezkuntzako gastu publikoaren bilakaera	136
3.5. Gastua sare pribatuan	158

3.6. Datu orokor konparatiboak	164
3.7. Baliabide materialak	166
3.7.1. Baliabideak 0-3 urteetan	166
3.7.2. Ikastetxe publikoak. Araubide orokorreko irakaskuntzak	168
Ikastetxe eta unitate kopuruaren oinarrizko datuak.....	168
Azpiegiturak hobetzeko programak	171
Ekipamenduak	175
3.7.3. Itunpeko ikastetxe pribatuak. Araubide orokorreko irakaskuntzak	177
Ikastetxe eta unitate kopuruaren oinarrizko datuak.....	177
3.7.4. Itundu gabeko ikastetxe pribatuak. Araubide orokorreko irakaskuntzak	178
3.7.5. Araubide bereziko irakaskuntzako ikastetxeak.....	179
Arte irakasketak	179
Hizkuntzak irakasteko zentroak.....	181
3.7.6. Zerbitzu osagarriak	181
Eskola garraioa	181
Eskola-jantokiak.....	182
3.8. Hezkuntza arloko langileak.....	183
3.8.1. Haur Hezkuntzako lehen zikloko langileak.....	183
3.8.2. Ikastetxe publikoetako irakasleak	183
Plantillaren bilakaera. Datu orokorrak	183
Irakaskuntzako funtzio publikorako sarbidea, mugikortasuna eta espezialitate berriak eskuratzea	188
Irakasleen administrazio kontratazioak.	190
Irakasleen ordainsarien bilakaera.....	193
Administrazioko eta Zerbitzuetako Langileak	195
Enpresa erakundeak eta sindikatuak	195
Lan osasuna	196
3.8.3. Itunpeko ikastetxe pribatuetako irakasleak.....	201
Irakasle plantillaren bilakaera	201
Soldata taulak	202
Administrazioko eta zerbitzuetako langileak.....	205
Enpresa erakundeak eta sindikatuak	205
3.8.4. Itunpekoak ez diren ikastetxe pribatuetako irakasleak	206
Irakasle plantillaren bilakaera	206
3.8.5. Irakasleei buruzko ezaugarri interesgarriak.....	206
Ikastetxeetako irakasleak	206
Araubide orokorreko irakaskuntzak	207
Araubide bereziko irakaskuntzak.....	210
Helduen hezkuntza	212
Irakasleen sexuaren aldagaia.....	214
Irakasleen adinaren aldagaia.....	216
3.8.6. Ratioen bilakaera	220

4.- HEZKUNTZA PROZESUAK ETA POLITIKAK.....	227
4.1. Hezkuntza administrazioaren antolamendua	227
4.2. Eskolako egutegia eta ordutegia	229
4.3. Hezkuntza sistemetako aurreko ikasketen baliokidetasunak	233
4.4. Irakaskuntzen antolamendua.....	233
Haur Hezkuntza.....	236
Lehen Hezkuntza.....	237
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.....	237
Batxilergoa	237
Lanbide Heziketa.....	238
Arte eta Musika Ikasketak.....	238
Helduen irakaskuntza.....	239
Kirol ikasketak.....	239
4.5. Hizkuntzak ikastea.....	240
Euskara	240
Atzerriko hizkuntzak	242
4.6. Inklusibitatea eta aniztasuna	246
4.6.1. Aniztasunari Erantzuteko Plana	246
4.6.2. Hezkuntzako ekitatea.....	251
Egoera soziokultural ahuleko ikasleak eta/edo berandu sartutakoak	251
Absentismoa eta ikasketak garaiz aurretik uztea	252
Errefortzua, orientazioa eta hezkuntza-laguntza	254
Adimen gaitasun handiko ikasleak.....	255
Ospitaleratutako ikasleak eta etxeko arreta.....	256
Ikastetxe publiko eta itunduentzako laguntza ekonomikoak	256
Bekak eta ikasteko laguntzak	257
4.6.3. Irakasle lanbidearen garapena	259
4.6.4. Berrikuntza sareak.....	260
4.7. Bizikidetzak eta hezkidetzak	260
4.7.1. Antolaketa	260
4.7.2. Araudia.....	261
4.7.3. Xedeak	262
4.7.4. Bizikidetzarako ekintzak.....	264
Bizikidetzaren arloko aholkularitza: prestakuntza ekintzak	265
Bizikidetzaren arloko aholkularitza: aholkularitza eta esku hartzea	268
4.7.5. Berdintasunerako ekintzak.....	271
SKOLAE hezkidetzak programa.....	271
Prestakuntza ekintzak.....	271
4.8. Kalitatea eta hobekuntza.....	277
4.8.1. Eskola-zuzendaritza.....	277
4.8.2. Kalitatearen kudeaketa ikastetxeetan.....	281
Ikastetxe publikoak.....	281
Ikastetxe itunduak.....	291

4.8.3. Irakasleen etengabeko prestakuntza	291
4.8.4. Prestakuntza kontseiluak	298
4.8.5. Hezkuntza berrikuntzako proiektuak	298
4.9. Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak	300
4.9.1. Informazioaren eta komunikazioaren teknologien (IKTen) hedapena eta erabilera	300
4.9.2. Hezkuntzako Teknologien eta IKT Azpiegituren Zerbitzua	304
4.9.3. IkasNOVA Baliabide Digitalen Zentroa	305
4.10. Lanbide Heziketa	306
4.10.1. 2030 Agenda	306
4.10.2. Lanbide Heziketa Duala	309
4.11. Landa eskola.....	309
Ezaugarriak	310
4.12. Beste administrazio batzuk eta hezkuntza	312
Toki Administrazioak.....	313
Ingurumena.....	315
Memoria eta bizikidetzeta	316
Ogasuna	320
Osasuna.....	321
Nastat.....	324
Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusia	325
4.13. Parte-hartzea.....	327
4.13.1. Nafarroako Eskola Kontseilua.....	328
4.13.2. Ikastetxeko eskola kontseiluak	331
4.13.3. Unibertsitatez kanpoko irakasleen mahai sektoriala.....	334
4.13.4. Gurasoen Mahaia	337
4.13.5. Gurasoen federazioak eta konfederazioak	337
4.13.6. Eskolatze batzorde nagusia	343
4.13.7. Tokiko eskolatze batzordeak	345
4.13.8. Nafarroako Lanbide Heziketaren Kontseilua	345
4.13.9. Hezkuntza-itunen Batzordea	347
4.14. Europar Batasuneko hezkuntza programak	348
5.- ESKOLA SISTEMAREN EMAITZAK	353
5.1. Hezkuntza sistamarako sarbidea.....	353
5.1.1. Eskolatze prozesuaren emaitzak	353
Bilakaera orokorra	353
Prozesuaren arauketa	353
5.1.2. Araubide orokorreko irakaskuntzetan eskolatutako ikasleak	356
Balio orokorrak	356
Hizkuntza-ereduak	360
Haur Hezkuntzako lehen zikloa	366
Batxilergoa	368

Lanbide Heziketa	371
Hezkuntza laguntzako berariazko premia duten ikasleak	379
Atzerritar jatorriko ikasleak	386
Ikaskuntza etengabea	388
5.1.3. Araubide bereziko ikasketetan eskolaturiko ikasleak	394
Hizkuntzen irakaskuntza.....	394
Euskararen Gaitasun Agiria (EGA).....	395
5.1.4. Arte ikasketetako ikasleak	397
Musika	397
Dantza	398
Arte Plastikoak eta Diseinua.....	398
Diseinuko Goi Mailako Arte Irakaskuntzak	399
5.2. Progresioa sistema arautuan	399
5.2.1. Lehen Hezkuntza	399
5.2.2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.....	404
Ikastalde arruntak	404
Curriculum egokituko programa (CEP).....	408
5.2.3. Batxilergoa	410
5.2.4. Unibertsitatera sartzeko probak	413
5.3. Errendimendu emaitzak	416
5.3.1. Lehen Hezkuntzako 4. maila	416
5.3.2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. maila	432
5.4. Hezkuntza sistemaren emaitza konparatiboak.....	450
Egokitasun tasa	450
Errepikapen tasa	451
Eskola-uzte goiztiarraren tasa.....	453
DBHko graduatze tasa	455
Bigarren Hezkuntzako bigarren etapako graduatze tasa.....	458
Lanbide Heziketako tituludunen laneratze tasa	463
Goi mailako hezkuntza maila duten 30-34 urteko biztanleak.....	465
5.5. Sariak eta sari bereziak	466
6.- NAFARROAKO HEZKUNTZAREN ADIERAZLEAK 471	
6.1. PISA emaitzen bilakaera	473
6.1.1. ELGA, Espainia eta Nafarroaren arteko alderaketa, konpetentziaren arabera	473
6.1.2. ELGA, Espainia eta Nafarroaren arteko alderaketa, errendimendu-mailaren arabera	476
6.1.3. ELGA, Espainia eta Nafarroaren arteko alderaketa, sexuaren arabera bananduta	478
6.1.4. ELGA, Espainia eta Nafarroaren arteko alderaketa, nazionalitatearen arabera bananduta	480
6.1.5. ELGA, Espainia eta Nafarroaren arteko alderaketa, errepikatze aldagaia kontuan hartuta	481

6.1.6. PISA emaitzen bilakaera Nafarroan	482
Emitzak kompetenziaren arabera	482
Emitzak generoaren arabera banatuta.....	487
Emitzak nazionalitatearen arabera banatuta	489
Emitzak ikastetxearen titulartasunaren arabera bananduta.....	489
Emitzak hizkuntza ereduaren arabera bananduta	491
Hezkuntza-ekitatea Nafarroan	493
Beste autonomia-erkidego batzuekiko alderaketa	494
6.2. Adierazleak	499
6.2.1. Eskolatzearen adierazleak eta hezkuntza-ingurunea	499
6.2.2. Hezkuntza-finantzaketaren adierazleak	503
6.2.3. Hezkuntza-emaitzen adierazleak	506

SARRERA


Nafarroako Eskola Kontseiluak, 2023ko abenduaren 20an izandako osoko bilkuran, aho batez onetsi zuen 2022-2023 ikasturteko Nafarroako unibertsitateaz kanpoko hezkuntza sistemari buruzko txosten hau. Horrela, bete egin du Nafarroako Eskola Kontseilua arautzen duen 12/1997 Foru Legean jasotako agindua, eta bere helburu nagusietako bat lortzen lagundu, gizartearen eskura jarri baitu foru komunitateko hezkuntzaren errealitatearen deskribapen oso, egiaztatu eta fidagarria.

Aurreko ikasturteetan bezala, txostenaren edizio honetan ikuspegi sistemikoa hartu da azalpenerako. Ikuspegi horrek gure hezkuntza sistemaren funtzionamendu konplexu eta dinamikoa hobeki ulertzen lagunduko du, sistemari egiten zaizkion ekarpen multzo baten konbinazio gisa deskribatzen baitu hura. Ekarpene horiek, barne prozesu jakin batzuen bidez, erdietsitako emaitza edo lorpen bihurtzen dira eta errealitate sozial eta ekonomikoan eragiten dute. Hori guztia testuinguru jakin batean gertatzen da, eta hark ekarpenetan eragiten du, prozesuei eragiten die eta emaitzak baldintzatzen ditu. Emaitzek, gainera, testuingurua bera aldarazten dute. Hezkuntza sistema aztertu behar da faktore anitzeko erlazio baten gisan. Bertan, ekarpenak eraginkortasunez kudeatzen badira hezkuntza prozesu eta politika egoki eta iraunkorren bidez, eginahal horren emaitzak hobetu egingen dira, eta horrek, era berean, testuinguruaren baldintzak hobetuko ditu.

Ikuspuntu horren abantaila da bat egiten duela hezkuntzako adierazle sistema gehienek hartutako oinarritzko eskemarekin. Beraz, errazago erkatzen ahal dira Nafarroako Foru Komunitateko datuak beste erkidego eta herrialde batzuetako hezkuntza errealitateekin.

Hona, hurrengo taulan, txosten honen egitura, modu eskematikoan azalduta.

0. taula: 2022-2023 ikasturteko Nafarroako Hezkuntza Sistemari buruzko Txostenaren egitura



ADIERAZLEAK VI. kapitulua	COVID-19a
<p>Nafarroako Hezkuntzaren adierazleak</p> <ul style="list-style-type: none"> • PISA emaitzen bilakaera • Eskolatzearen eta hezkuntza ingurunearen, hezkuntza finantzaketaren eta emaitzen adierazleak 	<p>Covid-19ak eragindako egoeraren analisia</p> <ul style="list-style-type: none"> • Osasun egoera eta neurriak • Egoera zaugarrian dauden pertsonengan izandako eraginaren analisia • Ikastetxeetako prebentzio eta higiene neurriak • Nazioarteko gomendioak • Balorazioa eta segimendua Hezkuntzako Covid Batzordea • Finantzaketa berezia • Irakasleak • Nafarroako Hezkuntza Departamentuak hartutako neurriak • Nafarroako Eskola Kontseilua eta Covida

Iturria: Nafarroako Eskola Kontseilua

• **Ebaluazioa eta hobetzeko proposamenak**

2022-2023 ikasturtean, aurreko ikasturteetan bezala, Nafarroako Eskola Kontseiluak gogoeta sakona egin du txosten honen egiturari buruz. Batzorde Iraunkorrek 2018ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Txostena Berraztertze eta Hobetzeko Batzordea abiaraztea erabaki zen. Batzorde horrek bilkurak egin zituen 2019ko urtarrilean, otsailean eta martxoan. Urte horretako maiatzaren 16an, Batzorde Iraunkorrean jakinarazi zen lanak bukatu zirela, eta txostena igorri zela, zuzenketa prozesua hasi ahal izateko. Ekainaren 13an, jasotako zuzenketa kudeatu ziren, eta Kontseiluko kide guztiei igorri zitzaizkien. 2019ko ekainaren 26an, Kontseiluaren Osoko Bilkurak aho batez onetsi zuen prestatutako testua. NHST dokumentuaren egitura horrek indarrean jarraitzen du gaur egun.

Txostenaren egitura ontzat eman, eta 2018-2019 ikasturterako 5/2019 Irizpena bihurtu zen; 2022-2023 ikasturtean indarrean jarraitzen du, eta honako hau da:

1. NHST dokumentuaren egitura eta edukia.
2. Ohar orokorrak.
3. Kapituluaren gaineko berriazko kontuak.
4. Hizkuntza.
5. Eskatutako informazioa.
6. Prozesuaren kontrola.
7. 2022-2023 NHSTa prestatzeko kronograma.
8. Zuzenketa eredua.
9. Hezkuntzako datuak.

Egun, NHST dokumentua berriz berrikusten ari dira. Oraingo planteamendua da informazioa biltzeko eta tratatzeko modua berritzea, txostena dokumentu bizia izan dadin; eman beharko du, noski, edukiaren argazkia urte bakoitzeko abenduan, baina berehala eguneratutako datuak

eskainiz, urtez urte konparatzeko aukera emanez, eta sarbideko maila desberdinekin. Lan horretan, hauek dira lankide:

- Juan Ardaiz Astrain (Hezkuntza Departamentua - Hezkuntzako Teknologien eta Informazio Sistemen Zerbitzua)
- Pablo Cebrián Jiménez (Nafarroako Estatistika Institutua)
- Ana Reclusa Burgui, Nafarroako Eskola Kontseilua
- Manuel Martín Iglesias, Nafarroako Eskola Kontseiluko burua
- Nafarroako Eskola Kontseiluko Batzorde Iraunkorra eta Lantaldea

• **NHST dokumentuaren egitura**

NHST sistemaren arazo nagusietako bat edukien aurkezpena da, emandako informazioak zehatzak eta irakurgarriak direla bermatu behar baita. Aurreko edizioetan, hartu izan diren erabakiak harmonizatu izan dira, gaur egungo formatua aurkeztu arte.

Ezarritako jarraibideak honako hauek dira:

- Eduki orokorrak kapitulutan antolatzen dira, azken urteotako ereduari jarraikiz, eta bat datoz, neurri handi batean, Estatuko Eskola Kontseiluak egindako txostenarekin, epigrafe hauekin:
 - Sarrera
 - Hezkuntzaren testuingurua
 - Hezkuntzako baliabide materialak eta langileak
 - Hezkuntza prozesuak eta politikak
 - Eskola sistemaren emaitzak
- NHST dokumentu digitala da. Xedea da testu jarraitu bat eraikitzen jarraitzea, oraingoa bezalakoa, eranskin mota desberdinekin, nabigagarritasuna handituz.
- Azken urteotan, azterketa faktore eta datu gehiago sartzeko joera etengabea izan da, Kontseiluko kideek argi eta garbi adierazi baitzuten hala egin behar zela. Eduki berriak sartzeko bidezkoa dela ulertzen den guztietan hala egiten da, ebaluazio bileretan planteatu den bezala.
- Txostenaren bolumen gero eta handiagoaren ondorioz, aurreko edizioan komenigarritzat jo zen bi zati osagarri bereiztea: erdiko atal artikulatua, azalpen testutik hasita, eta batez ere grafikoez lagunduta (380 orrialde aurreko NHSTan), eta eranskina, non datuak taulen bidez ematen baitira (266 orrialde). Antolamendu hori baliagarria da aurkezpen zuzenagoak eta arinagoak lortzeko, irakurketa gogoetatsuagoetan informaziorik galdu gabe.
- Aurreko txostenetan, informazio bera aurkezten zen, ia sistematikoki, tauletan eta grafikoetan. Aurreko ikasturtetik uste da grafikoak nahikoak direla bertan zenbakizko balioak sartuz gero, eta, horrela, taulak eranskinetan biltzen ahal direla, dokumentuaren erdiko atala arintzeko.
- Txostenaren ezaugarrietako bat da aztertzen duela zein den Nafarroaren egoera, beste lurralde esparru batzuekin alderatuta: EB 28 eta autonomia erkidegoak. Alderdi bakoitzari buruzko datu guztiak zuzenean aurkezteak txostenaren atal horretako analisia oztopa dezake. Informazioa errazago irakurtzeko, datuen koadro orokorrenak testuaren gorputz orokorrean aurkeztu ohi dira, eta guztiak dagokion eranskinetan biltzen dira.

• **Ohar orokorrak**

NHSTko eduki batzuei dagokienez, berariazko oharrak egin dira.

Atal honetan horietako batzuk sartu ditugu.

- Ahal den guztietan, sexuaren arabera banatutako informazioa sartzeari aztertutako aldagai guztietan.
- Ahal den guztietan, aniztasunari buruzko informazioa sartzeari aztertutako aldagai guztietan, bai ikasleei dagokienez, bai hezkuntzaren sektorean lan egin eta desgaitasuna duten pertsonen dagokienez.
- Txosteneko datuetan lehentasunez erabiliko diren urteko tarteak finkatzea, 2017-2018 NHSTan egin zen bezala: 2009 (aurreko serieetako hezkuntza inbertsio handieneko urtea), 2012 (inbertsioaren beherakada handiena), 2020, 2021, 2022 (azken hiru urteak).
- Hezkuntza sisteman eragin handiena duten faktore demografikoak aurkeztea: eskola adinean dauden biztanleen kopurua, ikasleak hiri/landa eremuetan bizi diren, atzerriko jatorria duten ikasleen kopurua edo familia egitura.
- Nafarroako ekonomiaren egitura eta berezitasunak deskribatzen dituzten faktoreak nabarmentzea eta hezkuntza esparruarekin lotzea. Elementu aipagarrienak honako hauek dira: BPGa; sektore ekonomikoak; lan merkatua, enplegua eta langabezia; soldatak; familien ekonomia, ekitate indizeak eta haurren pobrezia.
- Hezkuntza Departamentuaren ekarpenari buruzko datuak aurkeztea, kapitulua eta gastu kontzeptu alderagarriekin erlazionatuta.
- Hezkuntza Departamentua partaide duten hezkuntza arloko proiektuen gaineko jarduketak sartzeari, Nafarroako Gobernuko beste departamentu batzuekin partekatutako direnean, bereziki Osasunarekin eta Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioarekin.
- Beste administrazio batzuek, hala nola udalek (2.000 biztanletik goitikoak), kontzejuek eta mankomunitateek haur eta gazteentzat egiten dituzten hezkuntzako jarduerak garrantzitsuei buruzko edukiak sartzeari.
- 2015eko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legearen Ekintza Planaren agindua sartzeari. Horren bidez, Nafarroako Eskola Kontseiluak urtero jakinarazi behar du zer neurri eta zer ekintza egin diren emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta emakumeen eta nesken aurkako indarkeriaren prebentzioa eskola eremuan xertatzeko.
- 2016ko azaroaren 16ko 103/2016 Foru Dekretuari buruzko informazioa gehitzea. Dekretu horren bidez, sexu eta ugalketa osasunaren arloko prestazio sanitarioen antolamendua ezarri zen.

• **Kapituluen gaineko berariazko kontuak**

Ebaluazio prozesuan iradokizunak egin dira, eta horiek baloratu ondoren, NHSTan dagozkien kapituluetan sartzeari proposatu da. Eduki berriak hauek dira:

- **2. kapitulua:**
 1. Araubide Orokorreko Irakaskuntzetan, ikasleen nazionalitatearen eta ikastetxearen titulartasunaren araberrako banaketa sartzeari, bai Espainiari bai Nafarroari dagokienez.

2. “Lana eta jarduera adarrak” atalean, eranskin bat eranstea, erakusteko nola banatzen den lana Nafarroan eta Espainian, sexuaren arabera.
3. Atal berean, Nafarroako Gizarte Segurantzako afiliatuen portzentajearen grafikoa sartzea, hilabeteka eta sexuaren arabera.
4. EBko, autonomia erkidegoetako eta Nafarroako landunen eta langabeen portzentajea sartzea, sexuaren arabera.
5. EBn erregistratutako langabeziaren ehunekoa sartzea, ikasketa mailaren eta sexuaren arabera. Langile bakoitzeko urteko batez besteko irabaziaren taula gehitzea, sexuaren arabera banatuta, bai Espainiari bai Nafarroari dagokienez.
6. “Errentaren banaketako desberdintasuna” atalean, eranskin bat gehitzea, EBko errentaren banaketan dauden desberdintasunei buruzko datuekin, sexuaren arabera banatuta.
7. “Pobrezia eta eskola-uztea” izeneko atalean eranskin bat gehitzea, EBn hezkuntza uzten duten eta atzerriko nazionalitate duten 18 eta 24 urte bitarteko gazteen datuekin.
8. Atal berean eranskin bat gehitzea, eskola goiz uztearen tasaren Espainiako eta autonomia erkidegoetako datuekin, sexuaren arabera.
9. Alderdi soziokulturalen “Ezaugarri orokorrak” atalean, 18 eta 64 urte bitarteko pertsonen ehunekoa gehitzea, ama-hizkuntza ohikoenen arabera.
10. Hezkuntza maileri buruzko azalpen berri bat sartzea eranskinean (ISNI-2011).
11. “Biztanleria helduaren ikasketa maila” atalean, EBn atzerriko nazionalitatea duten 25 eta 64 urte bitarteko biztanleen datuekin taula bat sartzea, ikasketa mailaren arabera.

- **3. kapitulua:**

1. EBko herrialdeek BPGaren ehunekoaren arabera hezkuntzan egiten duten gastu publikoaren grafiko bat sartzea. Datuak hezkuntza mailaren eta beste kontzeptu batzuen arabera banakatuta eramatea eranskinera.
2. Azken ikasturteko irakasleen maila guztietako datuak zabaltzea, sexuaren arabera bereizita.
3. Desgaitasuna duten langileei buruzko datuak sartzea hezkuntzako langileen atalean, sexuaren arabera bereizita, bai irakasleenak, bai administrazioko eta zerbitzuetako langileenak (araubide bereziko irakasleak, orientazioko langileak, aniztasunari erantzuteko berariazko irakasleak, helduen hezkuntzarako irakasleak, erlijioako irakasleak, administrazioko eta zerbitzuetako langileak). Guztizko partzial gisa ageriko dira.
4. Ikastetxe publikoetako irakasleei buruzko atalari taula bat eranstea, aniztasunari erantzuteko berariazko irakasleekin eta zeinu-hizkuntzako interpreteen kopuruarekin, sexuaren arabera sailkatuta.
5. Ikastetxe pribatu itunduei dagokienez, desgaitasuna duten langileen datuak sartzea, bai irakasleenak, bai administrazioko eta zerbitzuetako langileenak, sexuaren arabera bereizita.
6. Ikastetxe publikoetako administrazioko eta zerbitzuetako langileen datuak sexuaren arabera bereiztea.
7. Eranskin bat gehitzea “Ikastetxe pribatu itunduetako irakasleak. Irakasleen plantillaren bilakaera” atalean, datuak irakaskuntza mailen eta sexuaren arabera bereizita.
8. “Administrazioko eta zerbitzuetako langileak” izeneko epigrafea gehitzea, eta taula bat sartzea ikastetxeetako beste langile batzuen datuekin eta emakumeen ehunekoarekin, funtzioaren/kategoriaren arabera, unibertsitateaz kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzetan, ikastetxe pribatuetan.

- **4. kapitulua:**

1. Desgaitasun motaren eta sexuaren arabera ikasleak bereizteko taula eta grafikoa eranstea, laburtutako datuekin, eta eranskin batean Espainiako eta Nafarroako datuak, garatuta.

2. Absentismoa eta eskola goiz uztea sexuaren arabera bereizteko eskatzea, baita gaitasun handiko ikasleak ere.
3. Laguntza jaso duten kasuen kopuruari eta tipologiari buruzko informazio gehiago eskatzea Bizikidetzaren arloko Aholkularitzari.
4. Bizikidetzagatik artatutako kasuen artetik pertsonaren desgaitasunaren ondoriozkoak direnak bereizteko eskatzea.
5. Nafarroako Eskola Kontseiluan ordezkariak duten erakundeak diagrama batean sartzea.
6. Taula estandar bat aurkeztea "Gurasoen federazioak eta konfederazioak" atalean, jasotako informazioa homogeneizatzeko.
7. Zuzendaritza eginkizunak betetzeari buruzko informazioari Nafarroan dagozkion portzentajeak gehitzea, sexuaren arabera bereizita.

- **5. kapitulua:**

1. Lehenetsunez integratzeko zentroyen datua desgaitasun motaren arabera bereiztea eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak sartzea.
2. Hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleen guztizko batura adieraztea, sexuen arabera banatuta.
3. Lehen Hezkuntzan informazioa eskatzea, mailaz igotzen diren ikasleen portzentajea ezagutzeko, mailaren eta sexuaren arabera, hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleei dagokienez, ahal dela, talde honetako azpitaldeak bereiziz.
4. Taula aldatzea, DBHko ikasmailak eta titulazio adinak zehaztuz.
5. Bigarren Hezkuntzan informazioa eskatzea, jakiteko DBHko talde arruntetan hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleetatik zenbat igo diren mailaz.
6. Kanpoko ebaluazioen emaitza akademikoak eskatzea (Diagnostikoa, PISA, etab.), titulartasunaren eta hizkuntza ereduaren arabera bereizita eta Indize Sozioekonomiko eta Kulturalarekin lotuak.
7. Batxilergoko modalitate bakoitzeko grafiko bat aurkeztea, ikasleen bilakaera erakusteko, sexuaren arabera bereizita.
8. Batxilergoari buruzko informazioa eskatzea, jakiteko talde arruntetan hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleetatik zenbat igo diren mailaz.
9. Batxilergoko 2. maila amaitzen duten ikasleen portzentajea gehitzea, sexuaren, titulartasunaren eta modalitatearen arabera.
10. Hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleendako grafiko bat gehitzea, unibertsitatera sartzeko probei buruzkoa, ahal dela, talde honetako azpitaldeak bereiziz.
11. Batxilergoko ikasleek unibertsitatera sartzeko egindako probako irakasgai bakoitzeko informazioa sartzea.
12. Bai Batxilergoko bai unibertsitatera sartzeko probako batezbesteko akademikoari buruzko datuak eskatzea, eta datuak bereiztea Batxilergoan egin den ikastetxeen titulartasunaren eta hizkuntza ereduaren arabera.
13. Ez ikasi ez lanik egiten ez duten 15-29 urteko gazteen ehunekoa gehitzea, sexuaren, autonomia erkidegoaren eta prestakuntza mailaren arabera.
14. "Hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleak" atalean, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen taula berri bat sartzea, irakaskuntza mailaren eta desgaitasunaren arabera.
15. "Egokitasun tasa" atalean, eranskinean 10, 12, 14 eta 15 urteko gazteen egokitasun tasen datuak sartzea, autonomia erkidegoen eta sexuaren arabera.
16. Bigarren etapako Bigarren Hezkuntzako ikasketetan, graduazio tasan, honako hauek sartzea: adinaren araberrako banaketa, Erdi Mailako Heziketa Zikloko ikasleen sexua eta lanbide familiak, gauza bera Erdi Mailan modalitate dualean; gauza bera Goi Mailako Heziketa Zikloan, gauza bera Goi Mailako modalitate dualean.

Aipatzekoa da onetsitako berariazko gai batzuk ezin izan direla ebatzi hainbat arrazoiengatik.

3. kapituluari lehen proposamena 2. kapituluari dago. Gainerakoak ezin izan dira sartu, ez baitaude eskuragarri.
4. kapituluari dagozkionak denak sartu dira, bigarrena izan ezik, ezin baita egin.
5. kapituluari dagokionez, proposamen guztiak landu dira, 3., 8., 10. eta 11. proposamenak izan ezik, datuen babesarekin arazoak sortzen baitituzte.

• **Hizkuntza**

Aurreko edizioetan adostutako jarraibideekin bat, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- Txostenaren idazketak deskriptiboa izan behar du, salbu eta beharrezkoa bada idazketaren beraren ñabardurak ulertzeko eduki batzuk argitzea, interpretazio moduak erabiliz.
- Testu guztiek sexuaren arabeko hizkuntzaren erabilera ez-diskriminatzailea baliatu behar dute.
- Aldagaien deskribapen laburra egin behar da, ulermena hobetzeko egokitzat jotzen denean.
- Oso termino zehatzak erabiltzea egokia den baloratzen da; izan ere, zuzenak izan arren, baliteke oso egokiak ez izatea dokumentuaren irakurketa ez-profesionalaren ikuspuntutik.
- Aurkeztutako informazioaren jatorrizko iturriak aipatzen dira.
- Kontsultarako eta hizkuntza zuzentzeko orrialde erreferenteak hauek dira:
 - FUNDEU / Fundación del Español Urgente (<http://www.fundeu.es/>)
 - DPD / Dicc. Panhispánico de Dudas (<http://www.rae.es/recursos/diccionarios/dpd>)
 - Letra larriak/xeheak gaztelaniaz erabiltzea <http://lema.rae.es/dpd/srv/search?id=BapzSnotjD6n0vZiTp>
 - Letra larriak/xeheak euskaraz erabiltzea http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/dih/eu_5490/adjuntos/estilo_liburua/letra_larriak.pdf

• **Eskatutako informazioa**

Honako jarraibide hauek Nafarroako Eskola Kontseiluak hainbat instantziari eskatutako informazioa modu ordenatuan eta praktikoa lortzea dute helburu.

6.1. Orokorrak

- Eskatzen den informazioa 2021-2022 ikasturteari dagokio.
- Aurreko NHSTan eskaerarekin zerikusia duen testua baldin badago, erreferentzia gisa bidaltzen da. Informatzaile bakoitzak egokitzat jotzen duena zabaldu edo alda daiteke.
- Eskatutako informazioa helbide elektronikoko honetara igorri behar da: consejo.escolar@navarra.es
- Kontseiluko talde teknikoak 2021-2022 Txostena egiteko eta onesteko egutegia zorrotz betetzeak ezinbestean dakar kontseilu horretara informazioa bidaltzeko egutegi bat ezarri beharra, eta egutegi horrek 2022ko irailaren 2a du muga.

6.2. Grafikoei eta taulei buruzko informazioa igortzeko arauak

Informazioa bidaltzeko formatua ahalik eta garbiena izatea eskatzen da, taula edo grafikorik egin gabe. Jasotako testuarekin, Kontseiluak berak prestatuko ditu koadro eta grafiko guztiak, dokumentu osoari irakurketa eta diseinu bateratu bat emateko.

6.3 Datuen webgune osagarriak

Informazioa biltzeko erabiltzen diren webguneen artean, hauek azpimarratu behar dira:

Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioa

<http://www.educacionyfp.gob.es/servicios-al-ciudadano-mecd/estadisticas/educacion.html>

<http://www.mecd.gob.es/educacion-mecd/>

Estatuko Eskola Kontseilua

<http://www.mecd.gob.es/cee/portada.html>

Estatistikako Institutu Nazionala

<http://www.ine.es/>

Nafarroako Estatistika Institutua (NEI)

Eurostat

<http://ec.europa.eu/eurostat/data/database>

Nafarroako Parlamentua

<https://www.parlamentodenavarra.es/eu>

- **Prozesuaren kontrola**

NHSTa prestatzeko prozesurako kontrol taula bat ezarri da.

- **NHST txostenaren kronograma**

Aurreko urteetako kronograma berarekin jarraituko da.

- **Zuzenketa eredia**

Zuzenketa eredia eta igorpenetarako helbide elektronikoa finkatu dira: consejo.escolar@navarra.es

- **Hezkuntza arloko datuak**

Aurreko ikasturteetan komenigarritzat jo zen tresna digital bat sortzea, herritarrei Nafarroako unibertsitateaz kanpoko hezkuntza sistemaren informazio orokor eguneratua eskaintzeko. Tresna horrek informazio osagarria eskaintzen du, urte bakoitzeko NHSTan eskaintzen dena baino zabalagoa eta zehatzagoa.

2021/2022 eta 2022/2023 ikasturteetan proiektu hori landu da Kontseiluan, hauekin elkarlanean:

- Pablo Cebrián Jiménez (Nafarroako Estatistika Institutua)
- Hezkuntza Departamentua; bereziki, Juan Ardaiz, Hezkuntzako Teknologien eta Informazio Sistemen Zerbitzuko zuzendaria.

Aplikazio berria definitzeko hasierako prozesuaren eta NHSTko ebaluazio bileretan egindako kontrastearen ondoren, proposamena definitua geratu da hasierako fase honetan, ezaugarri hauekin:

- Aplikazioa publikoa da eta Eskola Kontseiluaren atariko hasierako orritik sartzen ahalko da.
- Nafarroako unibertsitateaz kanpoko hezkuntza sistemaren alderdiei buruzko informazio orokorra ematea du xede. Horregatik, NHSTaren osagarri eta independentea da.
- Lehen aurkezpen horretarako faktoreak hauek dira: ikastetxearen titulartasuna, jabetza, eskaintako irakaskuntzaren araberrako ikastetxe mota, irakaskuntza mota, irakaskuntza maila, informazio osagarria (jantokia, garraioa, alde zuzeneko irekiera, harremanetarako helbidea, ikastetxearen atari digitala...), hizkuntza eredu eta Nafarroako mapatik sarbidea duten herriak eta erabilgaitako terminoen glosarioa.
- Faktoreak hainbat pantailatan multzokatuta agertzen dira, eta bilaketa konplexuak erraz egiteko aukera ematen dute.
- Une honetan eskaintzen diren datuak eskura eta erabilgarri dauden azkenak dira. Irakurketa historikoak eta konparatiboak ahalbidetzeko behar diren datuak sartu dira.
- Tresnaren malgutasunari esker, etorkizunean edukiak zabalduko dira orain sartu ez diren beste gai batzuetara.
- NHSTan bezala, etengabe ebaluatu eta hobetu beharko da, adibidez, urtero eginkizun hori betetzen duen batzordearen beraren bidez.

• **Iturriak**

Txostena egiteko, datuak biltzen eta tratatzen ahalegin handia egin behar izaten da, eta eginkizun horretan behar-beharrezkoa izan da Hezkuntza Departamentuaren lankidetzak, haren zuzendaritza nagusi, zerbitzu, atal eta bulegoena, hain zuzen ere. Eskerrak eman behar dizkiegu, baita ere, Nafarroako Parlamentuari, Arartekoari, Nafarroako Estadistika Institutuari, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari, Euskarabideari, Ingurumen Departamentuari, Osasun Departamentuari, Nafarroako Enplegu Zerbitzuari, Nafarroako Berdintasunerako Institutuari, NUPi, guraso elkarteei, sindikatuari eta Corellako Arte Eskolari.

Aurkeztutako informazio guztia biltzeko, lehen aipatutako erakundeei zuzenean kontsulta egiteaz gainera, honako iturri hauek erabili dira bereziki:

- Ekonomia eta Gizarte Kontseilua
<http://www.ces.es/memorias>
- Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentua
http://www.navarra.es/home_es/Temas/Medio+Ambiente/Actua/Educacion+Ambiental.htm
- Hezkuntza Departamentua
<https://www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/inicio>
- Eurostat
<https://ec.europa.eu/eurostat>
- Eurydice
https://eacea.ec.europa.eu/national-policies/eurydice/home_es
- Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua
http://www.navarra.es/home_es/Gobierno+de+Navarra/Organigrama/Los+departamentos/Salud/Organigrama/Estructura+Organica/Instituto+Navarro+de+Salud+Publica/Publicaciones/Planes+estrategicos/Promocion+de+la+Salud/?NRMODE=Published
- Estadistikako Institutu Nazionala
<https://www.ine.es/>
- Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa
<https://www.mecd.gob.es/educacion-mecd/>

- Datuak eta zifrak
<http://www.mecd.gob.es/educacion/mc/redie-eurydice/datos-cifras-europeos.html>
- Redie
<https://www.mecd.gob.es/educacion/mc/redie-eurydice/sistemas-educativos/contexto.html>
- Estatistikak
<https://www.mecd.gob.es/servicios-al-ciudadano-mecd/estadisticas/educacion.html>
- Hezkuntza sistemaren egoerari buruzko 2020ko txostena
<http://ntic.educacion.es/cee/i2020cee/>
- Nastat
https://www.navarra.es/home_es/Gobierno+de+Navarra/Organigrama/Los+departamentos/Economia+y+Hacienda/Organigrama/Estructura+Organica/Instituto+Estadistica/
- Nafarroako Parlamentua
<http://www.parlamentodenavarra.es/eu>

• **Kontuan hartzeak**

Hezkuntza oinarrizko eskubidea da, eta, aldi berean, zeregin kolektibo bat, parte-hartzea eta prozedura argi eta partekatuak eskatzen dituena. Beharrezkoa da akordioak eta adostasunak lortzea hezkuntza sistemaren egonkortasun egokia bermatzeko, eskumen arloko lidergoari uko egin gabe. Era berean, gaur egungo krisi ekonomiko eta pandemikoak agerian utzi du hezkuntzarako eskubidearen hauskortasuna.

Hezkuntzak legeen eta arauen egonkortasuna behar du, baina baita helburuak eta baliabideak ere. Baina hori soilik da posible akordio sozial eta politiko handietan oinarritzen bada. Hori horrela, Nafarroako Eskola Kontseiluak ikusi zuen premiazkoa zela HEZKUNTZAREN ALDEKO ITUN SOZIAL ETA POLITIKO handi bat egitea NAFARROAN, hezkuntza arloko eskumenak garatzeko, FORUEN HOBEKUNTZAREKIN bat etorritz.

Kasu honetan, berriaz aipatuko dugu ITUN SOZIALA, Nafarroako Eskola Kontseiluaren erantzukizun esparru gisa. Itun sozial hori Nafarroako Eskola Kontseiluaren barruan egin zen, 2022ko urtarriletik 2022ko ekainera artean, kideen lan saioetako adostasunaren bidez. Lerraturik dago 2030 Agendako Garapen Jasangarrirako Helburuekin, bat baitator pertsona guztiendako etorkizun jasangarriago, berdinzaleago, inklusiboago eta bidezkoago bat eraikitzeke helburuarekin. Era berean, itunak helburu hori lortzen laguntzen du adostasunaren eta gizarte kohesioaren bidez, eta Nafarroako hezkuntza sistematik aukera berdintasuna bermatuz. Zehazki, Hezkuntzaren aldeko Itun Soziala honako helburu hauek lortzeko elikatu eta sustatzen da:

1. GJHa: Mundu osoan pobrezia mota guztiak ezabatzea.
3. GJHa: Bizitza osasuntsua eta ongizatea bermatzea adin guztietan.
4. GJHa: Hezkuntza inklusiboa, ekitatiboa eta kalitatezkoa bermatzea, eta bizi osoan ikasteko aukerak sustatzea denentzat.
5. GJHa: Generoen arteko berdintasuna lortzea eta emakume eta neskato guztiak ahalduntzea.
8. GJHa: Hazkunde ekonomiko inklusiboa eta jasangarria, enplegua eta guztiontzako lan duina sustatzea.
10. GJHa: Herrialdeetan eta herrialdeen artean desberdintasunak murriztea.
11. GJHa: Hiriak inklusiboagoak, seguruagoak, erresilienteagoak eta jasangarriagoak izan daitezen lortzea.

16. GJHa: Gizarte bidezko, baketsu eta inklusiboak sustatzea.

17. GJHa: Helburuak lortzeko aliantzak.

NAFARROAKO HEZKUNTZAREN ALDEKO ITUN SOZIALAREN (Hezkuntza Ituna) helburu nagusia da bermatzea hezkuntzarako eskubidea, Konstituzioan eta foru araubidean jasoa, ekitatearen, kalitatearen eta erantzunkidetasunaren printzipioei jarraikiz, hezkuntzako eragilean parte-hartzearekin. Horrela, Nafarroa uneoro erkidego kohesionatua izanen da gizarteari zein lurraldeari dagokienez, eta, era berean, estatu eta nazioarte mailako erreferente izanen da hezkuntza berrikuntzari eta zerbitzu publikoaren ereduari dagokienez. Horretarako, beharrezkoa da Nafarroak bere hezkuntza sistema egonkorra izatea, Nafarroako gizarte, kultura, lurralde eta ekonomia ezaugarrien arabera. Gainera, egoera ekonomikoak eta Estatuko eta Foru Komunitateko gobernuen aurrekontu izaerako erabakiek haren garapenean eraginik ez izatea bultzatu beharko da. Nazioarteko azterketa guztiek erakusten digute korrelazioa dagoela ezagutzan egindako inbertsioaren eta herrialdeen garapen sozial eta ekonomikoaren artean; horregatik da hain garrantzitsua Nafarroako gizartearentzat. Kalitatezko hezkuntzarekin bakarrik jo dezakegu ezagutzaren eta berrikuntzaren gizartera, gizarte orekatu eta bidezko bat lortzeko oinarritzko baliabide baitira, etorkizuneko proiektu guztiek une honetan planteatzen duten bezala.

Deskribatutako printzipioekin lotuta, batez ere ikasleengan, familiengan eta irakasleengan baitute protagonismoa, hezkuntza sistemaren helburua da ikasleen nortasuna eta gaitasunak erabat garatzea, arrakasta akademiko, sozial eta pertsonala lortuta, herritar arduratsu, kritiko eta demokratiko gisa gizarteratu daitezen. Garapen hori oinarritu behar da oinarritzko eskubide eta askatasunekiko errespetuan, emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasunean, tratu berdintasunean, tolerantzian eta mota guztietako diskriminazioen arbuioan, eta emozioetan heztean, printzipio demokratikoen arabera: bizikidetzatza, askatasuna, elkartasuna, bakea eta indarkeriarik eza, lankidetzatza eta ingurumenarekiko errespetua.

Hezkuntza sistemak sustatu behar ditu hezkuntza erkidegoaren erantzukizun indibiduala eta soziala, meritu eta ahalegin pertsonala eta kolektiboa. Eta kontuan hartu behar du sistemaren beraren ebaluazioa. Funtsezkoa da ikasle bakoitzaren indibidualtasuna errespetatzea, nortasuna osorik garatzea, ikasteko autonomia, erantzukizuna, ekimena, sormena eta espiritu ekintzailea izatea. Hori guztia beren eskubideez baliatzen direlarik eta beren betebeharrak betetzea eskatzen zaielarik. Hezkuntza sistemak ahalik eta gehien sustatu behar ditu ohitura intelektualak eta lan teknikak, ezagutza zientifikoak, teknikoak, humanistikoak, historikoak eta artistikoak, bai eta ohitura fisiko eta kirol ohitura osasungarriak garatzea eta komunikatzeko gaitasuna izatea hizkuntza ofizialean, zonifikazioaren arabera, eta atzerriko bi hizkuntza edo gehiagotan. Horretarako, garrantzitsua da hezkuntza politikak honako hauetan sakontzea:

- A. Hezkuntzak duen zerbitzu publikoaren izaeran.
- B. Nafarroako hezkuntzaren etengabeko hobekuntza.
- C. Landa-eskola kohesiorako eta lurraldea egituratzeko elementutzat hartzea. Baliabideak esleitzean landa-eskolak babestea eta lehenestea.
- D. Ikastetxeen autonomia.
- E. Lidergo ikastetxeetako gako gisa.
- F. Hezkuntza komunitatearen parte-hartzea.
- G. Administrazioen erantzunkidetasuna.
- H. Irakasleak aintzatestea, prestakuntzaren eta karrera profesionalaren garapenaren bidez.
- I. Ikasleen inklusioa, ekitatearen bermea eta aniztasunari erantzutea.
- J. 0 eta 18 urte bitarteko ikaspostu aski izatea.
- K. Hezkuntza, bizitza osoan zehar.

- L. Ikasleen lanbide prestakuntza eta kualifikazioa, eta lan munduan sartzea.
- M. Nafarroako errealitate historiko, kultural eta soziala babestea, errealitate horren parte diren berezko hizkuntzak barne.
- N. Euskararen hezkuntza programazio publikoa bultzatzea, beharrezkoa eta ezinbestekoa baita, hizkuntza propioa den aldetik, borondatean eta bizikidetzan oinarrituta. Euskararen hezkuntza eskaintza pixkanaka eta progresiboki garatzea, legean aurreikusitakoaren arabera.

Itunarekin lortu nahi da, halaber, hezkuntza politika eta Nafarroako gobernuek hartzen dituzten erabakiak epe luzeko agenda batean kokatzea, ez bakarrik legegintzaldi baten esparruan, eta Foru Komunitatearen aurrekontuetan islatzea. Horren ondorioz, gobernuek hartzen duten edozein erabaki, Itunaren edukari eragiten ahal diona, haren arabera berrikusi beharko da.

Covidaren pandemiak ekarri dituen zauriak askotarikoak eta konplexuak dira, eta oraindik denbora beharko dugu haien benetako neurriari antzemateko. Baina, gaur egun, argi eta garbi esan genezake munduan desberdintasuna handiagoa dela osasun krisiaren aurretik baino, edo bai, behintzat, herrialdeen eta pertsonen etorkizunerako hain garrantzitsua den hezkuntzari dagokionez. Aurrekoaren ondorioz, lehentasuna eman behar zaio hezkuntzari, galdutako ikaskuntza berreskuratuko duten politika eraginkorren bidez. Etorkizuneko irakaskuntza jokoan dago, bai eta hainbat hamarkadako onura ekonomiko eta sozialak ere. Neurri indartsuak beharko dira egungo ikasle belaunaldiak aurreko eta etorkizuneko belaunaldiek bezain hezkuntza ona jasoko duela bermatzeko. Arriskuan daude etorkizuneko ikaskuntza ibilbideak. Ikasleek urtetik urtera gero eta gutxiago ikasteko arriskua dute, pandemiaren aurreko taldeekin alderatuta.

Ikasturte honi eutsi dioten zutabe positiboak nabarmendu nahi nituzke. Izan ere, **hezkuntzarako baliabide gehiago egon da eta kudeaketa nabarmen hobetu da. Hezkuntza Departamentuaren ahaleginak bideratu dira ikasle zaurgarrienei lehentasunezko arreta ematera, Lanbide Heziketa bultzatzera**, eta gure ikastetxe publikoen **azpiegiturak** sortu, modernizatu eta egokitzera.

Bereziki nabarmendu behar da ratioen jaitziera, hezkuntza premiak dituzten ikasleen pilaketaren ondorioz indize negatiboa duten ikastetxeetarako, ohikoa baino ratio txikiagoa izanen baitute (22, 2022-2023 ikasturtean, eta 20, 2023-2024 ikasturtean); eta **onarpen irizpide berriak**, errazten dutenak hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleak modu orekatuagoan banatzea funts publikoekin lagundutako ikastetxe guztien artean. Azken hori berrestera dator gure hezkuntzari buruz Ekonomiako Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundeak (ELGA) egin duen azken txostena, adierazten baitu bermatu behar dela onarpen irizpideek segregaziorako biderik ez ematea eta, gainera, neurri osagarriak aplikatu behar direla ikasle zaurgarriak pilotzen diren eremu edo ikastetxeetan. Beste adierazle garrantzitsu bat da **eskola uztearen tasa eta eskola porrota % 5,7ra jaitsi dela**. Izan ere, Nafarroa eskola uzte gutxien dituen Espainiako bigarren erkidegoa da, eta Europako batezbestekoaren azpitik dago nabarmen.

Nafarroako historian lehen aldiz, **hezkuntzara bideratutako aurrekontua BPGaren % 5era hurbildu da**: % 4,26 da orain (2018an % 3,42 zen). Hezkuntza Departamentuak bere hezkuntza planak babestu ditu, aurrekontuak nabarmen igota (% 34,70); horrek esan nahi du hezkuntza aurrekontua gehien handitu duen autonomia erkidegoa garela, Espainiako % 18,9ko batezbestekoaren gainetik.

Halaber, oso garrantzitsua da **ikastetxeak modernizatzea**. Izugarritzko ahalegina egin da ikasgelak digitalizatzen, ingurune behartsuetako ikasleendako baliabide informatikoak ezartzen eta irakasleen prestakuntza hobetzen.

Hezkuntzaren funtzionamenduaren zati garrantzitsu bat **zerbitzu osagarriek (eskola garraioa eta jantoki zerbitzua)** osatzen dute. Ikasleek eskola garraiorako duten eskubidea zabaldu da, eta Nafarroa da erkidego bakarra edozein hizkuntza eredutako Batxilergoko ikasle guztiak eta erdi mailako LHko zikloetako ikasleak eskubide osoko ikasle onuradun gisa hartzen dituen. Orain jantoki zerbitzuak hobetzeari ekin behar zaio.

Balantze honetan aipamen berezia egin behar zaio **Lanbide Heziketari (LH)**. Sare publikoko langileak eta baliabide logistikoak gehitu dira, sarbideak dibertsifikatu dira eta curriculum a eguneratu da. Nafarroako LHko hiru ikastetxe sartu dira Lanbide Heziketako Bikaintasun Ikastetxeen Estatuko sarean; horrek agerian uzten du Nafarroako LHk Espainian duen lekua.

Landa-eskolen sarea indartu da, despopulazioaren aurka borrokatzeko lehentasunezko irizpidetzat jotzen baita, eta prestakuntza eskaintza izugarri hazi da. Dirulaguntza eta langile gehiagorekin, eta jantoki jasangarri eta osasungarri berriekin.

Gure gizartean jaiotza tasaren beherakada itzelaren ondorioz ikasle kopurua beherantz doan une honetan, beharrezkoa da sistemaren kalitate adierazle bat aipatzea: **irakasleak**. Datuen arabera, 2022an, eskola publikoan 9.747 irakasle zeuden. Horrek esan nahi du hasieran baino 1.389 irakasle gehiago zeudela; eta kopuru hori Nafarroako hezkuntzaren historiako zifrarik altuena da. **Nafarroa da irakasle/ikasle ratorik hoberena duen autonomia erkidegoa, irakasle bat baitu bederatzi ikasleko**. Horrek abantaila handia ematen dio, eta horretan oinarrituta ezarri beharko lirake irakaskuntza eredu berriak.

Berri ona da, orobat, **Haur Hezkuntzako lehen zikloa doakoa** izatea familia gurasobakar guztiendako eta 27.900 eurotik beherako errentak dituztenendako.

Bestalde, kezka eragiten didate bai emaitzen arloak bai ikastetxe publikoen autonomia eta lidergoaren arloak. Azken Pisa ebaluazioak (2018) agerian utzi zuen emaitzek behera egin dutela oro har, eta hori kontuan hartu behar da, egoera zuzendu eta hobetu nahi bada. Lidergoari dagokionez, kezkagarria da hautagaitza falta, baina baita ere dauden horien autonomia eskasa eta haiekiko exijentzia baxua. Autonomia, kontuak emanez, eta balorazio horrek eragina izan dezala eremu guztietan.

Etorkizunerako adierazi diren indarguneak sustatzea zentzuzkoa da oso, baina bada zer hobetu eta hobetu behar da. **Eta zer beste erronka ditugu? Lidergoa eta autonomia sendotzea eta indartzea** funtsezkoa da hezkuntzan aurrera egiteko, eta horregatik inbertitu behar dugu ikastetxeetako zuzendarien gaitasunen garapenean eta profesionalizazioan. Ebaluazioaren kulturarik ez izateak balazta jarri die aurrerapenei, bai “emaitza onak ematen dituen hori” bilatzeari dagokionez eta baita neurri zuzentzaile egokiak hartzeari eta elkarrizketa normatiboa oinarritzeari dagokienez ere.

Eskolaldia hobetzea, ikasleak ardatz harturik, haien biorritmoa kontuan hartuko duten ordutegiak, eta diziplinarteko talde batekin, osasun alderdiak kontuan hartuko dituen, arratsaldeko ordutegian adin guztietako adingabeen arreta bermatuko duena eta jantokia hezkuntzarako espazio gisa hartuko duena. Esparru horretan, ELGaren txostena argia da: Espainiari gomendatzen dio, **eskola-uzte goiztiarra** murrizteko neurri gisa, eskolaldi zatitua edo osoa ezartzea, ikastetxeak arratsaldez ordu gehiagoz irekita izanda. Hezkuntza emozionalari garrantzi handiagoa ematea: hezkuntzaren xede nagusia da pertsona bakoitzak ongizate sozial eta emozional hoberena lortzea.

Gaitasun digitalen gelan egin beharreko lanari dagokionez, gaur egungo eta etorkizuneko errealiterako beharrezkoa dela baitirudi, **logika horren alternatiba** –agian osasuntsuena nire ikuspuntutik– **izanen litzateke ikasleak heztea eta helduak (gurasoak eta irakasleak) trebatzea, gailuak eta edukiak eskuratzeari eta behar bezala erabiltzeari dagokienez**. Arrazoizkoa dirudi, zalantzarik gabe, geure buruari galdetzea gutxienez zenbat urte izan beharko lituzketen hurrek, edukiak mugarik gabe eta murrizketarik gabe eskuratu ahal izateko (web irekiak, sare sozialak...) konektatutako gailuen bidez (ordenagailua, tableta edo mugikorra). Oro har garena baino zorrotzagoak izan behar dugu, ikusita –gero eta indar gehiago duen ebidentzia zientifiko batek frogatzen duen bezala– eskuragarritasun hori ez dela onuragarria haurrentzat. Bostoneko Haurren Ospitaleko Komunikabideen eta Haurren Osasunaren Zentroko zuzendari Michael Richek dioen bezala “Teknologiarekin eboluzionatzeko bezain malguak izan behar dugu, baina aukeratu behar dugu hura nola ongi erabili. Sua aurkikuntza handia izan zen gure elikagaiak prestatzeko, baina ikasi behar izan genuen baita ere zauritu eta hil egin gintzakeela. Benetan axola duena ez da zenbat denbora egoten garen pantailen aurrean, baizik eta nola erabiltzen ditugun eta zer gertatzen den gure burmuinetan erantzun gisa”.

Irakaslearen rol berri batean eta bere prestakuntzan lan egin behar da: edukien transmisioetik hasita ikasleei orientazioa eta laguntza emateraino; baldintzak sortu behar dira irakasleak berak,

aktiboki eta esperimentazioaren bidez, ezagutzak eskura ditzan. Beharrezkoa da **onarpen irizpideak eta hautapen prozesuak berrikustea**, irakaskuntzaren izaera konplexua hobeki islatuko duten **gaitasun sozioemozionalak** ere txertatzeko. Kalitate handiko etengabeko garapen profesionala sustatu beharko da, irakasle guztiak –eta bereziki tutoreak– gai izan daitezen ikasgelako aniztasuna kudeatzeko eta ikasle bakoitzaren premiei erantzuteko.


Beharrezkoa da hezkuntza bere zentzu zabalean ulertzea, eskolatze hutsetik haratago, eta horretarako funtsezkoa da **familien, eskolaren eta komunitatearen arteko lankidetz**a: hezkuntza ez da hezkuntza erakundeetara murrizten; aitzitik, gizarteko edozein tokitan ikas daiteke.

Laburbilduz, XXI. mendeko hezkuntzarekin bat egiteko, abangoardiako ikasketa plan berritzaileak behar ditugu; irakasleak pentsarazi egin behar du, ikaslea hunkitu eta emozionatu egin behar du, mugiarazi eta zirikatu, behatzeko nahia sorrarazi, ikas dezatela, ezagutzen jabe egin daitezela, berritzaileak izan daitezela eta komunitatean eragin positiboa duten pertsonak izan daitezela. Hori guztia teknologiaren motorrak lagunduta eta erraztuta.

Honela zioen Nelson Mandelak 2003an: *“Hezkuntza da mundua aldatzeko erabil dezakezun armarik indartsuena”*. Egia borobila; horrexegatik baita borroka politikoaren eztabaidagai nagusia, baina agintaldi bakoitzeko legediaren arabera alde batetik bestera zabuka ibiltzeko. Agian, gutxieneko hezkuntza itun batek lagunduko digu hezkuntza egonkortzen, eta baita hartan inbertitzen ere. Hezkuntzan inbertitzea garestia bada, proba dezagun inbertitu gabe...

Bukatzeko, eskerrak eman behar dizkiegu, halaber, lan honen garrantziaz jabetzen diren eta berau egiten laguntzen duten pertsona eta erakunde guztiei, eta, bereziki, Nafarroako Eskola Kontseiluaren Osoko Bilkurako kideei.

Espero dugu txosten hau baliagarria izatea gure hezkuntzaren errealitatea hobeki ezagutu nahi duten hezkuntzako eta beste esparru batzuetako profesionalentzat, familientzat eta erakundeentzat eta, berebat, ezagutza hori baliagarria izatea hezkuntza hobetzeko ideiak eta ekimenak sustatzeko, partaidetza eta konpromisoa oinarri dituen testuinguru batean.



Manuel Martín Iglesias

2.- HEZKUNTZAREN TESTUINGURUA

Kapitulu honetan, hezkuntzaren testuinguruaren ikuspegi orokorra izateko parametroak aurkeztuko ditugu, hainbat mailatakoak. Testuinguruaren aldagaiak baldintzatu egin dezakete hezkuntzak pertsonengan duen inpaktua, hezkuntzaren azpiegiturei eta politikei eragin, eta zerikusia izan hezkuntzaren emaitzetan. Gogoeta hori egiteko, gainera, gero eta garrantzi handiagoa daukaten beste hainbat faktore ere hartu behar dira kontuan, hala nola migrazioak, populazioen joan-etorriak eta ezagutza berriak etengabe garatu eta aplikatzea, edota faktore ekonomikoak (esaterako, merkatuen globalizazioa edo lan baldintzen prekarietatea). Begien bistakoa da, bestalde, esparru europarrean garrantzi handia dutela Europar Batasuneko kide diren herrialdeek hartzen dituzten erabakiek.

Nazioarteko eta Estatuko hezkuntza arautzen duten hainbat araudi aurkezten dira kapituluaren hasieran.

2.1. Araudiaren gaineko alderdiak

2.1.1. Europa

Nazio Batuen Erakundea (NBE)

Nazio Batuak 193 herrialdek osatzen dituzte, eta herrialde horietako bat Espainia da. Hainbat neurri adosten dituzte bakeari, segurtasunari, klima aldaketari, giza eskubideei, garapen jasangarriari, desarmeari, terrorismoari, larrialdi humanitarioei eta osasun larrialdiei, genero berdintasunari, gobernantzari eta elikagaien ekoizpenari buruz.

Genevako Adierazpenaren bidez, haurrentzako berariazko eskubideak onartu ziren. Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalarekin, pertsona guztien berdintasuna ezarri zen eskubide eta betebeharrakiko; besteak beste, hezkuntzarako eskubide unibertsala. Haurren Eskubideen Adierazpenarekin, pertsonen, erakundeari eta gobernuei eskatzen zaie eskubide horiek aitortu ditzatela eta horiek betetzeko neurriak hartu ditzatela; neurri horietako bat doako eta derrigorrezko hezkuntza da, oinarritzko etapetan gutxienez.

Ondoren, hainbat adierazpen, hitzarmen, Guztiontzako Hezkuntzari buruzko Munduko Adierazpena eta Garapen Jasangarriko 2030 Agenda etorri dira.

Agenda 2030 egitasmoa helburuka antolatzen da; 4. helburua hezkuntzari buruzkoa da, Europako Kontseiluak zehazten du eta bi puntu giltzarritan laburbiltzen da: hezkuntza inklusiboa, bidezkoa eta kalitatezkoa bermatzea eta bizitza osoan ikasteko aukerak sustatzea guztiontzat. Horretarako, zenbait helmuga ezarri dira:

4.1 helmuga. Hemendik 2030era, haur guztiek lehen eta bigarren hezkuntza bukatzen dituztela ziurtatzea; doakoa, ekitatiboa eta kalitatezkoa izan behar du, eta ikaskuntza emaitza egokiak eta eraginkorrak ekarri behar ditu.

4.2 helmuga. Hemendik 2030era haur guztiek lehen haurtzaroen eta aurre eskolako hezkuntzan arretarako eta garapenerako kalitatezko zerbitzuak eskuratzen ahal dituztela ziurtatzea, lehen hezkuntzarako prest egon daitezen.

4.3 helmuga. Hemendik 2030era gizon eta emakume guztiek kalitatezko prestakuntza tekniko, profesional eta goi mailakoa eskuratzeko berdintasunezko sarbidea dutela ziurtatzea, unibertsitateko irakaskuntza barne.

4.4 helmuga. Hemendik 2030era nabarmen areagotzea enplegua eta lan duina eskuratzeko eta ekintzailetzarako beharrezko gaitasunak, batez ere teknikoak eta lanbidekoak, dituzten gazte eta helduen kopurua.

4.5 helmuga. Hemendik 2030era genero desberdintasunak ezabatzea hezkuntzan, eta berdintasunean oinarritzen den sarbidea ematea irakaskuntzako maila guztietan eta lanbide prestakuntzan pertsona ahulenei, desgaitasunen bat duten pertsonen, herri indigenei eta ahultasun goeran dauden haurrei barne.

4.6 helmuga. Hemendik 2030era, ziurtatzea gazte guztiak eta helduen proportzio handi bat, bai gizonak bai emakumeak, alfabetatuta daudela eta aritmetikako oinarrizko ezagutzak dituztela.


4.7 helmuga. Hemendik 2030era, ziurtatzea ikasle guztiek garapen jasagarria sustatzeko behar diren ezagutza teoriko eta praktikoak eskuratu dituztela. Horretarako, haurren eta desgaitasunen bat duten pertsonen beharrak eta genero desberdintasunak kontuan hartzen dituzten eta ikaskuntzarako ingurune seguruak, indarkeriarik gabeak, inklusiboak eta guztientzako eraginkorrak eskaintzen dituzten hezkuntzako instalazioak egokituko dira. Garapen bidean dauden herrialdeentzako beken kopurua handituko da, goi mailako irakaskuntza eta lanbide-heziketako programak, programa teknikoak, ingeniarietako programa zientifikoak eta informazioaren eta komunikazioen teknologia arlokoak bermatzeko. Irakasle gaituen eskaintza handituko da, baita nazioarteko lankidetzaren bidez ere.

Gaur egun, NBEk COVID-19ak eragindako pandemiak helburu horien garapenean izan dituen ondorio suntsitzaileak azpimarratzen ditu.

Espanian, helburu horien jarraipenerako hainbat erreferentzia puntu ezarri dira, eta haiei lotutako adierazleak:

- haur guztiek lehen eta bigarren hezkuntza bukatzen dituztela ziurtatzea; doakoa, ekitatiboa eta kalitatezkoa izan behar du, eta ikaskuntza emaitza egokiak eta eraginkorrak ekarri behar ditu.

1. grafikoa: ET 2030 adierazleak. 4.1 helmuga. Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa amaitzen duten 18-20 urte arteko biztanleen ehunekoaren bilakaera – ISNI 2, sexuaren arabera. Espainia




Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Garapen Jasangarrirako 2030 Agendako adierazleak

1.
erans
kina

- neska-mutikoen % 95 gutxienez integratzea eskolaurreko hezkuntzan.

2. grafikoa: ET 2030 adierazleak. 4.2 helmuga. Haur Hezkuntzan matrikulatutako 4 urteko umeen portzentajearen bilakaera. Europa-Espainia




Iturria: Eurostat

2.
erans
kina


- gizon eta emakume guztiek kalitatezko prestakuntza tekniko, profesional eta goi mailakoa eskuratzeko aukera berak dituztela ziurtatzea.

3. grafikoa: ET 2030 adierazleak. 4.3 helmuga. Azken hilean ikasketak edo gaitzeko prestakuntza egiten ari diren 15-24 urte bitarteko herritarren portzentajearen bilakaera, sexuaren arabera bereizita. Espainia



Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Garapen Jasangarrirako 2030 Agendako adierazleak


4. grafikoa: ET 2030 adierazleak. 4.3 helmuga. Azken hilean ikasketak edo gaitzeko prestakuntza egiten ari diren 15-24 urte bitarteko herritarren portzentajearen bilakaera. Espainia eta Nafarroa



Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Garapen Jasangarrirako 2030 Agendako adierazleak

- enplegua eta lan duina eskuratzeko eta ekintzailtzarako beharrezko gaitasunak, batez ere teknikoak eta lanbidekoak, dituzten gazteen eta helduen kopurua gehitzea.

5. grafikoa: ET 2030 adierazleak. 4.4 helmuga. Azken 12 hilabeteetan informatikaren arloko ezagutzen inguruko lanak egin dituzten 15-24 urte bitarteko herritarren portzentajea, autonomia erkidegoaren eta lan motaren arabera berezita. 2021



Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Garapen Jasangarrirako 2030 Agendako adierazleak

4. erans kina

- genero desberdintasunak ezabatzea hezkuntzan, eta berdintasunean oinarritzen den sarbidea ematea irakaskuntzako maila guztietan eta lanbide prestakuntzan pertsona ahulenei, desgaitasunen bat duten pertsoneri, herri indigenei eta ahultasun egoeran dauden haurrei ere.

6. grafikoa: ET 2030 adierazleak. 4.5 helmuga. Azken lau asteetan prestakuntza akademikoa edo gaitzeko prestakuntza egiten ari diren 15-64 urte bitarteko herritarren parekidetasun indizea (landa eremuak eta hiri eremuak, emakumeak eta gizonak), autonomia erkidegoen arabera berezita. 2021



Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Garapen Jasangarrirako 2030 Agendako adierazleak

Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea (UNESCO)

Gizateriaren elkartasun moral eta intelektualean oinarrituta, nazioen bakea bultzatzeko sortu zen. Nazioen eta gizarteen arteko loturak indartzen ditu, pertsona guztiek kalitatezko hezkuntza izateko aukera izan dezaten –oinarrizko giza eskubide bat eta giza garapenerako aurrebaldintza bat delako–, kultura arteko ulermena lortzeko –ondarea eta kultura aniztasuna babestuz–, aurrerapena eta lankidetzaren zientifikoa sustatzeko eta adierazpen askatasuna babesteko.

Munduko Bankua

189 herrialde kidek osatzen dute. Pobrezia murrizteko eta garapen-bidean dauden herrialdeetan oparotasun partekatua sortzeko irtenbide jasangarriak bilatzen aritzen diren bost erakundek osatutako mundu elkarte bat da.

Garapen-bidean dagoen munduko hezkuntza finantzatzeko erakunde nagusia da, eta konpromisoa hartu du herrialdeei laguntzeko Garapen Jasangarriko 4. Helburua lortzen, zeinak kalitatezko hezkuntza bermatzea eta ikasteko aukerak sustatzea baitu helburu, kontuan hartuta pandemiak gaur duen eragina eta hezkuntza politiken arloan eman behar diren erantzunak.

Europar Batasuna

Hogeita zazpi estatu kidek osatzen duten elkarte ekonomiko eta politikoa da. Beren gobernuen zenbait alderdi partekatzen dituzte, erabakiak hartzeko botere batzuk erakunde komunetan eskuordetuz, eta erabaki demokratikoak hartzen dituzte baterako intereseko gai jakin batzuei buruz. Taldearen jarduerak herrialdeek beren borondatez eta demokratikoki adostutako itunetan zehazten dira, eta itun horiek, era berean, parlamentuek berresten dituzte edo erreferendum bidez berresten dira.

Erabakiak hartzeko prozesuan hainbat erakundek hartzen dute parte, bereziki Europako Parlamentuak. Berariazko gaiak aztertzeko batzordeak osatzen ditu; besteak beste, Kultura eta Hezkuntza Batzordea. Hezkuntza eta Prestakuntzako monitoreak argitaratzen du urtero, baita estrategiak, ekintza planak eta programa espezifikoak ere.

Oso garrantzitsutzat jotzen du hezkuntza eta prestakuntza etengabe bultzatzea; izan ere, kalitatezko hezkuntza eta prestakuntza eskuratzeko aukera da hazkunde ekonomikoaren, gizarte kohesioaren, ikerketaren eta berrikuntzaren eragilea, eta, gainera, herritarren garapen pertsonalerako aukerak izugarri handitzen ditu. Hezkuntza eta prestakuntza sistemak estatu bakoitzaren ardura diren arren, Europako Batzordeak estatu kideei laguntzen die politikan lankidetzan arituz (Europako Hezkuntza Esparruaren esparru estrategiko berriaren bidez) eta finantziario tresnen bidez.

2019-2024rako Agenda Estrategiko berria izatera orokorreko esparru eta zuzendaritza bat eskaintzen da, eta haren helburua da hurrengo urteetan erakundeen lana gidatzea. Lau lehentasun nagusi ditu, eta azpimarratzen du estatu kideek pertsonen trebakuntzan eta hezkuntzan inbertsio handiagoa egin behar dutela.

Europako Hezkuntza Esparrua sortzeari esker, adostutako neurrien ondoren, lau urtetik beherako haurren eskolatzeari gehitu egin da, goi mailako hezkuntza duten helduak % 40ra iritsi dira, gazteen % 90ek goi mailako bigarren hezkuntzako titulua dute eta Erasmus+ean graduatu berri diren ikasleen enplegu tasa % 80ra igo da. Une honetan, irakurtzeko, matematikarako eta zientzietarako gaitasun txikia duten 15 urteko ikasleen kopurua murrizten eta helduek ikaskuntzan duten parte-hartzea handitzen lan egiten du. Webgune bat du, eta, webgune horretan, hezkuntzari, ekitaldiei, ikaskuntza baliabideei eta ikasleentzako eta irakasleentzako onlineko tresnei buruzko albisteak, EBko hezkuntzarekin eta prestakuntzarekin lotutako tresnak, estatistikak eta hezkuntza politikei eta laguntza prestakuntzari buruzko dokumentuak daude.

Ekonomiako Lankidetzaren eta Garapenerako Antolakundea (ELGA).

ELGAREN egitekoa da pertsonen ongizate ekonomiko eta soziala hobetuko duten politikak sustatzea. Nazioartean alderatzen ahal diren adierazle kuantitatiboak lantzen eta aztertzen ditu. Politika nazionaleri buruzko txostenekin batera, gobernuari hezkuntza sistema eraginkorragoak eta bidezkoagoak eraikitzen laguntzen ahal die.

Hezkuntzaren panorama urtero argitaratzen du. ELGAREN adierazleak. Espainiako txostenak Espainiarentzat garrantzitsuenak diren adierazleei buruzko datuak erreproduzitzen ditu, ELGAKO herrialdeen batezbestekoarekin alderatuta.

ELGAK nazioarteko ebaluazioak koordinatzen ditu, hala nola PISA, ikastetxeetarako PISA, TALIS eta PIAAC ebaluazioak, eta haiei buruzko informazioa ematen du ondorengo dokumentuetan.

2.1.2. Espainia

Espainiako Konstituzioa

1978ko Konstituzioak 27. artikuluan kokatzen du hezkuntza sistema, Magna Cartako zenbait titulutan landutako alderdien bidez. Diputatuen Kongresuko Konstituzio Batzordearen abiapuntua –Batzorde horrek landu zuen hezkuntzarako eskubideari buruzko 27. artikulua garatzeko 1978ko Konstituzioa– Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala izan zen, 1948ko abenduaren 10ekoa.

Espainia 2050.

“España 2050. Fundamentos y propuestas para una Estrategia Nacional de Largo Plazo” (Espainia 2050. Epe Luzeko Estrategia Nazionalerako oinarriak eta proposamenak) prospektiba estrategikoko ariketa bat da, eta bi helburu ditu:

- Espainiak datozen hamarkadetan izanen dituen erronka eta aukera sozialak, ekonomikoak eta ingurumenekoak hobeki ulertzea; eta
- eragile anitzeko elkarrizketatik abiatuta, Epe Luzeko Estrategia Nazionala sortzea, lehentasunak finkatzeko, ahaleginak koordinatzeko eta etorkizunean herritarren oparotasuna eta ongizatea bermatzeko.

Hori egiteko, EBko 27 estatu kideak hiru herrialde taldetan sailkatu dira (txikia, ertaina eta handia), ekonomia, gizarte eta ingurumen adierazle estandar batzuen arabera. Gero, aztertu da nola eta zein adierazletan lortu duen Espainiak, azken hogeita hamar urteetan, jarduera baxuko taldetik ingurunera igarotzea, eta nola lortuko litzatekeen hurrengo hogeita hamar urteetan EB-8 izeneko jarduera altuko taldearekin bat egitea.

Emaitza zenbait proposamen eta bederatzi helburu dira:

1. Produktiboagoa izatea, hobeki hazteko.
2. Hezkuntzaren abangoardia konkistatzea.
3. Biztanleriaren prestakuntza eta birkualifikazioa hobetzea.
4. Karbonoari dagokionez neutroa, jasangarria eta klima aldaketarekiko erresilientea den gizarte bihurtzea.
5. Gure ongizate egoera gizarte luzeago baterako prestatzea.
6. Lurralde garapen orekatua, bidezkoa eta jasangarria sustatzea.
7. Gure lan merkatuko hutsuneak zuzentzea eta gizarte errealitate berrietara egokitzea.
8. Pobrezia eta desberdintasuna murriztea eta igogailu soziala suspertzea.
9. Gure etorkizuneko ongizatearen oinarriak zabaltea.

Helburu horietako gehienek eragina dute hezkuntzan, haren testuinguruaren parte baitira, batez ere bigarren eta hirugarren helburuak, hezkuntza sistemaren emaitzetan zuzeneko eragina baitute.

2. helburuari lotuta, eta hezkuntzaren abangoardia lortzeko, beharrezkoa da eskola uztearen eta errepikatzearen tasak murriztea, derrigorrezko hezkuntzaren ondokoan sartzen diren pertsonen proportzioa handitzea eta ikasketa mailak eta sistema osoaren ekitatea hobetzea. Aurrerapausoak gainbegiratzeko eta erreformak bideratzeko, adierazle batzuk zehaztu dira; adierazle horiek 2030, 2040 eta 2050erako ezarritako helburuak dituzte.

1. taula: Espainiako hezkuntza abangoardia konkistatzeko adierazleak eta helburuak

Adierazlea	2030	2040	2050
15 urterekin gutxienez ikasturte bat errepikatu duten ikasleen ehunekoa	18	10	5
Eskola goiz uztearen tasa	10	6	3
DBHtik gorako ikasketak dituzten 25 eta 34 urte bitarteko biztanleak	78	86	93
Ezberdintasun sozioekonomikoen garrantzia gaitasun berdinak dituzten pertsonen errepikatze probabilitatean	3	2	1
Gaitasunetan errendimendu txikia duten 15 urteko ikasleak (PISA. 2. maila baino txikiagoa)			
Irakurriaren ulermena	18	15	<15
Matematika	20	18	<15
Zientziak	18	15	<15
Gaitasunetan errendimendu handia duten 15 urteko ikasleak (PISA. 5. maila edo handiagoa).			
Irakurriaren ulermena	6	8	10
Matematika	10	13	16

Zientziak	6	8	10
Gastu publikoa hezkuntzan (BPGaren ehunekoa)	5,1	5,3	5,5

Iturria: Espainia 2050. Epe Luzeko Estrategia Nazionalerako oinarriak eta proposamenak

3. helburuak oinarri du herritarren prestakuntza eta eguneratzea hobetzea; helburu horri dagokionez, aurrera egin behar da Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan emaitzak hobetzeko, hezkuntza etapetan bizitzan zehar hezkuntza sistema integratu bat sortu behar da eta biztanleria aktiboaren artean bizitza osoan prestakuntza orokortu, Lanbide Heziketaren eredia indartuz eta unibertsitatea ekoizpen sarera hurbilduz.

2. taula: Biztanleriaren prestakuntza eta eguneratzea hobetzeko adierazleak eta helburuak

Adierazlea	2030	2040	2050
Hirugarren hezkuntzan STEM arloan matrikulatutako emakumeak (guztizkoaren ehunekoa)	35	42	50
Gutxienez oinarritzko trebetasun digitalak dituzten helduen (16-74 urte) proportzioa	70	100	100
Atzerriko hizkuntzarik ez dakitela aitortzen duten helduak (25-64 urte) (guztizkoaren ehunekoa)	40	30	25
Azken urtean prestakuntzan egokitzeko programaren batean parte hartu duela dioten helduen (25-64 urte) proportzioa	50	70	90
Ikasten berriki aritu diren langabeen proportzioa (25-64 urte)	35	50	70
Prestakuntzara bideratutako enplegu politika aktiboak (BPGaren ehunekoa)	0,25	0,30	0,40
Langileei prestakuntza ematen dieten enpresen ehunekoa, tamainaren arabera			
Handiak (250 langile baino gehiago)	95	100	100
Ertainak (50-249 langile)	88	92	95
Txikiak (10-49 langile)	60	70	75

Iturria: Espainia 2050. Epe Luzeko Estrategia Nazionalerako oinarriak eta proposamenak

2.2. Alderdi demografikoak

Biztanleriarekin harremana duten adierazleek oso garrantzitsuak dira irakaskuntza antolatzeko; horregatik, beharrezkoa da haiek aztertzea.

2.2.1. Biztanleria eta haren osaera


Hezkuntza politiketan garrantzi erabakigarria duten aldagaiak honako hauek dira: herrialde edo eskualde bateko biztanleria, horren guztizko kopurua, lurraldean duen banaketa geografikoa, adin piramidea, epe jakin bateko migrazio fluxuak eta datu horien ondorengo urteetako

proiekzioak. Aldagai horiek zuzeneko eragina dute plangintzan, erabili beharreko baliabideetan eta horiek banatzeko moduan.

Biztanleriaren tamaina

2023ko urtarrilaren 1ean 448.387.872 pertsona bizi ziren EB27an, aurreko urteko egun berean baino 1.559.069 pertsona gehiago. Dinamika hori, baina, ez da berdina estatu eta eskualde guztietan; izan ere, badira hazkunde handia duten herrialdeak, egonkor mantentzen diren beste zenbait, eta atzera egiten ari direnak ere bai. Hazkundera izan duten herrialdeen artean, nabarmentzekoak dira hauek: Alemania, Austria, Belgika, Zipre, Danimarka, Eslovenia, Espainia, Estonia, Finlandia, Frantzia, Irlanda, Letonia, Lituania, Luxenburgo, Malta, Herbehereak, Portugal, Txekiar Errepublika, Errumania eta Suedia. Gainerakoetan urritu egin zen biztanleen kopurua.

7. grafikoa: EBko biztanleriaren bilakaera



Iturria: Eurostat

6 A
erans
kina

EBko aldaketa demografikoak oso garrantzitsuak izan daitezke hurrengo hamarkadetan. Joera demografikoei buruzko eredu gehienen arabera, emankortasun maila baxuen eta bizitza luzera handiagoaren eraginez, EBko biztanleriak zahartzen jarraituko du. Nahiz eta barne migrazioak eragin handia duen EBko biztanleriaren dinamikan, oso zaila izanen da herrialde askotan biztanleria zahartzeko dagoen joera aldatuko duen eragile bakarra migrazioa izatea.

Zahartzearekin loturiko ondorio ekonomiko eta sozialek ondorio larriak sor ditzakete Europan. Adibidez, emankortasun tasa baxuak ikasle kopurua murriztea ekarriko du; era berean, lanerako adinean dauden pertsona gutxiago izanen dira, bai eta adin aurreratuko pertsonen proportzio handiagoa ere. Aldaketa demografiko horiek gobernuen hainbat ahalmenetan eraginen dute; besteak beste, diru-sarrera fiskalak areagotzeko ahalmenetan, baita beren finantzak orekatzeko eta zerbitzu egokiak eskaintzeko ahalmenetan ere.

Erronka demografiko handienei aurre egin beharko dieten eremuak, oro har, eskualde periferikoak, landa eskualdeak eta eskualde postindustrialak izanen dira, bertako biztanleriak behera egin baitezake. Aldaketa demografikoaren lurralde hedadura ondorengo fenomenoek bidez egiazta daiteke:

- EBko ekialdean dauden estatu kide askotan –2004az geroztik EBn daudenetan– biztanleria behera egiten ari da;
- Alde handiak daude Mediterraneoaren arroan dauden eskualdeen eta biztanleria hain zaharkitua ez duten EBko iparraldean eta mendebaldean dauden eskualdeen artean;
- Hiri eskualde gehienetako biztanleriak gora egiten jarraitzen du; landa eremu askotako biztanle kopurua, ordea, beherantz doa;
- Estatu eta eskualdeetako hiriburuak eta inguratzen dituzten eskualdeak hazten ari dira, lanerako aukera gehiago eskaintzen dituztelako;
- Eskualde mailan desberdintasunak daude eta gizarte kohesioan eragina izan dezakete; esaterako, Alemanian eta Turkian (ekialdeko eta mendebaldeko eskualdeen artean), edo Frantzia, Italian eta Erresuma Batuan (iparraldeko eta hegoaldeko eskualdeen artean).

Espanian, 2023ko urtarrilaren 1ean 48.059.777 biztanle zeuden; hau da, urtebete lehenago baino 562.874 biztanle gehiago. 2017an hasi zen gorakadak bere horretan dirau. Izan ere, zenbait urtez etengabe urritu ondoren, urte hartan gora egin zuen Etengabeko Erroldan inskribatutako biztanleen kopuruak, eta lehen aldiz 48 milioitik gorakoa da.


Espainiar nazionalitateko pertsonak 12.614 gutxiago izan ziren (–% 0,03). Bestalde, atzerriko biztanleria 149.530 hazi da, +% 2,46. Herritar guztietatik, % 87,3k espainiar nazionalitatea du (41.982.812) eta % 12,7k, berriz, atzerrikoa (6.080.882).

Atzerriko biztanleen artean bere horretan dirau 2017an hasitako joerak.

2022an, Espainiak biztanleria hazkundera izan zuen, atzerrian jaiotako pertsonen hazkunderaren ondorioz ia erabat. Atzerrian jaiotako biztanleak 8.457.886 izan ziren, atzerriko nazionalitatea zutenak baino gehiago, Espainiako nazionalizazio prozesuen ondorioz.

2023ko bigarren hiruhilekoan, etorkinen nazionalitate nagusiak kolonbiarra (37.700 pertsona iritsi ziren Espainiara), marokoarra (21.500) eta espainiarra (19.900) izan ziren. Bestalde, emigratzaileen nazionalitate nagusiak marokoarra (6.700 irteera), errumaniarra (5.700) eta espainiarra (5.500) izan ziren.

8. grafikoa: Biztanleriaren bilakaera Espainian eta Nafarroan



Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Biztanleriaren etengabeko estatistika

Nafarroako Foru Komunitateak, 672.200 biztanle zituela, hazkunde txiki bat izan zuen 2022. urtean (7.720 pertsona).

3. taula: 2022-2023 aldiko bilakaera demografikoa. Espainia, Nafarroa

Autonomia-erkidegoa	Biztanleria 2022-1-1ean	Biztanleria 2023-1-1ean	Saldoak		
			Begetatiboa	Kanpoko migrazioa	Barneko migrazioa
Espainia	47.496.903	48.059.777	-113.023	148.677	0
Nafarroa	664.480	672.200	-649	1.958	291

* Urtarrilaren 1eko behin-behineko datuak
 Datu horiek zabaltzeko egutegia atzeratu egin da eta txosten honetako datuak biltzeko prozesuaren ondorengo data batera igaro da. Aurreko urteko datuak erakusten dira
 Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Biztanleriaren etengabeko estatistika




Biztanleria, sexuaren eta adinaren arabera

Erroldan inskribatuta dauden pertsona guztietatik, % 51,0 emakumezkoak dira eta % 49,0 gizonezkoak. Emakumeen kopurua, bai nazionalitate espainiarra (% 51,2), bai nazionalitate atzeritarra (% 50,1) dutenena, gizonena baino handiagoa da.

Nafarroan, erroldan inskribatu diren pertsona guztietatik, % 50,5 emakumezkoak dira eta % 49,5 gizonezkoak.

9. grafikoa: Biztanleria, adin taldearen eta sexuaren arabera. Espainia eta Nafarroa. 2023ko urtarrilaren 1a



* Behin-behineko datuak
Iturria: EIN. Biztanleriaren etengabeko estatistika

* Behin-behineko datuak
Iturria: EIN. Biztanleriaren etengabeko estatistika



Biztanleriaren irudia, adin taldeen eta sexuaren arabera multzokatuta, egonkorra da azken urteetan, eta zahartzen ari den gizarte baten irudia da; tarteko adinak dira nagusi (35-59), gazteenak gutxitu egin dira (0-9) eta zaharren adin tarteak hazi egin dira.


2021ean 336.811 pertsona jaio ziren Espainian, hau da, aurreko urtean baino 4.504 gutxiago; jaiotza tasa 7,1 izan zen. Ia autonomia erkidego guztietan izan ziren jaiotza gutxiago; salbuespen bakarrak Aragoi, Asturias, Balearrak, Murtzia eta Nafarroa izan ziren. Nafarroan, 5.040 jaiotza izatetik azken urtean 5.111 izatera (-71 pertsona) igaro zen; jaiotza tasa 7,8 izan zen.

4. taula: Jaiotza tasa Europar Batasunean, Espainian eta Nafarroan

	2000	2005	2010	2015	2018	2019	2020	2021
EB	10,6	10,4	10,4	9,8	9,5	9,3	9,1	9,1
Espainia	9,8	10,6	10,4	9,0	7,9	7,6	7,2	7,1
Nafarroa	9,6	10,5	10,7	9,4	8,3	8,2	7,7	7,8

* Datu horiek zabaltzeko egutegia txosten honetako datuak biltzeko prozesuaren ondorengo data batera atzeratu da. Aurreko urteko datuak erakusten dira
Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Oinarrizko adierazle demografikoak eta Eurostat

10. grafikoa: Jaiotza tasa Europar Batasunean, Espainian eta Nafarroan



Iturria: Estatistikako Institutu Nazionalaren eta Eurostaten oinarizko adierazle demografikoak


8.
erans
kina

2022an, Espainiako biztanleriak gora egin zuen adin talde hauetan: 10-34 urte, 45-84 urte eta 90 urtetik gora. Baina behera egin zuen talde hauetan: 10 urtetik beherakoak (-57.306 lagun), 35-44 urte bitartekoak (-129.326) eta 85-89 urte bitartekoak (-18.739 lagun).

Joera horiek antzekoak dira Nafarroan: biztanle kopurua zertxobait handitu zen (7.720); 10 urtetik beherakoak kopuruak behera egin zuen (-1.142), bai eta 35-44 urteko taldekoenak (-2.505) eta 85-89koenak (-597) ere. Pertsona kopuruak gora egin zuen 10-34 urtekoen artean (5.056), 45-84 urtekoen artean (6.591) eta 90 urtetik gorakoak artean (547).

EBko, Espainiako eta Nafarroako batez besteko balioak antzekoak direla egiazta daiteke biztanleria adin talde hauen arabera aztertuta: 0-14, 15-24, 25-49, 50-64, 65-79 eta 80tik gora.

11. grafikoa: EBko, Espainiako eta Nafarroako biztanleria, adin taldearen arabera. 2023*




*EBko datuak 2022koak dira, eta Espainia eta Nafarroakoak 2023ko urtarrilaren 1ekoak
Iturria: Estatistikako Institutu Nazionalaren eta Eurostaten biztanleriaren zifrak



Mendekotasun tasa


Mendekotasun tasa hezkuntzarako interesgarria den adierazle demografiko bat da, eta ez-aktibo egon daitekeen populazioaren proportzioaren hurbilketa bat da. 16 urtetik beherako edo 64 urtetik gorako biztanleriaren eta 15 urtetik gorako eta 65 urtetik beherako biztanleriaren arteko zatidura da, ehunekotan adierazia.

12. grafikoa: EBko mendekotasun tasa. 2022



Iturria: Eurostat

13. grafikoa: Mendekotasun tasa autonomia erkidegoen arabera. 2022



Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Oinarrizko adierazle demografikoak

Jakina, hezkuntza sisteman eragin handiena duen mendekotasun tasa 16 urtetik beherakoei dagokiena da (16 urtetik beherakoen eta 15 urtetik gorako eta 65 urtetik beherako biztanleen arteko zatidura, ehunekotan adierazia). Ceuta eta Melilla dira adierazle horren balio altuenak dituztenak (% 29,9 eta % 37,3, hurrenez hurren). Beste muturrean Asturias dago, 16 urtetik beherakoen mendekotasun tasa % 18,3 baino ez baita han. Horrek adierazten du estatuko batezbestekoa (% 23,2) baino ia ehuneko bost txikiagoa dela adierazle hori. Nafarroa bosgarren dago (% 25,1).

64 urtetik gorako pertsonen mendekotasun tasari dagokionez (64 urtetik gorako biztanleen eta 15 urtetik gorako eta 65 urtetik beherako biztanleen arteko zatidura, ehunekotan adierazia), balio altuenak Asturiasen (% 43,8), Galizian (% 42,3) eta Gaztela eta Leonen (% 42,4) daude. Beste muturrean, 64 urtetik gorakoen mendekotasun tasa baxuenekin, Melilla (% 18,2) eta Ceuta (% 19,6) daude. Nafarroa zortzigarren postuan dago (% 32,2).

Bilakaeraren aurreikuspenak

2025-2055 aldian, Europako herrialde eta eskualdeetan, bi izanen dira joera demografiko nagusiak: egonkortasuna kasu batzuetan (Eslovenia, Estonia), eta jaitsiera beste hainbatetan (Alemania, Bulgaria, Kroazia, Eslovakia, Finlandia, Grezia, Hungaria, Italia, Letonia, Lituania, Polonia, Portugal, Txekiar Errepublikak eta Errumania). Herrialde gutxitan aurreikusten da hazkunde demografikoa gertatzea (Austria, Belgika, Zipre, Danimarka, Espainia, Frantzia, Irlanda, Luxenburgo, Malta, Herbehereak eta Suedia).

Nafarroan aurreikusten den bilakaera demografikoari dagokionez, biztanleria % 11,8 handiagoa izanen da 2022-2037 aldian: 659.232 biztanletik 736.784 biztanlera.

Jaiotzetan goranzko joera izanen da, EINren datuen arabera.


5. taula: Biztanleria proiektzioak EBn, Espainian eta Nafarroan. 2025-2055

	2025	2035	2040	2045	2050	2055
EB	453.168.040	451.991.345	451.592.188	450.322.278	447.877.407	444.312.273
Espainia	48.614.060	49.760.920	50.237.193	50.527.425	50.460.161	50.009.648
Nafarroa	675.503	687.166	698.200	707.859	715.213	719.331

Iturria: Eurostat

11.
erans
kina

14. grafikoa: Jaiotzak Nafarroan. 2022-2036rako proiektzioak




Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Biztanleriaren gaineko proiektzioak

2023an jaiotzen kopurua gehitzen hasiko da autonomia erkidego guztietan, eta hala jarraituko du 2041ra arte. Hala ere, 2058tik aurrera baliteke jaiotzen kopurua handitzen hastea berriro,

gero eta belaunaldi ugariagoak ugalkortasun handieneko adinetara iristearen ondorioz. Hala ere, jaiotzak heriotzak baino gutxiago izanen omen dira beti.

Biztanleria autonomia erkidego hauetan gehituko da: Balearrak, Murtzia, Kanariak, Madril, Katalunia, Valentziako Erkidegoa eta Nafarroa. Denetan honako hauek gailenduko dira: Balearrak (% 25,0), Murtzia (% 16,0), Kanariak (% 15,5) eta Madril (% 15,4). Beherakada erlatibo handienak honako hauetan gertatuko dira: Ceuta (-% 8,9), Asturias (-% 6,7), Extremadura (-% 4,8) eta Gaztela eta Leon (-% 4,1).

15. grafikoa: Proiektatutako hazkunde erlatiboa, autonomia erkidegoen eta hiri autonomoen arabera. 2023-2037



Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Biztanleriaren gaineko proiektzioak



2.2.2. Hiri eta landa eremuetako biztanleria

Biztanleria hirietan edo landa eremuetan kokatua dagoen, oso ezberdinak izaten dira fenomenoak, beharrak, zerbitzuen egiturak eta kostuak.

Espanian, 100.000 biztanle baino gehiagoko 63 udalerrri daude; 50.001 eta 100.000 biztanle arteko 86 udalerrri; 10.001 eta 50.000 biztanle arteko 611 udalerrri; 1.001 eta 10.000 biztanle arteko 2.374 udalerrri; eta 4.997 udalerrrik 1.000 biztanle baino gutxiago dituzte.

Espanian erroldatutako biztanleen % 94,3 hiriguneetan bizi da, hau da, 2.000 biztanletik gorako udalerrietan. Autonomia erkidegoei dagokienez, ehuneko handienak Ceutan eta Melillan (% 100,0), Murtzian (% 99,7) eta Madril eta Kanarietan (% 99,3) daude. Txikiak, berriz, Gaztela eta Leongoa (% 75,2) eta Extremadurakoa (% 79,2) dira.

Biztanle gehien galdu dituzten eremuak landa eremuak dira; bereziki, duela urte batzuetatik despopulazio prozesu azkarren eraginez kaltetutako udalerrriak.


Lan merkatuaren eta despopulazioaren artean erlazio zuzena dago: izan ere, lanerako aukera faltak biztanleen galera progresiboa eragiten du. Biztanleak galtzearen ondorioz, gero eta udalerrri gehiagok dituzte mila biztanle baino gutxiago. Hala eta guztiz ere, udalerrri horietako biztanleriaren pisua gero eta txikiagoa da.

Aldea handiagoa da erroldan ehun pertsona baino gutxiago dituzten udalerrietan. Espainian, gaur egun, 1.379 udalerrri daude egoera horretan. Beraz, udalerrri guztien % 17,0 dira; hala ere, 78.172 pertsona besterik ez dira. Alegia, biztanleria osoaren % 0,16 baino ez.

Landatasun indizea

Landatasun indizea 2.000 biztanletik beherako udalerrietan bizi diren biztanleen ehunekoa da. Autonomia erkidego guztiak kontuan hartuz gero, biztanleria osoaren % 5,7 bizi da landa eremuan. Nabarmenezkoak dira, beren indize altua dela eta, Gaztela eta Leon (% 24,8), Extremadura (% 20,8) eta Aragoi (% 15,9). Nafarroa, % 12,9ekin, bosgarren postuan dago. Beste muturrean, Murtzia, Madril eta Kanariak daude, % 1etik beherako datuekin.

16. grafikoa: Landa eremuko biztanleen ehunekoa, autonomia erkidegoetan eta hiri autonomoetan. 2022



Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Errolda. Biztanleria, udalerrika

2.000 biztanle arteko udalerrietan bizi den Nafarroako biztanleriaren proportzioa egonkorra da, baita udalerrri horietako 17 urtetik beherako biztanleria ere (13.000 gazte inguru). Errealitate horrek garrantzi handia du landa eremuko hezkuntza zerbitzuen etorkizuna erabakitzeko orduan.


6. taula: Udalerrriaren tamainaren arabera sailkatutako biztanleria (2.000 biztanle arteko udalerriak eta hortik gorakoak). Nafarroa

	Biztanleria guztira			17 urtetik beherakoak			17 urtetik beherakoak (herritar guztien %)		
	Guztira	2.000 biztanle arteko udalerriak	2.000 biztanletik gorako udalerriak	Guztira	2.000 biztanle arteko udalerriak	2.000 biztanletik gorako udalerriak	Guztira	2.000 biztanle arteko udalerriak	2.000 biztanletik gorako udalerriak
2013	644.477	90.186	554.291	113.013	13.299	99.714	17,5	14,7	18,0
2014	640.790	86.995	553.795	112.894	12.809	100.085	17,6	14,7	18,1

2015	640.476	86.250	554.226	113.163	12.720	100.443	17,7	14,7	18,1
2016	640.647	87.871	552.776	113.272	13.109	100.163	17,7	14,9	18,1
2017	643.234	85.197	558.037	113.785	12.647	101.138	17,7	14,8	18,1
2018	647.554	87.084	560.470	114.415	13.026	101.389	17,7	15,0	18,1
2019	654.214	87.062	567.152	114.916	13.013	101.903	17,6	14,9	18,0
2020	661.197	85.239	575.958	115.394	12.766	102.628	17,5	15,0	17,8
2021	661.537	85.757	575.870	113.887	12.703	101.184	17,2	14,8	17,6
2022	664.117	85.905	578.212	112.866	12.612	100.254	17,0	14,7	17,3


Iturria: Nastat, Biztanleriaren Udal Erroldaren (EIN) datuetan oinarrituta

17. grafikoa: Hiri eta landa eremuetako biztanleen ehunekoa. Nafarroa



Iturria: Nastat, Errolda Jarraituaren Estatistikako (EIN) datuetan oinarrituta

18. grafikoa: Hiri eta landa eremuetako 17 urtetik beherako biztanleen ehunekoa. Nafarroa



Iturria: Nastat, Errolda Jarraituaren Estatistikako (EIN) datuetan oinarrituta

2.2.3. Atzerritarrak

Azken urteotan hezkuntza sisteman eragin handia izan duen faktoreetako bat jatorriz atzerritarrak diren biztanleak dira. 2023ko urtarrilaren 1ean, Espainian inskribatutako biztanleen % 12,6 atzerritarrak ziren. Nafarroan, ordea, garai berean % 12,1 ziren.

2023ko urtarrilaren 1ean, Espainiako Errolda Jarraituan inskribatutako pertsona guztietatik 41.982.215ek dute espainiar nazionalitatea (% 87,4), eta 6.077.562 atzerritarrak dira (% 12,6).

2022an inskribatutako espainiarrak 8.728 gutxiago izan ziren; atzerritarrak, berriz, 571.602 gehiago izan ziren (% 11,6). EB-27ko estatueta 25.927 atzerritar gehiago izan ziren (% 29,2), eta Europako Erkidegotik kanpokoak 15.965 gehiago (% 10,6).

2000. urtean kopurua 923.879 izatetik 2011ko urtarrilaren 1ean 5.751.487 izatera aldatu zen. Handik aurrera zifrak behera egin zuen, eta 2013an gertatu zen beherakadarik handiena (–522.751 pertsona). Joera horrek jarraitu zuen ondorengo urteetan, eta 2016koa izan zen jaitsierarik txikiena (–45.774). 2019an atzerritarren kopurua handitu zen hirugarren urtez segidan, eta urte horretan izan zen igoerarik handiena. 2020an eta 2021ean joerak bere horretan iraun zuen.

Errolda Jarraituan espainiar nazionalitatearekin inskribatutako pertsonen kopurua 42 milioitik behera dago. Beste alde batetik, atzerritarren kopurua 6 milioitik gora dabil.

7. taula: Biztanleria, nazionalitatearen eta sexuaren arabera. Behin-behineko erroldako datuak. 2023ko urtarrilaren 1a

	Espainia			Nafarroa		
	Bi sexuak	Gizonak	Emakumeak	Bi sexuak	Gizonak	Emakumeak
Guztira	48.059.777	23.542.333	24.517.444	672.200	332.521	339.679

Espainiar nazionalitatea	Guz.	41.982.215	20.506.797	21.475.418	590.794	291.522	299.272
	%	87,4	87,1	87,6	87,9	87,7	88,1
Atzerriko nazionalitatea	Guz.	6.077.562	3.035.536	3.042.026	81.406	40.999	40.407
	%	12,6	12,9	12,4	12,1	12,3	11,9

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Biztanleriaren etengabeko estatistika

Datu hauek ere azpimarratzekoak dira:


- Atzerritar gehien dituzten autonomia erkidegoak: Balearrak (% 20,2), Katalunia (% 17,3) eta Valentziako Erkidegoa (% 17,1). Atzerritarren proportziorik txikiak, berriz, Extremaduran (% 3,8), Galizian (% 5,2) eta Asturiasen (% 5,4) daude.
- 2022an, atzerritar nazionalitateko pertsonen kopuruak gora egin zuen autonomia erkidego guztietan, Melillan izan ezik. Gorakada handienak Katalunian (122.034), Valentziako erkidegoan (105.382), Madrilan (99.074) eta Andaluzian (69.248) izan dira. Termino erlatiboetan, gorakada handienak Valentziako Erkidegoan (% 1,7) eta Katalunian (% 1,3) izan dira. Beherakada Melillako hiri autonomoan soilik izan da (-% 0,2).
- Errolda jarraituan inskribatutako EB-27ko herrialdeetako atzerritarrak 1.907.944 dira. Horien artean ugariak errumaniarrak (627.478), italiarrak (275.654) eta alemaniarrek (116.122) dira. Europako Batasunekoak ez diren atzerritarren artean, marokoarrak (883.243), kolonbiarrak (314.679) eta britainiarrak (293.171) dira ugariak.
- Azpimarragarria da Kolonbiako (+22.928), Italiako (+18.398) eta Venezuelako (+12.986) herritarren kopuruaren igoera. Jaitsiera absoluturik handienak, berriz, errumaniarren (-16.995), boliviarren (-6.059), txinatarren (-5.255) eta brasildarren (-4.388) artean gertatu dira.
- Balio erlatiboetan, eta pertsona egoiliar gehieneko nazionalitateen artean, 2022an izandako hazkunde handienak Kolonbiako (% 22,3), Italiako (% 17,9), Erresuma Batuko (% 10,7), Venezuelako (% 12,6) eta Marokoko (% 10,2) herritarrenak izan ziren. Jaitsiera handienak, aldiz, Errumaniako (-% 16,5), Boliviako (-% 5,9) eta Brasilgo (-% 4,3) biztanleenak izan ziren.
- Herrialdeak multzoka hartuta, ugariak EB-27ko biztanleak dira: atzerritar guztien % 29,2 dira. Ondoren afrikarrak datoz (% 22,0) eta horien atzetik Hego Amerikakoak (% 21,2).

8. taula: Biztanleriaren jatorria Espainian eta Nafarroan. 2023

	Espainatik kanpo jaiotako atzerritarrak	Espainian jaiotako atzerritarrak	Atzerrian jaiotako espainiarrak	Espainian jaiotako espainiarrak
Espainia	5.746.055	331.507	2.394.728	39.587.487
Nafarroa	73.920	7.486	46.136	544.658

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Biztanleriaren zifrak eta errolda demografikoak


19. grafikoa: Biztanleriaren jatorria autonomia erkidegoetan* eta hiri autonomoetan. 2023



* Ehunekotan adierazita, guztizko datuak eranskinean daude
Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Biztanleriaren zifrak eta errolda demografikoak

Biztanleen % 83,1 Espainian jaiotako dira, eta % 16,9 atzerrian jaiotako. Nazionalitateari dagokionez, Espainian jaiotako dira Espainiako nazionalitatea daukatenen % 82,4 eta atzerriko nazionalitatea dutenen % 0,7.

20. grafikoa: Biztanleriaren ehunekoa Espainian nazionalitatearen eta jaiotokuen arabera. 2023




Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Biztanleriaren zifrak eta errolda demografikoak

Espainiarren eta Espainian bizi diren atzerritarren biztanleriaren piramideak adin taldeen arabera alderatuta, ikusiko dugu txikiagoa dela atzerritarren adinaren batezbestekoa. 16-44 urte bitarteko biztanleen taldeari erreparatuta, atzerritarren artean % 52,3 talde horretakoak dira; aldiz, bertako herritarren artean % 32,3 baino ez dira talde horretakoak.

Nazionalitatearen arabera, nabarmentzekoa da 16 eta 44 urte artekoen adin taldea, hortxe ageri baitira espainiar nazionalitateko biztanleen eta atzerriko nazionalitateak dituztenen arteko alderik handienak; gainera, handiagoa da atzerritarren ehunekoa espainiarrena baino.


21. grafikoa. Espainiako biztanleriaren piramidea. Espainiar nazionalitatea eta beste nazionalitate batzuk. 2023ko urtarrilaren 1a



Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Errolda jarraituaren estatistika

Nafarroan atzerritarren ehunekoa (% 12,01) batezbestekoaren (% 12,65) azpitik dago. Atzerritarren proportziorik handienak dituzten autonomia erkidegoak honako hauek dira: Balear Uharteak (% 20,24), Katalunia (% 17,28), Valentziako Erkidegoa (% 17,10) eta Murtzia (% 15,37). Atzerritarren proportziorik txikienak Extremaduran (% 3,79), Galizian (% 5,16) eta Asturiasen (% 5,36) daude.


22. grafikoa. Atzerritarren ehunekoa errolda jarraituan, autonomia erkidegoaren eta hiri autonomoen arabera. 2023



Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Biztanleriaren etengabeko estatistika

Biztanleria atzerritarren ehunekoaren bilakaerak gehieneko balioa lortu zuen 2010ean Espainian (%12,2) eta Nafarroan (%11,2), eta hortik aurrera behera egin zuen hurrengo urteetan; hala, balio egonkorretara iritsi da, hots, % 11 inguru Espainian eta % 10 inguru Nafarroan 2020an. Hurrengo urteetako hazkundera neurrizkoa izan da Espainian eta Nafarroan, eta 2023an hazkunde handia gertatu da, Espainian % 12,6ra iritsi baita, eta Nafarroan % 12,1era, hots, 2010eko datua baino handiagoa izan da.

23. grafikoa. Atzerritarren ehunekoaren bilakaera. Espainia eta Nafarroa



Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Errolda jarraituaren estatistika

Atzerriko biztanleria Nafarroan

Nafarroako atzerritarren kopuruak behera egin zuen 2018ra bitartean, gehienbat bi arrazoiengatik: batzuek Espainiako nazionalitatea eskuratu zutelako eta beste batzuk beren sorlekura itzuli zirelako. Hala ere, urte horretatik aurrera, atzerritar nazionalitatea dutenen kopuruak gora egin du nabarmen; 2020an eta 2021ean maila horretan jarraitu du, eta 2022an apur bat igo da. 2023an berriz gora egin du nabarmen.

9. taula: Nafarroako biztanleak, urte bakoitzeko urtarilaren 1ean, nazionalitatearen eta jaiolekuaren arabera

	Nazionalitatea - Datu absolutuak				Nazionalitatea - Ehunekoak			
	Espainiarrak		Atzerritarak		Espainiarrak		Atzerritarak	
	Espainian jaiok	Atzerrian jaiok	Espainian jaiok	Atzerrian jaiok	Espainian jaiok	Atzerrian jaiok	Espainian jaiok	Atzerrian jaiok
2013	548.189	28.396	6.215	61.677	95,1	4,9	9,2	90,8
2014	548.392	32.848	5.994	53.556	94,3	5,7	10,1	89,9
2015	549.064	35.519	5.792	50.101	93,9	6,1	10,4	89,6
2016	549.173	36.648	5.867	48.959	93,7	6,3	10,7	89,3
2017	588.581	39.129	5.830	48.823	93,8	6,2	10,7	89,3
2018	548.714	40.592	6.994	54.560	93,1	6,9	11,4	88,6
2019	547.695	42.690	7.601	59.561	92,8	7,2	11,3	88,7


2020	546.516	44.283	8.383	57.305	92,5	7,5	12,8	87,2
2021	544.658	45.610	8.953	58.555	92,3	7,7	13,3	86,7
2022	543.600	47.421	9.282	58.929	92,0	8,0	13,6	86,4
2023	544.658	46.136	7.557	73.849	92,2	7,8	9,3	90,7

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Errolda jarraituaren estatistika

Aurreko urteetan, pertsona migratzaile gehienak EBkoak ziren, eta oraindik ere presentzia garrantzitsua baina egonkorra dute. 2022an asko gehitu dira Peruko, Kolonbiako eta Marokoko etorkinak, eta, maila apalagoan, Ekuadorkoak, Dominikar Errepublikakoak eta Venezuelakoak ere bai. Beraz, Hego Amerikako pertsonak dira ugarienenak.

Datu horiek garrantzia dute hezkuntzaren plangintzaren testuinguruan, batez ere etorkinen kolektibo bakoitzaren ezaugarri sozial, kultural eta linguistikoengatik.

24. grafikoa. Nafarroan dauden atzerriko nazionalitate ugarienen portzentajeen bilakaera. 2022



Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Errolda jarraituaren estatistika

Aipatutakoez gain, badira beste atzeritar talde batzuk, nahiko komunitate handiak osatzen dituztenak. Esate baterako, Txina, Moldavia, Nigeria, Dominikar Errepublika, Frantzia eta

Argentinako herritarrak. Bestalde, atzerritarrak jatorri geografikoaren arabera taldekatuz gero, talderik ugarienak EBtik, Afrikatik eta Hego Amerikatik etorritakoak dira. Talderik txikienak, berriz, Ipar Amerikatik eta Ozeanatik etorritakoak dira.


10. taula: Nafarroan bizi diren atzerritarrak, jatorriaren arabera bilduak. 2022


Jatorria	Guztira	Gizonak	Emakumeak
EB 27	16.092	8.532	7.560
Europako gainerako herrialdeak	3.824	1.692	2.132
Afrika	19.205	11.062	8.143
Ipar Amerika	861	356	505
Erdialdeko Amerika eta Karibea	5.303	1.932	3.371
Hego Amerika	17.408	7.951	9.457
Asia	2.900	1.598	1.302
Ozeania	27	18	9

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Errolda jarraituaren estatistika

Ikasle atzerritarrak

25. grafikoa: Matrikulatuta dauden eta atzerritar nazionalitatea duten ikasleen banaketa, ikastetxearen titulartasunaren/finantzaketaren arabera. Unibertsitateaz kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzak. Espainia eta Nafarroa. 2021-2022






Iturria: Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioa. Estatistikaren eta Azterlanen Zuzendariordetza Nagusia

**14.
erans
kina**

26. grafikoa. Ikasle guztien artean, atzerritar nazionalitatea duten ikasleei dagokien ehunekoa, autonomia erkidegoen arabera. Unibertsitateaz kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzak. 2021-2022



Iturria: Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioa. Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzen estatistika. Estatistikaren eta Azterlanen Zuzendariordetza Nagusia

2.2.4. Familia egitura

Azken urteotan, familia egiturek funtsezko aldaketak jasan dituzte, Europar Batasunaren testuinguruan ikusten ahal diren mundu mailako gertakariekin bat etorritik. Urte gutxian (2009-2022), EBko familia-etxeen kopurua % 10,3 gehitu da. Familia-etxeen pertsonen kopurua 3tik 2,2ra jaitsi da.

Batez besteko familia-etxerik handiena Eslovakiakoa da (2,9 kide), eta haren ondoren datoz Kroazia (2,7 kide) eta Portugal (2,6 kide); txikiak Suediakoa, Finlandiakoa eta Estoniakoa dira (1,9 kide). 2009 - 2022 bitartean EBko estatu kide gehienetan murriztu egin zen familia-etxeen batez besteko kideen kopurua. 2009. urteaz geroztik, murrizketa handienak Estonian izan ziren, 0,5 pertsonako beherakada izan baitzen etxeen batez besteko tamainan, eta, haren atzetik, Maltan, Errumanian, Letonian eta Lituanian (0,4 pertsona gutxiago). Greziak eta Suediak soilik izan zuten gorakada txiki bat, 0,1 eta 0,2 pertsona, hurrenez hurren. Gainera, Eslovakiak 2,9ko batez besteko balio konstantea izan du 2009an eta 2022an.

Bakarrik bizi diren pertsonen kopurua handitzea da Europako bizimoduaren elementu nabarmenetako bat. Hein batean, hala hautatu dutelako bizi dira pertsona asko bakarrik. Alabaina, badaude beste arrazoi batzuk ere: batetik, gero eta dibortzio eta banaketa gehiago gertatzen dira; bestetik, biztanleria gero eta denbora gehiago bizi da –batik bat emakumeak–, eta, horren ondorioz, askok bakardadean ematen dute beren zahartzaroa.

Europako etxeak

Denboran izandako bilakaerak argi utzi du familia-etxeen osaera aldatzen ari dela. Hala ere, heldu ezkongabeen familia-etxeak (hau da, guraso bakarrekoak, ondorengoekin batera bizi zein ez) askoz lasterrago ugartu ziren. Gehikuntza are handiagoa izan da ondorengorik gabeko heldu ezkongabeen familia-etxeetan (% 30,7 gehiago 2009 eta 2022 bitartean).

EBko etxebizitzetan ia heren batean pertsona bakarra bizi da. Proporzio hori handiagoa da herrialdeetako batezbestekoen gainetik dauden hirietan eta hiriburuetan. Familia-etxe mota hori abiada bizian hazi da.

Emakumeen ia laurden bat bakarrik bizi dira (% 23,9); aldiz, gizonen ia bosten bat bizi dira bakarrik (% 19,2). Bai gizonen artean bai emakumeen artean, adin talde guztietan, gora egin du bakarrik bizi diren pertsonen kopuruak 2022an, 2009ko datuekin alderatuta. Gehikuntza % 12tik gorakoa izan da kategoria guztietan.

Familia tipologian, berriz ezkondu ez diren edo izatezko bikote gisa berriz erregistratu ez diren alargunek edo dibortziatuak talde garrantzitsua osatzen dute.

2022an, ikusi da beste etxe mota batean bizi diren 18 - 24 urteko biztanleak askoz ugariagoak direla beste adin taldeetakoak baino (gizonezkoen % 82,7 eta emakumezkoen % 76,7). Bakarrik bizi ez diren baina bikotekiderik ez duten pertsona helduak dira; adibidez, gurasoekin edo pisukideekin bizi direnak.

Bestalde, bikote batek (legez edo kontratu batez elkartuta) osatutako familia-etxeetan, ondorengoak izan ala ez, beherakada bat izan zen 18 eta 54 urte bitarteko pertsonetan. Beherakada hori nabariagoa da 18 eta 24 urte bitarteko emakumeetan (-% 36,3).

18 urtetik gorako helduen artean, bikotean bizi dira ia erdiak (emakumeen % 42,2 eta gizonen % 45,4, hurrenez hurren).

Ezkontutako bikoteek osatzen dute familia egitura ohikoena. Ezkontza tasak behera egin du herrialde guztietan.

Horrez gain, ikusten ahal da dibortzio kopurua hazi egin dela, ezkontzeko batez besteko adina atzeratu egin dela eta gero eta gazte gehiagok aukeratzen dutela bakarrik edo bikotean bizitzea.

EBko familia-etxeen laurden batean (% 24,3 inguru) haurren bat dago. Haurren bat duten familia-etxe gehien dituzten herrialdeak Irlanda, Eslovakia, Zipre eta Errumania dira (% 30,0etik gora). Aldiz, Alemanian eta Finlandian familia-etxeen % 20,0 baino gutxiagotan dago umeren bat.


2022an, EBko ia herrialde guztietan jaitsi zen haurrak bizi diren familia-etxeen kopurua, 2009ko egoerarekin alderatuta, Eslovakian izan ezik (han igo egin zen, +% 0,8). Maltak izan zuen jaitsierarik handiena (-% 9,7), eta, ondoren, Poloniak, Portugalek, Ziprek eta Lituaniak, % 6tik gorako jaitsierekin. Familia-etxeen % 75,7k ez du ondorengorik.

Seme edo alabaren bat duten familia-etxeen bi heren inguru bikoteak ziren (% 63,5). Herrialde batzuetan horixe da seme edo alabaren bat duten familia-etxeen mota nagusia, alde handiarekin. Suedian, Finlandian, Herbeheretan, Eslovenian eta Grezian daude portzentaje altuenak: haurren bat dagoen familia-etxeen % 70,0 baino gehiago bikoteak dira. Ostera, Batasuneko portzentajerik txikienak Bulgarian, Kroazian, Danimarkan eta Letonian daude (% 50,0etik behera). Haurrak eta bi pertsona heldu (bikotea ez) edo gehiago bizi direneko familia-etxeen proportziorik handiena Kroazian, Bulgarian eta Errumaniako dago, herrialde horietan haurrak bizi diren familia-etxeen % 35,0n bikotekide ez diren bi heldu edo gehiago bizi baitira. Estonian, Herbeheretan eta Finlandian halako familia-etxeak % 15,0 baino gutxiago dira.

Europar Batasun osoan, guraso bakarreko familia-etxeak haurrak zituzten familia-etxeen % 12,8 ziren. Guraso bakarreko familia-etxeen artean, aita ezkongabeko familia-etxeen portzentajerik handienak Estonian, Lituaniako eta Letoniako daude (% 25,0tik gora), eta txikienak Eslovakian, Kroazian, Grezian eta Eslovenian (% 5,0etik behera).

Seme-alabak dituzten familia-etxeei dagokienez, ondorengo bakarra duten familia-etxeak dira ohikoena. 2022an, seme-alabak zituzten familia-etxeen ia erdiek seme edo alaba bat zuten (% 49,5); % 38,2k, berriz, bi seme-alaba; eta % 12,4k 3 edo gehiago. Seme edo alaba bat zuten familia-etxeak izan ziren nagusi EBko estatu kide guztietan seme-alabak dituzten familia-etxeen artean, Irlandan eta Herbehereetan izan ezik; herrialde horietan, bi seme-alaba dituzten etxeen ehuneko handiagoa da. Hiru seme-alaba edo gehiago zituzten familia-etxeak ziren urrienak herrialde guztietan. Familia-etxe guztien artean, haien ehunekoa % 7,4 zen Irlandan, % 5,6 Suedian eta % 4,3 Frantziako eta Belgikako, eta % 2 baino gutxiago Lituaniako, Portugalen, Italian eta Bulgarian.

27. grafikoa: Europar Batasunean mendekotasuna duten umeak dituzten familia-etxeen tipologia, umeen kopurua zehaztuta. 2022




- Familia gurasobakarra mendekotasun egoeran dauden seme-alabekin
- Bi heldu mendekotasun egoeran dagoen seme-alaba batekin
- Bi heldu mendekotasun egoeran dauden bi seme-alabekin
- Bi heldu mendekotasun egoeran dauden hiru seme-alaba edo gehiagorekin
- Hiru heldu edo gehiago mendekotasun egoeran dauden seme-alabekin
- Familiak mendekotasun egoeran dauden seme-alabekin
- Familiak mendekotasun egoeran ez dauden seme-alabekin

Iturria: Eurostat

16 A
erans
kina

28. grafikoa: Mendekotasuna duten umeak dituzten familia-etxeen tipologia EBn. 2022



- Seme-alabarik gabeko guraso bakarreko familia
- Seme-alabarik gabeko bikotea
- Haurrik gabeko beste etxe mota bat
- Guraso bakarreko familia seme-alabekin
- Bikotea seme-alabekin
- Beste etxe mota bat umeekin

Iturria: Eurostat

16 B
erans
kina

Espainiako eta Nafarroako familia-etxe motak

2021ean familia-etxeen batez besteko kopuruak gora egin zuen (55.246 gehiago) Espainian, 18.810.046 arte. Familia-etxearen batez besteko tamaina 2,5 pertsonakoa izan zen, aurreko urtean bezala.

Familia-etxe ohikoenak bi pertsonak osatutakoak izan ziren berriz ere 2021ean (guztien % 28,1), baina 2011n baino 238.091 gutxiago ziren. Haien ondotik, pertsona bakarrekoak etorri ziren (% 27,0), duela 10 urte baino % 19,3 gehiago.

Pertsona bakarreko etxeen artean, nabarmentzekoa da igo egin zela 65 urteko pertsona bakar bat bizi zen etxeen kopurua (2011n baino % 22,2 gehiago). Etxe horietako gehienetan (% 70,8) emakume bat bizi da.

Baina behera egin zuen hiru edo lau pertsona zituzten familia-etxeen kopuruak (% 16,8ra).

Bost pertsonako edo gehiagoko familia-etxeak guztien % 7,4 ziren; 194.227 hazi da 10 urtean.

Baina hiru edo lau pertsona zituzten familia-etxeen kopurua % 16,8ra iritsi zen.

Bikoteek osatutako etxebizitzak

Ikusi dugun moduan, izatezko edo zuzenbidezko bikoteen inguruan osatutako familia-etxeen kopurua izan zen ugariena 2021ean: 10.059.681 izan ziren, ondorengodunak nahiz gabeak, hau da, familia-etxe guztien % 53,5. Bikoteekin bizi diren seme-alaben kopuruari erreparatuz gero, Espainian seme-alabarik gabeko bikoteek osatutako 3.952.238 familia-etxe zeuden, seme edo alaba bateko 2.459.495 familia-etxe, eta bi seme-alabako 2.967.200.

Ezkonduetako bikoteak guztizkoaren % 82,3 ziren, eta izatezko bikoteak % 17,7 (horietako % 48,9an bi bikotekideak ezkongabeak ziren). Ezkonduetako bikoteen kopurua gutxitu egin zen aurreko urtearekin alderatuta, baina izatezko bikoteena handitu.

Pertsona bakarreko familia-etxeak

2021ean, Espainian 4.981.696 lagun bizi ziren bakarrik. Horien artean, % 41,9k (2.089.175) 65 urte edo gehiago zituzten. Eta, horietatik, % 70,8 emakumeak ziren (1.479.441). 65 urtetik beherakoek osatutako pertsona bakarreko familia-etxei dagokienez, % 57,8 gizonezkoek osatuak ziren eta % 42,2 emakumezkoek osatuak (1.684.442 eta 1.227.549, hurrenez hurren).

2020ko batez besteko balioekin alderatuta, bakarrik bizi diren pertsonen kopuruak % 0,9 egin zuen gora 2021ean (+91.796). Adin taldearen arabera, 65 urte edo gehiago dituzten pertsona bakarreko familia-etxeak % 1,0 gutxitu ziren, eta 65 urtetik beherakoek osatutakoak % 2,7 igo.

Sexuaren arabera, emakume bakarreko familia-etxeen kopurua % 1,3 handitu zen, eta gizon bakarrekoen kopurua % 1,0.


Guraso bakarreko familia-etxeak

Guraso bakarreko familia-etxeak, hau da, guraso bakar batek eta 25 urtetik beherako seme-alabek osatutakoak, seme-alabak dituzten amek osatutakoak izan ohi dira kasu gehienetan. Zehazki, guztien % 79,9 (783.325) amei dagozkie, adin bereko seme-alabak dituzten aitekin alderatuta (196.612).

Guraso bakarreko familia-etxeen kopurua % 0,2 txikiagotu zen 2020arekin alderatuta. 25 urtetik beherako seme-alabek eta amak osatutakoek % 33,8 egin zuten behera, eta egoera bereko aitek osatutakoek % 29,7.


Aurrez adierazitako joerak Nafarroan ezagutzen direnen antzekoak dira, hemen ikusten ahal den moduan.

29. grafikoa: Espainiako familia-etxe motak. 2021



Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Biztanleriaren eta etxebizitzaren funtsezko ezaugarrien gaineko inkesta


30. grafikoa: Nafarroako familia-etxe motak. 2021



Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Biztanleriaren eta etxebizitzaren funtsezko ezaugarrien gaineko inkesta

25 urtetik beherako seme-alabak dituzten familiak aztertuz gero, ikusten da bikoteak (% 79,9) gehiago direla guraso bakarreko familiak (% 20,1) baino; autonomia erkidegoetan banaketa oso heterogeneoa da. Nafarroan ehuneko hori honela banatzen da: % 76,5 eta % 23,5, hurrenez hurren.

31. grafikoa: 25 urtetik beherako seme-alabak dituzten familien ehunekoa, familia motaren eta autonomia erkidego eta hiri autonomoaren arabera. 2021



Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Biztanleriaren eta etxebizitzaren funtsezko ezaugarrien gaineko inkesta




2.2.5. Eskolako adinean den biztanleria

Eskolako adinean den biztanleria 0 eta 24 urte arteko pertsonen osatzen dute. Garrantzi gehien duen adierazle demografikoetako bat da, adin tarte horretan sartzen baitira hezkuntza eskubide gehien dituzten pertsonak.

EBn, aniztasun handia dago biztanle guztien bilakaeraren eta adin tarte horretan dauden pertsonen proportzioaren arteko erlazioan. EBko batez besteko balioa % 25,5 izan da 2022an, baina herrialde batzuk nabarmen gazteagoak dira; adibidez, % 30etik hurbileko balioak dituzte Belgikan, Zipren, Danimarkan, Frantzian eta Suedian, eta Irlandan are gehiago dira (% 32,5). Espainiako ehunekoa apala da (% 24,3).

32. grafikoa: 25 urtetik beherako biztanleen ehunekoa EBn. 2022




Iturria: Eurostat

19. erans kina

2022an 0-24 urteko biztanleak % 24,5 ziren Espainian. Adierazle horren baliorik txikiak Asturiaskoa (% 18,4) eta Galiziakoa (% 19,8) dira; handienak, berriz, Melillakoa (% 35,5), Ceutakoa (% 32,1) eta Murtziakoa (% 28,4). Nafarroan, eskolako adinean dagoen biztanleriaren ehunekoa, zentzu zabalean ulertuta, % 26,0 da.

33. grafikoa: 0 eta 24 urte arteko biztanleriaren ehunekoa, autonomia erkidegoaren eta hiri autonomoaren arabera. 2023ko urtarrilaren 1a




Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Biztanleriaren etengabeko estatistika

20. erans kina

Dagoeneko esan den gisan, hezkuntza sistemen plangintzan ezinbestekoa da eskolako adinean dagoen biztanleriak datozen urteetan izanen duen bilakaeraren datuen proiektzioa aztertzea. EB-27n, oro har, agertoki posibleak oso egonkorak dira, grafiko honetan ikusten ahal denez. Oro har, biztanleria gazteenaren hazkunde aurreikuspenak (2033-2053), aurreko epealdikoekin (2022-2032) alderatuta, txikiagoak dira.


34. grafikoa: 14 urtetik beherako biztanleriaren hazkundearen bilakaera EBn.



Iturria: Eurostat

Autonomia erkidego guztietan, 2024-2037 aldian, biztanleria gazteena nabarmen jaitsiko da. Beherakada erlatibo handienak honako hauetan gertatuko dira: Ceuta eta Melilla (-% 6,8), Kanariak (-% 3,9) eta Madril (-% 3,8). Nafarroan, 14 urtetik beherako biztanleen kopuruak behera egingen du: 2013-2023 aldian % 15,2 izan ondoren, % 12,7 izanen da 2037an.

35. grafikoa: 14 urtetik beherako biztanleriaren hazkunde erlatiboaren bilakaera autonomia erkidegoaren eta hiri autonomoaren arabera. 2013-2037



Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Inebase. Biztanleriaren gainera proiektzioak

Bestalde, esan behar da hezkuntza bizitza osoan jasotzen den prestakuntza gisa ulertzen duen ikuspuntua ari dela gailentzen gaur egun. Ikuspegi hori eredu tradizionala baino malguagoa da, eta beste hezkuntza premia batzuk azpimarratzen ditu; besteak beste, honako hauek: etengabeko prestakuntza, batik bat lanean ari direnentzat; eguneratze zientifiko eta teknikoak; hezkuntza sistema behar baino lehenago utzi zutenentzako bigarren aukerak; eta modu informalean edo laneko esperientziaren bidez lortutako kualifikazio profesionalak onartzea. Horren harira, prestakuntzarako adinean dagoen biztanleria pertsonen bizitza aktibo guztira hedatzen da.

lido horretatik, adibidez, txosten honetan, helduen prestakuntzari buruzko atalean, Lanbide Heziketako ikastetxe bateratuetan eta beste ikastetxe edo programetan emandako lanerako eta etengabeko prestakuntzaren inguruko datuak ere jaso ditugu.

2.3. Alderdi sozioekonomikoak

Alderdi sozioekonomikoak funtsezkoak dira hezkuntzaren testuingurua zehazteko orduan, haiek konfiguratu eta lehenesten dituztelako jarduerak etengabe aldatzen ari diren gizartearen eta lan munduaren beharren arabera, eta hezkuntzaren arloko inbertsioa modu egokiago batean egiteko aukera ematen dutelako. Txosten honek aldagai sozioekonomikoak zehazten dituzten hainbat faktore eskaintzen ditu, modu zehatzean, aipatutako hezkuntzaren testuingurua zentzu zabalean ulertu ahal izateko. Zenbait adierazle makroekonomiko eta horiek denboran izan duten bilakaera lagungarriak dira Europako une ekonomikoaren ezaugarri nabarmenak, oro har, testuinguruan kokatzeko.

21.
erans
kina

2.3.1. Barne produktu gordina

Barne produktu gordina (BPG) adierazle makroekonomiko bat da. Herrialde edo eskualde batek epe zehatz batean (normalean, urtebeteko epean) ekoizten dituen ondasun eta zerbitzuen diru balioa neurtzen du. Gizarte baten ongizatea eta garapen materiala neurtzeko erabiltzen da barne produktu gordina, beste adierazle batzuekin batera.

COVID-19ak eragindako pandemiaren ondorio ekonomikoak agerikoak dira Espainiako kontabilitate nazionalaren agregatuetan, 2020ko lehen hiruhilekotik aurrera. Gainera, Errusiak Ukraina inbaditzeak sortu duen nazioarteko krisiaren ondorioak gehitu behar zaizkio horri. Izan ere, hiruhilekoko azken hilaz geroztik gerrak nahasmendu larriak eta era askotakoak eragin ditu mundu osoan: energia merkatuetan, nazioarteko merkataritzan, prezioen bilakaeran, migrazio fluxuetan etab. Bolumena % 0,6 jaitsi da 2021ekoarekin alderatuta.


EBko 2022ko batez besteko BPGaren balioa % 3,5era jaitsi zen. Nafarroan beherakada handi samarra gertatu zen: % 4,3. Espainian, aldi berean, beherakada % 5,8ra iritsi zen.

2021ean, hamar autonomia erkidegotan EB-27an (-% 5,4) baino gehiago handitu zen BPGaren bolumena. Autonomia erkidegoen artean Balear Uharteak eta Kanariak izan ziren BPGaren gorakada handiena izan zutenak: % 10,7 eta % 7,0 hurrenez hurren. Bi erkidego horiek izan zituzten beherakadarik handienak 2020an. Haien ondotik, Nafarroako, Kataluniako, Kantabriako, Valentiako Erkidegoko, Andaluziako, Asturiasko eta Euskal Autonomia Erkidegoko balioak Espainiako % 5,5etik gorakoak dira. Gainerako erkidegoak % 4,0 (Ceuta) eta % 5,4 (Madril) artean daude.

Biztanle bakoitzeko BPGari dagokionez, Madrilek izan zuen erregistrorik handiena (34.821 euro), Espainiako batezbestekoa baino % 36,6 handiagoa, eta atzetik ditu Euskal Autonomia Erkidegoa (32.925 euro) eta Nafarroa (31.024 euro), Espainiako batezbestekoa baino % 29,1 eta % 21,7 gehiago, hurrenez hurren. Madrilek eta EAEk bakarrik gainditzen dute Europako batezbestekoa (32.430 euro), eta beste lau erkidegok, Nafarroak, Kataluniak, Aragoik eta Errioxak, Espainiako batezbestekoa (25.498 euro) gainditzen dute. Beste erkidego batzuetan, ordea, biztanleko BPGa Espainiako batezbestekoa baino askoz txikiagoa izan da: Andaluzia (18.906 euro; % 25,9 txikiagoa), Kanariak (18.990 euro), Extremadura (19.072 euro) eta Melilla (19.266 euro).

2005-2021 epealdiko BPGaren bilakaeran eragin handia izan zuen 2007az geroztik bizitutako krisi larriak, baita gorabehera handiek eta atzetik etorritako ondorioek ere. 2020an jaitsiera nabarmena izan zen pandemiaren ondorioz (% 10,8), ondoko grafikoan ikusten den bezala. 2021ean % 5,5eko igoera izan zen aurreko urtearekin alderatuta, Ukrainako gerraren ondorioz.

36. grafikoa: BPGaren bilakaera EBn, Espainian eta Nafarroan



Iturria: Nastat eta Eurostat



2.3.2. Sektore ekonomikoak

Jardueraren indize orokorraren bilakaera adierazle nagusietan ere erregistratzen da; esate baterako, familia-etxeen gastuan, barne eskarian eta esportazioetan.

COVID-19ak eragindako pandemiaren ondorio ekonomikoak agerikoak dira Espainiako kontabilitate nazionalaren agregatuetan, 2020ko lehen hiruhilekotik aurrera. BPGaren urtetik urterako aldakuntza % 6,3 izan da, aurreko hiruhilekoan baino zortzi hamarren handiagoa.

2022ko lehen hiruhilekoan Espainiako BPGaren bolumena % 0,3 aldatu zen aurreko hiruhilekoaren aldean. Eskariari dagokionez, familia-etxeen kontsumoaren urtetik urterako tasa % 3,1ekoa izan da, eta kapitalaren eraketa gordina % 6,7koa.

11. taula: Espainiako jarduera ekonomikoaren adierazleak. Urtetik urterako aldakuntzaren tasa, bolumenaren balioetan. 2023ko 1. hiruhilekoa

	2018	2019	2020	2021	2022	2023ko 1H
BARNE-PRODUKTU GORDINA, merkatuko prezioetan	2,3	2,1	-10,8	1,6	0,8	0,5
Azken kontsumoko gastua	2,9	1,6	-8,6	0,8	0,7	-1,4
Kapital finkoaren eraketa gordina	6,3	4,5	-9,5	0,7	-1,2	1,7
Ondasun eta zerbitzuen esportazioak	1,7	2,5	-20,1	4,2	1,8	5,6
Ondasun eta zerbitzuen inportazioak	3,9	1,2	-15,2	3,1	-0,6	2,7
Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	7,5	-2,5	4,3	-0,7	-0,6	4,2
Industria	-0,02	1,4	-10,1	0,3	0,3	1,0
Eraikuntza	2,3	5,3	-11,3	-0,8	1,2	2,4
Zerbitzuak	2,6	2,3	-11,5	1,9	1,0	0,0

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Espainiako hiruhilekoko kontabilitate nazionala: agregatu nagusiak

Ondoko taulan ikusten ahal da Foru Komunitateko adierazleen bilakaera.

12. taula: Nafarroako hiruhilekoko kontabilitatea. Eskaintza eta eskaria. Barne produktu gordinaren bilakaera. Urte arteko aldakuntzaren tasak. Bolumen metatuaren adierazleak. 2010eko erreferentzia

Osagaiak	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Azken kontsumoko gastua	3,3	3,5	2,8	2,3	-5,9	3,5	2,2
Etxebizitzen eta EZIAGEen* azken kontsumoko gastua	3,5	3,6	2,7	2,1	-8,9	3,1	2,3
APen** azken kontsumoko gastua	2,5	2,8	2,9	3,4	5,1	2,9	-0,1
Kapitalaren eraketa gordina	0,4	0,5	1,8	1,9	-13,2	8,6	4,6
Kapital-ondasunak eta beste produktu batzuk	0,4	0,2	1,6	1,4	-17,6	12,6	5,0
Eraikuntza	0,4	0,9	2,2	2,6	-7,9	4,4	4,2
Izakinen aldakuntza	-0,1	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
BARNE-ESKARIA	2,4	2,7	2,5	2,1	-7,5	10,1	3,2
Ondasun eta zerbitzuen esportazioak	1,5	0,6	1,6	1,4	-12,8	7,8	4,8
Ondasun eta zerbitzuen inportazioak	1,0	0,0	1,2	0,8	-13,3	6,4	1,9
KANPO-ESKARIA	0,5	0,5	0,5	0,5	-0,8	1,4	1,2
Nekazaritza, abeltzaintza eta basogintzako BEM op***	2,2	2,1	2,0	1,0	-2,2	2,1	2,3
Industria-sektoreko BEM op	3,2	2,4	1,8	2,2	-9,5	7,5	3,5
Eraikuntzako BEM op	2,2	3,6	3,6	3,4	-7,6	4,6	4,4
Zerbitzuetako BEM op	2,9	3,7	3,8	2,9	-7,9	6,5	5,3

Merkatu-zerbitzuen BEM op	3,6	3,9	4,3	2,5	-11,4	7,6	7,4
Merkatuz kanpoko zerbitzuen BEM op	0,8	2,9	1,8	4,2	4,9	3,5	-1,4
Produktuen gaineko zerga garbiak	2,5	3,5	1,3	2,8	-9,6	5,6	1,3
Gutzizko BPGd mp	2,9	3,2	2,9	2,7	-8,3	6,3	4,3

*EZIAGE: Familia-etxeen zerbitzura dauden irabazi asmorik gabeko erakundeak

**AP: Administrazio Publikoak

***BEM op: Balio agregatu gordina oinarritzko prezioetan; BPG mp: Barne produktu gordina, merkaturko prezioetan
Iturria: Nastat. Nafarroako hiruhilekoko kontabilitatea. Barne produktu gordinaren bilakaera


Nafarroan, COVID-19ari aurre egiteko ezarritako murrizketek 2020ko hirugarren hiruhilekoan hasitako susperraldia moteldu dute; hala ere, BPGa % 4,3 igo da 2022an.

2023ko lehenengo hiruhilekoan, BPGa 2022ko hiruhileko berekoa baino % 2,1 handiagoa izan da. Hazkunde erritmoaren moderazio hori merkatu zerbitzuetan eta eraikuntzan zenbatetsitako dinamismo txikiagotik dator.

Eskaeran, kapitalaren eraketa gordinaren hazkunde erritmoa moteldu egin da, nahiz eta azken kontsumoan egindako gastua berreskuratzeko zantzuak ikusten diren.

Nafarroako egitura ekonomikoak ezaugarri espezifikoak ditu, Espainiarekin alderatzen dugunean. Nabarmentzekoa da industriaren pisu erlatiboa, BPGaren % 32,2 sortu baitzuen 2022an, ia Espainiako tasa (% 17,6) halako bi. Hurrengo ekarpenik handienak honako hauek dira: eraikuntza (% 6,4 Nafarroan eta % 5,2 Espainian) eta lehen sektorea (% 3,0 Nafarroan eta % 2,6 Espainian). Zerbitzuetan aldeak nabarmenagoak dira, eta Nafarroak % 58,5 du, eta Espainiak % 74,5.


37. grafikoa: Sektore produktiboen gutzizko BPGaren gaineko ehunekoaren bilakaera. Espainia



* Espainiako gutzizko BPGaren gaineko pisua, ehunekotan

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Espainiako hiruhilekoko kontabilitatea

38. grafikoa: Sektore produktiboen guztizko BPGaren gaineko ehunekoaren bilakaera. Nafarroa



* Nafarroako guztizko BPGaren gaineko pisua, ehunekotan
Iturria: Nastat. Nafarroako hiruhilekoko kontabilitatea

23.
erans
kina

2.3.3. Lan merkatua

Agerikoa da egitura ekonomikoa garrantzitsua dela hezkuntza eskaintzaren plangintzarako, testuinguruko elementu gisa, besteak beste, gizarte sistemari eta ekoizpen sistemari loturik dagoenez, hezkuntza eskaintza baldintzatzen duelako.

Lana eta jarduera adarrak

Jarduera adarrek eta horiek ekonomian duten pisu erlatiboak enplegu mapa eta lan baldintza desberdinak sortzen dituzte. EBko enpleguak jarduera adarren artean duen banaketak garbi erakusten digu zer-nolako aniztasuna dagoen Europar Batasuna osatzen duten estatuen egitura ekonomikoan. Herrialde batzuetan nekazaritzak oso pisu handia du (Errumania, Grezia), baina beste batzuetan ia hutsaren hurrengoa da (Malta, Belgika, Luxenburgo); herrialde industrializatuen ondoan (Txekiar Errepublika, Eslovakia, Eslovenia, Hungaria) gutxiago industrializatuak daude (Luxenburgo, Zipre, Herbehereak); eta zerbitzu sektorea garrantzitsuagoa da batzuetan (Herbehereak, Luxenburgo, Malta, Suedia) beste batzuetan (Errumania, Polonia, Txekiar Errepublika) baino.

Aniztasun hori enplegu industrialari buruzko balio erlatiboak aztertuz ikusten ahal da, esaterako. Batasuneko batez besteko balioa % 17,90 da, Espainiakoa % 13,70 eta Nafarroakoa % 26,29.

13. taula: Enpleguaren datuak, jarduera adarren arabera. 2022

	Nekazaritza	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
EB	3,51	17,90	6,78	71,81


Espainia	3,75	13,70	6,51	76,05
Nafarroa	2,64	26,29	6,87	64,20

Iturria: Eurostat

24.
erans
kina

Hori horrela, okupazioak ezaugarri bereizgarriak ditu Nafarroan, egitura ekonomikoaren ezaugarriengatik, arestian ikusi denez, enplegu industrialak garrantzi handia duelako eta zerbitzuetako zenbait jarduerak pisu txikia dutelako.

39. grafikoa: Okupazioaren banaketa Nafarroan eta Espainian. 2023ko 1. hiruhilekoa




Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Biztanleria aktiboaren inkesta

25.
erans
kina

Nafarroan Gizarte Segurantzaren jardueraren arabera afiliatutako ehunekoa koherentea da bertako egitura ekonomikoaren ezaugarrien ondoan.


40. grafikoa: Gizarte Segurantzaren afiliatutako bilakaera sektoreen arabera. Nafarroa



Iturria: Nastat, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emandako datuekin

26.
erans
kina

41. grafikoa: Gizarte Segurantzako afiliatuen ehunekoa Nafarroan, hilabetearen eta sexuaren arabera. 2022



Iturria: Nastat. Egoera Ekonomikoaren Adierazlea


27.
erans
kina

Okupazioa eta langabezia

2022ko otsailean Ukrainan eraso errusiarra lehertu zenetik, gerratik ihes egiten duten pertsonak aldi baterako babesa jaso dute EBn. Egoera horrek ondorio garrantzitsuak izan ditu herritarren lan jardueran, bai Europar Batasunean, bai Espainian.

Lehen esan dugun bezala, biztanleriaren lan jarduerak eragin handia dauka hezkuntzan, eta hezkuntzak, era berean, eragina du lan jardueran. Ziklo ekonomiko honetan, bestalde, bada arreta berezia merezi duen faktore bat: langabezia. Langabeziaren datuetan alde handiak daude EBn eta Europako beste herrialde batzuetan. Batez bestekoa % 5,9 izanik, % 5etik beherakoa da Austriar, Belgikar, Bulgariar, Danimarkar, Estoniar, Hungariar, Lituaniar, Luxenburgor, Maltar, Txekiar Errepublikar edo Errumaniar, % 5 eta % 9 artekoa beste batzuetan, eta Irlanda da % 10etik gorakoa duen bakarra (% 11,4).

42. grafikoa: Langabeziaren ehunekoa EBn. 2023ko 1. hiruhilekoa



Iturria: Eurostat

28.
erans
kina

Jarduerari, okupazioari, langabeziari eta enpleguaren kalitateari buruzko datuak, Nafarroan, krisi ekonomikoa gertatu baino lehenagoko mailetatik urrun daude oraindik. Adibidez, langabezia tasa % 12,1 izan da 2023ko lehen hiruhilekoan, autonomia erkidego guztietako bederatzigarren txikiena (Espainiako batez bestekoa % 13,3 izan da), oso urrun Ceutakotik (% 24,0) edo Melillakotik (% 26,1).


14. taula: Okupazioari eta langabeziari buruzko datuak Europar Batasunean, Espainian eta Nafarroan. 2023ko 1. hiruhilekoa

	Lana duten pertsonak	Langabeak	Langabezia-tasa
EB-27	207.197.000	39.197.000	5,9
Espainia	20.452.800	3.127.800	13,3
Nafarroa	284.800	39.300	12,1

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionalak eta Eurostat-ek biztanleria aktiboaz egindako inkesta

29.
erans
kina

43. grafikoa: Langabezia tasa, autonomia erkidegoaren arabera. 2023ko 1. hiruhilekoa



Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Biztanleria aktiboaren inkesta

2023ko lehen hiruhilekoan, okupatutako pertsonak 11.100 gutxiago izan ziren Espainian aurreko hiruhilekoan baino (-% 0,05); guztira 20.452.800 pertsona.

Enpleguari buruzko zenbait alderdi aipagarri:

- Okupazioak behera egin du sektore publikoan (2.300 gutxiago) eta pribatuan (8.800 gutxiago). Azken 12 hilabeteetan 312.300 pertsona gehiago ari dira lanean sektore pribatuan eta 55.700 sektore publikoan.
- Soldatapeko langileen kopuruak 23.200 pertsonetan behera egin du hiruhileko honetan. Mugagabeko kontratua dutenak 93.800 gehiago dira, eta aldi baterako kontratua dutenak 117.000 gutxiago dira. Urteik urterako gorabeherei erreparatuta, soldatapeko pertsonen kopuruak gora egin du: 419.800 gehiago. Horietatik 1.520.800 pertsonak mugagabeko kontratua dute, eta 1.101.000 pertsonak aldi baterakoa. Norberaren konturako langileak 12.100 gehiago dira hiruhileko honetan eta azken 12 hilabeteetan, berriz, 43.400 gutxiago.
- Enpleguaren hazkunderik handienak hiruhileko honetan Andaluzian (66.300 gehiago), Madrilen (31.400 gehiago) eta Aragoian (7.300 gehiago) izan dira. Enpleguaren gainbehera handienak Balearretan (38.600 gutxiago), Gaztela eta Leonen (21.400 gutxiago) eta Kanarietan (13.600 gutxiago) gertatu dira. Azken urtean ia erkidego guztietan gehitu da landunen kopurua. Gorakada handienak hiru hauetan izan dira: Andaluzia (+109.700), Katalunia (+64.000) eta Kanariak (+55.900).
- Hiruhileko honetan 103.800 pertsona gehiago daude langabezian (+% 3,43): 3.127.800 langabe, guztira. Azken 12 hilabeteetan 47.000 pertsonak utzi dute langabezia (-% 1,48). Ondorioz, langabezia tasa % 13,26koa da. Azken urtean tasa 0,38 puntu jaitsi da.
- Autonomia erkidegoetan, hiruhileko honetako langabezia jaitsiera handienak Andaluzian (-19.100), Madrilen (-16.200) eta Asturiasen (-6.700) izan dira. Gorakadarik handienak, aldiz, Balear Uharteetan (+48.100), Kanarietan (+33.500) eta Katalunian (+20.000). Urte osoko datuen arabera, beherakada handienak Kanarietan (-32.100), Andaluzian (-30.000) eta Madrilen (-27.000) izan dira. Gorakadarik


handienak, aldiz, Valentziako Erkidegoan (+34.600), Katalunian (+13.000) eta Gaztela-Mantxan (+10.300).

Hauek dira Nafarroako datuak:

- Nafarroan, 2023ko lehen hiruhilekoan aurreko hiruhilekoan baino 4.000 pertsona gutxiagok dute lana (-% 2,81). Landunak 284.800 dira guztira.
- Aurreko hiruhilekoan baino 5.700 pertsona gehiago daude langabezian (+% 16,9), guztira 39.300 lagun.
- Langabezia tasa % 12,13koa da, bederatzigarren txikiena autonomia erkidegoen artean. % 2,04 egin du gora aurreko hiruhilekotik hona, eta % 1,69 2022ko 1. hiruhilekotik.
- Aurreko hiruhilekoan baino 1.800 pertsona aktibo gutxiago daude (-% 0,6); guztira 324.100 dira. Hiruhilekoan beherakada handienetakoa izan duten erkidegoetako bat da. Urteik urterako datuen arabera, 1.700 pertsona gutxiago daude biztanleria aktiboan (% 1,37).

Urteko azken datuen arabera, langabeziaren ehunekoak, adinaren eta sexuaren arabera, Espainian eta Nafarroan honela banatuta daude:

44. grafikoa: Espainian eta Nafarroan erregistratutako langabeziaren ehunekoa, adin taldearen eta sexuaren arabera. 2022




Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Biztanleria aktiboaren inkesta



2023ko lehen hiruhilekoari dagokionez, eta adin taldeak banakatuta, langabeziaren errealitatea xehetasun gehiagorekin erakusten dute ondoko grafikoeak. Aipagarria da langabeziaren


bolumenak gora egin duela 25-34 urteko tartean, eta 35-54 urte bitarteko taldean are gehiago hazten dela emakumeen kopurua. Gainera, ia adin tarte guztietan emakume gehiago daude langabezian.

45. grafikoa: Espainian erregistratutako langabezia, adinaren eta sexuaren arabera. 2023ko 1. hiruilekoa



Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Biztanleria aktiboaren inkesta

46. grafikoa: Nafarroan erregistratutako langabezia, adinaren eta sexuaren arabera. 2023ko 1. hiruilekoa



Iturria: EIN. Biztanleria aktiboaren inkesta

Okupazioa eta ikasketa maila

Biztanleria gazteenak pairatzen duen langabezia tasak, bai Espainian bai Nafarroan, hezkuntza maila handieneko sektorea jotzen du gehien, adin tarte altuekin alderatuta. EBn, goi mailako hezkuntza gainditu dutenen % 4,1 eta Bigarren Hezkuntza dutenen % 6,1 daude langabezian. Espainian, berriz, % 8,8 eta % 16,6 dira, hurrenez hurren.


la EBko herrialde guztietan, zenbat eta altuagoa izan biztanleriaren ikasketa maila, orduan eta hobea da okupazio maila.

15. taula: EBn eta Espainian erregistratutako langabezia ehunekoak, ikasketa mailaren arabera. 2022

	Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa baino gutxiago (0-2. maila)	Bigarren Hezkuntza (3-4. maila)	Goi-mailako Hezkuntza (5-8. maila)
EB	11,9	5,5	3,8
Espainia	18,7	13,7	7,7

* Datuak 20 eta 64 urteko biztanleria aktiboaren portzentajeari dagozkio
Iturria: Eurostat

47. grafikoa: Europar Batasunean erregistratutako langabeziaren ehunekoak, ikasketa mailaren arabera. 2022



* Datuak 20 eta 64 urteko biztanleria aktiboaren portzentajeari dagozkio
Iturria: Eurostat

Soldatak

2023ko urtarrilean, EBko hogeita zazpi estatuetatik hogeita bik (Danimarka, Italia, Austria, Finlandia eta Suedia ez beste guztiek) gutxieneko soldata nazionala zuten, EBkoak izateko hautagai ziren herrialde batzuek (Montenegro, Iparraldeko Mazedonia, Albania, Serbia eta Turkia) bezala. Une horretan, hileko gutxieneko soldatak oso bestelakoak ziren estatu kideen artean; esaterako, Bulgarian 399,0 eurokoa zen, eta Luxenburgon 2.387,0 eurokoa.

Hileko gutxieneko soldata gordinetan oinarrituta (eurotan adierazita), hiru taldetan sailkatzen ahal dira EBko estatu kideak, 2023ko urtarrileko datuen arabera:

- Gutxieneko soldata nazionala hileko 1.000 euro baino gutxiagokoa zuten estatuak. Hauek dira talde honetan sartzen diren EBko estatuak: Bulgaria, Zipre, Kroazia, Eslovakia, Estonia, Grezia, Hungaria, Letonia, Lituania, Malta, Polonia, Portugal, Txekiar Errepublikak eta Errumania. Gutxieneko soldatak 399,0 euro (Bulgaria) eta 940,0 euro (Zipre) artekoak ziren.
- Gutxieneko soldata hileko 1.000 euro baino gehiagokoa eta 1.500 euro baino gutxiagokoa zuten estatuak. Talde honetan sartzen dira: Eslovenia eta Espainia. Gutxieneko soldatak 1.167,0 euro (Espainia) eta 1.203,0 euro (Eslovenia) artekoak ziren.
- Gutxieneko soldata hileko 1.500 euro baino gehiagokoa zuten estatuak. Hauek dira talde honetan sartzen diren estatuak: Alemania, Belgika, Frantzia, Irlanda, Luxenburgo eta Herbehereak. Gutxieneko soldata nazionalak 1.709,0 euro (Frantzia) eta 2.387,0 euro (Luxenburgo) artekoak ziren.


Bestalde, EBkoak izateko hautagai diren herrialdeek 1.000 eurotik beherako soldata dute, 298,0 euro (Albania) eta 532,0 euro (Montenegro) artekoa.

Batez besteko soldatetan, alde handia dago EB barruan soldatarik altuenak dituzten herrialdeen (Luxenburgo, Belgika, Herbehereak, Alemania, Frantzia, Irlanda) eta txikiak dituztenen artean (Bulgaria, Zipre, Kroazia, Eslovakia, Estonia, Grezia, Hungaria, Letonia, Lituania, Malta, Polonia, Txekiar Errepublikak eta Errumania).

Kontuan izan behar da gutxieneko soldata txikiagoa duten herrialdeetan prezioak baxuagoak izaten direla eta, beraz, gutxieneko soldatak erlatiboki handiagoak direla, erosteko ahalmenaren estandarretan adierazten direnean (EAI). Prezio mailen ondoriozko doitzeko horrek neurri batean gutxitzen ditu hiru taldeen artean dauden aldeak.

2013ko urtarriletik 2023ko urtarrilera bitartean, urteko batez besteko hazkuntza tasarik altuena Errumaniakoa izan zen (+% 14,4), ondoren Lituaniakoa (+ % 11,2) eta gero Bulgariakoa (+% 9,7). EBko estatuetakoa urte arteko hazkunde tasa txikiena Maltan izan zen (+% 1,7), bigarren txikiena Frantzian (+% 1,8) eta hirugarren txikiena Grezian (+% 2,0).

48. grafikoa: Europar Batasuneko hilabeteko gutxieneko soldata. 2023




* Zenbait herrialderen datuak falta dira. Ez zegoen gutxieneko soldata nazionalik Austrian, Zipren, Danimarkan, Finlandian, Italian eta Suedian. Zipren, Gobernuak ezartzen du lanbide zehatz batzuetarako gutxieneko soldata. Austrian, Danimarkan, Finlandian, Italian eta Suedian sektore zehatzei eragiten dieten hitzarmen kolektiboen bidez ezartzen da

Iturria: Eurostat

Europar Batasuneko herrialdeetako gizonen eta emakumeen arteko soldata arrakalari buruzko daturik berrienak 2021ekoak dira. Emakumeen diru-sarrera gordinak, orduko, gizonenak baino % 12,7 txikiagoak izan ziren, batez beste. EBko estatu kide guztietan, gizonen eta emakumeen arteko soldata arrakala ehuneko 20,7 puntu igo zen; balioak Luxenburgoko -% 0,2aren eta Estoniako % 20,5aren artean zeuden.

49. grafikoa: EBko gizonen eta emakumeen arteko soldata arrakala 2021



* Zenbait herrialdeetako datuak falta dira
Iturria: Eurostat


Espanian, urteko batez besteko soldata (2021) langile bakoitzeko 25.896,82 eurokoa izan zen, aurreko urtean baino % 2,9 gehiago. Soldata banaketaren ezaugarrietako bat da langile gehiago biltzen direla balio baxuetan soldatarik altuenetan baino. Horren ondorioz, batez besteko soldata altuagoa da soldata ertaina eta soldatarik ohikoena baino. Horrenbestez, soldaten mediana 21.638,69 eurokoa izan zen 2021ean (kontzeptu honek bi zati berdinetan banatzen du langileen kopurua: batetik, hortik gorako soldata dutenak; bestetik, hortik beherakoa dutenak). Soldatarik ohikoena 18.503 eurokoa izan zen.

Hona hemen nabarmentzeko moduko beste ezaugarri batzuk:

- Urteko batez besteko soldata 23.175,95 eurokoa izan zen emakumezkoentzat eta 28.388,69 eurokoa gizonezkoentzat. Emakumeen urteko batez besteko soldata gizonen batez besteko soldataren % 81,6 izan zen.
- Emakumeen % 25ek eta gizonen % 10,7k Lanbide arteko Gutxieneko Soldata (LGS) baino txikiagoa edo berdina izan zuen. Egoera horretan eragina du lanaldi partzalean lan egiten duten emakumeen ehuneko handiagoa izateak.
- 2021ean, denbora osoko jarduneko gizonen eta emakumeen kopurua antzekoa izan zen 15.000 eurotik beherako soldatetan. Hala ere, soldata maila horretatik aurrera, gizonen kopurua emakumeena baino handiagoa izan zen beti. Aitzitik, jardun partzialeko emakumeen kopurua beti askoz handiagoa izan zen gizonena baino, ia soldata maila guztietan, batez ere 20.000 eurotik beherakoetan.
- Gizonen eta emakumeen arteko batez besteko irabazien alde nabarmen hori EBN ere gertatzen da. 2021ean, emakumeen soldata gizonena baino % 12,7 txikiagoa izan zen batez beste. Gizonen eta emakumeen batez besteko ordainsarien arteko alderik txikienak Belgikan, Zipren, Eslovenian, Espainian, Italian, Luxenburgon, Polonian eta Errumanian izan ziren (% 10 baino gutxiago). Soldata arteko arrakala handienak Estoniakoa (% 20,5) eta Hungariakoa (% 17,3) izan ziren.
- Gizonen eta emakumeen ordainsariaren arteko diferentzia hori txikitu egiten da zenbait kasutan, kontuan hartutako lanpostuak antzekoak direnean (okupazio bera, kontratu mota, lanaldi mota eta abar).
- Espainian hobekien ordaindutako jarduera ekonomikoa *Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire girotuaren hornidura* delakoa izan zen: 52.985,83 euro; batez bestekoa baino % 104,6 gehiago. Horren atzetik, bigarren soldatarik altueneko jarduera *Finantza eta aseguru jarduerak* izan zen, 46.122,24 euroekin. Urteko batez besteko soldata txikienak *Ostalaritzak eta Administrazio jarduerak eta Bestelako zerbitzuek* izan zituzten, 14.632,81 eta 18.118,66 euro, hurrenez hurren. Balio horiek batez bestekoa baino % 43,5 eta % 30,0 txikiagoak izan ziren.
- *Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire girotuaren hornidura* izan zen soldatarik altueneko jarduera, bai gizonezkoen bai emakumezkoen kasuan. Eta *Ostalaritzak* izan zituen soldatarik txikienak bi sexuentzat. Emakumeek gizonezkoek baino soldata txikiagoa izan zuten ia jarduera ekonomiko guztietan.
- Sexuaren araberako soldaten diferentzia, oro har, handiagoa zen langileek adinean gora egiten zuten heinean. Emakume gazteek adinekoek baino kualifikazio hobea (okupazioa, ikasketak...) dutelako gertatzen da hori.
- *Zuzendariak eta kudeatzaileak* okupazio taldean izan zen urteko irabazirik handiena (batezbestekoa baino % 128,7 gehiago). Aldiz, *Zerbitzuetako langile ez-kualifikatuak* (garraioa izan ezik), *Errestaurazio eta merkataritza zerbitzuetako langileak* eta *Osasun zerbitzuetako eta pertsonak zaintzeko zerbitzuetako langileak* izan ziren ordainsaririk txikienak jaso zituztenak.
- Kontratu motaren arabera, iraupen mugagabeko kontratuetan lanorduko irabazia 17,09 eurokoa da; kontratua iraupen mugatukoa bada, ordea, 13,77 eurokoa.

- Nabarmena da, baita ere, kontratu finkoa dutenek batez beste diru gehiago irabazten dutela urtean, aldi baterako kontratua dutenek baino. Horren harira, kontratu mugagabea dutenek urtean batez beste 27.228,80 euroko soldata izan zuten eta iraunaldi jakineko kontratua dutenek 19.842,69 eurokoa.
- Nazionalitateari erreparatuta, 2021ean espainiar nazionalitateko langileen urteko batez besteko soldata bakarrik izan zen batezbestekoa baino handiagoa. Europako Batasuneko gainerako langileentzat, soldata batezbestekoa baino % 11,8 txikiagoa izan zen; gainerako nazionalitateentzat, gutxienez, % 34,0 txikiagoa izan zen.
- Autonomia erkidegoetan, urteko batez besteko soldatarik altuenak EAEn (31.063,68 euro urtean langileko), Madrilan (29.512,58) eta Nafarroan (28.459,37) izan ziren. Hiru erkidego horietan, Katalunian bezala, urteko batez besteko irabazia Espainiako batez besteko irabazia baino handiagoa izan zen. Beste muturrean, Extremaduran (21.393,01), Kanarietan (22.466,23) eta Andaluzian (23.154,99) izan zituzten txikiak.
- Erlazio positiboa dago adinaren eta soldata mailaren artean, logikoa baita adin gehieneko langileek, oro har, antzintasun eta esperientzia handiagoa izatea lanpostuan. 40 urtetik beherako adin talde guztietan batez besteko soldata batezbestekoa baino txikiagoa izan zen. 40 eta 65 urte artekoek, batez beste, batezbestekotik gorako soldatak izan zituzten.


50. grafikoa: Espainiako batez besteko urteko soldata, sektore ekonomikoaren arabera. 2021



Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Soldaten egituraren gaineko urteko inkesta

Adinaren arabera, azpimarragarriak dira 55 urtetik gorako pertsonen diru-sarrerak, haiek baitute urteko batez besteko soldatarik altuena (28.687,17 euro), 45 eta 54 urte bitartekoekin batera (28.219,62 euro); gainerakoek baino askoz ere soldata txikiagoak dituzte 25 urtetik beherakoek (12.930,13 euro).

51. grafikoa: Espainiako urteko batez besteko soldata gordina, adinaren arabera. 2021



Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Soldaten egituraren gaineko urteko inkesta

16. taula: Urteko batez besteko soldata autonomia erkidegoetan. 2021

	Guztira		Emakumeak		Gizonak	
	Eurotan	Urteko aldaketa tasa	Eurotan	Urteko aldaketa tasa	Eurotan	Urteko aldaketa tasa
Espainia	25.896,82	2,9	23.175,95	3,2	28.388,69	2,7
Andaluzia	23.154,99	3,7	20.427,80	4,7	25.464,78	2,7
Aragoi	25.011,55	3,7	22.283,81	4,3	27.389,18	3,3
Asturias	25.046,60	2,1	21.808,96	2,4	28.399,51	1,6
Balear Uharteak	24.134,73	1,1	22.344,76	1,6	25.898,51	0,8
Errioxa	23.716,88	1,8	21.135,77	0,8	26.488,06	3,2
Euskadi	31.063,68	1,8	28.084,16	0,8	33.706,34	3,2
Extremadura	21.393,01	4,5	19.833,03	5,5	22.794,52	3,3
Galizia	23.305,86	2,1	20.904,37	2,2	25.794,19	2,0
Gaztela eta Leon	23.564,33	2,7	20.795,39	2,4	26.263,49	2,8
Gaztela-Mantxa	23.234,55	2,9	21.154,58	1,9	24.897,33	3,6
Kanariak	22.466,23	3,9	21.178,57	3,5	23.619,76	4,1
Kantabria	24.470,70	4,2	21.532,96	2,6	27.233,75	5,5
Katalunia	28.145,02	3,9	25.015,94	3,8	31.212,67	4,0
Madril	29.512,58	2,4	26.578,07	2,6	32.213,88	2,3
Murtzia	23.281,39	1,6	20.189,83	0,9	25.674,66	1,8
Nafarroa	28.459,37	1,7	24.809,14	3,2	31.643,22	1,0
Valentziako E.	23.448,29	2,6	20.670,50	2,5	25.914,86	2,7

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Soldaten egituraren gaineko urteko inkesta

17. taula Urteko batez besteko soldata Nafarroako sektore ekonomikoetan, sexuaren arabera bereizita. 2021

	Guztira	Emakumeak	Gizonak
Jarduera sektore guztiak	28.459,37	24.809,14	31.643,22
Industria	31.432,37	26.416,72	33.239,05
Eraikuntza	-28.986,02		-29.468,09
Zerbitzuak	26.963,80	24.446,60	30.596,24

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Soldaten egituraren gaineko urteko inkesta

Errenten arteko desberdintasuna


Desberdintasun ekonomikoa soldatek eragiten dute hein batean, eta horren inguruko datuak oso garrantzitsuak dira pobrezia erlatiboa kalkulatzeko. Izan ere, baliabide ekonomikoen banaketak zuzeneko eragina izaten ahal du pobrezia-aren norainokoa eta garrantzia.

EBn errenten arteko desberdintasun handiak daude. Hartara, 2021eko datuei erreparatu, errenta erabilgarri baliokide handiena zuen biztanleriaren % 20k errenta erabilgarri baliokide txikiena zuen % 20k baino 4,7 aldiz errenta handiagoa jaso zuen, grafikoan ikusten ahal den moduan. Proporzio horretan alde nabarmenak egon ziren: Eslovakian 3,1 eta Eslovenian 3,3 izan zen, 6tik gorakoa Errumanian, Lituania eta Letonian, eta baliorik handiena Bulgariakoa eta Ziprekoa izan zen: 8,0.

2010-2021 aldian errenta desberdintasunak urritu egin ziren Batasuneko 27 estatuetatik hamabostetan. Jaitsiera handienak hiru hauetan gertatu ziren: Lituania S80/S20 ratioa 7,4tik 6,4ra pasatu zen, Kroazian 5,5etik 4,6ra, eta Polonian 5,0etik 3,9ra.

Aldiz, Batasuneko estatu askotan errenta desberdintasunak handitu ziren; kasurik agerikoenak Bulgariakoa (5,9tik 8,0ra) eta Ziprekoa (5,4tik 8,0ra) dira.


52. grafikoa: Errentaren banaketako desberdintasunak EBn. 2022 (diru-sarreraren banaketa kintiletan*)




* Kintila: herrialde edo eskualde bateko biztanleria txiroenetik aberatsenera ordenatzen da, eta gero pertsona kopuru bera duten bost taldetan zatitzen
Ez dago Italiako daturik
Iturria: Eurostat

Errenten arteko desberdintasunak laburbilduta adierazten ahal dira bereziki esanguratsuak diren zenbait kontzepturen arabera, hala nola sexua, adina, hezkuntza maila, jatorrizko nazionalitatea eta bizilekua.

53. grafikoa: Errentaren banaketako desberdintasunak Espainian, kontzeptuaren arabera. 2021






Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Bizi baldintzei buruzko inkesta


Enpleguaren kalitateak eta langabeziak Nafarroan ere mantendu dituzte soldata errenten arteko desberdintasunak azken urteetan. Hartara, 2013-2021 tartean, soldata handienen eta txikienen batezbestekoan izandako aldeari dagozkion balioek adierazten dute gehien irabazten dutenen soldata gutxien irabazten dutenena halako bi dela.

54. grafikoa: Soldaten bilakaera Espainian



Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Soldaten egituraren gaineko urteko inkesta

55. grafikoa: Nafarroako soldaten bilakaera




Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Soldaten egituraren gaineko urteko inkesta

2.3.4. Familien ekonomia

- **Per capita BPGa**

Biztanleko eskuragarri dagoen familia errenta honela osatzen da: herritar batek, batez beste, zergak ordaindu ondoren, jasotzen dituen urteko diru-sarrerak. Familien testuinguru ekonomikoa irudikatzeko adierazleetako bat da. Enplegutik eta bestelako iturrietatik etorritako diru-sarrerak hartzen ditu kontuan. Ez dator bat biztanleko BPGarekin; izan ere, azken horrek ez ditu aintzat hartzen subsidioak edo laguntzak, eta, aldiz, kontabilizatu egiten ditu enpresetan gelditzen diren irabaziak, ez direnak familientzako errenta eskuragarria. Alabaina, eta alderaketak egiteko aukera emateko, azken zortzi urteetako EBko, Espainiako eta Nafarroako biztanle bakoitzeko BPGaren bilakaera jaso dugu.

56. grafikoa: Per capita BPGaren bilakaera



Iturria: Estatistikako Institutu Nazionalaren eta Eurostaten Espainiako Eskualde Kontabilitatea


35.
erans
kina

Nafarroako per capita BPGa (31.024 euro) EBkoa (32.270) baino txikiagoa da, eta Espainiakoa (25.498) baino handiagoa.

- **Diru-sarrerak eta banaketa**

Pertsona bakoitzeko batez besteko diru-sarrera 13.008 euro izan zen Espainian, aurreko urtean baino % 6,0 gehiago. Baliorik altuenak Euskadikoak (16.4274 euro), Nafarroakoak (15.970) eta Madrilakoak (15.695) dira. Extremaduran (10.133), Murtzian (10.632) eta Andaluzian (10.703) dituzte batez besteko diru-sarrera txikiak.

57. grafikoa: Pertsona bakoitzeko urteko diru-sarrera garbiak, autonomia erkidegoaren eta hiri autonomoaren arabera. 2022



Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Bizi baldintzei buruzko inkesta

Diru-sarrerek banaketa desberdina izan zuten, eta Gini koefizientea eta Gini indizea erabiltzen dira hori aztertzeko. Gini koefizientea 0 eta 1 arteko zenbaki bat da, non 0 berdintasun perfektuaren adierazle den (pertsona guztiek diru-sarrera berdinak dituzte) eta 1 desberdintasun perfektuaren adierazle (pertsona batek diru-sarrera guztiak ditu eta besteek ez dute ezer ez). Datu hori bera Gini indizearen bidez adierazten ahal da. Kasu horretan, gehieneko balioa 100 izanen da, 1 beharrez, eta, datua lortzeko, 100 aldiz biderkatu behar da Gini koefizientea.

EBren esparruan, Gini indizeak ez du 2009-2022 aldian aldaketa handirik izan, eta 30,5 eta 29,6 arteko balioak izan ditu. Azken urtean herrialde hauetan izan dira desberdintasun handienak: Bulgaria (38,4), Lituania (36,2), Letonia (34,3), Italia (32,7) eta Errumania, Espainia eta Portugal (32,0). Kontrako egoeran, berriz, indize baxuenak Eslovakian (21,2), Eslovenian (23,1) eta Txekiar Errepublikan (24,8) erregistratu dira. Aldi horretan Espainiako indizea 34,7tik 32,0ra pasatu da, hau da, krisialdi ekonomikoaren urteetan desberdintasuna areagotu da. 2021ean indizea pixka bat igo zen, eta 2022an berriz egin zuen behera.


18. taula: Gini indizearen bilakaera EBn, Espainian eta Nafarroan

	2009	2015	2017	2018	2019	2020	2021	2022
EB	30,5	30,8	30,3	30,4	30,2	30,8	30,1	29,6
Espainia	32,9	34,7	34,1	33,2	33,0	32,1	33,0	32,0
Nafarroa	28,7	26,2	26,5	24,7	24,3	27,3	28,7	

* Nafarroako 2022ko datuak ez daude eskuragarri

Iturria: Bizi baldintzei buruz Estatistikako Institutu Nazionalak egindako inkesta eta Eurostat

58. grafikoa: Gini indizea Europar Batasunean. 2009 eta 2022 arteko bilakaera




Iturria: Eurostat

36 A
erans
kina

Espainian, desberdintasuna, Gini indizean neurtuta, 34,0 izan da 2011. urtean, eta 34tik gorakoa 2012az geroztik. 2021ean 33,0ra iritsi zen, eta 2022an 32,0 izan da. Horrek esan nahi du desberdintasuna EBko batezbestekotik gorako balioetan finkatu dela.

59. grafikoa: Gini indizearen bilakaera Espainian




Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Bizi baldintzei buruzko inkesta

Desberdintasunari buruzko Gini indizeak alde handiak erakusten ditu autonomia erkidegoen artean. Azken datuak 2021ekoak dira. Baliorik handienak adierazle horretan: Melillan (41,2) eta Ceutan (39,7), eta, haien atzetik, Kanarrietan (35,0), Andaluzian (34,3) eta Madrilen (33,4). Txikienak, Balearretan (28,5), Nafarroan eta Aragoian (28,7), Galizian (29,2) eta Errioxan eta EAEn (29,3).

Nafarroan 1,72 puntu jaitsi da 2013tik: % 30,42tik % 28,70era.


60. grafikoa: Gini indizea, autonomia erkidegoei aplikatuta. 2021



Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Bizi baldintzei buruzko inkesta

36 B
erans
kina

61. grafikoa: Gini indizearen bilakaera Nafarroan



* Gini koefizienteak populazio bateko gizabanakoen diru-sarreraren banaketa erakusten du
Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Bizi baldintzei buruzko inkesta


- **Pobrezia eta gizarte bazterketa**

Pobrezia arriskuan bizi den biztanleria adierazle erlatibo bat da, desberdintasuna neurtzen duena. Ez du erabateko pobrezia neurtzen, biztanleria osoarekin alderatuta diru-sarrera baxuak dituzten pertsonen kopurua baizik. Eurostaten irizpideei jarraituz, pobrezia arriskuaren atalasea pertsonen kontsumo unitateko diru-sarreraren medianaren % 60 da. Hortaz, diru-sarreraren mediana hazten edo murrizten den heinean, pobrezia arriskua ere hazi edo murriztu egiten da. Pertsonako diru-sarrerak emendatzen diren heinean, pobrezia arriskuaren atalasea ere handitu egiten da.

2021ean, biztanleen bostena baino gehiago dago pobrezia arriskuko atalasean seme-alabak dituzten familia-etxeetan (% 22,5). Egoera horrek gehiago jotzen ditu emakumeak gizonak baino; eta orobat, heldu gazteak tarteko adinean daudenak edo pentsiodunak baino; hezkuntza maila txikiko pertsonak hirugarren mailako hezkuntza duten pertsonak baino; eta iraupen luzeko osasun arazoak dituztenak edo langabezia daudenak.


Pobrezia arriskuaren tasak behera egin zuen EBn 2022an, eta biztanleen % 21,6ri eragin zion. Bulgarian (% 32,2) eta Errumanian (% 34,4) baizik ez zegoen biztanleria osoaren % 30 baino gehiago pobrezia arriskuan. Beste muturrean, mailarik apalenak Txekiar Errepublikak (% 11,8), Esloveniak (% 13,3) Finlandiak (% 16,3) eta Eslovakiak (% 16,5) izan dituzte. Espainia lehen taldetik gertuago dago bigarrenetik baino, pobrezia tasa handia baitu: % 26,0.

62. grafikoa: Pobrezia arriskuaren tasa eta atalasea EBn. 2022



Iturria: Eurostat

63. grafikoa: Desberdintasunak EBko errentaren banaketan, 2022an (S80/S20 ratioa*)



S80/S20 ratio edo zatidurak diru-sarreraren banaketan dagoen desberdintasuna neurtzen du, pertzentilak alderatuz; hau da, gehiagotik gutxiagorako eskala batean, diru-sarrera handienak lortu dituzten biztanleen % 20k (kintil altuena) lortutako diru-sarrerak diru-sarrera apalenak dituzten biztanleen % 20k (kintil baxuena) lortutako diru-sarrerekin erlazionatzen ditu. Adibidez, S80/S20 horretan, 5 ratioak esan nahi du diru-sarrera handienak dituen jendeak batez beste bost bider gehiago irabazten duela eskalaren amaieran dagoen jendeak baino. Ratioari esker, herrialdeen artean diru-sarreraren banaketan dagoen desberdintasuna alderatzen ahal da (diru-sarreraren zenbatekoa edozein dela ere), denboran zehar edo biztanle taldeen artean
Iturria: Eurostat

37 B
erans
kina

Pobrezia arriskuaren edo gizarte bazterketako arriskuaren adierazle bat AROPE (*At Risk of Poverty and Exclusion*) da, alegia, pobrezia edo gizarte bazterketako arriskuaren tasa; pobrezia arriskuan dauden, material gabezia duten edo intentsitate baxuko enplegua duten biztanleriarekin osatzen da. 2021ean aldatu egin zen Europa 2030 Estrategiaren helburu berrien arabera. Adierazle horren bidez, hiru egoera hauetatik gutxienez batean dagoen biztanleria egonen da pobrezia arriskuan edo gizarte bazterketako arriskuan:

- Pobrezia arriskuan (kontsumo unitateko diru-sarrerak medianaren % 60tik behera). Aurreko urteko diru-sarrerekin osatzen da.
- Enplegurik gabeko edo intentsitate baxuko enpleguetako etxeetan (lan egiteko adinean dauden eta lan egiteko ahalmen osoaren % 20 baino gutxiago aritu diren kideek osatutako etxeak). Honako hauei dagokie: 18-64 urte bitarteko pertsonak (18 - 24 arteko ikasleak eta erretiratuak izan ezik), eta 60-64 urte bitarteko ez-aktiboak, diru-sarreraren iturri nagusia pentsioa ez dutenak. Ez zaie aplikatzen 65 urteko eta hortik gorako pertsonari.
- Material gabezia larrian (hurrengo zerrendako hamahiru kontzeptuetatik zazpi gutxienez falta badituzte).

Familia-etxeen inguruko kontzeptuak:

1. Ezin du oporretara joan, ezta urtean astebetez ere.
2. Ezin du gutxienez bi egunean behin haragia, oilaskoa edo arraina jan.

3. Ezin du etxebizitza tenperatura egokian mantendu.
4. Ezin die aurre egin ezusteko gastuei.
5. Atzerapenak izan ditu azken hamabi hilabeteetan etxebizitza nagusiarekin loturiko gastuak (mailegua edo alokairua, gasaren, komunitatearen... ordainagiriak) edo epekako erosketak ordaintzean.
6. Ezin du autorik izan.
7. Ezin du erosi altzari berririk narriatuak edo zaharrak ordeztuko.

Pertsonen inguruko beste sei kontzeptuak:

8. Ezin du arropa berririk erosi narriatuak edo zaharrak ordeztuko.
9. Ezin ditu eduki ganorazko bi oinetako pare.
10. Ezin da elkartu adiskideekin edo ahaideekin hilean behin otordu bat egiteko edo zerbait hartzeko.
11. Ezin du aldian-aldian parte hartu aisialdiko jardueretan.
12. Ezin du gastatu diru apur bate bere buruarentzat.
13. Ezin du eduki Interneteko konexiorik.

16 urtetik beherakoen kasuan, ez dago daturik pertsonen inguruko sei kontzeptuetan. Familia-etxeko 16 urtetik gorako kideen datuak erabili behar izan ditugu.

Kontzeptu horien emaitzen arabera, bizimodu materialen egoeraren arabera banatzen da biztanleria. Komeni da azterketa horretatik ondorioztatutako zenbait ezaugarri nabarmentzea:


- 2022an, gabezia material eta sozial larrian zegoen biztanleriaren ehunekoa % 7,7 izan zen; aurreko urtean, berriz, % 8,3.
- Familia-etxeari dagokionez definitutako zazpi kontzeptuetatik, 3. adierazlea izan zen 2022an okerrera gehien egin zuena: *Ezin du etxebizitza tenperatura egokian mantendu*. Aurreko urtean % 14,3 zen, eta urte horretan % 17,1. 5. adierazleari dagokionez: *Atzerapenak izan ditu azken hamabi hilabeteetan etxebizitza nagusiarekin loturiko gastuak (mailegua edo alokairua, gasaren, komunitatearen... ordainagiriak) edo epekako erosketak ordaintzean* kontzeptua hobetu egin zen, eta % 13,2koa izan zen (2021ean % 14,4).

Hauek dira pobrezia arriskuan dagoen biztanleriaren beste ezaugarri batzuk:

- Prestakuntza mailari dagokionez, lehen hezkuntzako edo beheragoko ikasketak zituzten biztanleriaren % 36,1 pobreziako edo gizarte bazterketako arriskuan zegoen 2022an. Bestalde, goi mailako hezkuntzara iritsitako kasuan, aurreko tasa % 14,1era murriztu zen.
- Familia-etxe motari erreparatuta, 2022an heldu bat eta haren ardurapeko ondorengoak bizi ziren familia-etxeen % 49,2an pobreziako edo gizarte bazterketako arriskuan zeuden.
- Pobrezia arriskuaren tasarik txikienak beren kargura menpeko ondorengorik ez zuten familia-etxeetan jaso ziren.
- Jarduerari dagokionez, pobrezia arriskuan langabeen % 55,7 zegoen, landunen % 16,5 eta erretiratuen % 17,4. Bestalde, biztanleriaren % 1,5 pobrezia arriskuan zegoen eta, gainera, gabezia material larria zeukan eta enplegu intentsitate baxua.
- Nazionalitatearen arabera, pobrezia arriskuaren atalasearen azpian zegoen espainiarren % 21,9, EBko biztanle atzerritarren % 39,6 eta EBtik kanpoko herrialdeetako biztanleen % 60,4.

AROE tasarik altuenak Melillakoa (% 41,3), Ceutakoa (% 40,2), Extremadurakoa (% 36,9) eta Kanarietakoa (% 36,2) izan ziren. Bestalde, Nafarroakoa (% 14,5) eta EAEkoa (% 15,7) izan ziren tasarik apalenak.

64. grafikoa: Pobrezia arriskuan edo gizarte bazterketako arriskuan dauden pertsonen ehunekoa (AROPE adierazlea), autonomia erkidegoen eta hiri autonomoen arabera. 2022



Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Bizi baldintzei buruzko inkesta

38.
erans
kina

Familia-etxeen egoera ekonomikoari dagokionez, hilaren bukaerara “zailtasun handiarekin” heltzen ziren etxebizitzaren ehuneko handienak Kanarrietan (% 13,4), Andaluzian (% 11,7) eta Extremaduran (% 11,0) izan ziren. Ehunekorik txikienak Errioxan (% 3,3), EAEn (% 3,9) eta Balearretan (% 5,7) erregistratu ziren.

Kanarietako herritarren % 57,2k eta Murtziako eta Andaluziako % 44,7k ez zeukan ezusteko gastuei aurre egiteko gaitasunik. Beste muturrean zeuden EAE (% 18,7) eta Errioxa (% 19,6).

Andaluzian (% 45,2), Extremaduran (% 42,3) eta Murtzian (% 41,9) izan ziren handienak etxetik kanpora oportetara urtean gutxienez astebetetz joaterik ez zeukaten familia-etxeen ehunekoak. Ehunekorik txikienak EAEn (% 18,7) eta Errioxan (% 19,6) jaso ziren.

Etxebizitza nagusiarekin loturiko ordainketetan atzerapenak izan zituzten familietara etorrita, portzentajerik altuenak Balearretan (% 20,5), Kanarrietan (% 20,0) eta Andaluzian (% 16,3) jaso ziren. Baxuenak Kantabrian (% 5,3) eta EAEn (% 7,2) erregistratu ziren.

Pobreziaren aldagaiak

Pobrezia arriskua ez da berdina gizarte talde guztietan. 2021ean, EB-27ko gizon-emakumeen artean, pobrezia arriskuaren tasa ia adin tarte guztietan handixeagoa zen emakumeen kasuan, eta bereziki altua zen 18tik 24ra bitartekoen artean. Dena dela, batez besteko balio horiek ez dituzte herrialdeen errealitate desberdinak islatzen.

Adinari dagokionez, pobrezia edo gizarte bazterketako arrisku handiena dutenak 18 eta 24 urte arteko eta 16 urtetik beherako pertsonak dira. Espainian, 2022ko datuen arabera, 16 eta 29

urte arteko pertsona bat pobreziako edo gizarte bazterketako arriskuan egoteko probabilitatea % 22,7koa zen gizonezkoetan eta % 21,8koa emakumezkoetan, eta, 16 urtetik beherakoetan artean, % 27,0koa emakumezkoentzat eta % 28,4koa gizonezkoentzat. Balio horiek EBri dagozkion zifren gainetik daude.

2022ko Bizi Baldintzei buruzko Inkestaren arabera, pobrezia atalasea urteko errenta ertain baliokidearen % 60an ezarrita (urteko diru-sarrerak kontsumo unitate bakoitzeko), 10.088 eurokoa izan zen, aurreko urtean kalkulatu zena baino % 5,8 handiagoa.

Pobrezia arriskuaren tasarik handienak Extremadurakoa (% 30,0), Kanarietakoa (% 29,4) eta Andaluziakoa (% 29,1) dira. Bestalde, Nafarroakoa (% 10,9) eta EAeko (% 12,2) izan ziren tasarik apalenak.

Aldagai desberdinen arabera datu hauek jaso dira:

- 2008., 2009., 2010. eta 2011. urteetan, pobrezia arriskuaren tasa altuagoa zen emakumeen artean gizonezkoen artean baino. Alde hori gutxitu egin zen 2012ko inkestan (% 20,9 emakumezkoetan eta % 20,7 gizonezkoetan). 2013ko inkestan, aldiz, pobrezia arriskuaren tasa altuagoa izan zen gizonezkoen artean (% 20,9) emakumezkoen artean baino (% 19,9). 2014ko inkestan oso parekoak izan ziren tasa horiek (% 22,4 gizonezkoetan eta % 22,1 emakumezkoetan). 2015ekoan gizonezkoen tasa (% 22,5) altuagoa izan zen emakumezkoena (% 21,8) baino. 2016an, emakumezkoen arrisku tasak % 22,1era egin zuen gora; gizonezkoena, aldiz, aurreko urteko ia balio berean mantendu zen (% 22,6). 2017an, gizonena % 21,0 izan zen, eta emakumeena % 22,2; 2018an, berriz, gizonena % 20,9ra jaitsi zen, eta emakumeena aurreko bera izan zen. 2019an, gizonena zertxobait jaitsi zen % 20,2ra arte, eta emakumeena % 21,1era iritsi zen. 2020an, berriz, pixka bat igo zen gizonezkoen tasa (% 20,9) eta gehiago emakumezkoena (% 22,2). Goranzko joerak berdin jarraitu zuen 2021ean (% 21,1 gizonak eta % 22,2 emakumeak) eta 2022an (% 24,8 gizonak eta % 27,2 emakumeak).
- Adinari erreparatuta, 2008-2011 aldian, pobrezia arriskuaren tasaren baliorik altuenak 16 urtetik beherakoetan erregistratu ziren. 2012ko inkestaz geroztik, portzentajerik altuenak 16 eta 24 urte artekoen taldean erregistratu dira: 2012an % 30,1; 2013an % 29,5; 2014an % 30,9; 2015ean % 33,4 eta 2016an % 32,5, adin tarte horretarako. 2017an eta 2018an, baliorik handienak 16 urtetik beherakoetan artean (% 28,1 eta % 26,2) eta 16-29 urtekoen artean (% 28,5 eta % 28,3, hurrenez hurren) egon ziren. 2019an, beheranzko joerak jarraitu du; hartara, 16 urtetik beherakoena da oraindik balio handienak dituen taldea (% 27,1), 16-29 urtekoen aurretik (% 26,5), eta gainerakoek % 20tik beherako balioak dituzte. 2020an jaitsiera izan da 16 urtetik beherakoetan artean (% 26,2); talde hau eta 16-29 urte bitartekoena (% 28,3) dira baliorik altuenak dituztenak. Ondotik dator 45etik 64ra bitartekoena (% 20tik gorako balioekin (% 21,3); azpitik daude 30etik 44ra bitartekoena (% 19,3) eta 65 urtetik gorakoena (% 15,6). 2021eko datuek adierazten dute pobrezia arriskuaren tasan 1,1 puntuko igoera izan zela 16 urtetik beherakoetan artean, eta 1,2 puntuko igoera 16-64 urte bitartekoetan artean. Aldiz, 65 urtetik gorakoetan artean 1,3 puntu jaitsi zen. 2022an, 16 urtetik beherakoek % 32,2ko balioa zuten; 16 urtetik 29 urtera bitartekoek % 27,3koa; 45 eta 64 urte bitartekoek % 26,2koa; 30 eta 44 urte bitartekoek % 24,8koa; eta 65 urtetik gorakoek % 21,3koa.
- Familia-etxe motaren arabera, mendeko seme-alabak zituen heldu batek soilik osatutako familia-etxeei egokitu zitzaizkien baliorik handienak pobreziako arrisku tasan. Hauek dira balioak: % 36,8 (2008), % 44,2 (2009), % 49,2 (2010), % 42,1 (2011), % 37,5 (2012), % 38,0 (2013), % 42,0 (2014), % 37,5 (2015), % 42,2 (2016), % 40,6 (2017), % 42,9 (2018), % 41,1 (2019), % 49,1 (2020), % 45,5 (2021), % 49,2 (2022).
- Hezkuntza maila aintzat hartuta, hezkuntza mailarik apalenari (0-2) dagozkio ehunekorik altuenak pobrezia arriskuaren tasan, alegia: Haur, Lehen eta Derrigorrezko


Bigarren Hezkuntza. 2022ko inkestan, tasak balio hauek izan zituen hezkuntza mailaren arabera: 0-1. mailan % 36,1; bigarren mailan % 31,5; hirugarren mailan % 25,4; eta 5-8 bitarteko mailan % 14,1.

- Nazionalitateari dagokionez, EBkoa ez den atzerriko nazionalitateari (munduko gainerakoak) egokitu zitzaion baliorik handiena, % 60,4; EBko atzerriko nazionalitateari % 39,6 egokitu zitzaion, eta nazionalitate espainiarrari % 21,9.

Nafarroan, pobrezia arrisku faktore bat da adina, eta gazteen artean du eragin handiena. Alegia, eskolako adinean dagoen biztanleriak du, oro har, pobrezia pairatzeko arrisku handiena.


Egoera horretan egoteko arriskuan dauden 16 urtetik beherakoen proportzioa % 30,6koa da, 45-64 urte artekoena % 17,7, eta 65 urtetik gorakoena % 15,5. Hori guztia, biztanleriaren batez besteko pobrezia arriskuaren tasa % 21,7 izanik.

65. grafikoa: Pobrezia erlatiboko arrisku tasaren bilakaera estatuko atalasearekin (diru-sarrera baliokideen medianaren % 60), sexuaren arabera. Nafarroa



* Pobrezia erlatiboko arrisku tasaren bilakaera estatuko atalasearekin (diru-sarrera baliokideen medianaren % 60 da (ELGaren eskala aldatua), pertsonen banaketa kontuan hartuta. Kontsumo unitateko diru-sarrerak etxeko diru-sarrera guztiak zati bertako kontsumo unitateen kopurua eginez lortzen dira
Iturria: Nastat. Diru-sarrerak eta kontsumoa familia-etxeetan Errentaren estatistika

66. grafikoa: Pobrezia erlatiboko arrisku tasaren bilakaera estatuko atalasearekin (diru-sarrera baliokideen medianaren % 60), adin taldeen arabera. Nafarroa



* Pobreziaren atalasea kontsumo unitateko urteko diru-sarreraren medianaren % 60 da (ELGAREN eskala aldatua), pertsonen banaketa kontuan hartuta. Kontsumo unitateko diru-sarrerak etxeko diru-sarrera guztiak zati bertako kontsumo unitateen kopurua eginez lortzen dira
Iturria: Nastat. Diru-sarrerak eta kontsumoa familia-etxeetan Errentaren estatistika

39. erans kina

Pobrezia arriskuaren tasa, sexuaren eta adin taldearen aldagaiei dagokienez, honela banatzen da EBn, Espainian eta Nafarroan.

19. taula: Pobrezia arriskuaren tasa EBn eta Espainian, adinaren eta sexuaren arabera. 2022

	<16 urte		16 urteetatik 24ra		25 urteetatik 49ra		50 urteetatik 64ra		65 urteetatik gora	
	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E
UE	24,5	24,6	25,6	27,1	19,2	20,7	19,9	22,2	16,7	22,9
España	32,8	31,6	28,8	29,3	23,4	26,3	24,5	28,3	18,6	23,4

Iturria: Eurostat

20. taula: Pobrezia arriskuaren tasa Nafarroan, adinaren eta sexuaren arabera. 2022

	<16 urte		16 urteetatik 24ra		25 urteetatik 49ra		50 urteetatik 64ra		65 urteetatik gora	
	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E
Nafarroa	30,4	30,8	27,1	29,0	20,5	24,5	16,1	17,5	12,4	18,0

Iturria: Nastat, Errentaren Estatistika

40.
erans
kina

18 urtetik beherakoek pobrezia arriskuan edo gizarte bazterketako arriskuan eragina duen beste faktore bat gurasoen ikasketak maila da. EBko herrialde guztietan, 18 urtetik beherakoek artean pobrezia arriskuan daudenen proportzioak alderantzizko korrelazioa du beren gurasoen ikasketak maila altuenarekin; hau da, zenbat eta ikasketak maila altuagoa izan gurasoek, orduan eta txikiagoa izaten da pobrezian egoteko arriskua.

EBn, 18 urtetik beherakoek pobrezia arriskuaren batez besteko ehunekoa, haien gurasoek, gehienez, oinarrizko ikasketak badituzte, % 61,9koa da. Gurasoek Bigarren Hezkuntzako ikasketak dituzten kasuan, batezbestekoa % 29,6 da. Gurasoek goi mailako ikasketak badituzte, balioa % 10,2ra jaisten da.

Espainiaren kasuan, gurasoek Bigarren Hezkuntzatik beherako ikasketak badituzte, balioa % 62,2 da; Bigarren Hezkuntzako ikasketak badituzte, % 43,6; eta goi mailako ikasketak badituzte, % 16,1.


21. taula: Europar Batasunean 18 urtetik beherakoek duten pobrezia arriskuaren ehunekoa, gurasoen ikasketak mailaren arabera. 2022

	Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa baino gutxiago (0-2. maila)	Bigarren Hezkuntza (3-4. maila)	Goi-mailako Hezkuntza (5-8. maila)
EB	61,9	29,6	10,2
Espainia	62,2	43,6	16,1

Iturria: Eurostat

41.
erans
kina

67. grafikoa: Europar Batasunean 18 urtetik beherakoek duten pobrezia arriskuaren ehunekoa, gurasoen ikasketa mailaren arabera. 2022



* Eslovakiari buruzko daturik gabe
Iturria: Eurostat


Horrek adierazten du harreman zuzena dagoela haurren pobrezia tasaren eta gurasoen prestakuntza mailaren artean; hau da, ikasketek babes handia ematen dutela pobrezia eta gizarte bazterketa jasateko arriskuen aurrean.

Pobrezia eta eskola uztea

Europa 2020 Estrategiaren helburuetako bat izan da 2020an ikasketak behar baino lehenago uzten dituzten pertsonen portzentajea % 10etik beherakoa izatea, eta, horrez gain, 30-34 urte bitarteko pertsonen % 40k gutxienez hirugarren mailako hezkuntza edo horren baliokidea egina edukitzea urte horretarako.

Bi helburu horiek EB guztirako ezarri diren arren, ez dira herrialde edo eskualde mailan espezifikoki aplikatzen. Izan ere, ET2020ren erreferentzia puntu bakoitza herrialde eta, kasu batzuetan, eskualde bakoitzean lortu beharreko helburuekin osatu da, haien egoera eta inguruabarrak kontuan hartuta. Espainian, esaterako, altua denez eskola uzten dutenen tasa, kopuru hori % 15etik jaistea zen asmoa.

68. grafikoa: Ikasketak edo prestakuntza uzten duten 18 eta 24 urte bitarteko gazteen portzentajearen bilakaera. Europa-Espainia




Iturria: Eurostat

42.
erans
kina

EBn, hezkuntza edo prestakuntza behar baino lehenago uzteko probabilitatea handiagoa izaten da gizonen artean emakumeen artean baino, Bulgarian eta Grezian izan ezik. Probabilitate hori handiagoa da, halaber, atzerrian jaiotakoek taldean edo desgaitasun fisikoren bat dutenen artean.

Hezkuntza eta prestakuntza behar baino lehenago uzten dutenen proportziorik txikiena EBko ekialdekoa izan zen, batik bat: Kroazia (% 2,3), Irlanda (% 3,7) Grezia eta Eslovenia (% 4,1). Aldiz, ehuneko altuenak estatu hauetan erregistratu ziren: Errumania (% 15,6) eta Espainia (% 13,9).

69. grafikoa: Pobreziako edo bazterketa sozialeko arrisku tasaren eta ikasketak goiz uztearen arteko erlazioa EBn, 18-24 urteko gazteen artean. 2022



Iturria: Eurostat

43.
erans
kina

22. taula: EBn ikasketak uzten dituzten atzerriar nazionalitateko 18-24 urteko gazteak. 2022

	Guztira	Gizonak	Emakumeak
EB	24,6	27,7	21,3
Alemania	12,6	12,9	12,3
Austria			
Belgika	5,5	6,4	
Bulgaria	12,5	17,9	
Danimarka			
Errumania	13,9		
Eslovakia	25,8	34,2	19,0
Eslovenia	30,3	35,1	25,4
Espainia	13,8	12,7	14,9
Estonia			
Finlandia	30,1	36,2	23,9
Frantzia	25,1	27,3	23,1
Grezia			
Herbehereak			
Hungaria			

Irlanda	7,5	6,6	8,5
Italia			
Kroazia			
Letonia	25,8	21,0	34,7
Lituania	9,6	10,6	8,7
Luxenburgo	18,1	18,9	17,3
Malta			
Polonia			
Portugal	10,2		
Suedia	22,6	29,3	12,1
Txekiar Errep.			
Zipre	29,9	32,1	27,0

* Zenbait herrialdetako datuak falta dira
Iturria: Eurostat

Azken urteetan berretsi egin da amaren ikasketa mailaren eta seme-alabek eskola uztearen artean dagoen loturaren eragina.


23. taula: Ikasketak uzten dituzten 18-24 urte bitarteko gazteen tasa, eta amaren hezkuntza mailaren eragina, Espainian. 2022

		Lehen Hezkuntza	Bigarren Hezkuntzako 1. etapa	Bigarren Hezkuntzako 2. etapa	Goi-mailako hezkuntza
Uzte-tasa	Guztira	36,3	17,9	8,7	3,1
	Gizonak	42,2	22,2	10,8	4,6
	Emakumeak	29,5	13,1	6,5	1,6
Amaren hezkuntza-mailaren pisua	Guztira	18,1	34,5	12,6	7,4
	Gizonak	18,6	37,5	13,2	9,1
	Emakumeak	17,2	29,8	11,7	4,6

Iturria: Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioa. Estatistikako Institutu Nazionalaren Biztanleria aktiboaren inkestako hezkuntza aldagaien ustiapena

Pobrezia arriskuaren eta hezkuntza behar baino lehenago uztearen arteko erlazioan alde handiak daude autonomia erkidego batetik bestera. Bi faktore horien kasuan, Nafarroa egoera hobean ageri zaigu.

70. grafikoa: Hezkuntza goiz uztearen eta pobrezia arriskuaren edo gizarte bazterketaren tasaren arteko erlazioa, autonomia erkidegoen eta hiri autonomoen arabera. 2022



Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Bizi baldintzei buruzko inkesta eta Hezkuntzaren eta Lanbide Prestakuntzaren Ministerioa. Europa 2030 Estrategiako Hezkuntzaren adierazleak

44.
erans
kina

Bestalde, 2008-2015 epealdian, gazteen langabeziak oso azkar egin zuen gora, eta, horren eraginez, gazte batzuek ikasten jarraitzea erabaki zuten, lan aukerarik ez zutelako. Urte horietan, EBn hezkuntza eta prestakuntza behar baino lehenago utzi zutenen kopuruak behera egin zuen. Beherako joera nahiko orokorra da, datu zehatzak bildu zituzten 256 eskualdeen bostetik lautan baino gehiagotan (% 82,8) erregistratu baitzen. Izatez, hezkuntza eta prestakuntza behar baino lehenago uzten duen 18 eta 24 urte arteko pertsonen kopuruaren jaitziera aipagarrienak gai horretan ehuneko altuenak zituzten eskualdeetan gertatu ziren 2008 eta 2014 artean. Hain zuzen ere, Portugalen eta Espainian gertatu zen hori.


2020an, COVIDaren eraginez, enpleguak behera egitearekin batera, gehiago dira ikasketekin aurrera jarraitzea erabaki duten gazteak. 2021ean indartsu jarraitzen du ikasketetan aurrera egiteko joerak. EBn, beheranzko joera dago 2022an, zenbait herrialdetan izan ezik.

Gizarte babesa eta pobrezia

Gizarte babeseko neurriak funtsezko tresna dira pobrezia eta gizarte bazterketa murrizteko eta haiekin lotutako fenomenoak gutxitzeko. Gizarte babeseko neurrien arrakasta ebaluatzeko moduetako bat hauxe da: gizarte transferentzien aurreko eta ondorengo pobrezia arriskuaren adierazleak alderatzea. 2021ean, gizarte transferentzietatik % 26,7tik (transferentzien aurretik) % 16,8ra (transferentzien ondoren) jaitsi zuten EBko biztanleen pobrezia arriskuaren tasa.

Gizarte babeserako programak egoteak eragina du pobrezia sortzen duen arrakalaren tamainan eta sakontasunean. Gizarte transferentzien aurreko eta ondoko pobrezia arriskuaren tasak aztertuta, gizarte prestazioen eragin erlatiboa txikia izan zen Errumanian, Grezian, Maltan, Espainian eta Kroazian. Belgikan, Danimarkan, Finlandian eta Irlandan, ordea, pobrezia arriskuan zeuden pertsonen erdiak baino gehiago gizarte laguntzei esker geratu ziren arrisku horretatik salbu.

71. grafikoa: Pobrezia arriskuaren tasak gizarte transferentzien aurretik eta ondoren, EBn. 2022



Iturria: Eurostat

45.
erans
kina

• **Hezkuntzan egindako gastua**

Hezkuntzan gehien erabiltzen den adierazleetako bat, esanguratsuenetakoa, hezkuntzarako gastu publikoa barne produktu gordinarekin alderatzen duena da. Hori guztia, gastu publikoko partida guztiak zehazteko zailtasuna kontuan izanik. Nolanahi ere, 2021ean Europar Batasuneko estatuen batez besteko gastua % 4,8 izan zen. Azken urtean portzentajeak behera egin du Batasuneko herrialde gehienetan, batzuetan gehiago eta beste batzuetan gutxiago. Salbuespen bakarrak Bulgaria eta Hungaria izan dira, gastu ehunekoa aurreko urtekoa baino pixka bat handiagoa izan baita.

24. taula: Hezkuntzako gastu publikoa BPGarekin alderatuta, EBn, Espainian eta Nafarroan: bilakaera


	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
EB	5,30	4,90	4,90	4,80	4,70	4,70	4,70	5,00	4,80
Espainia	4,40	4,34	4,32	4,27	4,25	4,21	4,26	4,94	4,94

Nafarroa	3,36	3,35	3,30	3,31	3,37	3,37	3,50	4,17	4,07
----------	------	------	------	------	------	------	------	------	------

Iturria: Eurostat eta Nastat

Hezkuntzaren alde jokatu dutelako, batez beste BPGaren % 6tik gora bideratuta, nabarmentzekoak dira Belgika (% 6,3) eta Suedia (% 6,7). Espainia gastu proporzional ertaina (% 4,6) egiten dutenen taldean dago.

72. grafikoa: Hezkuntzako gastu publikoa barne produktu gordinarekiko Europar Batasunean. 2021



Iturria: Eurostat

46.
erans
kina

Familia-etxe bakoitzak hezkuntzan egiten duen gastua


Familia-etxe bakoitzak hezkuntzan batez beste gastatzen duena –zehazten zaila den adierazlea da– guztizko gastuaren % 0,9 izan da EB-27n, azken urteetan. Denboran izandako bilakaera ondoko taulan jaso da. Espainian, balio horiek % 1,5 eta % 1,8 artekoak izan ziren 2013-2021 aldian.

25. taula: EBko, Espainiako eta Nafarroako familia-etxeek hezkuntzan batez beste gastatutakoa. Guztizkoaren ehunekoa

	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
EB	0,9	0,9	0,9	0,9	0,9	0,9	0,9	0,9	0,9
Espainia	1,7	1,7	1,6	1,6	1,6	1,6	1,5	1,8	1,6
Nafarroa	1,7	1,8	1,5	1,7	1,6	1,3	1,6	1,9	1,9

Iturria: Eurostat eta Nastat

73. grafikoa: Hezkuntzako batez besteko gastua etxe bakoitzeko Europar Batasunean. Guztizkoaren ehunekoa. 2021




Iturria: Eurostat

**47 A
erans
kina**

2022an irakaskuntzan gehien gastatu zuten familia-etxeak Madrilekoak, Kataluniakoak, Nafarroakoak eta EAekoak izan ziren: batez beste % 2,0tik gora.

74. grafikoa: Familia-etxeek hezkuntzan egindako batez besteko gastua, autonomia erkidegoaren eta hiri autonomoaren arabera. 2022



* 2006 eta 2010 artean, Ceuta eta Melillako datuak bateratuta argitaratu dira. 2011tik aurrera, bananduta argitaratu dira; hortaz, laginketa akatsak handiagoak dira bi kategoria horietan
Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Familien aurrekontuei buruzko inkesta

47 B
erans
kina

26. taula: Hezkuntzako zerbitzuen gastua guztira, ikasleko batez besteko gastua, eta ikasle kopurua titulartasun eta hezkuntza motaren arabera, Espainiako familia-etxeetan. 2019-2020

	Publikoa			Itundua			Pribatua		
	Gastua guztira	Batez besteko gastua ikasleko	Ikasle kopurua	Gastua guztira	Batez besteko gastua ikasleko	Ikasle kopurua	Gastua guztira	Batez besteko gastua ikasleko	Ikasle kopurua
Guztira	4.875.698	664	7.341.948	2.229.970	1.252	1.780.791	4.866.100	4.656	1.045.182
Haur Hezkuntza	440.109	458	961.154	561.906	1.352	415.566	438.214	2.692	162.794
Lehen Hezkuntza	784.186	435	1.802.583	937.574	1.367	685.995	334.107	3.644	91.687
Bigarren Hezkuntza	833.995	336	2.481.593	697.350	1.078	646.684	1.070.295	4.931	217.061
Goi-mailako ikasketak	2.817.406	1.344	2.096.618	33.140	1.018	32.546	3.023.484	5.271	573.640

*Urte anitzeko inkesta da; azken datuak dira
Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Familia-etxeek hezkuntzan duten gastuari buruzko inkesta. 2019-2020 ikasturtea

27. taula: Hezkuntzako zerbitzuen gastua guztira, ikasleko batez besteko gastua, eta ikasle kopurua adin tarteen arabera, Espainiako familia-etxeetan. 2019-2020

	Guztira	5 urtetik beherakoa	5-9 urte	10-14 urte	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	30 urtetik gora
Gastua guztira	11.971.768	1.087.744	1.662.510	1.559.877	2.853.103	3.067.004	826.579	914.951
Batez besteko gastua ikasleko	1.177	1.035	819	731	1.241	2.157	1.956	1.132
Ikasle kopurua	10.167.921	1.051.291	2.029.120	2.134.758	2.299.959	1.421.657	422.672	808.463

*Urte anitzeko inkesta da; azken datuak dira

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Familia-etxeek hezkuntzan duten gastuari buruzko inkesta. 2019-2020 ikasturtea

28. taula: Hezkuntzako batez besteko gastuaren bilakaera Nafarroan, familia-etxeen eta hezkuntza etaparen arabera

	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Guztira	553,1	534,1	463,2	539,8	600,5	608,7	444,4
Haur eta Lehen H.	151,9	165,2	156,3	140,1	119,6	130	109,1
Bigarren Hezkuntza	71,5	105,5	103,5	85,1	87,4	125,1	77,6
Goi mailako ikasketak	290,5	239,2	171,6	275,3	364,5	315,8	217,9
Zehaztu gabeko ikasketak	39,3		31,9			37,8	39,8

Iturria: Nastat. Familien aurrekontuei buruzko inkesta 2022

29. taula: Hezkuntzako batez besteko gastuaren bilakaera Nafarroan, familia-etxeen motaren arabera

	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Guraso bakarreko familia-etxea	872,9	784,5	447,1	536,1	1.07,2	697,2	474,5
Bikotea seme-alabekin	1.196,2	1.017,6	985,7	1.172,4	1.313,3	1.407,3	947,1

Iturria: Nastat. Familien aurrekontuei buruzko inkesta 2022

30. taula: Hezkuntzako batez besteko gastuaren bilakaera Nafarroan, familia-etxea sostengatzen duen pertsona nagusiaren nazionalitatearen arabera

	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Familia-etxeke	553,1	534,1	463,2	539,8	600,5	608,7	444,4

Sostengatzaile nagusia nazionalitate espainiarra	570,3	516,7	476,0	565,0	637,9	595,4	446,1
Sostengatzaile nagusia nazionalitate atzeritarra	275,0	772,4	294,4	230,6	135,6	815,6	422,2

Iturria: Nastat. Familien aurrekontuei buruzko inkesta 2022

2.3.5. Berrikuntza eta ikerketa

Ezagutzan oinarritutako ekonomia mundu guztian ari da indarra hartzen. Adostasun handiz onartzen da informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT) daudela ekonomian eta gizartean gaur egun gertatzen ari diren aldaketaren muinean.


Ekonomia mota horren garapena IKTen aurrerapen soiletik harago doa. Izan ere, aldaketak sartzen ditu eskariaren eta eskaintzaren nolakotasunean, eta ezagutzari eta berrikuntzari balio berria ematen die, baliabide nagusi gisa. Ikusmolde horren erdigunean hezkuntza, berrikuntza eta ikerketa daude. Elementu horiek elkarri eragiten badiote ere, hezkuntza da, bizitza osoko ikaskuntzaren ikuspuntutik ulertuta, beste bien euskarri lanak egiten dituen elementua.

Berrikuntzak eta ikerketak garrantzi handia dute ET2030ren barruan, hazkunde adimendun, jasangarri eta integratzaile baten alde formulatutako estrategiaren oinarria osatzen dutelako. Hartan ez da jaso helburu gisa I+G gastua areagotzea, 2020an egin zen bezala, baina dei egiten da berrikuntza eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak aprobetxatzera hezkuntza sistemak indartzeko, ezagutza hedatzeko, informaziorako sarbidea errazteko, ikaskuntza eraginkorra eta kalitatekoa sustatzeko eta zerbitzu eraginkorragoak eskaintzeko.

ET2020k zera proposatzen du: barne produktu gordinaren % 3 inbertitzea I+G gastuan. 2021ean muga hori gainditu zuten Suediak (% 3,36), Belgikak (% 3,22), Austriak (% 3,19) eta Alemaniak (% 3,12). Espainian, I+G gastua % 1,43koa izan zen.

Nafarroan, berriz, % 1,91koa izan zen barne gastu hori, hain zuzen ere inbertsio altuenak egiten dituzten herrialdeen (Suedia, Austria, Alemania) azpitik eta EBko batezbestekoaren azpitik, baina Espainiakoaren gainetik.

75. grafikoa: I+G barne gastu gordina BPGarekiko European, 2021ean



Iturria: Eurostat

2.4. Alderdi soziokulturalak

2.4.1. Ezaugarri orokorrak

Alderdi soziokulturalak eragin handia dute hezkuntzaren arloan. Horien artean dauzkagu, esate baterako, etxean irakurtzeko ohitura, musika edo antzerkigintzarekin lotutako kultura gertukoa izatea edo eduki kulturala duten esperientzietan parte hartzea. Halakoen garrantzia gutxietsi gabe, esanguratsuak dira, gaur egun, konektibitatea eta Interneten erabilera, eta nazioartean oso zabaldua dauden adierazle bilakatu dira.

Europar Batasunean, Interneterako sarbideari buruzko datuak asko aldatzen dira herrialdetik herrialdera, baina, betiere, goranzko bilakaera antzematen da guztietan. Herrialde batzuetan, etxean Interneterako sarbidea dutenen ehunekoa oso altua da, % 90etik gorakoa: Alemania, Austria, Belgika, Zipre, Danimarka, Eslovakia, Eslovenia, Espainia, Estonia, Finlandia, Frantzia, Hungaria, Irlanda, Italia, Letonia, Luxenburgo, Malta, Herbehereak, Polonia, Txekiar Errepublika eta Suedia. Altuena Herbehereetakoa da: % 98,3. Sarbidea dutenen portzentajea % 80tik gorakoa da herrialde guztietan.

31. taula: Interneterako sarbidea duten familia-etxeen ehunekoa EBn, Espainian eta Nafarroan: bilakaera

	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
EB	80,0	81,0	84,0	86,0	88,0	90,0	91,0	92,0	92,5
Espainia	74,0	79,0	82,0	83,0	86,0	91,0	95,0	96,0	92,5
Nafarroa	76	80,8	82,5	88,3	99,2	95,0	96,5	96,2	96,4

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala eta Eurostat

48.
erans
kina


2022an Espainiako familia-etxe guztien % 92,5ek zeukaten sarerako sarbidea. Portzentaje hori aurreko urtekoa baino txikiagoa da. Konexio motari dagokionez, ia guztiek (16 milioi familia-etxe) banda zabaleko Internet sarbidea dute (zuntz optikoa edo kable sarea, 3G edo 4G telefonia mugikorra, ADSLa...); hau da, Interneterako konexio mota adierazi duten etxebizitzien % 96,1ek.

Banda zabaleko konexio motarik ohikoena finkoa da: zuntz optikoa edo kable sarea, ADSLa e.a. Etxeen % 83,0n halako konexioa dago (hori gorabehera, mugikor bidezko konexioa ere eduki dezakete). Modalitate mugikorrak (3G edo 4G smartphone bidez, USB modemaren edo txartelaren bidez) etxebizitzien % 13,1en erabiltzen dira.

Gutxienez 16-74 urteko kide bat duten familia-etxeen % 82,9n ordenagailuren bat zegoen 2022an (mahai gainekoa, eramangarria, tableta...). Portzentaje horretan igoera txiki bat izan da 2021etik.

Oro har, familia bizi den udalerrian zenbat eta biztanle gehiago izan, IKT gailu gehiago daude bertan (ordenagailuak eta telefono finkoa).

76. grafikoa: IKT ekipamenduen bilakaera Espainiako familia-etxeetan



Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Familia-etxeetako teknologiei eta IKTak erabiltzeari buruzko inkesta.

Sarerako sarbiderik ez duten etxebizitzetan arrazoi hauek aipatzen dituzte: ez dutela Interneten beharrik, apenas dakitela Internet erabiltzen eta arrazoi ekonomikoak (ekipoen eta konexioaren kostuak handiegiak direla).

Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzen dituzten haurren (10-15 urte) ehunekoa oso altua da, oro har. Hartara, adingabekoen artean oso zabaldua dago ordenagailuaren erabilera (% 93,1), eta are gehiago Interneten erabilera (% 94,9). Internet erabiltzen duten adingabeen kopuruak ordenagailua erabiltzen dutenena gainditzen du. Sexuaren arabera, aldeak oso txikiak dira, baina neskatuek gehiago erabiltzen dituzte ordenagailuak eta mugikorrak, eta gutxiago Interneteko sarbidea. Adinaren arabera, emaitzek erakusten dutenez, 10 urtetik beherakoek artean ordenagailuaren eta Interneten erabilera nagusi da. Adinarekin batera handitzen da erabilera, batez ere 13 urtetik aurrera. 12 urtetik aurrera gero eta haur gehiagok dute sakelako telefonoa, eta 15 urtekoen artean % 94,9k daukate.

32. taula: IKTak erabiltzen dituzten adingabeen ehunekoa Espainian, sexuaren eta adinaren arabera. 2022

	Ordenagailuaren erabilera	Interneten erabilera	Mugikorraren erabilera
Sexuaren arabera			
Guztira	93,1	94,9	69,5
Gizonak	92,9	95,4	68,4
Emakumeak	93,2	94,5	70,7
Adinaren arabera			
10	90,1	90,0	21,2
11	92,2	93,2	40,3
12	92,9	94,8	75,5
13	93,1	95,5	87,1

14	94,0	96,9	91,6
15	95,5	98,3	94,9

Iturria: *Estatistikako Institutu Nazionala. Familia-etxeetako teknologiei eta IKTak erabiltzeari buruzko inkesta*

2.4.2. Hizkuntzak

Eurostatek Europar Batasuneko pertsona helduen hizkuntzen ezagutzaz bildu dituen azken datuak 2016koak dira. Aipagarria da lan egiteko adinean dauden pertsona helduen % 24,8k beste hizkuntza bat ezagutzen zutela.

Jarraian ikasleen hizkuntzen ezagutzaren inguruko azken datuak xehatuko ditugu.

33. taula: Hizkuntzen batez besteko kopurua hezkuntza mailaren arabera Europar Batasunean 2021ean.

	ISNI 1	ISNI 2	ISNI 3-4	ISNI 3-4 Lanbide-Heziketa
EB	0,9	1,6	1,6	1,2
Alemania	0,6	1,3	1,4	0,4
Austria	1,0	1,1	1,7	1,2
Belgika	0,4	1,4	2,1	1,1
Bulgaria	0,9	1,1	1,8	1,5
Danimarka	1,2	1,9	1,3	0,1
Errumania	1,0	1,9	2,0	2,0
Eslovakia	0,9	1,5	2,0	1,3
Eslovenia	0,8	1,2	2,0	1,3
Espainia	1,2	1,5	1,3	0,4
Estonia	1,1	2,0	2,2	0,8
Finlandia	1,3	2,2	2,4	1,8
Frantzia	1,0	1,8	2,0	1,3
Grezia	1,3	2,0	1,6	0,8
Herbehereak	0,5	2,2	1,7	0,9
Hungaria	0,6	1,1	1,7	1,0
Irlanda	0,0	0,9	0,9	0,0
Italia	1,0	2,0	1,4	1,5
Kroazia	1,2	1,5	1,9	1,3
Letonia	1,3	1,7	1,9	1,4
Lituania	0,7	1,7	1,3	0,7
Luxenburgo	1,8	2,6	3,2	2,3
Malta	1,1	2,1	1,7	1,0
Polonia	1,1	1,6	1,9	1,8
Portugal	0,7	1,9	0,8	0,9
Suedia	1,1	1,8	1,9	1,0
Txekiar Errep.	0,8	1,7	2,0	1,3
Zipre	1,0	1,9	1,4	1,2

Iturria: Eurostat

Espanian ez da aztertu hizkuntzen ezagutza hezkuntza mailaren arabera eta erkidegoka berezita. Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioak urtero ematen ditu atzerriko hizkuntzak ikasten ari diren ikasleen kopuruak, autonomia erkidegoen arabera berezita.

34. taula: Atzerriko lehen hizkuntza ikasten ari diren ikasleen ehunekoak, hezkuntza mailaren eta autonomia erkidegoaren arabera. 2021-2022 ikasturtea

	Haur Hezkuntzako 2. zikloa			Lehen Hezkuntza			DBH			Batxilergoa		
	Ingelesa	Frantsesa	Besteak	Ingelesa	Frantsesa	Besteak	Ingelesa	Frantsesa	Besteak	Ingelesa	Frantsesa	Besteak
Espania	85,1	0,5	0,3	98,9	0,7	0,4	98,3	1,4	0,4	94,8	1,4	0,4
Andaluzia	73,1	1,1	0,4	98,4	1,2	0,4	97,0	2,7	0,3	95,0	2,2	0,2
Aragoi	86,6	1,3	0,5	98,6	1,0	0,3	98,6	1,0	0,4	94,3	1,0	0,5
Asturias	72,7	0,0	0,0	100,0	0,0	0,0	99,5	0,5	0,0	94,5	0,5	0,0
Balearrak	86,8	0,6	0,4	99,2	0,6	0,2	99,3	0,5	0,2	97,0	0,7	0,3
Ceuta	98,5	0,0	0,0	100,0	0,0	0,0	100,0	0,0	0,0	95,5	1,4	0,0
Errioxa	100,0	0,0	0,0	100,0	0,0	0,0	100,0	0,0	0,0	98,0	0,0	0,0
Euskadi	78,9	0,3	0,6	98,8	0,5	0,7	98,7	0,6	0,7	98,7	0,8	0,5
Extremadura	100,0	0,0	0,0	99,9	0,1	0,0	99,5	0,4	0,2	96,6	0,1	0,1
Galizia	100,0	0,0	0,0	100,0	0,0	0,0	99,6	0,4	0,1	96,2	0,8	0,2
Gaztela eta Leon	99,9	0,1	0,0	100,0	0,0	0,0	99,5	0,3	0,2	96,0	0,4	0,1
Gaztela-Mantxa	99,8	0,2	0,0	100,0	0,0	0,0	99,7	0,2	0,1	98,8	0,1	0,0
Kanariak	95,8	0,0	1,0	98,9	0,2	1,0	99,1	0,1	0,8	95,9	0,9	0,8
Kantabria	99,8	0,0	0,0	100,0	0,0	0,0	100,0	0,0	0,0	97,5	0,2	0,0
Katalunia	60,8	0,7	0,4	98,4	1,1	0,5	97,2	2,3	0,6	91,8	2,5	0,7
Madril	99,0	0,6	0,4	98,8	0,8	0,4	98,1	1,3	0,6	91,8	1,6	0,8
Melilla	99,3	0,0	0,0	100,0	0,0	0,0	100,0	0,0	0,0	97,4	0,0	0,0
Murtzia	99,8	0,2	0,0	99,8	0,2	0,0	99,1	0,8	0,2	95,0	1,3	0,2
Nafarroa	93,9	0,6	0,6	99,4	0,1	0,5	99,9	0,1	0,0	98,5	0,9	0,0
Valentziako E.	94,1	0,0	0,0	98,8	0,7	0,5	98,7	1,0	0,3	96,7	1,2	0,3

Iturria: Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioa

35. taula: 18 eta 64 urte bitarteko pertsonen ehunekoak, ama hizkuntza ohikoenen arabera

	Gizonak	Emakumeak	Espainiarrak	Atzerritarak
Gaztelania	90,1	89,5	95,5	44,7
Katalana	11,3	11,0	12,4	
Galiziera	5,7	5,3	6,2	
Valentziera	4,0	3,9	4,4	

Euskara	1,8	1,8	2,0	
Arabiera	2,2	2,2	0,4	16,6
Ingelesa	2,3	2,1	1,9	4,5
Frantsesa	1,5	1,8	1,1	5,7
Errumaniera	1,2	2,0		14,0

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Ikasten ari diren pertsona helduei buruzko inkesta

36. taula: 18 eta 64 urte arteko pertsonak, ama hizkuntza ez direnen artetik maizenik erabiltzen ohi dituzten hizkuntzen arabera

	Gizonak	Emakumeak	Espainiarrak	Atzerritarrak
Edozein	44,7	42,7	45,9	26,1
Gaztelania	8,9	9,3	4,0	49,9
Katalana	6,2	6,4	5,7	11,0
Galiziera	0,8	0,6	0,8	
Valentziera	1,9	1,9	2,0	
Euskara	1,0	1,3	1,3	
Ingelesa	39,6	40,9	40,9	34,8
Frantsesa	13,0	15,0	14,2	12,3
Alemaniarra	2,7	2,9	2,6	4,1
Italiera	2,5	2,7	2,5	3,5
Portugesa	2,0	1,4	1,7	1,7

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Ikasten ari diren pertsona helduei buruzko inkesta

Nafarroako hizkuntzen errealitatea aberatsa eta konplexua da. Garai historikoetan hiztun komunitateak sortu zituzten hizkuntzen garapenak ez du etenik izan, eta oraindik ere irauten dute berezko hizkuntza gisa gaztelania edota euskara duten bi komunitateak. Sakontasunez aztertu diren arrazoi soziolinguistiko eta historikoak direla medio, komunitateko biztanle ia guztiek dakite gaztelaniaz gaur egun. Euskal hiztunak elebidunak dira gutxienez, gaztelania ere menderatzen baitute. Badira, gainera, beste hizkuntzen hiztunek osaturiko komunitate batzuk, nazioarteko migrazioen, gizarte fluxuen edo ikaskuntzaren ondorioz sortuak. Horiek beste hizkuntza batzuk erabiltzen dituzte, baina fenomeno hori ez da nahikoa ikertu orain arte.


Nafarroari buruzko datu orokor eguneratuenak VII. Inkesta Soziolinguistikoari eta Soziolinguistika Kluster izeneko txostenari dagozkie. Azken hori Euskal Herrian 2021ean egin zen kale erabileraren neurketaren emaitzen laburpena da.

Txosten horretan, atzerritar jatorriko biztanleriaren hazkundea eta kultura aniztasuna nabarmentzen dira, eta horrek, COVIDaren eraginari eta teknologia berrien hazkundeari gehituta, kaleko erabileraren bilakaera bultzatzen du, homogeneotasunerako eta estandarizatzeko joera, eta, ondorioz, tokiko nortasuna galtzeko joera. Eta galera horren barruan dago ingelesaren nagusitasunaren aldeko hizkuntza aniztasuna.

Euskal hiztunen kopurua handitu egin da, baina hobeki moldatzen dira gaztelaniaz. Izan ere, gaur egun haur eta gazte euskaldun gehienek euskara dute bigarren hizkuntza, eskolan ikasia, eta hiztun horietako askok, praktikan, gaitasun handiagoa dute gaztelaniaz.

Nafarroan, biztanleen % 5,9k erabiltzen dute euskara, % 91,0k gaztelania eta % 2,7k beste hizkuntza batzuk.


77. grafikoa: Hizkuntzen kaleko erabilera Nafarroan. 2021



Iturria: Soziolinguistika Klusterra 2021

Euskararen erabilera


78. grafikoa: Nafarroan euskararen erabilera izan duen bilakaera



Iturria: Soziolinguistika Klusterra 2021

Kalean euskara erabiltzeari dagokionez, helduek (% 5,8) gehiago erabiltzen dute gazteek baino (% 4,8).

79. grafikoa: Euskararen erabilera kalean Nafarroan, adin tartearen arabera. 2021




Iturria: Soziolinguistika Klusterra 2021

VII. Inkesta Soziolinguistikoak emandako datuak oinarri hartuta, Nafarroako biztanle euskaldunen goranzko joera ikusten da 2021era arte. Biztanleria horren ehunekoa % 14,1 da, eta euskal hiztun pasiboena % 10,6.

Nafarroako biztanleriako euskal hiztunen garrantzi erlatiboa etengabe handitu da 1991tik 2018ra bitartean: % 9,5etik % 14,1era; eta 2021ean egonkor mantendu da. Euskal hiztun pasiboen kopurua % 4,6 izatetik (1991) % 10,6 izatera igaro da 2021ean.


80. grafikoa: Euskararen ezagutzaren bilakaera Nafarroan



Iturria: Euskarabidea. VII. Inkesta soziolinguistikoa

Euskararen erabilera, erabiltzen duen pertsonaren sexuaren arabera, oso antzekoa da; aldeak oso txikiak dira gizonen eta emakumeen artean.


81. grafikoa: Euskararen erabilera Nafarroan sexuaren arabera. 2021



Iturria: Euskarabidea. VII. Inkesta soziolinguistikoa

Nafarroan, 16 eta 24 urte bitarteko biztanleen % 28,0 euskal hiztunak dira. Ehunekoak behera egiten du 25-34 urtekoen artean (% 20,2), 35-49 urtekoen artean (% 13,4), 50-64 urtekoen artean (% 9,9) eta 65 urtetik gorakoen artean ere (% 8,4).

82. grafikoa: Euskararen ezagutza Nafarroan, adinaren arabera. 2021




Iturria: Euskarabidea. VII. Inkesta soziolinguistikoa

Adinaren aldagaiak eragin argia du nafarrek euskarari dagokionez duten hizkuntza gaitasunean. Adin taldea zenbat eta gazteagoa izan, orduan eta handiagoa da euskaldunen ehunekoa.

Euskara darabilten pertsonen ehunekorik handiena 16-24 urteko taldean dago (% 28,0 2021ean).

Adinean aurrera egin ahala, etxean euskara gutxiago erabiltzen da. 65 urte edo gehiagoko biztanleriaren artean dago euskaldun kopururik txikiena (% 8,4).

83. grafikoa: Euskaldunen bilakaera adinaren arabera



Iturria: Euskarabidea. VII. Inkesta soziolinguistikoa

37. taula: Euskararen ezagutzaren bilakaera adinaren arabera


	2016		2021	
	Euskaldunak	Euskaldun hartzaileak	Euskaldunak	Euskaldun hartzaileak
16 urteetatik 24ra	25,8	12,2	28,0	12,2
25 urteetatik 34ra	18,8	8,8	20,2	11,9
35 urteetatik 49ra	11,7	12,1	13,4	12,2
50 urteetatik 64ra	9,5	11,3	9,9	10,4
65 urteetatik gora	8,3	7,1	8,4	7,3

Iturria: Euskarabidea. VII. Inkesta soziolinguistikoa

Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeak bere artikuluan xedatutako hizkuntza eremuak hauek dira: euskalduna, mistoa eta ez-euskalduna. 2017an, aldaketa handia gertatu zen eremuen osieran ekainaren 27ko 9/2017 Foru Legearen bidez.

Eremu euskaldunean da handiena euskara ohiko hizkuntza gisa erabiltzen duten pertsonen ehunekoa (% 62,3). Eremu mistoan, ehunekoa % 12,6 da. Ehuneko txikiena eremu ez-euskalduneko da (% 1,6).


84. grafikoa: Euskararen ezagutza, hizkuntza eremuen arabera. 2021



Iturria: Euskarabidea. VII. Inkesta soziolinguistikoa

Eremu mistoan hazi da gehien euskaldun kopurua (% 5,2tik % 12,6ra). Eremu ez-euskaldunean, 2021ean % 1,6koa da ehunekoa; 1991. urtean % 0,6koa zen. Azkenik, eremu euskaldunean, aldi horretako euskal hiztunen kopurua ia bi puntu igo da, % 62,3ra iritsi arte.

85. grafikoa: Euskararen ezagutzaren bilakaera hizkuntza eremuaren arabera




Iturria: Euskarabidea. VII. Inkesta soziolinguistikoa

Euskal hiztunen ehunekoa % 80,0tik gorakoa da Nafarroako Foru Komunitateko 272 udalerrietatik 21en, haiek guztiak eremu euskaldunean baitaude. Nastat-ek egin zuen mapa kontsultatu daiteke [esteka honetan](#).

Euskararen transmisioa

Lehen hizkuntzaz ari garenean, haur batek 3 urte bete arte familian ikasi duen hizkuntzari egiten diogu erreferentzia. Euskara da Nafarroako biztanleriaren % 6,1en lehen hizkuntza, eta euskara eta gaztelania, % 3,4rena.

86. grafikoa: Euskararen bilakaera lehen hizkuntza gisa



Iturria: Euskarabidea. VII. Inkesta soziolinguistikoa

87. grafikoa: Euskararen erabilera lehen hizkuntza gisa, adinaren arabera. 2021



Iturria: Euskarabidea. VII. Inkesta soziolinguistikoa.

38. taula: Euskararen bilakaera lehen hizkuntza gisa, adinaren arabera

	1991		2011		2021	
	Euskara	Euskara eta gaztelania	Euskara	Euskara eta gaztelania	Euskara	Euskara eta gaztelania
16 urteetatik 24ra	6,8	1,5	5,9	4,9	6,5	5,2
25 urteetatik 34ra	5,0	0,4	5,0	3,7	5,7	3,8
35 urteetatik 49ra	9,0	2,8	5,0	2,4	5,1	2,9
50 urteetatik 64ra	8,7	1,9	6,1	3,8	5,8	2,2
65 urteetatik gora	10,2	3,6	8,5	2,0	7,6	2,2

Iturria: Euskarabidea. VII. Inkesta soziolinguistikoa

2.5. Hezkuntzari dagozkion alderdiak

Gizartearen hezkuntza maila eta hezkuntzarekiko eta prestakuntzarekiko itxaropenak, bistan denez, hezkuntza sistemaren prozesuetan, politiketan eta emaitzetan erabat eragiten duten testuinguruaren gizarte eta hezkuntza aldagaiak dira. Aurreko hezkuntza politiken emaitza pilatua ere badira, gainera.

2.5.1. Biztanleria helduaren ikasketa maila

Biztanleria helduak erdietsitako ikasketa mailak hezkuntza sistemak errealitate sozialean duen eragin geroratu erakusten digu. Adierazle horretarako, bi kategoria berezi ohi dira: ohikoa (25-64 urte), lan egiteko adinean dauden biztanle helduak jasotzen dituenak, eta partziala (25-34 urte), lan mundura sartu berriak diren edo sartzeko moduan dauden biztanle helduak biltzen dituenak.

Datuak 2011ko Irakaskuntzaren Nazioarteko Sailkapen Normalizatuaren arabera eman ditugu (ISNI 2011). Sailkapen hori UNESCOk egin zuen, eta ISNI-ren zazpi hezkuntza mailak ezartzen ditu.

49.
erans
kina

Europar, biztanleria orokorrak (25-64 urte) eta biztanleria heldu gazteak (25-34 urte) ikasketa mailaren arabera duten banaketak errealitate desberdinak erakusten ditu.


EBko batez besteko datuak erdiko mailak (ISNI 3 eta 4) lortu dituzten gehiengo batek osatutako taldea erakusten du, V baten forma duena. Espainian eta Nafarroan, hain zuzen ere, ehunekorik txikiena duen taldea tartekoa da. EBn % 45,2 da, Espainian % 23,1 eta Nafarroan % 23,5.

39. taula: 25 eta 64 urte arteko biztanleen banaketa ehunekotan, prestakuntza mailaren arabera. 2022

	Bigarren Hezkuntzako lehenengo etapa edo gutxiago (0-2. maila)	2 ^a maila Bigarren Hezkuntzako (3-4. maila)	Goi-mailako Hezkuntza (5-8. maila)
EB	20,5	45,2	34,3
Espainia	35,8	23,1	41,1
Nafarroa	27,8	23,5	48,7

Iturria: Eurostat eta Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioa, Biztanleria aktiboaren gaineko inkestako hezkuntza aldagaien ustiapena


88. grafikoa: 25 eta 64 urte arteko biztanleen banaketa ehunekotan, prestakuntza mailaren arabera, EBko herrialdeetan. 2022



Iturria: Eurostat

50 A
erans
kina

89. grafikoa: Atzerritar nazionalitatea duten 25 eta 64 urte arteko biztanleen banaketa ehunekotan, prestakuntza mailaren arabera, EBko herrialdeetan. 2022




*Zenbait herrialderen datuak falta dira

Iturria: Eurostat

50 B
erans
kina

Aipatzekoa da ISNI 3-4 prestakuntza maila duen biztanleriaren ehunekoa, banaketa oso desberdina duelako EBn, bereziki nabarmena Txekiar Errepublikan. Datu horiek faktore garrantzitsua dira prestakuntza mailak inguru sozioekonomikoaren beharretara egokitzeko. Izan ere, erdi mailako titulatu gutxi egoteak baldintzatu egiten du prestakuntzaren egokitzapena enpleguaren mailen arabera, eta horren ondorioz, langile asko aritzen dira beren prestakuntza baino maila apalagoko lanetan.

90. grafikoa: Europar Batasunean ISNI 3-4 mailan dagoen 25-64 urte arteko biztanleria. 2022




Iturria: Eurostat

2022an, Espainian, autonomia erkidego batzuk batezbestekoaren gaineratik daude hirugarren mailako titulazioa duten pertsona helduei dagokienez: Aragoi, Asturias, Kantabria, Katalunia, Galizia, Errioxa, Madril, Nafarroa eta EAE. Bereziki balio handiak dituzte EAEk (% 56,0), Madrilek (% 50,3) eta Nafarroak (% 48,7).

Autonomia erkidego batzuetan 25-64 urte arteko biztanleen ia erdiek Bigarren Hezkuntzako lehen mailatik beherako ikasketa maila dute; erkidego hauetan, hain zuzen: Andaluzia, Gaztela-Mantxa, Ceuta eta Murtzia.

91. grafikoa: Biztanleria helduaren (25 eta 64 urte artean) prestakuntza maila, autonomia erkidegoaren eta hiri autonomoaren arabera. 2022



Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkesta (EIN), hezkuntza aldagaien ustiapena, Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioa

51. erans kina

Gizonen eta emakumeen prestakuntza mailari erreparatzean, hezkuntza diferentziaz ohartuko gara. Esaterako, estatuan, emakumeen prestakuntza maila gizonena baino baxuagoa izan da 2022an, Bigarren Hezkuntzako bigarren etapatik beherako kategorian. Hori autonomia erkidego guztietan nabaritzen da, gehiago edo gutxiago. Bigarren Hezkuntzako 2. etapan, emakumeen prestakuntza maila ere gizonena baino txikiagoa da autonomia erkidego guztietan, Aragoi, Gaztela-Mantxan, Extremaduran, Nafarroan eta Errioxan izan ezik. Goi Mailako Hezkuntzan, aldea nabarmenagoa da autonomia erkidego guztietan, baina kasu honetan, emakumeek dute tituludunen portzentajerik handiena.

40. taula: Biztanleria helduaren prestakuntza maila, autonomia erkidegoaren eta sexuaren arabera. 2022


	Gizonak			Emakumeak		
	Bigarren Hezkuntzako bigarren etapatik beherakoak	Bigarren Hezkuntzako bigarren etapa	Goi-mailako Hezkuntza	Bigarren Hezkuntzako bigarren etapatik beherakoak	Bigarren Hezkuntzako bigarren etapa	Goi-mailako Hezkuntza
Espainia	39,1	23,4	37,5	32,6	22,7	44,7
Nafarroa	31,3	22,7	46,0	24,4	24,2	51,4

Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkesta (EIN), hezkuntza aldagaien ustiapena, Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioa

52. erans kina

Nafarroan gizonen eta emakumeen prestakuntza maila bakoitzeko ehunekoak alderatzean, alde txikiak daude autonomia erkidegoetako batezbestekoarekin alderatuta. Goi mailako hezkuntza duten emakumeen ehunekoa % 51,4 da, eta gizonekoena, berriz, % 46,0. Bestalde, Bigarren Hezkuntzako 2. etapatik beherako ikasketak dituzten emakumeak % 24,4 dira, eta gizonak, berriz, % 31,3.

92. grafikoa: Biztanleria helduaren prestakuntza maila Espainian eta Nafarroan, sexuaren arabera. 2022



Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkesta (EIN), hezkuntza aldagaien ustiapena, Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioa


25-34 urte bitarteko adin gazteenetan, prestakuntza maila handiagoa da Espainiako eta Nafarroako biztanleria aktibo osoarekin alderatuta; Europar Batasunean zertxobait handiagoa da Bigarren Hezkuntzako 2. etapara iristen direnen taldea.

41. taula: 25 eta 34 urte arteko biztanleen banaketa ehunekotan, prestakuntza mailaren arabera. 2022

	Bigarren Hezkuntzako bigarren etapatik beherakoak	Bigarren Hezkuntzako bigarren etapa	Goi-mailako Hezkuntza
EB 27	14,7	43,4	42,0
Espainia	26,5	22,9	50,5
Nafarroa	20,7	21,6	57,7

Iturria: Eurostat eta Biztanleria Aktiboaren Inkesta (EIN), hezkuntza aldagaien ustiapena, Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioa


93. grafikoa: 25 eta 34 urte arteko biztanleen banaketa ehunekotan, prestakuntza mailaren arabera, EBko herrialdeetan. 2022



Iturria: Eurostat

53.
erans
kina


94. grafikoa: Biztanleria helduaren (25 eta 34 urte artean) prestakuntza maila, autonomia erkidegoaren eta hiri autonomoaren arabera. 2022



Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkesta (EIN), hezkuntza aldagaien ustiapena, Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioa

54.
erans
kina

95. grafikoa eta taula: Ez ikasi ez lan egiten ez duten 15-24 urte bitarteko herritarren portzentajearen bilakaera Europan, Espainian eta Nafarroan, sexuaren arabera berezita.




	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
	Guztira						
EB-27	11,7	11,0	10,5	10,1	11,1	11,0	9,6
Espainia	14,6	13,3	12,4	12,1	13,9	12,3	10,5
Nafarroa	11,3	10,7	8,7	8,5	9,9	10,0	8,1
	Gizonak						
EB-27	11,4	10,7	10,1	9,8	11,0	10,9	9,5
Espainia	15,1	13,8	13,0	12,5	14,8	13,2	10,6
Nafarroa	10,1	8,0	7,2	9,2	10,2	12,0	8,3
	Emakumeak						
EB-27	11,9	11,3	10,9	10,4	11,1	11,0	9,7
Espainia	14,1	12,8	11,9	11,7	12,9	11,3	10,4
Nafarroa	12,4	13,7	10,1	7,7	9,5	7,8	7,8

Iturria: Eurostat


Denboran izandako bilakaerak erakusten duenez, prestakuntza mailek gora egin dute etengabe. Belaunaldi batetik bestera heziketa mailak gora egin duen baloratzeko, Derrigorrezkoaren ondoko Bigarren Hezkuntza maila (ISNI 3-4) gutxienez osatu duten helduen proportzioa konparatzen da bi adin tarte hauetan: 25-34 urtekoak eta 25-64 urtekoak.

96. grafikoa: Ez ikasi ez lan egiten ez duten 15-29 urte bitarteko herritarren ehunekoak EBko herrialdeetan. 2022




Iturria: Eurostat

97. grafikoa: Ez ikasi ez lan egiten ez duten 15-29 urte bitarteko herritarren ehunekoak autonomia-erkidegoetan. 2022



Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkesta (EIN), hezkuntza aldagaien ustiapena, Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioa


98. grafikoa: Diploma lortu berri duten 20-34 urte bitarteko herritarren enplegu tasa (ISNI 3-8) Europar Batasunean. 2022



Iturria: Eurostat

56.
erans
kina

99. grafikoa: ISNI 3-4 duen biztanleriaren ehunekoa, adin taldearen arabera (25-34 urte eta 25-64 urte) eta autonomia erkidegoaren eta hiri autonomoaren arabera. 2022




Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkesta (EIN), hezkuntza aldagaien ustiapena, Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioa

57.
erans
kina

Alderaketa orokorra egiteak egiaztatutako prestakuntzak EBn, Espainian eta Nafarroan adin taldeen arabera izandako bilakaerari buruzko ikuspegia ematen ahal du.

100. grafikoa: 25-64 eta 25-34 urteko biztanleria, hezkuntza mailaren arabera. 2022



Iturria: Eurostat eta Biztanleria Aktiboaren Inkesta (EIN), hezkuntza aldagaien ustiapena, Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioa

2.5.2. Hezkuntzaren interesa alor instituzionalean

Hezkuntzarekin lotutako jarduera oso aipagarria da alor instituzionalean. Atal honetan Nafarroako bizitza politiko eta sozialean esanguratsuak diren bi erakundetako albisteak ematen ditugu: Nafarroako Parlamentua eta Arartekoa. Horrez gain, idatzizko bi egunkaritako orrialdeetan jasotako hezkuntzari buruzko gaien berri ematen dugu. Egunkari hauetan jasotakoak, hain zuzen: Diario de Noticias eta Diario de Navarra. Hezkuntzaren testuinguru diren beste adierazle sozial batzuk ere islatzea da asmoa.

- **Nafarroako Parlamentua**

Eranskin honetan, erakunde horrek unibertsitatekoa ez den hezkuntzari buruz egin dituen jarduera guztiak bildu ditugu. Ematen diren datuak Nafarroako Parlamentuko X. Legegintzaldiko jardueren memorian, 2022ko uztailaren 1etik 2023ko ekainaren 30era arteko aldian, jasotakoan laburpena dira.

58.
erans
kina

- **Nafarroako Arartekoa**

Eranskin honetan, erakunde horrek unibertsitatekoa ez den hezkuntzari buruz egin dituen jarduerak jaso ditugu. Ematen diren datuak Nafarroako Arartekoaren Jardueren Memorian

adierazitakoen laburpen bat dira, eta X. legegintzaldiko 2022ko uztailaren 1etik 2023ko maiatzaren 31ra eta XI. legegintzaldiko abuztuaren 31ra arteko aldiari dagozkie.

59.
erans
kina

2.5.3. Hezkuntzaren interesa alor sozialean

- **Komunikabideak**

60.
erans
kina

- **Baliabide profesionalak**

61.
erans
kina

3.- HEZKUNTZAKO BALIABIDE MATERIALAK ETA LANGILEAK

Pertsonak eta baliabide materialak funtsezko osagaiak dira hezkuntza sistemak dituen ekarpenei dagokienez; izan ere, haren funtzionamenduaren euskarri dira, eta eragin erabakigarria dute emaitzetan.

Kapitulu honetan Nafarroako unibertsitatetik kanpoko hezkuntza sistemak dituen baliabide nabarmenenak deskribatzen dira. Horien artean daude Hezkuntza Administrazioaren egiturarekin, egindako inbertsioarekin, azpiegiturekin eta zerbitzuekin loturikoak, bai eta sistemaren funtzionamendurako lanean ari diren pertsonekin loturikoak ere.

Hezkuntzako gastu publikoaren gaineko estatistikaren atalak unibertsitatetik kanpoko Nafarroako hezkuntza sistema publikoa du aztergai eta Hezkuntza Departamentuaren aurrekontuaren exekuzioak ematen dituen datuetan oinarritzen da. Horren guztiaren helburua da behar den informazioa ematea Nafarroako Foru Administrazioaren unibertsitatetik kanpoko hezkuntzaren gastu publikoa kuantifikatzeko; horregatik, atal honetatik at geratzen dira unibertsitateko ikasketetara bideratutako gastua (Hezkuntza Departamentuari lotuta 2019. urtera arte) eta Euskarabideari dagokiona (erakunde autonomoa, baina Hezkuntza Departamentuari lotua 2015. urtera arte).

2001etik 2016ra bitartean gastua aztertzean, kopuruak aurrekontuko partida gisa xehatuta eman dira. Baina Administrazioaren antolaketa egituran eta, beraz, aurrekontu egituran, gertatzen diren aldaketek departamentu guztiei eragiten diete, eta horrek aurrekontu partidetan aldaketak ekartzen ahal ditu, bai eta zenbait partida desagertzea ere.

Hori dela eta, 2017az geroztik, azterketan gastuaren sailkapen funtzionalari lehentasuna emanda egituratu da gastu publikoaren estatistika; hau da, egin beharreko jardueren ezaugarrien eta xedearen arabera. Gainera, gastua eragiketen ezaugarri ekonomikoaren arabera banatzen da, kapitulu ekonomikoen bitartez.

Ikuspegi horrek egitura egonkorragoa duen analisia bermatzen du, gastuaren kodifikazio funtzionalak ez baitu aldaketa esanguratsurik izaten, salbu eta aurrekontuaren urteko berrikuspenetan doiketak egin eta kodetze egokiagoak egitearen ondorioz gertatzen ahal direnak.

3.1. *Sailkapen funtzionala*

Gastuaren sailkapen funtzionala

Hezkuntza Departamentuak ematen dituen zerbitzu guztien artean gastua nola aplikatzen den, zer xede duen, nola bideratzen den eta nola banatu behar den zehazten du gastuaren sailkapen funtzionalak. *Zertan gastatzen da?* galderari erantzuten dio. Kontzeptu hauek biltzen ditu analisiak:

- Hezkuntzako zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak. Irakaskuntza eta modalitate guztietako jarduera hauek biltzen dira: zuzendaritza, koordinazioa, laguntza, kudeaketa, ikuskapena, ebaluazioa, programen lanketa eta abar. Zerbitzu zentraletatik gauzatzen dira eta, oro har, zeharka eragiten dute sare publikoan eta itunpeko sare pribatuan.
- Irakasleen etengabeko prestakuntza. Irakasleen prestakuntzara, hobekuntzara eta espezializaziora bideratutako ikastaro, mintegi, jardunaldi eta abarretarako gastua

biltzen du; bai eta ekintza horietarako erakunde publiko eta pribatuentzako dirulaguntzak eta xede horretarako laguntzak ere.

- Beste hezkuntza jarduera batzuetarako laguntza. Guraso elkarteak eta Nafarroako Eskola Kontseiluko funtzionamendu gastuak diruz laguntzeko zuzkidurak biltzen ditu.
- Helduen Hezkuntza eta Osabidezkoa. Hauetara guztietara bideratutako gastua biltzen du: Helduen Oinarrizko Hezkuntzarako eta Bigarren Hezkuntzarako irakaskuntza; hezkuntza sistemako titulazioak eskuratzeko eskolatu gabeko irakaskuntzak ebaluatzeko proben prestaketa; baldintza akademikoak betetzen ez dituzten helduentzako irakaskuntzetara sartzeko probak prestatzeko ikastaroak, eta abar.
- Hezkuntzan aplikaturiko teknologia berriak. Informazioaren eta komunikazioaren teknologietara bideratutako gastuak biltzen ditu; bai aplikazioen mantentze lanetarako, bai programa eta ekipamendu informatiko berrietan inbertitzeko.
- Ekipamenduen eraikuntza eta material didaktikoa. Ikastetxeak eraikitzeke eta ikastetxeetako ekipamenduetarako gastua jasotzen du.
- Irakaskuntzako zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak. Ikastetxeetan –publikoak zein itunpeko ikastetxe pribatuak– ematen diren irakaskuntza zikloekin zuzenean erlazionatutako jarduera orokorrak jasotzen ditu.
- Haur eta Lehen Hezkuntza: Haur Hezkuntzako 1. eta 2. zikloetako eta Lehen Hezkuntzako gastua biltzen du.
- Bigarren Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Batxilergoa. Batera biltzen ditu Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa eta Lanbide Heziketako erdi eta goi mailako prestakuntza zikloak.
- Arreta berariazkoa. Jarduera honetan behar bereziak eta/edo gizartean eta hezkuntzan integratzeko beharrak dituzten ikasleei zuzendutako baliabide gehigarriak eta material espezializatua biltzen dira. Gainera, eta kodetze funtzional espezifikorik ez dutenez, aurrekontu partidak jaso dira, jarduerak finantzatzeko ezaugarri sozialak eta/edo kulturalak direla-eta premia duten kolektiboentzat: gutxiengo kulturalentzat, populazio ibiltariarentzat eta sasoikoarentzat, eta etorkinentzat.
- Irakaskuntzako zerbitzu osagarriak. Ikasleen jantoki eta garraio zerbitzuetako gastuak biltzen ditu; bai eta liburuak doan eskuratzeko planera bideratutako zuzkidura ere.
- Beste irakaskuntza batzuk (arte ikasketak, hizkuntzak, bereziak eta bestelakoak). Hauetara guztietara bideratutako gastua jasotzen du: arte ikasketak (arte plastikoak eta diseinua, musika, dantza eta arte dramatikoak), hizkuntza eskola ofizialetako irakaskuntzak, kirol irakaskuntzak eta ikasleek zein irakasleek hizkuntzak ikasteko gastuak.
- Ikasleentzako beka eta laguntzak. Ikasteko beka edo laguntzaren definizioari dagokion aurrekontuko partidetan sartutako zuzkidura jasotzen du. Alde horretatik, ikasteko bekatzat edo laguntzat hartzen dira ikasleei/etxeei bideratutako transferentziak, zuzenekoak zein hezkuntza erakundeen bitartez bideratutakoak. Horiek emateko, baldintza sozioekonomiko eta/edo akademiko batzuk bete behar dira, eta alde aurretik eskaera egin. Hala ere, behar bereziak eta/edo gizartean eta hezkuntzan integratzeko beharrak dituzten ikasleentzako laguntza espezifikoak, arte ikasketetako ikasleentzakoak eta Lanbide Heziketako ikasleen mugikortasun programetako ikasleentzakoak, azterketaren ondorioetarako, dagokien sailkapen funtzional espezifikoaren barruan sartu dira.

- Eskola adineko kirola. Eskola sisteman kirola praktikatzea bultzatzen duten zuzkidurak dira.

Gastuaren sailkapen ekonomikoa

Sailkapen ekonomikoak gastuen ezaugarri ekonomikoei eta *Zertan gastatzen da?* galderari erantzuten die. Sailkapen honek hiru eragiketa mota biltzen ditu: eragiketa arruntak, kapital eragiketak eta finantza eragiketak.

- Eragiketa arruntak

1. kapitulua. Langileen gastuak: langile guztiek (funtzionarioek, lan kontratadunek eta bestelako langileek) dituzten ordainsariak eta kalte-ordainak (dirutan eta gauzatan), kuota sozialak, gizarte prestazioak (pentsioak eta erretiro aurreratuagatiko kalte-ordainak) eta gastu sozialak (jantokiak, garraioa, bizi eta istripu aseguruak eta abar).

2. kapitulua. Gastu arruntak ondasunetan eta zerbitzuetan. Ondoren zerrendatutako ezaugarriren bat duten ondasunak erostean sortutako gastuak: ondasun suntsikorrek izatea; aurrekontu ekitaldia baino iraupen txikiagoa izatea; inbentariaezinak eta, seguruenik, errepikakorrek izatea; errentamenduak eta konponketak; ondasun higigarrien eta higiezin mantentze lana eta kontserbazioa (lurak eta ondasun naturalak, eraikinak, makinak, garraiorako materiala, altzariak eta tresnak, ekipo informatikoak eta beste); bulegoko materialaren gastua, hornidurak, komunikazioak, garraioak, aseguru primak (bizi edo istripu aseguruak izan ezik), zergak, beste enpresek egindako lanak, zerbitzuagatiko kalte-ordainak (dietak, lokomozioa, joan-etorria eta beste); eta bestelako gastuak.

3. kapitulua. Finantza gastuak: finantza karga, barruan zein kanpoan egindako zorrak jaulki, aldatu eta kitzatzeagatik eta interesengatik; jasotako fidantzen eta gordailuen interesak.

4. kapitulua. Transferentzia arruntak: ordainketak, baldintzatuak edo ez, agente hartzaileen zuzeneko kontrapartidarik gabe eginak; haiek eragiketa arruntak finantzatzera bideratzen dituzte funts horiek. Kanporako laguntzaren eta lankidetzaren teknikoaren ondoriozko gastu arruntak ere jasotzen dira, bai eta nazioarteko erakundeentzako kuotak eta ekarpenak ere.

- Kapital eragiketak

6. kapitulua. Inbertsio errealak: kapital ondasunak edo zerbitzuak sortzeko edo erosteko gastuak, eta zerbitzuek funtzionatzeko beharrezkoak diren ondasun inbentariagarriak erosteko gastuak eta amortizagarriak diren bestelako gastu immaterialak; hau da, etorkizuneko ekitaldietan jarduerari eusten laguntzen dutenak.

7. kapitulua. Kapital transferentziak: ordainketak, baldintzatuak edo ez, agente hartzaileen zuzeneko kontraprestaziorik gabe eginak; haiek kapital eragiketak finantzatzera bideratzen dituzte funts horiek.

- Finantza eragiketak

8. kapitulua. Aktibo finantzarioak: kredituak dira, aktibo finantzarioak eskuratzeko (tituluak eta baloreak, kontuko idatzoharrak, mailegu kontratuak), bai eta gordailuak eta fidantzak eratzekoak ere.

9. kapitulua. Pasibo finantzarioak: barruan zein kanpoan eta epe laburrera zein luzera igorritako, hartutako edo egindako zorrak amortizatzeko kredituak. Gordailuak eta fidantzak itzultzea ere jasotzen da atal honetan.

Txosten honetan, datu guztiak milaka eurotan adierazten dira.

3.2. Gastuaren azterketa

Hezkuntzako gastu publikoaren azterketak 2022. urteari dagokion aurrekontu ekitaldiaren analisia jasotzen du. Horrez gain, hezkuntzako gastuaren bilakaera aztertzeko erreferentziazko oinarritzko urtetzat hartu da 2009ko ekitaldi ekonomikoa, krisi finantzarioaren ondorioz egindako murrizketen aurretik gastu publiko nabarmena izan zuen urtea izateagatik. Era berean, analisisian 2012ko ekitaldi ekonomikoa sartu da, aurrekontuan murrizketa nabarmenenak egin ziren ekitaldia izateagatik. Eta estatistika segida osatzeko, azken lau urteetako balioak sartu dira, nahiz eta gastuaren bilakaeraren azterketak 2015-2016-2017-2018-2019-2020-2021-2022 ekitaldiak hartzen dituen.

Horren harira, aintzat hartu behar da gastuaren bilakaeraren analisia kontuz egin beharrekoa dela; izan ere, 2012an Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako langileen aparteko paga kendu zen, eta 2015., 2016. eta 2017. urteetan ordaindu zen haren ordaina. Gastu hori jasota dago 1. kapituluko (Langileen gastuak) aurrekontuaren exekuzioan. Datu hori kalkulu estatistikoak egiteko bereizteak zailtasun handiak ekarri ditu, jada Departamentuko plantillan ez dauden langileei ere ordaindu baitzaie.

Hiru multzotan banatu da gastua:

- Gastu komunak. Gastu komunak irakaskuntza sare publikorako zein itunpeko irakaskuntza pribaturako diren zerbitzuei dagozkienak dira. Bi sare horietara bideratutako ehunekoa kalkulatzeko ia ezinezkoa da eta datu bilketa konplexua eskatzen du.
- Irakaskuntza sareko gastuak
 - Publikoa. Irakaskuntza publikoko zerbitzuei zuzenean lotutako gastuak dira.
 - Itunpeko sare pribatua. Itunpeko irakaskuntza pribatuko zerbitzuei zuzenean dagozkien gastuak sartu dira.
- Ikasle bakoitzeko gastuaren kalkulua. Sare publikoan zein itunpeko sare pribatuan gastu hori kalkulatzeko, hauek baztertu dira: beste irakaskuntzetara (arte ikasketak, hizkuntzak, bereziak eta bestelakoak) bideratutako gastuak, beste hezkuntza jarduera batzuetarako laguntzak, 0-3 urte bitarteko Haur Hezkuntza (1. zikloa), Helduen Hezkuntza eta Osabidezkoa, eta eskola adineko kirola. Gastu komunei eta irakaskuntza sare publikoko gastuari eragiten diete gastu horiek.

Behin aurreko gastuak baztertuta, irakaskuntza sare bakoitzeko gastu espezifikuari bi sareetako irakaskuntza maila hauetan matrikulatutako ikasleen arabera banatutako gastu komunak gehitu zaizkio: Haur Hezkuntza (2. zikloa), Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa.

3.3. Gastuaren exekuzioa

Gastu aurrekontua

2022ko ekitaldiko gastu aurrekontua honela exekutatu da sailkapen funtzionalaren eta ekonomikoaren arabera banatuta:

42. taula: Gastu aurrekontua. Hezkuntza Departamentua. 2022

Izen funtzionalak	Kapitulu ekonomikoak					Gastuak, guztira	% funtzionala /guztizkoa
	1	2	4	6	7		
Hezkuntzako zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak	19.265,33	2.723,44	1,50	2.008,77	27,75	0,00	24.026,79
Hezkuntza alorreko irakasleen etengabeko prestakuntza	1.959,13	905,48	0,00	26,68	3,83	0,00	2.895,12
Beste hezkuntza jarduera batzuetarako laguntza		35,00	0,00	63,65	0,00	0,00	98,65
Helduen Hezkuntza eta Osabidezkoa	10.074,20	21,33	0,00	0,00	0,00	0,00	10.095,53
Hezkuntzari aplikaturiko teknologia berriak		2.520,92	0,00	0,00	4.341,68	0,00	6.862,59
Eraikuntza, ekipamendua eta material didaktikoa		0,00	0,00	0,00	14.025,16	11.230,33	25.255,49
Irakaskuntzako zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak		16.991,21	0,00	5.700,32	0,00	0,00	22.691,52
Haur eta Lehen Hezkuntza	194.030,99	191,47	0,00	86.834,12	349,92	347,14	281.753,64
B. Hezkuntza, L. Heziketa eta Batxilergoa	240.671,42	3.215,47	0,00	67.841,54	1.450,15	0,00	313.178,59
Arreta berariazkoa	28.863,80	726,71	0,00	12.678,13	15,59	0,00	42.284,22
Irakaskuntzako zerbitzu osagarriak	260,17	19.263,04	0,00	644,43	2.032,97	970,36	23.170,98
Beste irakaskuntza batzuk (artistikoak, hizkuntzak, bereziak eta bestelakoak)	20.470,73	2.095,92	0,00	3.475,37	3,97	0,00	26.045,98
Ikasleentzako bekak eta laguntzak		0,00	0,00	588,03	0,00	0,00	588,03
Eskola adineko kirola		0,00	0,00	165,00	0,00	0,00	165,00
Gastuak, guztira	515.595,76	48.689,98	1,50	180.026,04	22.251,02	12.547,83	779.112,14

Ekonomikoa/ Guztira	66,18	6,25	0,00	23,11	2,86	1,61	100,00
------------------------	-------	------	------	-------	------	------	--------

Iturria: Aurrekontuen eta Kudeaketa Ekonomikoaren Atala

Gastuaren % 76,36 hauetara bideratzen da: Haur eta Lehen Hezkuntzara (% 36,16) eta Bigarren Hezkuntzara, Lanbide Heziketara eta Batxilergora (% 40,20). Gastu hori nagusiki langileen gastuei buruzko 1. kapituluak bilduta dago, ikastetxetara atxikitako langileen (irakasle eta ez irakasle) ordainsariak ordaintzera bideratuta, baita transferentzia arruntan gastuei buruzko 4. kapituluak ere, itunpeko irakaskuntza pribatuko hezkuntza itunak ordaintzera bideratuta.

Arreta berariazkoak gastuaren % 5,43 hartzen du, eta kasu honetan ere 1. eta 4. kapitulu ekonomikoetan bilduta dago (langileen gastuak eta hezkuntza itunak).

Beste irakaskuntza batzuei (arte ikasketak, hizkuntzak, bereziak eta beste batzuk) dagokien gastuak % 3,34ko pisu espezifikoak du; ikastetxeen eraikuntza eta ekipamendurako eta material didaktikorako gastuak % 3,24ko pisu espezifikoak du, eta gastua inbertsioei buruzko 6. kapituluaren eta kapital transferentziei buruzko 7. kapituluaren artean banatzen da.

Irakaskuntzako zerbitzu osagarrietarako gastua % 2,97 da, eta gastu nagusia 2. kapituluak (garraio eta jangela zerbitzuetarako kredituekin) eta 6. eta 7. kapituluak (liburuen doakotasun plana) bilduta dago. Hezkuntzako zuzendaritza eta zerbitzu orokorretako gastua % 3,08 izan da, eta irakaskuntzako zuzendaritza eta zerbitzu orokorretakoa, berriz, % 2,91.

Gainerako gastuei dagokienez, % 1,30etik beheitikoak izan dira, eta jardueraren batzuetan hutsaren parekoak.

Gastuaren sailkapen ekonomikoari erreparatzen badiogu, agerian jartzen da 1. kapituluak duen garrantzia (% 66,18), nagusiki irakaskuntza publikoko maila guztietara bideratutako langile gastuak biltzen dituena. 4. kapituluak, % 23,11ko pisu espezifikoarekin, itunpeko irakaskuntza pribatuko hezkuntza itunen ordainketa biltzen du nagusiki. Gainerako kapituluak pisu espezifiko apalagoa dute: 2. kapituluak % 6,25, ondoren 6. kapituluak % 2,86, eta jarraian 7. kapituluak % 1,61.

Langileen gastua

Aurreko atalean azpimarratu bezala, langileen gastuari buruzko kapitulari (1.ari) exekutaturako gastu guztiaren % 66,18 dagokio. Hemen zehaztuta dator gastu horren banaketa:

43. taula: Irakasleen eta irakasle ez diren langileen gastuak. 2022

Gastu komunak (sare publikoa eta itunpeko sare pribatua)	Irakasleak	Irakasle ez direnak	Guztira	%
Hezkuntzako zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak	1.807,27	17.458,06	19.265,33	3,74
Hezkuntza alorreko irakasleen etengabeko prestakuntza	1.959,13	-	1.959,13	0,38
Guztizko partziala	3.766,40	17.458,06	21.224,46	4,12
JARDUERAK HEZKUNTZA PUBLIKOAN				
Irakaskuntza publikoko jarduerak	Irakasleak	Irakasle ez direnak	Guztira	%
Haur eta Lehen Hezkuntza	189.359,84	4.671,15	194.030,99	37,63

B. Hezkuntza, L. Heziketa eta Batxilergoa	226.457,43	14.213,99	240.671,42	46,68
Beste irakaskuntza batzuk (artistikoak, hizkuntzak, bereziak eta bestelakoak)	19.172,20	1.298,53	20.470,73	3,97
Arreta berariazkoa	15.567,31	13.296,48	28.863,80	5,60
Helduen Hezkuntza eta Osabidezkoa	9.666,83	407,37	10.074,20	1,95
Zerbitzu osagarriak (eskola garraioa eta jantokia)	213,44	46,74	260,17	0,05
Guztizko partziala	460.437,04	33.934,26	494.371,31	95,88
Guztizkoa	464.203,44	51.392,32	515.595,76	100,00
Ekonomikoa/Guztira	90,03	9,97	100,00	

Iturria: Aurrekontuen eta Kudeaketa Ekonomikoaren Atala

Irakaskuntza publikoarekin eta itunpeko irakaskuntza pribatuarekin zerikusia duten jardueri dagokien gastu komuna guztizko gastuaren % 4,12 da, eta % 3,74 hezkuntzako zuzendaritza eta zerbitzu orokorretako langile propioei dagokie, eta % 0,38, berriz, irakasleen etengabeko prestakuntzarako da.

Irakaskuntza publikoko jardueretarako gastuak, berriz, % 95,88ko pisu espezifiko du. Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, gastua guztizkoaren % 37,63 da, eta Bigarren Hezkuntzan, Lanbide Heziketan eta Batxilergoan, % 46,68. Ondoren, hauek daude: Arreta Berariazkoan egiten den gastua, % 5,60; beste irakaskuntzetakoa (arte ikasketak, hizkuntzak, bereziak eta bestelakoak), % 4,00; eta Helduen Hezkuntzan eta Osabidezkoan egiten dena, % 1,95. Zerbitzu osagarrietara (garraioa eta jantokia) bideratutako zenbatekoa, berriz, oso txikia da.

Azkenik, irakasleen gastua % 90,03 da, eta irakasle ez diren langileen gastuak, aldiz, % 9,97ko pisua du.

Gastuaren esleipena

Kontuan izanda aurrez adierazitako kalkulatzeko zailtasunak, hau da gastuaren esleipenaren banaketa:

44. taula: Gastuaren esleipena. 2022

	Zenbatekoa	%
Gastu komunak	27.937,61	3,59
Hezkuntza publikoko gastuak	594.437,53	76,30
Itundutako hezkuntza pribatuko gastuak	156.736,99	20,12
Guztira	779.112,14	100

Iturria: Aurrekontuen eta Kudeaketa Ekonomikoaren Atala

Gastu komunak

Sare publikoko eta itunpeko sare pribatuko gastu komunak honela banatu dira kapitulu ekonomikoen arabera:

45. taula: Gastu komunen banaketa kapituluka. 2022

Izen funtzionalak	Kapitulu ekonomikoak				Gastuak, guztira	% funtzionala/ guztizkoa
	1	2	4	6		
Hezkuntzako zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak	19.265,33	2.359,66	88,75	25,92	21.739,66	77,82
Hezkuntza alorreko irakasleen etengabeko prestakuntza	1.959,13	867,55	26,68	3,83	2.857,19	10,23
Beste hezkuntza jarduera batzuetarako laguntza	0,00	35,00	63,65	0,00	98,65	0,35
Hezkuntzari aplikaturiko teknologia berriak	0,00	326,95	0,00	167,46	494,41	1,77
Eraikuntza, ekipamendua eta material didaktikoa	0,00	0,00	0,00	213,98	213,98	0,77
Irakaskuntzako zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak	0,00	40,76	9,77	0,00	50,53	0,18
Haur eta Lehen Hezkuntza	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
B. Hezkuntza, L. Heziketa eta Batxilergoa	0,00	50,57	0,00	0,00	50,57	0,18
Arreta berariazkoa	0,00	12,10	676,24	0,00	688,34	2,46
Beste irakaskuntza batzuk (artistikoak, hizkuntzak, bereziak eta bestelakoak)	0,00	991,24	0,00	0,00	991,24	3,55
Ikasleentzako bekak eta laguntzak	0,00	0,00	588,03	0,00	588,03	2,10
Eskola adineko kirola	0,00	0,00	165,00	0,00	165,00	0,59
Gastuak, guztira	21.224,46	4.683,82	1.618,13	411,20	27.937,61	100,00
Ekonomikoa/Guztira	75,97	16,77	5,79	1,47	100,00	

Iturria: Aurrekontuen eta Kudeaketa Ekonomikoaren Atala

Exekutututako guztizko gastuaren % 3,59 dira gastu komunak. Gastu komunen artean, hezkuntzako zuzendaritza eta zerbitzu orokorrek guztizko gastuaren % 77,82 biltzen dute; hezkuntzako irakasleen etengabeko prestakuntzara bideratutako gastuak % 10,23ko pisu espezifiko du; eta beste irakaskuntza batzuetan (arte ikasketak, hizkuntzak bereziak eta beste) egiten den gastuak % 3,55 hartzen du.

Sailkapen ekonomikoaren arabera, % 75,97 langileen gastuari dagokio, eta bat dator hezkuntzako zuzendaritzak eta zerbitzu orokorrek sailkapen funtzionaleko gastuetan duten pisu espezifiko handiagoarekin. Funtzionamendurako eta transferentzia arruntetarako gastuak % 16,77 eta % 5,79 hartzen dute, hurrenez hurren; inbertsioetako gastuak, berriz, % 1,47ko pisu espezifiko du, eta teknologia berrietara eta eraikuntza eta ekipamenduetako inbertsioetara bideratutako gastuen artean banatzen da, nagusiki.

Sare publikoko gastuak

Sare publikoko gastuak honela banatzen dira kapituluka:

46. taula: Sare publikoko gastuen banaketa kapituluak. 2022

Izen funtzionalak	Kapitulu ekonomikoak						Gastuak, guztira	% funtzionala/ guztizkoa
	1	2	3	4	6	7		
Hezkuntzako zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak	0,00	363,78	1,50	1.920,02	1,83	0,00	2.287,12	0,38
Helduen Hezkuntza eta Osabidezkoa	10.074,20	21,33	0,00	0,00	0,00	0,00	10.095,53	1,70
Hezkuntza alorreko irakasleen etengabeko prestakuntza	0,00	37,93	0,00	0,00	0,00	0,00	37,93	0,01
Hezkuntzari aplikaturiko teknologia berriak	0,00	2.193,97	0,00	0,00	4.174,21	0,00	6.368,18	1,07
Eraikuntza, ekipamendua eta material didaktikoa	0,00	0,00	0,00	0,00	13.811,18	11.230,33	25.041,51	4,21
Irakaskuntzako zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak	0,00	16.950,45	0,00	595,28	0,00	0,00	17.545,73	2,95
Haur eta Lehen Hezkuntza	194.030,99	191,47	0,00	14.689,79	349,92	347,14	209.609,31	35,26
B. Hezkuntza, L. Heziketa eta Batxilergoa	240.671,42	3.164,90	0,00	1.316,40	1.450,15	0,00	246.602,87	41,49
Arreta berariazkoa	28.863,80	714,60	0,00	0,00	15,59	0,00	29.593,99	4,98
Irakaskuntzako zerbitzu osagarriak	260,17	19.263,04	0,00	644,43	2.032,97	0,00	22.200,62	3,73
Beste irakaskuntza batzuk (artistikoak, hizkuntzak, bereziak eta bestelakoak)	20.470,73	1.104,67	0,00	3.475,37	3,97	0,00	25.054,74	4,21
Gastuak, guztira	494.371,31	44.006,15	1,50	22.641,28	21.839,82	11.577,47	594.437,53	100,00
Ekonomikoa/Guztira	83,17	7,40	0,00	3,81	3,67	1,95	100,00	

Iturria: Aurrekontuen eta Kudeaketa Ekonomikoaren Atala

Irakaskuntza sare publikoko gastuak exekutaturako gastuaren % 76,30era heltzen dira. Funtzionalak kontuan hartuta, pisu espezifiko handieneko gastua Haur/Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Batxilergoan biltzen da (% 35,26 eta % 41,49 hurrenez hurren); atzetik daude arreta berariazkoak (% 4,98), beste irakaskuntza batzuetara (artistikoak, hizkuntzak, bereziak eta bestelakoak) bideratutakoa eta eraikuntza, ekipamendu eta material didaktikorako gastua (% 4,21).

% 4tik beheitiko pisu espezifiko dute, daturik adierazgarrienak irakaskuntzako zerbitzu osagarriari dagozkie, % 3,73ko pisu espezifiko baitute, nagusiki eskola garraio eta jantokira eta testu liburuak doan eskuratzeko planera bideratua; eta irakaskuntzako zuzendaritzak eta zerbitzu orokorrek % 2,95eko pisu espezifiko dute, batez ere honako hauek bilduta:

funtzionamendu gastuak eta garbiketa zerbitzu arrunta finantzatzeko kreditua; ikastetxeetako ezohiko garbiketa zerbitzua; eta ikasle nahiz irakasleentzako sistema informatikoen mantentze lana, pandemiak eragindako osasun krisiaren ondorioz hartutako neurrien barruan.

Kapitulu ekonomikoaren arabera, gastuaren % 83,17 langileen gastuetara bideratzen da eta irakaskuntza maila guztien artean banatuta dago. Horren atzetik daude gastu arruntak (% 7,40), zeinek, nagusiki, hauek biltzen baitituzte: irakaskuntzako zuzendaritzari eta zerbitzu orokorrei esleitutako ikastetxeen funtzionamendu gastua, eta garraio eta jangela zerbitzu osagarriak.

Transferentzia arruntei buruzko 4. kapituluan, % 3,81eko pisu espezifikorekin nabarmentzen dira 0-3 urtekoak eskolatzeko udalekiko hitzarmenatarako gastua eta eskola kontzentrazioen funtzionamendurako gastua (14.689,79 mila euro), bai eta musika eskolentzako dirulaguntza eta arte ikasketetarako beste laguntza batzuk ere (3.475,37 mila euro).

Inbertsioei buruzko 6. kapituluan, % 3,67ko pisu espezifikorekin nabarmentzen da eraikuntzara, ekipamendura eta material didaktikora bideratutako gastua (13.811,18 mila euro), eta atzetik dago teknologia berrietarako gastua (4.174,21 mila euro), ikastetxeak teknologia eta konektagarritasun aurreratuez hornitzearen aldeko apustuaren isla; gastu horri eutsi zaio behin inbertsio bereziak eginda 2020an eta 2021ean, ikasle eta irakasleek eskolak online eman eta hartu ahal izateko zituzten beharrei aurre egiteko, pandemiak ikastetxeak itxiarazi ondoren.

Azkenik, zerbitzu osagarriek liburuak doan eskuratzeko programaren gastua jasotzen dute (2.032,97 mila euro).

Itunpeko sare pribatuko gastuak

Itunpeko sare pribatuko gastuei dagokienez, datuak hauek dira:

47. taula: Itunpeko sare pribatuko gastuen banaketa kapituluka. 2022

Izen funtzionalak	Kapitulu ekonomikoak		Gastuak, guztira	% funtzionala/guuztizkoa
	4	7		
Hezkuntzako zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak	5.095,27	0,00	5.095,27	3,25
Haur eta Lehen Hezkuntza	72.144,33	0,00	72.144,33	46,03
B. Hezkuntza, L. Heziketa eta Batxilergoa	66.525,14	0,00	66.525,14	42,44
Arreta berariazkoa	12.001,90	0,00	12.001,90	7,66
Irakaskuntzako zerbitzu osagarriak	0,00	970,36	970,36	0,62
Gastuak, guztira	155.766,63	970,36	156.736,99	100,00
Ekonomikoa/Guuztira	99,38	0,62	100,00	

Iturria: Aurrekontuen eta Kudeaketa Ekonomikoaren Atala

Itunpeko irakaskuntza sare pribatuko gastuak exekututako gastu publikoaren % 20,12ra heltzen dira. Irakaskuntza sare publikora bideratutako gastuaren kasuan gertatzen den moduan, pisu espezifikorik handieneko baliabideak Haur eta Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Batxilergoan biltzen dira, % 46,03ko eta % 42,44ko pisu espezifikorekin, hurrenez hurren.

Arreta berariazkoa zuzendutako gastua (behar bereziak dituzten ikasleei eta gutxiengo kulturei ematen zaiena) % 7,66 da, eta irakaskuntzako zerbitzu orokorrek eta zerbitzu osagarriek gastuen % 3,25 eta % 0,62 hartzen dute, hurrenez hurren.

Sailkapen ekonomikoari dagokionez, exekutututako kreditu ia guztia transferentzia arruntetara bideratzen da (% 99,38), dirulaguntzen eta hezkuntza itunen gastuari erantzuteko; kapital transferentziek (% 0,62), aldiz, liburuak doan eskuratzeko planaren gastua biltzen dute.

Ikasle bakoitzeko gastua

Sare publikoan eta itunpeko sare pribatuan ikasle bakoitzeko gastua kalkulatzeko baztertutako gastuek guztizkoaren % 6,91 hartzen dute, guztira.

48. taula: Ikasle bakoitzeko gastua. Baztertutako kontzeptuak. 2022

	Gastuak			
	Komunak	Sare publikoa	Itunpeko sare pribatua	Guztira
Beste irakaskuntza batzuk (artistikoak, hizkuntzak, bereziak eta bestelakoak)	991,24	24.608,46		25.599,70
Beste hezkuntza jarduera batzuetarako laguntza	98,65			98,65
Haur eta Lehen Hezkuntza (0-3 urte)		15.577,96		15.577,96
Helduen Hezkuntza eta Osabidezkoa		10.095,53		10.095,53
Eskola adineko kirola	165,00			165,00
Baztertutako gastuak, guztira		2.291,39		2.291,39
Ekitaldian exekutututako gastu guztia	1.254,90	52.573,34		53.828,24
Exekutututako gastu guztiaren gaineko ehunekoa	27.937,61	594.437,53	156.736,99	779.112,14

Iturria: Aurrekontuen eta Kudeaketa Ekonomikoaren Atala

49. taula: Ikasle bakoitzeko gastu publikoa sare publikoan eta itunpeko sare pribatuan. 2022

	Guztira	Publikoa	Itundua
Ikasleak guztira	112.359	73.490	38.869
Gastu komunak	26.682,72	17.452,21	9.230,51
Sare publikoko hezkuntzako gastua	541.864,19	541.864,19	
Itunpeko sare pribatuko hezkuntzako gastua	156.736,99		156.736,99
Gastuak, guztira	725.283,90	559.316,40	165.967,50
Gastuaren %		77,12	22,88
Ikasleko gastu guztia		7,61	4,27

Iturria: Aurrekontuen eta Kudeaketa Ekonomikoaren Atala

Aurreko datuetatik ondorioztatzen ahal dugu, 2022. urtean, Haur Hezkuntzan (2. zikloa), Lehen Hezkuntzan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan eta Lanbide Heziketan matrikulatutako ikasleei dagokienez, gastu publikoaren % 77,12 irakaskuntza sare publikora bideratu dela, eta gastuaren % 22,88 itunpeko irakaskuntza sare pribatura.

3.4. Hezkuntzako gastu publikoaren bilakaera

Hezkuntzako aurrekontuaren bilakaera kapitulu ekonomikoen eta funtzionaltasunaren arabera

Aintzat hartuz gero kapitulu ekonomikoen pisu espezifikoak, ikusten ahal da 1. eta 4. kapituluek gastu osoaren pisu espezifikorik handiena izateaz gain, goranzko joera dutela, langileen eta hezkuntza itunen gastuak, hurrenez hurren, ordaintzearen ondorioz, hezkuntza ituna progresiboki aplikatu ahala.

Bigarren kapituluari dagokionez (funtzionamendu gastuak), igoera izan da, batez ere gora egin dutelako zerbitzu osagarrietarako gastuak eta hezkuntza eta irakaskuntza zerbitzu orokorrei lotutako beste gastu batzuek, Europako SEM proiektuetan egindako gastuaz gain. Aldiz, 2. kapituluan COVID-19 gastuak behera egin du eta 2021eko gastuaren aldean 2.904,66 mila euro gutxiago gastatu dira. Izan ere, ezohiko neurriak amaitutzat eman ziren 2021-2022 ikasturtean, eta ondorioz 2022ko irailetik aurrera txikiagoa izan da ikastetxeetako, jantokietako eta eskola garraioeko ezohiko gastua.

Laugarren kapituluko gastuak hazten jarraitu du, irakaskuntza itunduaren itunetarako eta 0-3 urteko haurrak eskolatzeko udalekiko hitzarmenetarako transferentziarengatik. COVID gastuak aurreko urtean baino 1.388,96 mila euro gutxiagokoa izan da, nahiz eta oraindik garrantzizkoa izan, 7.860,03 mila eurokoa hain zuzen, eta zenbateko horretatik 5.074,11 mila euro bideratu dira itunpeko irakaskuntzara.

Igoera nabarmena izan du inbertsioetako gastuei buruzko 6. kapituluak, Nafarroako Gobernuaren titulartasuneko ikastetxeetan obrak egiteko 4.720,01 mila euroko inbertsioa egin delako, Europako REACT funtsetatik finantzatuta. Kapitulu honetako COVID gastuari dagokionez, jaitsiera esanguratsua dago 2021eko urteko aldean, 2.509,31 mila euro gutxiago gastatu baitira, eta guztizko hondar-gastua 1,8 mila eurokoa da.

Kapital transferentziei buruzko 7. kapituluan gastuaren gorakada handia izan da (aurreko urtean baino 3.826,16 mila euro gehiago), batez ere udal titulartasuneko ikastetxeetan obrak egin direlako, Europako REACT funtsez finantzatuta.

Foru Komunitateko Administrazioan exekutatutako guztizko aurrekontuari dagokionez hezkuntzara bideratutako gastuaren pisu espezifikoak pixka bat murriztu da aurreko urtearekin alderatuta, eta % 13,91koa izan da. Portzentajea % 14 eta % 15 bitartean ibili da 2017. urtetik. Hori gertatu da Nafarroako Gobernuaren gastuaren gehikuntza, ehunekotan, Hezkuntza Departamentuaren gastuaren gehikuntza baino handiagoa izan delako 2022an.


50. taula: Hezkuntzako aurrekontuaren bilakaera kapitulu ekonomikoen arabera

Kapituluak	2015		2019		2020		2021		2022	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
1	340.359,30	65,24	419.415,73	65,87	463.842,47	66,95	490.940,59	66,83	515.595,76	66,18
2	31.180,40	5,98	35.816,03	5,62	33.177,43	4,79	42.030,94	5,72	48.689,98	6,25

3							0,85	0,00	1,50	0,0
4	137.721,80	26,4	152.099,21	23,89	162.150,72	23,40	171.209,03	23,30	180.026,04	23,11
6	6.774,70	1,3	16.616,37	2,61	19.334,14	2,79	21.756,42	2,96	22.251,02	2,86
7	5.638,40	1,08	12.800,79	2,01	14.326,76	2,07	8.724,67	1,19	12.547,83	1,61
Guztira Hezkuntzan	521.674,6	100,0	636.748,13	100,0	692.831,52	100	734.662,49	100	779.112,14	100,00
Guztira Gobernuan	3.897.809,9		4.377.870		4.568.048		5.045.837,23		5.600.514	
% Hez/Gob	13,39		14,54		15,17		14,56		13,91	
Eboluzioa Departamentuan	0,89		1,09		1,18		1,25		1,33	
N. G.an eboluzioa	0,9		1,01		1,05		1,16		1,29	

Iturria: Aurrekontuen eta Kudeaketa Ekonomikoaren Atala

101. grafikoa: Aurrekontu osoaren eta hezkuntzako aurrekontuaren bilakaera. Nafarroa. 2009=1



Iturria: Aurrekontuen eta Kudeaketa Ekonomikoaren Atala

Azkenik, aldiaren hezkuntzara bideratutako aurrekontuaren bilakaera Nafarroako aurrekontu orokorrean gertatutakoaren antzekoa izan da. 2009ko gastuari 1 balioa emanda, eta harekin alderatuta, gastuak behera egin zuen 2012an, % 84 arte Departamentuan eta % 83 arte Administrazio osoan exekutututako gastuaren guztizkoan, baina azken hiru urteetan goraldi bat izan dela ikusten ahal da: % 133ra iritsi da Departamentuan, eta % 129ra aurrekontuaren guztizkoan.

Aurreko analisia sailkapen funtzionalaren ikuspegitik osatzen ahal da.


51. taula: Hezkuntzako aurrekontuaren bilakaera sailkapen funtzionalaren arabera

Izena	2015		2019		2020		2021		2022	
	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%
Hezkuntzako zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak	14.432,80	2,77	16.684,44	2,62	20.574,35	2,97	19.845,19	2,70	24.026,79	3,08

Hezkuntza alorreko irakasleen etengabeko prestakuntza	1.776,00	0,34	2.688,93	0,42	2.435,64	0,35	2.699,26	0,37	2.895,12	0,37
Beste hezkuntza jarduera	45	0,01	68,74	0,01	35,00	0,01	125,00	0,02	98,65	0,01
Helduen Hezkuntza eta Osabidezkoa	7.431,50	1,42	8.914,83	1,40	10.341,51	1,49	11.938,59	1,63	10.095,53	1,30
Hezkuntzari aplikaturiko teknologia berriak	1.039,50	0,20	4.791,60	0,75	9.251,81	1,34	8.498,06	1,16	6.862,59	0,88
Eraikuntza, ekipamendua eta material didaktikoa	7.422,70	1,42	22.900,15	3,60	21.965,97	3,17	19.901,20	2,71	25.255,49	3,24
Irakaskuntzako zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak	11.181,40	2,14	13.584,60	2,13	17.262,35	2,49	24.356,19	3,32	22.691,52	2,91
Haur eta Lehen Hezkuntza	208.606,40	39,99	244.760,16	38,44	256.143,73	36,97	270.718,68	36,85	281.753,64	36,16
B. Hezkuntza, L. Heziketa eta Batxilergoa	208.961,20	40,06	250.230,75	39,30	278.731,41	40,23	292.965,56	39,88	313.178,59	40,20
Arreta berariazkoa	22.393,00	4,29	30.617,91	4,81	34.915,63	5,04	37.213,98	5,07	42.284,22	5,43
Irakaskuntzak o zerbitzu osagarriak	20.647,70	3,96	18.942,29	2,97	17.169,10	2,48	21.376,82	2,91	23.170,98	2,97
Beste irakaskuntza batzuk (artistikoak, hizkuntzak, bereziak eta bestelakoak)	17.237,10	3,3	21.737,99	3,41	23.295,09	3,36	24.411,94	3,32	26.045,98	3,34
Ikasleentzako bekak eta laguntzak	500,4	0,1	654,47	0,10	641,72	0,09	511,97	0,07	588,03	0,08
Eskola adineko kirola		0	171,28	0,03	50,00	0,01	100,05	0,01	165,00	0,02
Gastuak, guztira	521.674,60	100	636.748,13	100,0	692.831,52	100	734.662,49	100	779.112,14	100,0

Iturria: Aurrekontuen eta Kudeaketa Ekonomikoaren Atala

102. grafikoa: Hezkuntza aurrekontuaren bilakaera sailkapen funtzionalaren arabera. 2009=1



Iturria: Aurrekontuen eta Kudeaketa Ekonomikoaren Atala

1. erans kina

Hezkuntzan aplikatutako IKTetara bideratutako gastuan ikusten ahal da 2016an % 59ra iritsi zen beherakadaren ondoren gora egin zuela 2017an, eta 2009ko gastua baino % 228 handiagoa izan zela orduan, ikastetxe publikoak modernizatzeko abian jarritako planaren ondorioz. 2018. urtean, gastua hirukoiztu egin zen 2009. urtearekin alderatuta, 8 milioi euro inguru inbertitu baitziren teknologia berrietan eta konektagarritasun aurreratuan. 2019an, gastua gutxiti egin da eta 4,7 milioikoa izan da; hala ere, 2009an exekutututako gastua baino % 153 handiagoa izan da. 2020an, berriz, IKTetarako gastua % 388 handiagoa izan da 2009koa baino eta % 235 handiagoa 2019koa baino. Igoera horren arrazoia ikasle eta irakasleentzako IKTetan egin beharreko gastua izan da; izan ere, IKTen premia COVID-19aren pandemiak eragindako osasun krisian ikastetxeak ixteak areagotu du. IKTetarako gastua, 2021.

urtean txikiagoa izan bada ere 2020koaren aldean, % 348 handiagoa izan da 2009koa baino, eta 2022an oraindik ere % 262 handiagoa izan da oinarri urteko gastua baino.

Arreta Berariazkoari dagokionez, igoera progresiboa ikusi da 2009. urtearen aldean, eta 42.284,22 mila euroko gastua egin da 2022. urtean. Gastu hori 2009koa baino % 159 handiagoa da eta 2021ekoa baino % 31 handiagoa. Batez ere 1. kapitulari zor zaio gorakada, SEM PROA+ eta SEM Akonpainamendu Unitateak programetan egindako gastua-dela eta. Programa horiek Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko funtsez finantzatzen dira.

Helduen Hezkuntzan eta Osabidezkoan egindako gastua nabarmen hazi da urteetan zehar: % 100eko igoera izan du 2009ko aldean, nahiz eta gastua zertxobait jaitsi den 2021eko aldean; 2021ekoa baino % 36 txikiagoa izan da (1.843,06 mila euro), eta jaitsiera nagusia 1. kapitulukoa da.

Ikasleentzako beka eta laguntzen atalak 2012an % 8ko beherakada izan zuen arren, gerora goranzko bidea hartu zuen eta 2017. urtean % 55eko gorakada izan zuen; urte horretan, partida % 25 handitu zen, hasieran onartutako kredituarekin alderatuta. 2018an zertxobait jaitsi zen gastu maila aurreko urtearekin alderatuta, baina, 2009arekin alderatuta, goranzko joerari eutsi zitzaion (% 45). 2019an, gastua pixka bat igo zen, goranzko joerari eutsita. 2020an, gastua zertxobait gutxitu zen 2019. urtearekin alderatuta (14 mila euro gutxiago), baina azken urteetako gastu mailetan jarraitu zuen. 2021ean % 16ko igoera izan da oinarri urtearekin alderatuta. Hala ere, 2020koarekin alderatuta % 29 jaitsi da (129,75 mila euro gutxiago). 2022an, ikasleentzako beka eta laguntzen atalak % 33ko igoera izan du 2009. urtearekin alderatuta, eta suspertzen ari da aurreko urtearen aldean; gastua % 17 handiagoa da aurreko urtekoa baino.

Beste irakaskuntza batzuetara (arte ikasketak, hizkuntzak, bereziak eta bestelakoak) bideratutako kredituaren 2009ko gastu maila berreskuratu da; gastu maila % 50etik goitiko izan da, eta goranzko joera izan du azken urteetan. 2021. urtearekiko igoera % 9koa izan da, eta 1. kapitulua hazi da gehien.

Bestalde, Haur eta Lehen Hezkuntzara, Bigarren Hezkuntzara, Lanbide Heziketara eta Batxilergora bideratutako gastuak, zeinak urte guztietako gastu osoaren gaineko sailkapen funtzionalean % 80 inguruko balioetara heltzen baita, bilakaera positiboa izan du 2015-2021 urteetan, eta, horri esker, 2009ko gastu maila gainditu da. 2022. urtean, Haur eta Lehen Hezkuntzako gastuari dagokionez, 2021. urtearekiko gastu igoera batez ere 1. kapituluan (5.589 mila euro gehiago) eta 4. kapituluan (4.961,35 mila euro gehiago) gertatu da. Bigarren Hezkuntzako gastuari dagokionez, halaber, 2021. urtearekiko gastu gorakada handiena 1. kapituluan (13.838 mila euro) eta 4. kapituluan (3.858 mila euro) gertatu da.

Hezkuntzako eta irakaskuntzako zuzendaritza eta zerbitzu orokorretarako gastua guztizkoaren % 70-85 inguru izan da azken urteetan, 2009koarekin alderatuta. 2020-2022 aldian oinarri urteko gastua gainditu da, gastua % 23 eta % 42 hazi baita, hurrenez hurren, 2022. urtean. Hezkuntzako zuzendaritzako eta zerbitzu orokorretako gastuaren eragile nagusiak "COVID-19 kalte-galeren ordainak" partidari identifikatutako gastua eta eraikin propioetako funtzionamendu gastua izan dira. Irakaskuntzako zuzendaritzaren eta zerbitzu orokorren ataleko gastu nagusiak dira ikastetxeetako garbiketa gastua, batetik, eta COVID gastua finantzatzeko irakaskuntza itunduari egindako transferentzia arruntak, bestetik.

Zerbitzu osagarrietara bideratutako baliabideek % 5eko langa gainditu ez duten gorabehera positiboak eta negatiboak izan dituzte; beraz, ondorioztatzen ahal da gastu egonkorra izan dela adierazitako aldian 2019. urtera arte. 2020an gastua % 13 gutxitu zen oinarri urtearen aldean, eta 2021ean % 8 igo da. 2022an aurreko urteko goranzko joerari eutsi dio eta oinarri urtearen aldean % 17 gorago iritsi da. 2020ko jaitsieraren arrazoi nagusia da gutxiago gastatu zela eskola garraioan eta jantokietan ikastetxeak itxita egon zirelako COVID-19aren pandemiagatik. Baina 2021. eta 2022. urteetan gastuak berriz egin du gora.

Irakasleen etengabeko prestakuntzari eta beste hezkuntza jarduera batzuetarako laguntzari dagokienez, 2022an, aurrekontuan oso pisu espezifiko txikia izan arren, gastuak pixkanaka suspertzen jarraitu du.

Amaitzeko, aipagarria da eraikuntzara, ekipamenduetara eta material didaktikora bideratutako baliabideen bilakaera, nagusiki ikastetxeak eraikitzeko, birmoldatzeko eta ekipamenduz hornitzeko gastuan metatzen baitira; izan ere, 2009tik (aurrekontu osoan % 6,47ko pisu espezifiko izanik) 2012ra bitartean, % 82 gutxitu zen gastua. Jarduera horretara bideratutako gastua motel lehengorutzen da, eta 2022an oinarri urtekoaren % 67 zen oraindik ere.

Gastuaren esleipena

Gastuaren esleipena honela banatu da:

- Gastu komunak (sare publikoa eta itunpeko sare pribatua)
- Irakaskuntza sare publikoko gastuak
- Itunpeko sare pribatuko gastuak

52. taula: Gastuaren esleipenaren bilakaera

Izena	2015		2019		2020		2021		2022	
	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%
Gastu komunak	18.718,50	3,59	21.882,81	3,44	22.634,93	3,27	24.065,67	3,28	27.937,61	3,59
Hezkuntza publikoko gastuak	376.042,30	72,08	479.585,86	75,32	526.391,35	75,98	558.008,12	75,95	594.437,53	76,30
Itundutako hezkuntza pribatuko gastuak	126.913,90	24,33	135.279,46	21,25	143.801,84	20,76	152.588,71	20,77	156.736,99	20,12
Guztira	521.674,60	100	636.748,13	100	692.831,52	100	734.662,49	100	779.112,14	100


Iturria: Aurrekontuen eta Kudeaketa Ekonomikoaren Atala

53. taula: Gastuaren esleipenaren bilakaera. 2009=1

	2009	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Gastu arruntak	1	0,64	0,66	0,71	0,72	0,75	0,78	0,83	0,96
Hezkuntza publikoaren gastuak	1	0,87	0,91	0,97	1	1,11	1,21	1,29	1,37
Hezkuntza pribatu-itunduaren gastuak	1	1,02	1,03	1,03	1,05	1,09	1,16	1,23	1,26
Guztira	1	0,89	0,92	0,97	1	1,09	1,18	1,25	1,33

Iturria: Aurrekontuen eta Kudeaketa Ekonomikoaren Atala

103. grafikoa: Gastuaren esleipenaren bilakaera. 2009=1



Iturria: Aurrekontuen eta Kudeaketa Ekonomikoaren Atala

Aurreko blokeetan banatutako gastuak esleipenaren proportzionaltasuna mantentzen du, % 4, % 77 eta % 21 gainditzen ez duten balioekin gastu komunetan, hezkuntza publikoan eta itunpeko hezkuntza pribatuan, hurrenez hurren.

Bloke guztiek oro har izandako bilakaerari dagokionez, gastuaren jaitzierak 2009an baino gehiago eragin die gastu komunei eta hezkuntza publikoari (2009a erreferentziako oinarri urtea da). Gastu komunek oraindik ere % 4 murriztu dira, eta hezkuntza publikoan, aldiz, gastu maila % 37 handiagoa izan da oinarri urtekoa baino. Itunpeko hezkuntza pribaturako gastua % 26 handiagoa izan da 2009ko gastu maila baino; izan ere, itunpeko hezkuntza pribatura bideratzen den gastua, funtsean, irakasleen nomina jasotzen duten hezkuntza itunen ordainketan oinarritzen da, eta, horrenbestez, ia ez dago aukerarik gastu hori murrizteko.


54. taula: Gastu komunak. Hezkuntzako aurrekontuaren bilakaera sailkapen funtzionalaren arabera

Izena	2009		2015		2019		2020		2021		2022	
	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%
Hezkuntzako zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak	18.882,5	64,94	14.062,10	75,12	16.261,56	74,31	17.725,19	78,31	18.745,80	77,89	21.739,66	77,82
Hezkuntza alorreko irakasleen etengabeko prestakuntza	4.226,0	14,53	1.776,00	9,49	2.685,39	12,27	2.404,50	10,62	2.654,03	11,03	2.857,19	10,23

Beste hezkuntza jarduera	335,1	1,15	45,0	0,2	68,74	0,31	35,0	0,15	125,00	0,52	98,65	0,35
Hezkuntzari aplikaturiko teknologia berriak	618,0	2,13	370,2	1,9*8	731,37	3,34	377,59	1,67	290,16	1,21	494,41	1,77
Eraikuntza, ekipamendua eta material didaktikoa	316,8	1,09	55,4	0,3	104,82	0,48	250,95	1,11	247,33	1,03	213,98	0,77
Irakaskuntzako zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak	1.865,8	6,42	800,9	4,28	67,23	0,31	40,66	0,18	41,15	0,17	50,53	0,18
Haur eta Lehen Hezkuntza	162,0	0,56	6	0,03	0	0	0	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
B. Hezkuntza, L. Heziketa eta Batxilergoa	57,6	0,20	169,6	0,91	227,43	1,04	80,88	0,36	83,32	0,35	50,57	0,18
Arreta berariazkoa	91,4	0,31	227,2	1,21	464,43	2,12	629,81	2,78	766,49	3,19	688,34	2,46
Beste irakaskuntza batzuk (artistikoak, hizkuntzak, bereziak eta bestelakoak)	2.078,9	7,15	405,7	3,77	446,1	2,04	402,04	1,78	500,36	2,08	991,24	3,55
Ikasleentzako beka eta laguntzak	441,1	1,52	500,4	2,67	654,47	2,99	641,72	2,83	511,97	2,13	588,03	2,10
Eskola adineko kirola					171,28	0,78	50	0,22	100,05	0,42	165,00	0,59
Gastuak, guztira	29.075,3	100,0	18.718,50	100	21.882,81	100	22.638,33	100	24.065,67	100	27.937,61	100

Iturria: Aurrekontuen eta Kudeaketa Ekonomikoaren Atala

104. grafikoa: Gastu komunak. Hezkuntza aurrekontuaren bilakaera sailkapen funtzionalaren arabera. 2009=1



Iturria: Aurrekontuen eta Kudeaketa Ekonomikoaren Atala

2. erans kina

Gastu komunen artean, argi geratzen da arreta berriazkoari dagokionak izan duen bilakaera positiboa, behar bereziak eta/edo gizartean eta hezkuntzan integratzeko beharrak dituzten ikasleentzako laguntzetara bideratutako kreditua handitu izanaren ondorioz; gaiari buruzko atal espezifikoan ikusiko dugu hori.

Hezkuntzari aplikatutako teknologia berriei dagokienez, agerian geratu da atal horren goranzko joera, 2019ra arte ikastetxeetan teknologia berriak ezartzearen ondorioz. 2020an, 2021ean eta 2022an gastuak behera egin du eta berriz ere oinarri urtekoaren % 20tik beheitikoa izan da, nahiz eta, aitzinago ikusiko den bezala, nabarmen handitu irakaskuntza publikorako gastua. Halaber, aintzat hartu behar da ekipamendu horren bizitza baliagarriak gutxienez 4 urte irauten duela, eta, beraz, haren berritzeak balio-galeraren arabera egiten direla funtsean.

Beste irakaskuntza batzuen atalak (arte ikasketak, hizkuntzak, bereziak eta beste batzuk) % 3,55eko pisu espezifiko du guztizko gastu komunetan; eta haren gastuaren bilakaera, 2009 oinarri urtearekin alderatuta, egonkorra zen, azken urteetan % 20 ingurukoa, batez beste, baina 2022an handitu eta % 48ra iritsi da.

Ikasleentzako bekek eta laguntzek % 2,10eko pisu espezifiko dute sailkapen funtzionalean, eta gastua % 33 handitu da 2009. urtean atal honetara bideratutako gastuarekin alderatuta.

Hezkuntzako zuzendaritza eta zerbitzu orokorren jarduerari dagokionez (% 77,82ko pisu espezifiko du), gastua pixka bat igo da, eta joera positiboa erakusten du, 2022an % 115eko gastu maila izan baitu oinarri urtearekin alderatuta.

Irakasleen prestakuntza jardueretara bideratutako gastua funtsezkoa da hezkuntza berrikuntza hobetzeko. % 10,23ko pisu espezifiko du, eta urtetik urtera suspertzen ari da, pixkanaka; 2019an, % 64ko gastu maila izan du. Hala ere, 2020an, gastuak zertxobait egin du behera % 56ra arte oinarri urtearekin alderatuta, ikastaro presentzialak bertan behera utzi zirelako, pandemiak eragindako osasun krisiaren ondorioz hartutako prebentzio neurri gisa. Online ikastaroak antolatuta ere, ez zen denborarik izan 2020an planifikatutako ikastaro guztiak emateko. 2021ean gastua hazi egin da erreferentziako urteko gastuaren % 63ra iritsi arte, eta 2022an finkatuz joan da gastuaren suspertze hori eta 2009ko gastuaren % 68ra iritsi da.

Bigarren Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Batxilergora bideratutako gastua 2019-2021 aldian % 45 handiagoa izan da oinarri urtekoa baino, eta badirudi joera goranzkoa dela, azken urteetan zenbait gorabehera izan arren.

Eraikuntza, ekipamendu eta material didaktikorako gastuak, 2021ekoa baino txikixeagoa izan arren, azken bi urteetako maila bertsuan jarraitzen du, Hezkuntza Departamentuko mantentze lanetan eta ekipamenduan egindako gastuaren ondorioz. Gastu maila, ordea, oraindik ere % 32 txikiagoa da erreferentziazko urtekoa baino.

Gainerako jarduketetan gastua zertxobait igo da edo lehengoan iraun du. Hala eta guztiz ere, kontuan izan behar da pisu espezifiko oso txikiko jarduerak direla eta, oro har, aurrekontu guztian pisu erlatiborik txikiena duen atala dela.

Irakaskuntza sare publikoko gastuaren bilakaera

Bilakaeran, datu hauek azpimarragarriak dira:


55. taula: Irakaskuntza sare publikoko gastuaren bilakaera

Izena	2009		2015		2019		2020		2021		2022	
	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%
Hezkuntzako zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak	692,2	0,16	365,9	0,1	422,88	0,09	2.849,16	0,54	1.099,39	0,20	2.287,12	0,38
Helduen Hezkuntza eta Osabidezkoa	5.059,90	1,17	7.431,52	1,98	8.914,83	1,86	10.341,51	1,96	11.938,59	2,14	10.095,53	1,70
Hezkuntza alorreko irakasleen etengabeko prestakuntza					3,54	0	49,37	0,01	45,23	0,01	37,93	0,01
Hezkuntzari aplikaturiko teknologia berriak	1.277,8	0,29	669,3	0,18	4.060,23	0,85	8.874,22	1,69	8.207,90	1,47	6.368,18	1,07

Eraikuntza, ekipamendua eta material didaktikoa	37.482,3	8,64	7.367,30	1,96	22.795,33	4,75	21.715,02	4,13	19.653,87	3,52	25.041,51	4,21
Irakaskuntzako zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak	13.722,4	3,16	10.380,40	2,76	13.494,43	2,81	14.321,14	2,72	15.956,95	2,86	17.545,73	2,95
Haur eta Lehen Hezkuntza	163.127,1	37,6 2	1.466.604,5	38,99	180.158,62	37,57	189.405,51	35,98	202.307,54	36,26	209.609,31	35,26
B. Hezkuntza, L. Heziketa eta Batxilergoa	171.278,4	39,5 0	155.029,60	41,23	190.483,20	39,72	216.036,43	41,04	229.078,52	41,05	246.602,87	41,49
Arreta berariazkoa	7.042,2	1,62	12.495,50	3,32	19.887,30	4,15	23.776,42	4,52	25.368,96	4,55	29.593,99	4,98
Irakaskuntzaren zerbitzu osagarriak	18.648,5	4,30	19.166,70	5,1	18.073,61	3,77	16.120,92	3,06	20.439,59	3,66	22.200,62	3,73
Beste irakaskuntza batzuk (artistikoak, hizkuntzak, bereziak eta bestelakoak)	15.260,0	3,52	16.531,40	4,4	21.291,89	4,44	22.893,05	4,35	23.911,58	4,29	25.054,74	4,21
Gastuak, guztira	433.590,9	100	376.042,30	100	479.585,86	100	526.391,35	100	558.008,12	100	594.437,53	100

Iturria: Aurrekontuen eta Kudeaketa Ekonomikoaren Atala

105. grafikoa: Gastuaren bilakaera sare publikoan. 2009=1



Iturria: Aurrekontuen eta Kudeaketa Ekonomikoaren Atala

3. erans kina

Aldi horretan irakaskuntza sare publikora bideratutako gastua Hezkuntza Departamentuaren guztizko gastuaren % 73,92 eta % 76,30 artekoa izan da. Haur eta Lehen Hezkuntzara eta Bigarren Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Batxilergora bideratutako gastuak du pisu espezifikorik handiena, % 80 ingurukoa urte guztietan. Gastuaren bilakaerak goranzko joerarekin jarraitzen du, eta 2009ko gastu maila gainditu da.

Arte ikasketek, hizkuntza bereziek eta bestelakoek (% 4,21eko pisu espezifikoak), bai eta Arreta Berariazkoak ere (% 4,98koa), gastuaren murrizketa izan zuten 2012an; hala ere, 2015etik 2022ra arteko urteetan, gastu mailak gora egin eta erreferentziazko urtekoa gainditu du. Gastua laukoiztu ere egin da 2022ko arreta berariazkoaren atalean.

Irakaskuntzako zerbitzu osagarriek % 3,73ko pisu espezifikoak dute eta gastu joera egonkorra izan dute 2019ra arte. 2020an gastua murriztu egin zen ikastetxeak itxita egon zirelako COVID-19ak eragindako osasun larrialdiaren ondorioz. 2021. eta 2022. urteetan gastu maila berriz igo da, are erreferentziazko urteko gastua gainditzera. Atal honen barruan, liburuak doan eskuratzeko planak gorabeherak izan ditu joeran, eta berariazko atal batean sakonago aztertzen dira.

“Irakaskuntza publikoaren sareko gastua” ataleko guztizko gastuaren % 4,21 hartzen duela, murrizketarik handiena izan duen jarduera da eraikuntza, ekipamendu eta material didaktikora bideratutakoa; 2012an, gastuaren % 81eko murrizketa izan zuen. Nolanahi ere, bilakaera positiboa izaten ari da, eta pisu espezifikoak irabazi du azken aldian (2009an 37.500 mila euroko gastua izan zuen, baina, 2019an 22.800 mila euro exekutatu dira, 2021ean 19.600 mila euro eta 2022an 25.041 mila euro).

Irakaskuntzako zuzendaritzak eta zerbitzu orokorrek % 25eko gastu murrizketa izan zuten 2012an, eta gastuak bere horretan iraun du urteetan zehar erreferentziazko urtearekin alderatuta. Hala ere, 2019tik, gastua handitu egin da: oinarri urtearekiko, gastuaren % 98ra arte heldu da, eta 2021ean gastu maila % 16 handiagoa izan da oinarri urtearekin alderatuta, eta 2022an, berriz, oinarri urtekoa baino % 28 handiagoa.

Helduen Hezkuntzak eta Osabidezkoak % 1,70eko pisu espezifikoak izan du, eta bilakaera positiboa izan du aldi osoan: gastua % 200 handitu da 2022an, 2009 erreferentziazko urtearekin alderatuta.

Teknologia berrien harira, ikusten ahal da jarduera horren pisu espezifikoak nabarmen gora egin duela eta gastuak % 200 egin zuela gora 2017an, oinarri urtekoaren aldean, Departamentuak ikastetxe publikoak tresna eta ekipamendu berriz hornitzeko erabakia hartu ondoren. 2019an, atal horretara bideratutako gastuaren igoserari eutsi zitzaion; % 218koa izan zen, 2009. urtearekin alderatuta. 2020an, gastua erreferentziazko urtean baino % 594 handiagoa izan zen, neurri handi batean inbertsio teknologikoa egin behar izan zelako pandemian zehar, ikasleek eta irakasleek ekipamendua izan zezaten eskolak online emateko ikastetxeak ixtearen ondorioz. 2021ean gastu maila 2020koaren antzekoa izan da: % 542ko gastu maila, erreferentziazko urtearekin alderatuta. 2022ko gastu maila erreferentziazko urtekoa baino askoz gorago iritsi da, % 398 handiagoa izan baita, baina gastu hori pandemia garaiko eta pandemia osteko gastua baino txikixeagoa da; arrazoia zera da, ekipamendu honetan egiten diren inbertsioek urte naturala baino bizitza baliagarri luzeagoa izanik ez dela beharrezkoa inbertsioa urtero egitea.

Hezkuntzako zuzendaritzari eta zerbitzu orokorrei dagokienez, oso pisu espezifiko txikia izanik, gorabeherak izan dira aipatu aldietan. Aldi batzuetan, gastu maila, 2009. urtea kontuan hartuta, gastu mailaren % 60 ingurukoa izan da. 2017an, gastua % 94 izan zen, eta udalei, 0-3 urtekoen ikastetxeak mantentzeko gastuei dagokienez, ordaindutako kalte-ordainen ondorio izan zen; izan ere, gastu horiek bere gain hartu zituen Departamentuak, toki erakundeen aldeko epaiak betearaztearen ondorioz. 2020an, gastua berriz ere nabarmen handitu zen, COVID-19 gastuagatik (kalte eta galeren ordainak, garbitzeko materiala, ekipamendua eta arropa). 2022an, gastu mailak % 230eko aldeaz gaudituz du erreferentziazko urtekoa, eta arrazoi nagusia da COVID-19ak eragindako kalte-galerak ordaintzeko gastu garrantzitsua exekutatu dela.

Itunpeko irakaskuntza pribatuaren sareko gastuaren bilakaera

Datu hauek azpimarragarriak dira:


56. taula: Itunpeko sare pribatuko gastuaren bilakaera

Izena	2009		2015		2019		2020		2021		2022	
	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%
Hezkuntzako zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak			4,8	0,0								

Eraikuntza, ekipamendua eta material didaktikoa	147,3	0,12										
Irakaskuntzako zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak	439,8	0,35			22,94	0,02	2.900,55	2,02	8.358,08	5,48	5.095,27	3,25
Haur eta Lehen Hezkuntza	60.767,1	49,03	61.995,90	48,85	64.601,54	47,75	66.738,22	46,41	68.411,14	44,83	72.144,33	46,03
B. Hezkuntza, L. Heziketa eta Batxilergoa	52.184,6	42,11	53.762,00	42,36	59.520,12	44,0	62.614,10	43,54	63.803,72	41,81	66.525,14	42,44
Arreta berariazkoa	9.195,8	7,42	9.670,23	7,62	10.266,18	7,59	10.500,79	7,30	11.078,53	7,26	12.001,90	7,66
Irakaskuntzaren zerbitzu osagarriak	1.200,2	0,97	1.481,00	1,17	868,68	0,64	1.048,18	0,73	937,23	0,61	970,36	0,62
Gastuak, guztira	123.935,8	100	126.913,90	100	135.279,46	100	143.801,84	100	152.588,71	100	156.736,99	100

Iturria: Aurrekontuen eta Kudeaketa Ekonomikoaren Atala

106. grafikoa: Itunpeko sare pribatuko gastuaren bilakaera. 2009=1



Iturria: Aurrekontuen eta Kudeaketa Ekonomikoaren Atala



Aldi horretan, itunpeko irakaskuntza pribatuaren sarera bideratutako gastua Hezkuntza Departamentuaren guztizko gastuaren % 21 eta % 24 artekoa izan da. Gastuaren ehunekorik handiena Haur eta Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Batxilergoan bildu da: guztizko gastuaren % 88 inguru. Era berean, 2012an gastua oinarri urtearen aldean % 3 handitu zen, eta hurrengo urteetan bilakaera egonkorra izan da, joera positiboarekin. Haur eta Lehen Hezkuntzan % 19ra iritsi da eta Bigarren Hezkuntzan % 27ra 2022. urtean.

Arreta Berariazkoak pisu espezifiko egonkorra izan du aldi osoan, % 7,3 eta % 7,7 bitartekoa. Atal horretara 2022an bideratutako gastua oinarri urtekoa baino % 31 handiagoa da, 2.800 mila euro gehiago jarri baitira.

Igoera nabarmena gertatu da 2020an eta 2021ean irakaskuntzako zuzendaritza eta zerbitzu orokorretarako gastuan: itunpeko irakaskuntza pribatuan, oso pisu espezifiko txikia izatetik aurrekontu osoaren % 2,02 eta % 5,48 izatera aldatu da 2020an eta 2021ean, hurrenez hurren. Emendatze horren arrazoia da 2.884 mila euroko COVID-19 gastua egin zela 2020an itunpeko eta diruz lagundutako irakaskuntzarako, pandemiak eragindako krisiagatik. 2021ean COVID gastua da nagusi: 8.344,84 mila euro bideratu ziren itunpeko irakaskuntzaren gastu horietara. 2022an gastua 5.095 mila eurora jaitsi da, baina oraindik ere oso-osorik COVID-19 gastua izaten jarraitzen du.

Irakaskuntzako zerbitzu osagarriek bere gain hartzen dute liburuak doan eskuratzeko planerako gastua, eta horrek gorabeherak izan ditu joeran. Aparteko atal batean sakonduta dago.

Gainerako jardueretara bideratutako gastua oso txikia da edo alde batera utzi da, ikastetxeen eraikuntzarako dirulaguntzekin gertatu den moduan.

Haur Hezkuntzako (0-3) gastuaren bilakaera


0-3 urte bitarteko Haur Hezkuntzako gastua "Haur eta Lehen Hezkuntza" sailkapen funtzionalean sartuta dagoenez, irakaskuntza maila horren bilakaerarekin atal berezi bat gehitu da.

57. taula: Haur Hezkuntzako (0-3) gastuaren bilakaera

	2009	2015	2018	2019	2020	2021	2022
Gastu arrunta	4,53						191,11
Transferentzia arruntak	8.968,51	7.465,86	9.204,26	10.424,37	11.292,54	11.836,25	14.689,79
Kapital-transferentziak							349,92
Inbertsioak	985,84		250,00	250,00	281,46	403,95	347,14
Guztira	9.958,87	7.465,86	9.454,26	10.674,37	11.574,01	12.240,20	15.577,96

Iturria: Aurrekontuen eta Kudeaketa Ekonomikoaren Atala

107. grafikoa: Haur Hezkuntzako (0-3) gastuaren bilakaera. 2009=1



Iturria: Aurrekontuen eta Kudeaketa Ekonomikoaren Atala

2012ko jaitsieraren ondoren, goranzko joera izan da aldiari. 2022an, gastu maila oinarri urtean, 2009an, baino % 56 handiagoa izan da.

Udalekin 2022. urterako egindako hitzarmenera bideratutako gastua 14.689,79 mila eurokoa izan da, oinarri urteko gastua baino 5.721 mila euro handiagoa.

Hezkuntza Departamentuak eta Eskubide Sozialetako Departamentuak akordio bat lortu dute, 2022ko abuztuaren 1etik aurrerako ondorioekin, Eskubide Sozialetako Departamentua kudeatzen ari den haur eskolak Hezkuntza Departamentuari eskualdatzeko aurreikuspena bete dadin. Akordio horretan oinarrituta, Hezkuntza Departamentuak bere gain hartu ditu haur eskolen kudeaketaren inguruko eskumenak, eta, arrazoi horrengatik, 2022an ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastua ere exekutatu da.

Zerbitzu osagarrietako gastuaren bilakaera


Irakaskuntzako zerbitzu osagarriek bere baitan jasotzen dute sare publikoko ikasleen garraio eta jantoki zerbitzuetara bideratutako gastua, bai eta liburuak doan eskuratzeko programa ere, sare publikokoa zein itunpeko sare pribatukoa.

58. taula: Garraio eta jantoki zerbitzuetako gastuaren bilakaera

	2009	2015	2018	2019	2020	2021	2022
Garraioa	12.881,97	13.212,65	14.514,70	13.473,96	11.593,13	14.863,20	16.295,08
Jantokiak	3.155,19	2.891,27	2.773,86	2.689,23	2.166,31	3.624,43	3.612,39
Guztira	16.037,16	16.103,92	17.288,56	16.163,19	13.759,44	18.487,63	19.907,47

Iturria: Aurrekontuen eta Kudeaketa Ekonomikoaren Atala

108. grafikoa: Garraio eta jantoki zerbitzuetako gastuaren bilakaera. 2009=1



Iturria: Aurrekontuen eta Kudeaketa Ekonomikoaren Atala

5. erans kina

Jantoki eta garraio zerbitzuek gastu egonkorra izan dute. Jantoki zerbitzuan egindako gastuaren gorabeherak zerbitzu horren kudeaketaren ondorio izan daitezke, ikasleen absentziak ez baitira ordaintzen zerbitzua ematen ez delako; gainera, ikastetxeetan lanaldi jarraitua ezartzeak jantoki zerbitzuaren gastua murriztea eragin dezake, bai eta garraio zerbitzuarena ere.

2020an, adierazgarria izan zen gastuaren jaitsiera, 2020ko martxotik ekainera bitarte COVID-19aren osasun krisiak eraginda ikastetxeak ixtearen ondorioz eskolako garraio eta jantoki zerbitzuak eten zirelako, garraioan COVID-19 gastu zuzena 761,43 mila eurokoa eta jantokian 428,04 mila eurokoa izan arren.

2021. urtean gastuak gora egin du bai garraioan bai jantokietan, eta erreferentziazko urteko mailekin alderatuta % 15 handiagoa ere izan da. "COVID-19 Jantokiak" partidako gastuak (1.186,98 mila euro) eta "COVID-19 Eskola garraioa" partidako gastuak (1.130,05 mila euro) eragin dute igoera hori.

Garraio gastua 2022. urtean % 9 hazi da aurreko urtekoaren aldean. Igoera hori "Eskola garraioa" partidako gastua handitu izanari zor zaio, batez ere.

Jantokietako gastua aurreko urtekoaren ia berdina izan da 2022. urtean.

Azkenik, COVID-19ak ekarritako krisiari aurre egiteko ezarri ziren osasun neurriak 2022ko abuztuaren 31n amaitu zirenez, kontzeptu horretako gastua nabarmen gutxitu da.

Liburuak doan eskuratzeko programaren bilakaera

Urtero argitaratzen da Departamentuko titularraren foru agindua, irakaskuntza maila bakoitzeko ekarpenaren gehieneko zenbatekoak moduluka onesten dituena.

Dena den, liburuak doan eskuratzeko planak, bai sare publikoan bai itunpeko sare pribatuan, goranzko eta beheranzko gorabeherak izan ditu urte beretan. Doakotasun plana ezartzen hasi zenean 4 urtez behin berritzen zelako gertatzen da hori. Hala ere, 2012. urteaz geroztik eta gastuaren murrizketaren ondorioz, berrikuntzak bost urtez behin egiten dira eta ez dituzte ikastetxe guztiek eskatzen. Gainera, ikastetxeek aukera dute testu liburuen zati bat soilik berritzeko.


Hori dela eta, programa hori kudeatzea zaila da, eta horren aurrekontua egitea ere bai.

59. taula: Liburuak doan eskuratzeko planeko gastuaren bilakaera

	2009	2015	2018	2019	2020	2021	2022
Testuliburuak Doan Jasotzeko Programa publikoan	2.199,82	2.843,73	1.731,13	1.695,63	2.196,93	1.660,11	2.032,97
Testuliburuak Doan Jasotzeko Programa pribatu-itunduak	1.200,18	1.480,97	1.027,68	868,68	1.048,18	937,23	970,36
Guztira	3.400,00	4.324,70	2.758,81	2.564,31	3.245,11	2.597,34	3.003,34

Iturria: Aurrekontuen eta Kudeaketa Ekonomikoaren Atala

109. grafikoa: Liburuak doan eskuratzeko planeko gastuaren bilakaera. 2009=1



Iturria: Aurrekontuen eta Kudeaketa Ekonomikoaren Atala

Beken eta laguntzen bilakaera


Heziketa Berezia, beste irakaskuntza batzuetara (arte ikasketak, hizkuntza bereziak eta bestelakoak) bideratutako beka eta laguntzen gastua eta Lanbide Heziketan espezifikoak direnena beren sailkapen funtzional espezifikoan jasota daudenez, atal hau gehitu da beka eta dirulaguntza guztien bilakaera ikusteko, beken deialdi orokorrera bideratutako baliabideekin batera.

60. taula: Beka eta laguntzen gastuaren bilakaera

	2009	2015	2019	2020	2021	2022
Hezkuntza Berezia	91,40	173,98	234,56	189,70	236,94	715,69
Beste irakaskuntza batzuk (artistikoak, hizkuntzak, bereziak eta bestelakoak)	429,43	0	6,00	6,00	6,00	6,00
Bekak eta laguntzak ikasleei	983,62	999,99	1.128,53	945,94	691,26	1.111,75
Beken deialdi orokorra	441,11	497,44	654,47	641,72	511,97	588,03
Lan Heziketa (ERASMUS+)	471,71	476,15	474,06	304,22	179,29	523,72
Lan Heziketa (bekak Nafarroa)	70,80	26,4	0,00	0,00	0,00	0,00
Guztira	1.504,45	1.174,0	1.369,09	1.141,64	934,20	1.833,44

Iturria: Aurrekontuen eta Kudeaketa Ekonomikoaren Atala

110. grafikoa: Beka eta laguntzen gastuaren bilakaera. 2009=1



Iturria: Aurrekontuen eta Kudeaketa Ekonomikoaren Atala

Oro har, gastuan jaitsiera gertatu da, eta 2017an gastu mailaren % 80 izan zen oinarri urtearekin alderatuta, baina gero gora egin zuen, 2019an gastu mailaren % 91 izan arte. Hala ere, 2020an eta 2021ean, gastua erreferentziazko urteko gastu mailaren % 76ra eta % 62ra jaitsi da, hurrenez hurren. 2022. urtean berreskuratu da beka eta laguntzetako gastuaren maila, hura % 22ko aldeaz gaindizteraino.

Behar bereziak eta/edo gizartean eta hezkuntzan integratzeko beharrak dituzten ikasleentzako baliabideek % 616 egin dute gora erreferentziazko urteaz geroztik, eta, kasu horretan, hori, hein batean, hezkuntza sisteman atzerriko ikasleak sartu direlako izaten ahal da.

Beken deialdi orokorrera bideratutako baliabideek beheranzko joera dute 2017. urtetik. Urte horretako gastua % 54 handiagoa izan zen erreferentziazko urtekoa baino: 2017ko gastua 679,66 mila eurokoa izan zen. 2022an, gastu maila oinarri urtean, 2009an, baino % 33 handiagoa izan da.

Beste irakaskuntza batzuetan laguntzeko gastua ia erabat kendu da aldian zehar.

Lanbide Heziketako ikasleen nazioarteko mugikortasunera bideratutako laguntzek (gaur egun ERASMUS+ programa), hasierako aurrekontua aldatzen ez den arren, gorabehera nabarmenak izan dituzte exekuzio mailari dagokionez. Eskerak ikasturtearekin batera kudeatzen dira, eta laguntzak aurrekontu ekitaldiaren arabera ematen; hori dela eta, ezinezkoa da kudeaketa denboran bat etortzea. 2020. urterako beka eta laguntzen jaitsiera Erasmus + beketan gertatu da nagusiki; izan ere, ikasleek ezin izan dituzte egonaldiak egin atzerrian bidaiatzea ezinezkoa izan delako, pandemiak eragindako osasun krisiaren ondorioz, eta onuradunen kopurua txikiagoa izan da. Atal horretan, gastu maila % 64ra arte jaitsi da 2009. urtearekin alderatuta. 2021ean, Erasmus+ beketako gastua erreferentziazko urteko gastu mailaren % 38ra jaitsi da. 2022. urtean, ordea, gastu maila berreskuratu da eta % 22ko aldeaz gainditu da oinarri urtekoa.

Ikasle bakoitzeko gastua


Irakaskuntza sare publikoan eta itunpeko irakaskuntza sare pribatuan ikasle bakoitzeko izandako gastu publikoaren bilakaera biltzen du atal honek. Irakaskuntza sare bakoitzeko gastu espezifikuari gastu komuna gehitu zaio, ikasle kopuruaren arabera banatuta.

61. taula: Ikasleen bilakaera eta irakaskuntza sareak

	2009	2015	2019	2020	2021	2022
Ikasle guztira hezkuntza publikoan	60.470	66.841	70.664	72.528	73.047	73.490
Ikasle guztira hezkuntza pribatu-itunduan	34.409	37.850	39.671	39.329	39.328	38.869
Ikasleen eboluzioa hezkuntza publikoan	1	1,11	1,17	1,20	1,21	1,22
Ikasleen eboluzioa hezkuntza pribatu-itunduan	1	1,1	1,15	1,14	1,14	1,13

Iturria: Aurrekontuen eta Kudeaketa Ekonomikoaren Atala

111. grafikoa: Ikasleen bilakaera eta irakaskuntza sareak. 2009=1




Iturria: Aurrekontuen eta Kudeaketa Ekonomikoaren Atala

62. taula: Gastuaren bilakaera eta irakaskuntza sareak

	2009	2015	2019	2020	2021	2022
Gastuak hezkuntza publikoan	420.358,69	356.085,19	452.280,18	495.945,67	525.599,22	558.782,75
Gastuak hezkuntza pribatu-itunduan	133.549,46	133.409,97	142.900,74	151.590,25	160.757,12	165.967,50
Guztira egotzitako gastua (arrunta eta espezifikoa)	553.908,14	489.495,16	595.180,92	647.535,91	686.356,34	724.750,25
Portzentaje-gastua hezkuntza publikoan	75,89	72,75	75,99	76,59	76,58	77,10
Portzentaje-gastua hezkuntza pribatu-itunduan	24,11	27,25	24,01	23,41	23,42	22,90
Gastuaren eboluzioa hezkuntza publikoan	1	0,85	1,08	1,18	1,25	1,33
Gastuaren eboluzioa hezkuntza pribatu-itunduan	1	1,06	1,07	1,13	1,20	1,24

Iturria: Aurrekontuen eta Kudeaketa Ekonomikoaren Atala

112. grafikoa: Gastuaren bilakaera eta irakaskuntza sareak. 2009=1




Iturria: Aurrekontuen eta Kudeaketa Ekonomikoaren Atala

63. taula: Ikasle bakoitzeko gastu publikoaren bilakaera irakaskuntza sareen arabera

	2009	2015	2019	2020	2021	2022
Gastu ikasleka hezkuntza publikoan	6,95	5,33	6,40	6,84	7,20	7,60
Gastu ikasleka hezkuntza pribatu-itunduan	3,88	3,52	3,60	3,85	4,09	4,27
Gastuaren eboluzioa ikasleka hezkuntza publikoan	1,00	0,77	0,92	0,98	1,04	1,09
Gastuaren eboluzioa ikasleka hezkuntza pribatu-itunduan	1,00	0,91	0,93	0,99	1,05	1,10

Iturria: Aurrekontuen eta Kudeaketa Ekonomikoaren Atala

113. grafikoa: Ikasle bakoitzeko gastu publikoaren bilakaera irakaskuntza sareen arabera. 2009=1



Iturria: Aurrekontuen eta Kudeaketa Ekonomikoaren Atala

Ikasleen kopuruak goranzko antzeko joera izan du 2019ra arte irakaskuntza publikoan bezala itunpeko irakaskuntza pribatuan ere. Hala ere, 2020an, irakaskuntza publikoko ikasleen kopuruak gora egin zuen, eta pixka bat jaitsi zen, berriz, itunpeko irakaskuntza pribatuko ikasleena. 2021ean, sare publikoan ikasleen kopuruak gorantz jarraitu du, eta itunpeko sare pribatuan, berriz, aurreko urteko mailari eutsi dio. 2022. urtean nabaritu da ikasle kopurua zertxobait igo dela sare publikoan, aurreko urtean baino 443 ikasle gehiago izan baititu, eta nabarmen jaitsi itunpeko sare pribatuan, 2021ean baino 459 ikasle gutxiago izan baititu. Oinarri urtea kontuan hartuta, eta ehunekotan, irakaskuntza publikoko ikasleen kopurua % 22 handitu da, eta % 13, aldiz, itunpeko irakaskuntza pribatuko ikasleena.

Guztizko gastuaren bilakaeran argi ikusten da 2012ko gastuaren murrizketa % 13 handiagoa izan zela sare publikoan, eta, azken hiru urteetako joera goranzkoa izan arren, itunpeko sare pribatuak 2017an gainditu zuela 2009ko gastu maila, eta sare publikoan, aldiz, 2019an gainditu zela oinarri urteko gastu maila. Egoera hori guztizko gastuaren ehunekoetako banaketan ere ikusten ahal da. 2021ean gastuak gorantz jarraitu du bai sare publikoan bai itunpeko sarean, eta proportzioak 2020koen antzekoak izan dira. 2022an, hazi egin da sare publikoko gastuaren ehunekoa, guztizko gastuaren % 77,10era iristeraino. Itunpeko sare pribatuan, aldiz, gastuaren ehunekoa % 22,90era jaitsi da.

Ikasle bakoitzeko gastu publikoari dagokionez, 2012an % 25 murriztu zen sare publikoko ikasleentzat eta % 11 itunpeko sare pribatuko ikasleentzat, eta, bat-banaka, suspertze maila geldoa erakusten du, ikasle kopurua gastu mailaren gainetik hazten delako, nahiz eta 2021ean jada gainditu egin den 2009ko gastu maila.

3.5. Gastua sare pribatuan

Txosten honetan orain arte aurkeztu den gastu publikoa irakaskuntza publikoari eta itunpeko irakaskuntza pribatuari buruzkoa eta bietako gastu komunei buruzkoa izan da. Sare pribatuak (itunpekoa edo ez) izandako finantzaketa eta gastua aurkezteko, irakaskuntza pribatuko finantzaketaren eta gastuaren gaineko inkestako datuak erabiliko dira.

Araututako irakaskuntza pribatuko ikastetxe guztiak biltzen dituzte analisirako unitateek, hau da, hezkuntza administrazio publikoek homologatutako guztiak; horien jarduera nagusia da inkesta horretako hezkuntza maila bat edo gehiago eskaintzea eta horren arabera funtzionatzea erreferentziazko aldian.

Irakaskuntza pribatuko ikastetxetzat jotzen dira titulartzat izaera pribatuko pertsona juridiko edo fisiko bat dutenak. Ikastetxeari zuzenduta dago inkesta eta ez enpresari. Erreferentziazko aldian urtea da, irakaskuntza pribatuko ikastetxeetako ikasturteko datu guztiak eskuratu nahi baitira. Ikastetxe horien jarduera nagusia hezkuntza maila bat edo gehiago ematea izanen da, eta horren arabera funtzionatuko dute inkestak erreferentziazkat hartutako aldian.


Bestalde, inkesta hori bost urtez behin errepikatzen da. Horregatik, 2009-2010, 2014-2015 eta 2020-2021 (aztertutako azken ikasturtea) ikasturteetako datuak eskaintzen dira. Hurrengo inkesta 2025. urtean emanen da argitara.

Horri dagokionez, komeni da kontzeptu hauek argitzea:

- Gastu arruntak: ikastetxearen funtzionamendurako beharrezkoak direnak, datuek erreferentziazkat hartutako aldian egindakoak, albo batera utzita kontsumitu diren ala ez, edo ordaindu diren ala ez (sortzapenaren irizpidea).
- Diru sarrera arruntak: ikasleei kobratutako kuotak, kapitalekoak ez diren jasotako transferentziak eta ikastetxeak eskainitako gainerako zerbitzuengatik kontraprestazio moduan jasotako beste diru-sarrera batzuk.


Ikastetxe pribatuetako jarduerari buruzko ezaugarri ekonomikoak zenbait irizpideren arabera jasota azaltzen dira inkestan. Hori horrela, azken hiru azterketetan adierazle motaren arabera gastuen eta diru-sarreraren egiturak datu hauek erakusten ditu:

114. grafikoa: Gastuak eta diru-sarrerak guztira unibertsitateaz kanpoko hezkuntza pribatuan. Balio absolutuak (milaka eurotan)



Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Irakaskuntza pribatuko finantzaketaren eta gastuaren gaineko inkesta

115. grafikoa: Gastuak eta diru-sarrerak unibertsitateaz kanpoko hezkuntza pribatuan ikasle bakoitzeko (eurotan)



Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Irakaskuntza pribatuko finantzaketaren eta gastuaren gaineko inkesta

Hezkuntza pribatuak 756 milioi euroko ustiapen emaitza lortu zuen 2020-2021 ikasturtean. Zenbateko hori 2014-2015 ikasturtekoa baino % 27,0 handiagoa da; ikasturte horretan egin zen aurreko edizioa. Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza pribatuak 408 milioi euroko emaitza positiboa lortu zuen 2020-2021 ikasturtean; hau da, 2014-2015 ikasturtearen aldean % 6,5eko igoera izan zuen.

Emaitzak interpretatzerakoan kontuan hartu behar da haietan eragina izan dezakeela 2020. urteko ezohiko egoerak, COVID-19aren pandemiaren ondoriozko mugikortasun murrizketek sortuak. Pandemiak bereziki eragin zien zerbitzu osagarriari, eta horiek beherakada nabarmena izan dute bai diru-sarreretan bai gastuetan, baina batez ere lehenengoetan. Egitura ekonomikoari erreparatuz gero, ikasle bakoitzeko diru-sarrerak eta gastuak txikiagoak izan ziren murrizketen garaian (2020ko datuak). Diru-sarrerak gutxi gorabehera % 15,6 txikiagoak izan ziren (% 10,0 ikastetxe itunduetan eta % 32,6 itundu gabeko ikastetxeetan), eta gastu arruntak % 14,0 txikiagoak (% 8,9 ikastetxe itunduetan eta % 30,9 itundu gabekoetan).

Ikasle bakoitzeko emaitzak % 4,6 hazi ziren aurreko inkestaren aldean unibertsitateaz kanpoko hezkuntzan (151 euro arte ikasle bakoitzeko) eta % 23,7 hazi ziren unibertsitate hezkuntzan (742 euro arte ikasle bakoitzeko).

Administrazio Publikoak jarri zuen unibertsitateaz kanpoko hezkuntzako ikastetxeen diru-sarrera arruntan % 57,0 eta unibertsitate ikastetxe pribatuena % 2,8. Bi ehunekoak 2014-2015 ikasturtean izandakoen antzekoak dira.

Familien ikuspuntutik, unibertsitateaz kanpoko hezkuntza pribatuaren irakaskuntza kuoten batez besteko kostua 1.421 eurokoa izan zen ikasle bakoitzeko 2020-2021 ikasturtean. Bestalde, unibertsitate irakaskuntza pribatuaren batez besteko kostua 5.604 eurokoa izan zen.

Irakaskuntza pribatuko ikastetxeek jaso zituzten diru-sarrera arruntak 12.533 milioi eurokoak izan ziren (4.621 euro ikasle bakoitzeko, eta 2014-2015 ikasturtean, berriz, 4.138 euro ikasle bakoitzeko). Diru-sarrera arruntan % 57,0 Administrazio Publikotik etorri ziren, % 40,4 familiek ordaindutako kuotetatik, eta gainerako % 2,6a transferentzietatik edo beste diru-sarrera pribatu batzuetatik (dohaintzak, guraso elkarten ordainketak, zerbitzu emakidak...). Banaketa hori 2014-2015 ikasturtearen antzekoa da. Dirulaguntza publikoetan batez beste 2.632 euro eman ziren ikasle bakoitzeko, 2014-2015 ikasturtean baino % 17,3 gehiago. Autonomia erkidegoetan, ikasle bakoitzeko batez besteko dirulaguntza handienak Euskal Autonomia Erkidegokoa eta Nafarroako Foru Komunitatekoa izan ziren (4.174 euro eta 3.607 euro hurrenez hurren). Maila apalenak Madrilgo Erkidegokoa eta Kanarietakoak izan ziren (2.138 euro eta 1.687 euro hurrenez hurren). Familiek ikastetxeari ordaindutako urteko kuotak, berriz, batez beste 1.868 eurokoak izan ziren ikasle bakoitzeko. Autonomia erkidego hauetan ordaindu zituzten familiek kuota handienak ikasle bakoitzeko: Katalunian (2.832 euro), Madrilgo Erkidegoan (2.720 euro) eta Kanarietan (1.859). Aldiz, unibertsitateaz kanpoko hezkuntzako kuota txikienak ordaindu ziren Extremaduran (481 euro) eta Melillako eta Ceutako hiri autonomoetan (288 eta 66 euro hurrenez hurren).

Diru-sarrerak: diru-sarrera arruntan egitura hezkuntza mailaren arabera aztertuta, familien ekarpen nagusia Batxilergokoa izan zen, familiek 3.849 euro jarri baitzituzten eta sektore publikoak 1.343. Haur Hezkuntzako lehen zikloan familiek batez beste 2.462 euro jarri zituzten eta sektore publikoak 824. Gainerako hezkuntza mailetan finantzaketa publikoak pisu handiagoa izan zuen, batez ere Oinarrizko LHko irakaskuntzetan eta antzekoetan (sektore publikoak 4.628 euro eta familiek 780) eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (sektore publikoak 3.337 euro batez beste eta familiek 1.687).

Gastuak: unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza pribatuko ikastetxeek 12.124 milioi euroko gastu arruntak izan zituzten (4.471 euro ikasle bakoitzeko, eta 2014-2015 ikasturtean, berriz, 3.901 euro ikasle bakoitzeko). Gastuen % 71,6 langileen ordainsarietara bideratu zen, % 27,8 ondasun eta zerbitzuetako gastuetara eta % 0,6 zergak ordaintzera. Langile gastu txikienak Haur Hezkuntzan izan zituzten (2.343 euro ikasle bakoitzeko), eta handienak Oinarrizko Lanbide Heziketako irakaskuntzetan eta antzekoetan (4.574 euro ikasle bakoitzeko).

Emaitza arruntak: unibertsitateaz kanpoko hezkuntza mailetan, emaitza arruntak positiboak izan ziren, Haur Hezkuntzako lehen zikloko irakaskuntzan izan ezik. Ikasle bakoitzeko emaitzarik onenak lortu ziren goi mailako eta erdi mailako lanbide irakaskuntzetan (434 eta 271 euro, hurrenez hurren) eta Batxilergoan (196). Haur Hezkuntzako lehen zikloan, kontrara, ikasle bakoitzeko emaitza arruntak negatiboak izan ziren (-180 euro).

Ikastetxe itunduetan 2.198.212 ikasle izan zituzten guztira (irakaskuntza pribatuko ikastetxeetako ikasleen % 81,0), eta horietatik % 92,9 ikasgela itunduetara joan ziren eta % 7,1 itundu gabeko ikasgeletara. Administrazio Publikoak ikastetxe itunduen gastu arrunten % 73,9rako eman zuen dirulaguntza. Itundu gabeko ikastetxeetan portzentaje hori % 2,1 izan zen. Itundu gabeko ikastetxeek 399 euroko emaitza arruntak lortu zituzten ikasle bakoitzeko, 2014-2015 ikasturtean baino % 8,1 gehiago. Ikastetxe itunduetan emaitza arruntak 93 eurokoak izan ziren ikasleko, 2014-2015 ikasturtean baino % 2,1 gutxiago. Ikasle bakoitzeko egiturari dagokionez, ikastetxe itunduek ikasle bakoitzeko izan zituzten gastuak itundu gabeko ikastetxeenak baino txikiagoak izan ziren, baina langile gastuak handiagoak izan zituzten. Bestalde, ikastetxe itunduen diru-sarrerak itundu gabeko ikastetxeenak baino txikiagoak izan ziren, dirulaguntza publiko arrunten bidez jasotakoak izan ezik. Itundu gabeko ikastetxeek 4.958 euroko gastu arruntak eta 5.357 euroko diru-sarrerak izan zituzten ikasleko. Itunduetan, berriz, ikasleko gastuak 4.356 eurokoak izan ziren eta diru-sarrerak 4.449 eurokoak, eta ikasgela itunduen eta itundu gabeen arteko aldeak izan ziren.

Zerbitzu osagarriak: eskainitako zerbitzu osagarrien truke familiek 1.213,5 milioi euro ordaindu zituzten 2020-2021 ikasturtean. Zenbateko horrek diru-sarreren % 9,7 biltzen du (% 8,5 ikastetxe itunduetan eta % 13,8 itundu gabekoetan). Zenbateko horretatik % 75,5 jantokirako izan zen, % 7,8 garraiorako, % 2,7 haurrak eskola orduen aurretik eta ondoren zaintzeko, % 1,1 egoitzarako eta % 13,0 bestelako zerbitzuetarako ("eskola tupper-a", kabinete psikopedagogikoa, erizaintza...). Administrazio publikoek 122 milioi euro eman zituzten zerbitzu horietara bideratutako dirulaguntzetan.

Hezkuntza mailaren arabera azken emaitza arruntak hauek dira:

64. taula: Emaitza arruntak unibertsitateaz kanpoko hezkuntza mailaren arabera. Irakaskuntza pribatua, 2020-

	Balio absolutuak (milaka eurotan)			Ikasle bakoitzeko balioak (eurotan)		
	Diru sarrera arruntak	Gastu arruntak	Ustiapen emaitzak*	Diru sarrera arruntak	Gastu arruntak	Ustiapen emaitzak*
Guztira	12.533.565	12.124.848	408.717	4.621	4.471	151
Haur Hezkuntzako 1. zikloa	716.346	754.064	-75.436	3.423	3.603	-180
Haur Hezkuntzako 2. zikloa	1.677.675	1.641.220	36.455	4.277	4.184	93
Lehen Hezkuntza	4.341.340	4.185.072	156.268	4.665	4.497	168
DBH	3.579.792	3.465.096	114.696	5.141	4.976	165
Batxilergoa	1.010.674	973.768	36.906	5.358	5.163	196
Oinarrizko LH eta parekoak	149.573	144.961	4.611	5.559	5.388	171
Lan. Hezk. Erdi maila	445.714	414.301	31.413	3.850	3.579	271
Lan. Hezk. Goi maila	612.450	546.365	66.086	4.019	3.585	434

* Ustiapen emaitza: diru-sarreren eta gastuen arteko aldea


Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Irakaskuntza pribatuko finantzaketaren eta gastuaren gaineko inkesta

65. taula: Zenbait gasturen egituraren laburpena ikastetxearen titulartasunaren arabera (milaka eurotan)

	2014-2015			2020-2021		
	Guztira	Ikastetxe itundua	Itundu gabeko ikastetxea	Guztira	Ikastetxe itundua	Itundu gabeko ikastetxea
Langile-gastuak	7.694.673	6.338.162	1.356.511	9.136.712	7.560.673	1.576.039
Garraio-gastuak	123.177	59.880	63.297	105.952	54.335	51.618
Jantoki-gastuak	533.681	389.583	144.098	496.981	369.643	127.338
Egoitza	7.097	3.026	4.071	4.564	1.610	2.954
Haurren zaintza	14.235	10.773	3.462	10.587	8.516	2.071
Beste gastu batzuk	22.063	17.669	4.395	22.204	14.573	7.630
Administrazioa	97.783	66.500	31.283	169.345	104.691	64.654
Guztira	8.492.709	6.885.593	1.607.117	9.946.345	8.114.041	1.832.304

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Irakaskuntza pribatuko finantzaketaren eta gastuaren gaineko inkesta

116. grafikoa: Gastuen bilakaera ikastetxearen titulartasunaren arabera (milaka eurotan)



Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Irakaskuntza pribatuko finantzaketaren eta gastuaren gaineko inkesta


Ikastetxe pribatuek azken bi ikasturteetan izandako diru-sarrerak beheko taulan ageri dira, eta eranskinean jaso dugu lehenagoko informazio eskuragarria.

66. taula: Diru-sarreraren laburpena, ikastetxearen titulartasunaren arabera (milaka eurotan)

	2014-2015			2020-2021		
	Guztira	Ikastetxe itundua	Itundu gabeko ikastetxea	Guztira	Ikastetxe itundua	Itundu gabeko ikastetxea
Kuotengatiko diru sarrerak:						
Irakaskuntza jarduerak	2.990.409	1.190.876	1.799.533	3.557.611	1.413.444	2.144.167
Eskolaz kanpoko jarduerak	217.809	160.358	57.451	153.239	119.701	33.538
Jard. Osagarriak	170.555	138.610	31.945	143.287	115.447	27.840
Garraioa	112.067	50.559	61.509	94.189	45.290	48.898
Jantokia	1.002.623	698.459	304.164	915.851	635.316	280.535
Egoitza	23.544	12.744	10.799	13.303	5.041	8.261
Haurren zaintza	31.749	24.211	7.538	32.217	26.181	6.035
Beste zerbitzu osagarri batzuk	140.485	109.921	30.564	157.975	120.462	37.512
Diru sarrerak, guztira, hauengatik:						
Dirulaguntza publikoak	5.946.708	5.896.416	50.292	7.137.986	7.080.989	56.997
Transferentzia arruntak	215.915	147.520	68.395	117.165	67.790	49.375
Beste diru-sarrera pribatu batzuk	111.933	88.565	23.368	210.743	150.516	60.227
	10.963.797	8.518.239	2.445.558	12.533.566	9.780.177	2.753.385

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Irakaskuntza pribatuko finantzaketaren eta gastuaren gaineko inkesta

117. grafikoa: Kontzeptuen arabera multzokatutako diru-sarreraren guztizkoen bilakaera (milaka eurotan)




Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Irakaskuntza pribatuko finantzaketaren eta gastuaren gaineko inkesta

3.6. Datu orokor konparatiboak

Hona hemen Europar Batasuneko eta autonomia erkidegoetako zenbait adierazle, hezkuntzako gastuari dagokionez alderaketak egin ahal izateko. Honako hauek jaso ditugu: administrazioen guztizko gastuen bolumena eta hezkuntza etapei lotutako barne produktu gordinarekin erlazionatutakoak. Interesekotzat jo dugunean, faktore horien denbora bilakaerari buruzko datuak eman ditugu adierazle batzuetan.

EBn, batez besteko gastu publikoa hezkuntzan BPGd-aren % 4,8 da. Ehuneko altua dela-eta aipagarriak dira Suedia (% 6,7), Belgika (% 6,3) eta Danimarka (% 6,0). Kontrara, beste herrialde batzuetan, oso ehuneko txikiak dituzte: Irlandan (% 3,0), Errumanian (% 3,2) edo Italian eta Grezian (% 4,1). Espainiak BPGd-aren % 4,6 inbertitzen du hezkuntzan.


118. grafikoa: Hezkuntzako gastu publikoa EBn, BPGd-aren ehuneko gisa, hezkuntza mailen arabera. 2021



Iturria: Eurostat

Espanian hezkuntzako gastu publikoaren bilakaerak igoera izan zuen balio absolutuetan 2009ra arte; urte horretatik aurrera, behera egin zuen 2013ra arte, eta apur bat suspertu zen 2016ra arte. 2018tik behera egin arren, gastu publikoa beti egon da BPGd-aren % 4ren inguruan, aztergai den aldi osoan. 2021ean hamarren bat igo da aurreko urtearekiko eta % 4,94koa izan da.

119. grafikoa: Hezkuntzako gastu publikoaren bilakaera, BPGd-aren ehuneko gisa, hezkuntza mailen arabera. Espainia



Iturria: Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioa. Estatistikaren eta Azterlanen Zuzendariordetza Nagusia

12. erans kina

Autonomia erkidegoek gastu handiagoa egin zuten hezkuntzaren arloan 2012-2021 aldian: oro har, % 28,36 handitu zen. Igoera nabariena Balear Uharteetan (% 46,57), Errioxan (% 45,04) eta Nafarroan (% 44,98) gertatu zen; aldiz, mailarik baxuenak Asturiasen (% 19,11) eta Gaztela eta Leonen (% 20,55) izan ziren. Salbuespeneko egoera dutenez, Ceuta eta Melilla ezin dira alderatu gainerako erkidegoekin.

67. taula: Autonomia erkidegoetako administrazio publikoen hezkuntzako gastu aurrekontuaren bilakaera

AUT.ERK..	2012	2015	2018	2019	2020	2021	Aldakuntza %-tan 2021-2020	Aldakuntza %-tan 2021-2012
Guztira	46.476.414	46.597.784	50.685.260	53.087.462	55.265.834	59.657.245	8,12	28,36
Nafarroa	571.796	587.030	657.191	675.762	730.029	828.979	4,95	44,98

Iturria: Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioa

13. erans kina

Autonomia erkidego guztietako aurrekontuetako zenbatekoen 2021erako guztizko kopurua (59.657.245 euro) kontuan hartzean, ikusten ahal da gastu publikoak % 8,12 egin duela gora

2020. urtearekin alderatuta. Hazkunde horrek 2012ko aurrekontuetan hezkuntzarako zeuden kopuruak gainditzen ditu (46.476.414 euro). Horrek 2012koa baino % 28,36 handiagoa izan dela esan nahi du.


Azken urte hauetan, kopuruaren gutzitza aldakuntzak positiboak izan dira, eta susperraldi bat izan dela erakusten du; 2012ko zenbatekoetara iritsi eta, areago, horiek gainditu dira.

2010etik aldaketa negatiboekin metatutako murrizketak gogorarazi behar dira. Autonomia erkidego guztietako gutzitza kopura 2016tik aurrera baino ez zen hasi pixka bat handitzen. Ehuneko horiek argi erakusten dute inbertsioaren murrizketa larria, bai eta hezkuntza behin eta berriro izan diren galerak berreskuratzeko zailtasuna ere, azken urteetan igoerak izan arren.

Datu positiboa da autonomia erkidego guztiek hezkuntza aurrekontuak handitu izana 2021. urtean 2020arekin alderatuta. Murtziak eta Gaztela eta Leonen izan dute igoera txikiena. Beste batzuetan igoera % 8,0tik goitikoa izan da: Andaluzian % 10,94koa eta Errioxan % 8,67koa.

2012 eta 2021 artean, hezkuntza gastuak hobera egin du autonomia erkidego guztietan. Handitze handiena Balearretan izan zen (% 46,57), eta gero Errioxan (% 45,04), Nafarroan (% 44,98) eta Kanarietan (% 37,78). Asturiasko balioa % 20tik beherakoa da (% 19,11). Ehuneko hori ozta gainditu dute Gaztela eta Leonen (% 20,55) eta Euskal Autonomia Erkidegoak (% 21,06).

120. grafikoa: Autonomia erkidegoetako administrazio publikoen hezkuntzako gastu aurrekontuaren bilakaera



Iturria: Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioa

3.7. Baliabide materialak

Atal honetan, hezkuntza prozesuak garatzeko ezinbestekoak diren baliabide materialak sartzen dira.

3.7.1. Baliabideak 0-3 urteetan

Haur Hezkuntzako lehen zikloaren (0-3 urte) garrantzia nabarmendu beharra dago. Oinarri duen eremuan, hein handi batean, Nafarroako udalak dira ikastetxeen eta zerbitzuaren

titularrak, eta gastuen zati bat ordaintzen laguntzen dute gurasoek, bai eta Nafarroako Gobernuak ere, dagokion hitzarmena sinatu eta gero.

Nafarroan 103 ikastetxe daude, eta horietatik 96 udal titulartasunekoak dira. Horiez gain, Hezkuntza Departamentuak kudeatzen dituen 7 ikastetxek 0-3 urte arteko haurrak artatzen dituzte.

Ikastetxe horiek 78 udalerritan daude, 6.771 ikaspostu eskaintzen dituzte eta 2022-2023 ikasturtean 5.142 haur hartu dituzte, guztira.


Hona hemen eskaintzen diren ikastetxeen eta ikaspostuen kopuruak:

68. taula: Haur eskolak. Nafarroa. 2022-2023

Ikastetxeak	Herria	Ikastetxeak	Eskaintako plazak	Betetako plazak	Betetako unitateak	N.E.E. haurrak	Haurrak osotara
Udal titulartasuna	77	96	6.287	4.623	455	68	4.691
Hezkuntza Departamentuak kudeatzen dituenak	3 (Iruña, Burlata eta Corella)	7	484	454	42	11	465
Guztira	78	103	6.771	5.077	497	79	5.156

Iturria: Haur Eskolen eta Landa Eskolen Atala


121. grafikoa: Haur eskolak. Nafarroa. 2022-2023



Iturria: Haur Eskolen eta Landa Eskolen Atala

Ikasturte honetan handitu egin da eskaintako ikaspostuen kopurua, "Mendebaldea" haur eskola ireki delako, aurreko ikasturtean obrak egin ondoren, eta Iruñeko Udalaren "Lezkairu" haur eskola berria sortu delako. Murietan ere eskola berri bat ireki da eta 2023ko urtarrilean hasi da lanean.

122. grafikoa: 0-3 urteko haurrentzako ikaspostuen eta ikastetxe publikoen bilakaera



Iturria: Haur Eskolen eta Landa Eskolen Atala

Toki entitateen mendeko Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeak eranskinean jasota daude, datu hauek adierazita: herria, hizkuntza modalitatea, eskolaldi mota, eta matrikulatutako haurrak guztira.

14.
erans
kina

3.7.2. Ikastetxe publikoak. Araubide orokorreko irakaskuntzak

- **Ikastetxe eta unitate kopuruari buruzko oinarrizko datuak**

Hurrengo taulan, ikastetxetzat jo da erregistro ofizialetan bere kodearekin identifikatuta dagoena, zenbat egoitzak osatzen duten eta zer irakaskuntza ematen dituen gorabehera.

69. taula: Ikastetxe publikoen kopuruaren bilakaera

	2015/16	2016/17	2017/18	2018/19	2019/20	2020/21	2021/22	2022/23
Araubide orokorreko ikastetxeak	232	234	235	236	236	235	234	234
Haur Hezkuntzako 2. zikloa eta Lehen Hezkuntza	170	172	172	172	170	169	168	168
Bigarren Hezkuntza	60	60	61	62	63	64	64	64
DBH soilik	16	16	17	18	18	19	20	19
DBH eta Batxilergoa	22	22	22	22	23	23	24	25
DBH, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa	6	6	6	6	5	5	3	4

Batxilergoa eta Lanbide Heziketa	3	3	3	1	1	1	1	0
Lanbide Heziketa soilik	12	12	12	14	15	14	14	16
DBH eta Lanbide Heziketa	1	1	1	1	1	1	1	0
Hezkuntza Berezia	2	2	2	2	2	2	2	2
Araubide bereziko ikastetxeak	65	65	65	65	65	65	66	66
Arte eskolak	2	2	2	2	2	2	2	2
Hizkuntza eskolak	3	3	3	3	3	3	3	3
Musika kontserbatorioak	3	3	3	3	3	3	3	3
Musika eskolak	52	52	52	52	52	52	53	53
Dantza eskolak	1	1	1	1	1	1	1	1
Helduen Hezkuntzako ikastetxeak	4	4	4	4	4	4	4	4

Iturria: Ikastetxeetako Informazioa Kudeatzeko Bulegoa


70. taula: Irakaskuntza bakoitza ematen duten ikastetxe publikoen kopurua. 2022-2023

	Kopurua
Haur Hezkuntzako 2. zikloa	164
Lehen Hezkuntza	168
Hezkuntza Berezia	82
DBH	58

* Hezkuntza Bereziaren ordezkoi unitateak dituzten ikastetxeak ere zenbatu dira

Iturria: Ikastetxeetako Informazioa Kudeatzeko Bulegoa

123. grafikoa: Unitate kopurua. Ikastetxe publikoak. 2022-2023



Iturria: Ikastetxeetako Informazioa Kudeatzeko Bulegoa

71. taula: Helduen Hezkuntzako ikastetxeak, eremuaren eta ikasketa motaren arabera. 2022-2023

Eremua	Ikastetxea	Helduen Oinarrizko Hezkuntza				Batxilergoa		Atzerritarr entzako gaztelania	PP
		HI I	HI II	2MG G	HBH	Urru.	Gau.		
Altsasu	HOHko ikasgelak	8	21	45				136	
Elizondo-Lekaroz	Lekaroz BHI			28				28	
Lizarra	HOHko ikasgelak	38	22	46				528	96
	Lizarralde BHI				27				
	San Adriango Ega BHI				20				
	El Camino DBHI				6				
	Pablo Sarasate BHI				5				
Iruña	José M ^a Iribarren HOHIP	211	56	95				1.083	730
	Félix Urabayen NHBHI				400	172			
	Navarro Villoslada BHI						52		
	Gurutzeko Plaza BHI						104		
Zangoza	HOHko ikasgelak	11						12	17
Tafalla	HOHko ikasgelak	8		36				384	12
	Marqués de Villena BHI				13				
	Sancho el Mayor BHI				4				
Tutera	Tuterako HOHIP	86		44				909	718
	Benjamín de Tudela BHI				119		66		

Iruña, Tutera, Cintruénigo	Forlan (Europako proiektua)			75					
----------------------------------	-----------------------------------	--	--	----	--	--	--	--	--

HOH: Helduen Oinarrizko Hezkuntza

HOHIP: Helduen Oinarrizko Hezkuntzako Ikastetxe Publikoa

NHBHI: Nafarroako Helduen Bigarren Hezkuntzako Institutua

HI I: Hasierako Ikasketak I

HI II: Hasierako Ikasketak II

2MGG: 2. mailako gaitasun giltzarriak

HBH: Helduentzako Bigarren Hezkuntza

Urru.: Urrutikoa

Gau.: Gauekoa

PP: Prestakuntza Pertsonala. Arautu gabeko prestakuntzako ikastaroak. Informatika ikastaroak, hizkuntza ikastaroak

(frantsesa, ingelesa eta euskara) eta kultura zabaltzeko ikastaroak eman dira

Iturria: Antolamendu, Prestakuntza eta Kalitate Zerbitzua

Enplegurako Lanbide Prestakuntza

72. taula: Enplegurako Lanbide Prestakuntzaren modalitateak eta exekutututako aurrekontua. 2022

Modalitatea	Exekutatua (eurotan)
Langabeei zuzendutako enplegurako prestakuntza	3.048.132
Lantegi eskolak	2.329.209
Guztira	5.377.341

Iturria: Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzua

- **Azpiegiturak hobetzeko programak**

Atal honetan, azpiegiturak hobetzeko eta mantentzeko jarduerak aurkezten dira: eraikin berriak egiteko edo ikastetxeak handitzeko lanak; irakaskuntza guneak eraberritzea, horien funtzionamendua hobetzeko; gune edo instalazioen akatsak zuzentzeko edo segurtasunari, osasunari edo irisgarritasunaren hobekuntzari lotutako arauetara egokitzeko lanak.

Toki korporazioek dute Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeak zaintzeko eta mantentzeko eskumena. Udalentzako dirulaguntzetarako partida bat du Nafarroako Gobernuak, eta urtero deialdiak izaten dira, lan horietan laguntzeko. Aurrekontuko partida hori handitu egin zen 2021ean, irisgarritasun unibertsaleko jarduketak sustatzeko, eta 2022ko deialdian ere helburu bererako aurrekontu zuzkidura izan da. Diruz lagundutako lanez gain, udalek eta kontzejuek beste mantentze, zaintza eta hobekuntza lan batzuk egiten dituzte beren jabetzako ikastetxeetan, dituzten betebeharrak eta indarreko araudia betez.

Azken urteotan, toki entitateei ikastetxeetan obrak egiteko emandako laguntzen bilakaerak adierazten du ezen, 2014ko jaitsieraren ondoren (191.135 euro), zenbatekoa handitu egin zela 2021erako (1.893.816,79 euro), eta berdintsu jarraitu duela 2022rako (1.730.876,44 euro).


73. taula: Nafarroako udalei eta kontzejuei emandako laguntzen laburpena, exekutututako aurrekontuaren arabera

Urtea	Udalerri kopurua	Ikastetxe kopurua	Exekutututako zenbateko osoa (eurotan)
2010	18	19	580.420
2011	25	26	838.152
2012	21	23	374.861
2013	18	18	377.549
2014	15	15	191.135

2015	27	27	357.613
2016	49	49	791.739
2017	36	38	769.675
2018	34	38	967.286,53
2019	32	34	961.509,28
2020	36	39	910.146,51
2021	59	68	1.893.816,79
2022	35	38	1.730.876,44

Iturria: Hezkuntzako Azpiegituren Zerbitzua

124. grafikoa: Nafarroako udalei eta kontzejuei emandako laguntzen laburpena, exekutututako aurrekontuaren arabera




Iturria: Hezkuntzako Azpiegituren Zerbitzua

16.
erans
kina

Bestalde, 2. programa ikastetxe berriak eraikitzeari eta handitzeko, egokitzeko eta hobetzeko obrei buruzkoa da. Hemen bilduta daude ikastetxe publikoak eraikitzearekin eta handitzearekin zerikusia duten lan guztiak eta ikastetxe publikoetako guneak eta instalazioak eraberritu, egokitu edo hobetzeko lanak, bai eta araudira (segurtasunari, ebakuazioari, higieneari, oztopo arkitektonikoak kentzeari eta abarri buruzkoa) egokitzeko lanak ere.

Nafarroako Gobernuak ikastetxe berriak zuzenean eraikitzena eta haien handitze, egokitze eta hobetze obrak egitera bideratutako zenbatekoek pixkanaka berreskuratu dituzte krisiaren aurreko urteetako batez besteko kopuruak. 2022an, 18.308.964,97 euro bideratu dira, eta 39 ikastetxe propioari eta 8 udal ikastetxeri eragin die. Eta etorkizuneko ekitaldietarako, goranzko joera dago.

125. grafikoa: Ikastetxe berriak eraikitzeko eta ikastetxeak indarreko araudira egokitzeko lanen bilakaera (eurotan)



* Kopuru horietan ikastetxe publiko propioei eta Haur eta Lehen Hezkuntzako udal ikastetxe publikoei dagozkienak bildu dira

Iturria: Hezkuntzako Azpiegituren Zerbitzua

17.
erans
kina

Hemen zehaztuta datoz azken ikasturtean Hezkuntza Departamentuaren eta toki erakundeen mendeko ikastetxe publiko berriak eraikitzeko eta daudenak handitu, egokitu eta hobetzeko egindako lanak.

74. taula: Ikastetxe berrien eraikuntza eta handitze, egokitze eta hobetze lanak. 2022-2023

Herria	Ikastetxea	Obra	Zenbatekoa
Ikastetxe publiko propioak			
Altsasu	Sakana IBP	Irisgarritasuna berritzea, Ateca gela eta eraberritze funtzionala	261.817,27
Altsasu	Altsasuko BHI	Ikasnova gela	48.377,60
Agoitz	Agoitz DBHI	Eraberritzea	6.348,09
Barañain	Barañain BHI	Ikasnova gela eta aireztapen mekanikoa	930.627,58
Barañain	Alaiz BHI	Eraberritzea	3.957,01
Bera	Toki Ona BHI	Kirolerako pista estaltzea	36.047,42
Burlata	Askatasuna BHI	Irisgarritasuna berritzea	51.504,86
Burlata	Egunsentia	Eraberritzea, birkokatzea	272.467,32
Burlata	Burlata IBP	Ateca gela eta eraberritzea	53.203,47


Castejón	Castejón BHI	Eraberritzea	357,98
Corella	Niño Jesús	Araudiari jarraituz eraberritzea	52.978,60
Corella	Alhama BHI	Ikasnova gela	45.197,72
Cortes	Bardenas BHI	Eraberritzea	23.653,46
Elizondo	Elizondo IBP	Eraberritzea	2.999,47
Lizarra	Lizarralde BHI	Eraberritzea eta Ikasnova gela	89.015,05
Lizarra	Estella IBP	Eraberritzea	4.677,32
Leitza	Amazabal BHI	Kirolerako pista estaltzea	383.514,18
Ornoz	Ornoz IB	Ikastetxe berria - aurretiazko lanak	10.369,70
Iruña	Virgen del Camino IBP	Araudiari jarraituz eraberritzea	5.937,83
Iruña	Sanitaria BHI	Eraberritzea - hirigintzako aldaketa	3.630,00
Iruña	M ^a Ana Sanz IB	Eraberritze lanak eta Ateca gela	71.311,38
Iruña	Andrés Muñoz HBIP	Handitzea eta osorik eraberritzea	3.474.210,09
Iruña	Donapea IBP	Irisgarritasunerako eta funtzionaltasunerako eraberritzea	362.938,60
Iruña	Gurutzeko Plaza BHI	Irisgarritasuna berritzea	122.750,17
Iruña	San Jorge HE	Araudiari jarraituz eraberritzea	10.514,90
Iruña	Santa Teresa	Araudiari jarraituz eraberritzea	13.963,40
Iruña	Basoko BHI	Eraberritze lanak	19.147,89
Iruña	Biurdana BHI	Kirolerako pista estaltzea	112.678,65
Iruña	Iturrama BHI	Handitzea	84.378,26
Iruña	Julio Caro Baroja BHI	Handitzea, irisgarritasuna eraberritzea	553.254,01
Iruña	Agroforestal IB	Pabiloia eraberritzea	578.052,46
Iruña	Padre Moret-Irubide BHI	Ikasnova gela	35.988,84
Iruña	Iñaki Ochoa de Olza DBHI	Ikasnova gela	14.441,71
Iruña	Donibane IB	Ziklo berrietako eraberritzea	23.191,64
Sarriguren	Sarriguren BHI	Handitzea	1.487.067,26
Tafalla	Sancho III BHI	Ikasnova gela	32.862,39
Tafalla	Tafalla IBP	Eraberritze lanak eta Ateca gela	508.407,32
Tutera	Torre Monreal HBIP	Patioko estalkia	53.736,13
Haur Hezkuntzako bigarren zikloaren xedea da haurren garapen fisikoan, afektiboan, sozialean eta intelektualean laguntzea. Ziklo horretan, hauek landuko dira era mailakatuan: garapen afektiboa, mugimendua eta gorputza kontrolatzeko ohiturak, komunikatzeko adierazpenak eta mintzamena, bizikidetzako eta gizarte harremanetako oinarritzko jarraibideak eta ingurunearen ezaugarri fisikoak eta sozialak aurkitzea. Gainera, haurrei beren buruaren irudi positibo eta orekatua sortzen eta beren adinerako egokia den norberaren autonomia maila lortzen lagunduko zaie.

- **Lehen Hezkuntza**

Lehen Hezkuntzako gutxieneko irakaskuntzak eta haien antolamendua ezartzen dituen martxoaren 1eko 157/2022 Errege Dekretua argitaratu ondoren, Nafarroako Gobernuak, lege organikoak berak emandako erantzukizuna bere gain hartuta, ekainaren 22ko 67/2022 Foru Dekretua argitaratu du, Nafarroako Foru Komunitateko Lehen Hezkuntzaren etapako irakaskuntzen curriculuma ezartzen duena.

Halaber, Hezkuntzako kontseilariaren abuztuaren 8ko 63/2022 Foru Agindua argitaratu da, Nafarroako Foru Komunitateko lurralde eremuan dauden ikastetxeetan Lehen Hezkuntzako irakaskuntzen ezarpena eta ordutegia arautzen dituena.

Era berean, Hezkuntzako kontseilariaren ekainaren 12ko 52/2023 Foru Agindua argitaratu da, Nafarroako Foru Komunitatean Lehen Hezkuntzan diharduten ikasleak ebaluatu eta mailaz igotzeko era arautzen duena.

Lehen Hezkuntzaren etaparen xedea da ikasleek ahozko adierazpena eta ulermena, irakurketa, idazketa, kalkulua, trebetasun logikoak eta matematikoak ikastea eta kulturaren oinarriko ideiak, bizikidetzako aztura, estudiatzeko eta lan egiteko aztura, zentzu artistikoa, sormena eta afektibitatea bereganatzea. Horrela, ikasleen nortasuna garatzen lagunduko duen prestakuntza integrala bermatuko da eta haiek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren etapa aprobetxamenduarekin ikasteko prestatuko dira.

- **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH)**

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gutxieneko irakaskuntzak eta haien antolamendua ezartzen dituen martxoaren 29ko 217/2022 Errege Dekretua argitaratu ondoren, Nafarroako Gobernuak, lege organikoak berak emandako erantzukizuna bere gain hartuta, ekainaren 29ko 71/2022 Foru Dekretua argitaratu du, Nafarroako Foru Komunitatean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren etapako irakaskuntzen curriculuma ezartzen duena.

Halaber, Hezkuntzako kontseilariaren abuztuaren 8ko 64/2022 Foru Agindua argitaratu da, Nafarroako Foru Komunitateko lurralde eremuan dauden Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako irakaskuntzen ezarpena eta ordutegia arautzen dituena.

Era berean, Hezkuntzako kontseilariaren ekainaren 12ko 53/2023 Foru Agindua argitaratu da, Nafarroako Foru Komunitatean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan diharduten ikasleak ebaluatu, mailaz igotzeko eta haiei tituluak emateko era arautzen duena.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren etaparen helburua da ikasleek kulturaren oinarriko elementuak bereganatzea, batez ere alderdi humanistikoan, artistikoan, zientifiko-teknologikoan eta motorrean; ikasleengan ikasteko eta lan egiteko ohiturak garatzea eta finkatzea, bai eta bizi-ohitura osasungarriak ere; eta, halaber, ondorengo ikasketei heltzeko nahiz laneratzeko prestatzea eta herritar gisa dituzten eskubide eta betebeharrak gauzatzeko trebakuntza ematea.

- **Batxilergoa**

Batxilergoko gutxieneko irakaskuntzak eta haien antolamendua ezartzen dituen apirilaren 5eko 243/2022 Errege Dekretua argitaratu ondoren, Nafarroako Gobernuak, lege organikoak berak emandako erantzukizuna bere gain hartuta, ekainaren 29ko 72/2022 Foru Dekretua argitaratu du, Nafarroako Foru Komunitateko Batxilergoaren etapako irakaskuntzen curriculuma ezartzen duena.

Halaber, Hezkuntzako kontseilariaren abuztuaren 26ko 67/2022 Foru Agindua argitaratu da, Nafarroako Foru Komunitateko lurralde eremuan dauden ikastetxeetan Batxilergoko irakaskuntzen ezarpena eta ordutegia arautzen dituena.

Era berean, Hezkuntzako kontseilariaren maiatzaren 10eko 45/2023 Foru Agindua argitaratu da, Nafarroako Foru Komunitatean Batxilergoan diharduten ikasleak ebaluatu, mailaz igo eta haiei tituluak emateko era arautzen duena.

Batxilergoaren etaparen xedea da ikasleei prestakuntza, adimen eta giza heldutasuna, ezagutzak, eta trebetasunak eta jarrerak ematea, eginkizun sozialak garatzeko eta bizitza aktiboan erantzukizunez eta behar bezalako gaitasunarekin sartzeko aukera izan dezaten. Halaber, etapa honek ahalbidetu behar die ikasleei prestakuntzaren eta lanbidearen arloan etorkizunean ezinbestekoak izanen zaizkien konpetentziak eskuratu eta lortzea, eta goi mailako hezkuntzarako gaitasuna izatea.

- **Lanbide Heziketa**

Lanbide Heziketaren sistemaren funtzioak dira ikasleen garapen pertsonala eta profesionala lortzea, haien kualifikazioa etengabe hobetzea bizitzan zehar, eta ekoizpen- eta enplegu-sistemaren prestakuntza beharrak beteko direla bermatzea.

Lanbide Heziketaren Antolamenduari eta Integrazioari buruzko martxoaren 31ko 3/2023 Lege Organikoak Lanbide Heziketaren eredia eraldatu du, herritarren beharrei erantzuteko haien lan bizitza osoan zehar eta ekoizpen-sektorearen eskakizunak betetzeko.

- **Arte eta Musika ikasketak**

Arte ikasketen helburua da ikasleei kalitatezko prestakuntza artistikoa ematea eta musikaren, dantzaren, arte plastikoaren eta diseinuaren alorreko etorkizuneko profesionalen kualifikazioa bermatzea.

Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan, Arte Ikasketen Atala arduratzen da musika hezkuntzaren garapena sustatzeaz araubide orokorreko irakaskuntzako etapetan eta, horrekin batera, arte ikasketei dagozkien berrikuntza programak eta hezkuntza esperimenezko proiektuak planifikatzeaz, sustatzeaz, koordinatzeaz eta horien jarraipena egiteaz.

Musika ikasketak hiru etapatan antolatzen dira:

- Ikasketa ez-arautuak. Nafarroan, hastapeneko prestakuntza berriazko musika eskoletan ematen da. Horiek Foru Komunitate guztian zehar barreiatuta daude, eta gehienek titulartasuna udalena da.
- Musikako lanbide ikasketak. Kontserbatorio profesionaletan egiten dira. Sei ikasturteko iraupena dute, eta irakasgaiak espezialitateko instrumentuaren arabera dira.
- Goi mailako musika ikasketak. Lau ikasturtetan antolatzen dira, eta bakoitzak 60 ECTS kreditu ditu. Bukatzean, Musikako goi mailako arte irakaskuntzetako graduko titulua lortzen da.

Dantzaren sustapena dantza eskoletan emandako ikasketen bidez egiten da. Horien iraupena ez dago finkatua, eta eskola bakoitzak berea ezartzen du bere plan pedagogikoan. Ez dago adin mugarik ikasketa hauek egiteko eta ez daude bideratuak balio akademiko eta profesionaleko tituluak erdiestera.

Arte plastikoari eta diseinuari buruzko arte ikasketak hainbat mailatan antolatuta daude:

- Erdi mailakoak. Lanbide jakin baterako prestakuntza eskaintzen duten ikasketak dira. Ikasketa hauek bukatutakoan, teknikari titulua lortzen da.
- Goi mailakoak. 3. mailako kualifikazioa duten profesionalak prestatzen dituzte ikasketa horiek. Bukatutakoan, goi mailako teknikari titulua lortzen da.
- Diseinuko goi mailako ikasketak. Lau ikasturtetan antolatzen dira, eta bakoitzak 60 ECTS kreditu ditu. Bukatzean, Diseinuko goi mailako arte irakaskuntzetako graduko titulua lortzen da.

- **Helduen irakaskuntza**

Helduen irakaskuntzaren xedea da hemezortzi urte baino gehiago dituztenei beren garapen pertsonal eta profesionalerako ezagutzak eta gaitasunak lortu, eguneratu, osatu eta zabaltzeko aukera ematea.

Irakaskuntza horrek honako helburu hauek ditu:

- Oinarrizko prestakuntza bat lortzea; ezagutzak, gaitasunak eta trebetasunak modu jarraituan zabaltzea eta berritzea; eta hezkuntza sistemako gainerako irakaskuntzetarako sarbidea erraztea.
- Kualifikazio profesionala hobetzea edo beste lanbide batzuetan aritzeko prestakuntza lortzea.
- Gaitasun pertsonalak garatzea, espresioaren, komunikazioaren, pertsonen arteko harremanen eta ezagutzaren eraikuntzaren arloetan.
- Bizitza sozial, kultural, politiko eta ekonomikoan parte hartzeko gaitasuna garatzea eta herritartasun demokratikoaren eskubidea gauzatzea.
- Gizarte bazterkeriaren arriskuak (sektorerik ahulenenak bereziki) zuzentzea.
- Nagusienei beren gaitasunak gehitzeko eta eguneratzeko aukera ziurtatzea.
- Gatazka pertsonalak, familiakoak eta sozialak aurreikustea eta modu baketsuan konpontzea. Gizonen eta emakumeen arteko berdintasun eraginkorra sustatzea eta horien arteko desberdintasunak kritikoki aztertzea eta balioestea.
- Garapen jasangarria, klima aldaketaren ondorioak eta ingurumen, osasun edo ekonomia krisiak aintzat hartzen dituzten jarrerak garatu eta gai horiei buruz ikastea, osasuna eta elikadura ohitura osasungarriak sustatzea eta sedentarismoa murriztea.

Atentzio berezia ematen zaie gizarteratzeko eta laneratzeko bestelako aukerak behar dituzten eta kualifikaziorik ez duten edo oso kualifikazio txikia duten kolektiboek, batik bat honako hauei:

- derrigorrezko hezkuntzaren baliokideak diren oinarrizko gaitasunak ez dituzten helduei;
- laneratzeko eta gizarteratzeko lortzeko beren gaitasunak hobetu behar dituzten gizarte egoera ahuleko taldeei, etorkinei eta desgaitasuna duten pertsonen;
- beren kualifikazio profesionalaren ziurtagiririk ez duten herritar aktiboek, edo hori hobetu nahi dutenei;
- derrigorrezko eskolatzea DBHko titulua lortu gabe bukatzen duten gazteei edo ikasketak behar baino lehen utzi dituzten gazteei.

- **Kirol ikasketak**

Araubide bereziko kirol ikasketek kirol sisteman lanbide jardura batean aritzeko prestakuntza ematen diete ikasleei, kirol modalitate edo espezialitate bati loturik, eta enplegurako sarbidea izateko gaitzen dituzte.

Bi mailatako kirol zikloetan antolatzen dira: erdi maila eta goi maila. Nafarroan ikasketa horien antolaketa eta garapena arautzen dituen abenduaren 28ko 248/2011 Foru Dekretuan ezarritakoa betez, ikasketa horien plangintza eta eskaintza hezkuntza eta kirolaren eskumena duten Nafarroako Gobernu departamentuen eta Nafarroako kirol federazioen arteko lankidetzan oinarritzen da. Bi aldagai nagusiren arabera antolatzen da eredia, malgutasunaren eta eskaintzaren behin-behinekotasunaren arabera, hain zuzen, kirol sektorearen beharrei erantzuna emateko xedearekin. Zentzu horretan, 2022-2023 ikasturtean honako kirol modalitate eta espezialitate hauei dagozkien ikasketak eskaini dira:

Ikastetxe publikoak:

- Hezkuntza Administrazioarenak:
 - Mendi Kirolak eta Eskalada:
 - Mendi Ertainetako kirol teknikaria
 - Eskaladako kirol teknikaria
 - Iraupen Eskiko kirol teknikaria
- Kirol Administrazioarenak:
 - Saskibaloia:
 - Saskibaloiko kirol teknikaria
 - Atletismoko kirol teknikaria
 - Eskubaloiko kirol teknikaria

Ikastetxe pribatuak:

- Futbola:
 - Futboleko kirol teknikaria
 - Futboleko goi mailako kirol teknikaria
- Hipikako kirol teknikaria (jauzia, heziera eta lehiaketa osoa)

4.5. Hizkuntzen ikaskuntza

Hezkuntza Departamentuaren iritziz, eleaniztasuna sustatzeak hezkuntza interesa eta interes estrategikoa ditu. Atal honetan horren garrantziaren eta dinamismoaren adierazle batzuk bildu dira.

- **Euskara**

Maiatzaren 19ko 159/1988 Foru Dekretuak Nafarroako unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzan euskara sartzea eta erabiltzea arautzen du, Euskarari buruzko Foru Legea garatuz, eta A, B eta D hizkuntza ereduak definitzen ditu.

A hizkuntza eredu, non irakaskuntza gaztelaniaz ematen baita, euskara ikasgai dela, maila, etapa eta modalitate guztietan.

B hizkuntza eredu, non irakaskuntza euskaraz ematen baita, gaztelania ikasgai eta erabilera-hizkuntza dela arlo batean edo gehiagotan, irakaskuntzaren, zikloaren edo etaparen arabera.

D hizkuntza eredu, non irakaskuntza euskara hutsez ematen baita, gaztelania ikasgai izan ezik.

Aurrekoek gain, hizkuntza eremuaren arabera, bada G izeneko beste eredu bat, non ez dagoen ez euskarazko ez euskararen irakaskuntzarik.

Aipatutako foru dekretuan eremu euskaldunerako A, B eta D ereduak baimentzen dira eta, beraz, nahitaezkoa da euskararen irakaskuntza; eremu mistorako A, B, D eta G ereduak baimentzen dira, eta eremu ez-euskaldunerako A eta G ereduak eta, 2015-2016 ikasturtetik aurrera, baita D eredu ere.


126. taula: Euskara duten A, B eta D ereduaren eta euskararik gabeko G ereduaren eskolatzeko datuak eskola publiko eta pribatu itunduetan. 2022-2023

	G eredu		A eredu		B eredu		D eredu		Ikasl., guztira
	Ikasl.	%	Ikasl.	%	Ikasl.	%	Ikasl.	%	
Haur Hezkuntza	8.919	51,7	3.443	20,0	28	0,1	4.858	28,2	17.248
Lehen Hezkuntza	23.102	54,7	7.897	18,7	90	0,2	11.138	26,4	42.227

DBH	20.244	68,4	2.243	7,6	7		7.090	24	29.584
Batxilergoa	6.675	72,1	322	3,5			2.264	24,4	9.261
Heziketa-zikloak	10.021	91,8					892	8,2	10.913
Oinarrizko LH	1.104	96,3					42	3,7	1.146
Guztira	70.065	63,5	13.905	12,6	125	0,1	26.284	23,8	110.379

Iturria: Ikastetxeetako Informazioa Kudeatzeko Bulegoa

157. grafikoa: Euskara duten A, B eta D ereduen eskolatze datuak. 2022-2023



Iturria: Ikastetxeetako Informazioa Kudeatzeko Bulegoa

Ikastetxe publikoei dagokienez, Haur Hezkuntzako 2. zikloko eta Lehen Hezkuntzako 84 ikastetxetan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 29tan eman da D eredia 2022-2023 ikasturtean.

3. erans kina

4. erans kina

D eredian eskolatzea eskaintzen duten itunpeko ikastetxe pribatuak 20 dira Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan edo/eta Bigarren Hezkuntzan.

5. erans kina

- **Atzerriko hizkuntzak**

Programa eleaniztunetan indarreko curriculumak bi hizkuntzatan edo gehiagotan koordinaturik ematen da Nafarroan.

- Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan: Atzerriko Hizkuntzetan Ikasteko Programak (Ingelesa-Aleman-Frantsesa), MEFP-British Council-Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeak barne hartuta.
- Bigarren Hezkuntzan: aleman, ingeles eta frantses atal elebidunak, Bigarren Hezkuntza Eleaniztuna / MEFP-BC-NFK Bigarren Hezkuntza, bai eta Batxilergoko titulazio bikoitzerako Bachibac programa ere.

Puntu hauek nabarmendu behar dira:

- Haur eta Lehen Hezkuntzan Atzerriko Hizkuntzak Ikasteko Programetan (IIP/FIP/AIP) igo egiten dira ingelesez, frantsesez edo alemanez emandako eskolak (asteen 12 saiora arte A/G ereduak eta asteen 8 saiora arte D ereduak), eta baliteke salbuespenen bat izatea, aurrez eskatu eta Departamentuak onartu ondoren.
- IIPko A ereduko ikasleek, gainera, euskara ikasten dute.

Honako hauek dira Bigarren Hezkuntzako programa eleaniztunak:

- Bigarren Hezkuntza Eleaniztuna, jarraipena da IIP/FIP/AIP ikastetxeetako ikasleentzat.
- MEFP-BC-NFK Bigarren Hezkuntza, MEFP-BC ikastetxeetako ikasleendako jarraipen gisa.
- Ingeles/frantses/aleman atal elebidunak.

Bigarren Hezkuntza Eleaniztunean, MEC-BC-NFK Bigarren Hezkuntzan eta ingeles, frantses edo aleman atal elebidunetan, hizkuntzakoak ez diren hainbat irakasgai ingelesez, frantsesez edo alemanez ematen dira.

Frantses eta aleman atal elebidunetan, atzerriko bigarren hizkuntza denez, programan Frantsesa edo Alemana irakasgaia sendotzen da DBHko 1. eta 2. mailetan, ordu gehiagorekin. DBHko 3. eta 4. mailetan irakasgai bat edo batzuk ematen dira frantsesez edo alemanez.

Hizkuntza programak ematen dituzten Haur eta Lehen edo Bigarren Hezkuntzako ikastetxeek hedadura handia dute hezkuntza sisteman, hurrengo tauletan ikusten den bezala.

127. taula: Haur eta Lehen Hezkuntzan hizkuntza programak ematen dituzten ikastetxeak. 2022-2023

	Ikastetxea Lehen Hezkuntza	Ikasleen kopurua		
		Haur H.	LH	Guztira
Guztira	117	11.948	29.134	41.112

Iturria: Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzua

128. taula: Bigarren Hezkuntzan hizkuntza programak ematen dituzten ikastetxeak. 2022-2023

	Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak	Ikasleen kopurua
Guztira	45	8.677

Iturria: Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzua

7.
erans
kina

Frantziako ikasleekin eskola trukea egiteko programa

Programa hori otsailaren 3ko 23/2022 EBAZPENAK arautzen du. Trukearen iraupena 10 astekoa da eta ikasturteko lehen hiruhilekoan egiten da, ikasleak DBHko 3. mailan daudenean. Ikasle nafarrek 5 aste ematen dituzte Frantzian (iraila eta urria), eta ikasle frantsesek beste 5 aste ematen dituzte Nafarroan (azaroa eta Abendua). Pandemiaren ondoren eskaeren kopuruak behera egin du eta eskatzen duten ikasle guztiak lortzen dute lekua, oro har.

129. taula: Frantziako ikasleekin eskola trukea egiteko programan parte hartzen duten ikasleen bilakaera

	2017/2018 (DBHko 3. mailako ikasleak)	2018/2019 (DBHko 3. mailako ikasleak)	2019/2020	2020/2021	2021/2022	2022/2023
Ikasleak	66 (Modelos A, G, A/G, A/D y A/G/D)	62 (Modelos A, G, A/G, A/D y A/G/D)	60 (Modelos A, G, A/G, A/D y A/G/D)	33 (Modelos A, G, A/G, A/D y A/G/D)	62 (Modelos A, G, A/G, A/D y A/G/D)	60 (Modelos A, G, A/G, A/D y A/G/D)
Eskaerak guztira	82: -71 modelos A, G, A/G, A/D y A/G/D -11 Modelo D	85 (Modelos A, G, A/G, A/D y A/G/D)	72 (Modelos A, G, A/G, A/D y A/G/D)	70 (Modelos A, G, A/G, A/D y A/G/D)	142 (Modelos A, G, A/G, A/D y A/G/D)	67 (Modelos A, G, A/G, A/D y A/G/D)
Esleitutako gastua	Programa honek ez dio inolako gasturik eragiten Hezkuntza Departamentuari					

Iturria: Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzua

Frantzian ikasturte osoa egiteko programa akademikoa

Programa hau azaroaren 16ko 518/2022 Ebazpenak arautzen du. Parte hartzearen bilakaera azpiko taulan laburbildu dugu.

130. taula: Frantzian ikasturte osoa egiteko programan parte hartzen duten ikasleen bilakaera

	2017/18	2018/19	2019/20	2020/21	2021/22	2022/23
Oraingo ikasturteko ikasleak	154	157	161	167	183	239
Hurrengo ikasturterako eskabideak, guztira	223	213	236	371	399	402

Gasto adjudicado	Programa honek ez dio inolako gasturik eragiten Hezkuntza Departamentuari
------------------	---

Iturria: Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzua

Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasle taldeentzako ingelesezko English Week murgiltze programa, ikasturtean zehar

2022-2023 ikasturtean, English Week hizkuntzako murgiltze programan parte hartzeko bi modalitateak eskaini dira: "Barnetegia" eta "at School". Ikastetxe bakoitzak zer modalitate nahiago zuen adierazi ahal izan du parte hartzeko eskabidean, eta epean aurkeztutako eskaera guztiak onartu dira. Beraz, nahi izan duten ikastetxe guztiak parte hartu dute programan.

Deialdia maiatzaren 2ko 151/2022 Ebazpenak arautzen du; irailetik abendura arteko mandatua, irailaren 9ko 396/2022 Ebazpenak; eta urtarriletik ekainera arteko mandatua, azaroaren 21eko 522/2022 Ebazpenak.

Hona hemen "at School" eta "Barnetegia" programen xehakapena 2022-2023 ikasturtean:

131. taula: "At School" eta "Barnetegia" programen datuak. 2022-2023

	Ikasleak 22 ira.-abe.	Gastua 22 ira.-abe.	Ikasleak 23 urt.-eka.	Gastua 23 urt.-eka.	Ikasleak 22 ira. - 23 eka.	Gastua 22 ira. - 23 eka.
English Week at School	342	40.837	778	85.820	1.120	126.657
English Week Residencial	1.237	261.336	2.998	667.656	4.235	928.992
English Week GUZTIRA	1.579	302.174	3.776	753.475	5.355	1.055.649

Iturria: Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzua


Programak ikasturtean zehar izandako bilakaera beheko taulan jaso da. Eskabideen eta parte hartzaileen kopuruek gora egin dute 2021-2022 ikasturteetik, bi modalitate izan direlako batera, "at School" eta "Barnetegia", eta handitu egin delako programa hauetarako partidako aurrekontua. Gainera, beren ikastetxeen bitartez eskaera egin zuten ikasle guztiei erantzun zitzaizkien.

132. taula: Ikasle parte hartzaileen kopuruaren eta aurrekontu orokorraren bilakaera. WEEK

	15/16	16/17	17/18	18/19	19/20	20/21	21/22	22/23
Eskaerak guztira	3.645	3.645	3.815	3.611	3.912	6.636	4.932	5.355
Parte hartu duten ikasleak	2.500	2.500	2.400	2.400	2.400	2.883	4.932	5.355
Esleitutako gastua	297.400	297.400	306.000	313.856	375.000	323.287	723.859	1.055.649

Iturria: Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzua

158. grafikoa: Ikasle parte hartzaileen eta aurrekontu orokorraren bilakaera. WEEK



Iturria: Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzua

Atzerriko hizkuntzetako elkarrizketa-laguntzaileak ikastetxe publikoetan

2013-2014 ikasturtean argitaratu zen azken aldiz Nafarroako Gobernuaren deialdia atzerriko hizkuntzetako elkarrizketa-laguntzaileentzat, 2014-2015 ikasturterako.

Horrekin batera, Nafarroako Foru Komunitateak orain dela 23 urte baino lehenagotik 15 laguntzaile jasotzen ditu MEFP Kupotik (Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioak finantzatzen ditu).

Hezkuntzako Estatu Idazkaritzaren Ebazpena, Espainiako ikastetxeetako elkarrizketa-laguntzaile atzerritarrentzako lanpostuen deialdia egiten duena 2022-2023 ikasturterako (2021eko 306. BOE, abenduaren 23koa).

Ikastetxeek ezin dute elkarrizketa-laguntzailerik eskatu, ez delako haientzako deialdirik argitaratzen. Laguntzaileen esleipena barnekoa da, eta batera adosten dute Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioan eta autonomia erkidegoetako Hezkuntza kontseilaritzetan programaren ardura dutenek.

Ministerioak hala adierazita, salbuespenak salbuespen, laguntzaile gehienak Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetara bideratzen dira.

133. taula: Elkarrizketa-laguntzaileen kopuruaren bilakaera

Hizkuntzak	2015/16	2016/17	2017/18	2018/19	2019/20	2020/21	2021/22	2022/23
Ingelesa	9	9	9	9	9	9	9	9
Frantsesa	5	5	5	5	5	5	5	5
Alemaniarra	1	1	1	1	1	1	1	1
Guztira	15	15	15	15	15	15	15	15

Iturria: Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzua

Atzerriko hizkuntzetako irakasleentzako udako laguntzak

2019-2020 eta 2020-2021 ikasturteetan, COVID-19aren osasun larrialdiak eraginda, aurrez aurreko prestakuntza jardueretarako deialdia lineako prestakuntza ikastaroak egiteko birmoldatu zen.

2021-2022 ikasturtean berriz ekin zitzaion xede-hizkuntzako herrialdeetan prestakuntza eskaintzeari (22), lineako ikastaroekin konbinatuta (1). Eskainitako laguntzak baino eskaera gutxiago aurkeztu ziren.

2022-2023 ikasturtean, xede-hizkuntzaz hitz egiten den herrialdeetako prestakuntza baino ez da eskaini. Eskainitako laguntzak baino eskaera gutxiago aurkeztu dira. Laguntza bakoitza 1.000 eurokoa da gehienez.

134. taula: Irakasleak atzerrian prestatzeko laguntzen bilakaera

Irakasleak	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021*	2022	2023
Haur eta Lehen Hezkuntza	33	29	26	18	26	23	3		3	9
Bigarren Hezkuntza	22	10	11	14	13	12		2	15	7
Hizkuntza Eskola Ofizialak		1	3	2	1	3			4	0
Guztira	55	40	40	34	40	38	3	2	23	16

Iturria: Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzua

Irakasleen hizkuntza-prestakuntzari buruzko datuen ugaritasuna dela eta, datuok xehakatuago jaso dira eranskinean.

8.
erans
kina

4.6. Inklusibitatea eta dibertsitatea**4.6.1. Aniztasunari Erantzuteko Plana**

Aniztasunari erantzuteari buruzko Nafarroako araudi esparrua Hezkuntzako kontseilariaren ekainaren 13ko 93/2008 Foru Aginduan jasotzen da. Foru agindu horrek Nafarroako Foru Komunitateko Haur eta Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan aniztasunari nola erantzun arautzen du.


Aniztasunari Erantzuteko Planak ikasleen aniztasunari erantzuteko neurriak hartzen ditu barnean. Berezi, berariazko hezkuntza beharrak dituzten ikasleei eman behar zaie arreta. Ikasle horiek hezkuntza erantzun irekiak eta malguak beharko dituzte eta, horretarako, ezinbestekoa izanen da behar adina baliabide baliatzea.

Aniztasunari erantzuteko planak xede hauek ditu:

- Ikasle guztien beharrei erantzuna emateko plangintza eta antolaketa erraztea ikastetxeei, eta erabilgarri dauden baliabide pertsonalak lehenestea, ikasleen taldeko edo/eta banako beharren arabera.
- Hezkuntzak aniztasunari ikasgelan erantzun diezaion, lehenetsunak ezartzeko irizpideen zehaztapena gidatzea; hezkuntza erantzun hori hainbat ekintza koordinatuz emanen da (orientazioa, tutoretza, irakasleen, tutoreen eta arloetako irakasleen jarduna, eta irakasle arrunten eta espezializatuen laguntza).
- Atzerritar jatorriko ikasleen eta egoera soziokultural ahulean dauden ikasleen harrerarako eta inklusiorako neurriak eta jarraibideak ezartzea, irakasle taldeak adostutako Harrera Planaren barruan.
- Ikasturtean zehar agertzen ahal diren premia berriei erantzuteko aldaketak sartzea ahalbidetzen duen planifikazioa ezartzea, antolaketa neurri malguak sartuta, irakasle arrunten eta espezialisten esku hartzeak unean uneko beharren arabera moldatu daitezten.
- Aniztasunari emandako erantzuna eraginkorra izan den aztertzeke barne ebaluazioak gidatzea, eta hobetu beharreko alderdiak identifikatzea.

Ikasle horien artean daude hezkuntza premia bereziak (iraunkorrek zein iragankorrek) dituztenak.

159. grafikoa: Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen eta ikasle kopuru osoaren arteko erlazioaren bilakaera ehunekotan



◆ Ikasle guztien artean HPBak dituzten ikasleen ehunekoa

Iturria: Inklusio, Berdintasun eta Bizikidetzaz Zerbitzua


135. taula: Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasle integratuen* ehunekoak desgaitasunaren arabera. Espainia eta Nafarroa. 2021-2022 ikasturtea

Desgaitasun mota	Espainia	Nafarroa
Entzumenekoak	95,4	98,5
Mugimenekoak	87,7	84,8
Adimenekoak	75,4	67,8
Ikusmenekoak	95,5	98,6
AEN	84,1	74,3
Jokabidearen nahaste orokorra	98,3	98,6
Ezintasun anitzak	36,9	20,0
Guztira**	83,8	73,2

* Ikastetxe arruntetan matrikulatuta egon eta ikasgela beste ikasle batzuekin partekatzeaz gain, desgaitasunari edo nahasmendu larriari lotutako hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei dagokie


** 'Desgaitasuna edo nahasmendu larriak dituzten ikasle guztiak' kalkulatzeko, hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak ere sartzen dira, desgaitasunaren arabera banatu gabe
Iturria: Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioa. Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzen estatistika. Estatistikaren eta Azterlanen Zuzendariordetza Nagusia

160. grafikoa: Hezkuntza laguntzaren premia espezifikoak duten Hezkuntza Bereziko* ikasleak, sexuaren, premia motaren eta irakaskuntzaren arabera. Espainia. 2021-2022 ikasturteko datuak



* Ikastetxe espezifikoetako eta ikastetxe arruntaren unitate espezifikoetako Hezkuntza Bereziko ikasleei dagokie
Iturria: Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioa. Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzen estatistika. Estatistikaren eta Azterlanen Zuzendariordetza Nagusia

161. grafikoa: Hezkuntza laguntzaren premia espezifikoak duten Hezkuntza Bereziko* ikasleak, sexuaren, premia motaren eta irakaskuntzaren arabera. Nafarroa. 2021-2022 ikasturteko datuak



* Ikastetxe espezifikoetako eta ikastetxe arrunten unitate espezifikoetako Hezkuntza Bereziko ikasleei dagokie. Ez dago ikaslerik Banatu gabe kategorian
Iturria: Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioa. Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzen estatistika. Estatistikaren eta Azterlanen Zuzendariordetza Nagusia

10. erans kina

136. taula: Hezkuntzako laguntza premia berezia duten ikasle integratuak, sexuaren, premia motaren eta ikastetxearen titulartasunaren arabera. Nafarroa. 2022-2023 ikasturtea

	Itundua		Publikoa		Guztira
	G	E	G	E	
Hezkuntza Premia Bereziak	728	392	1.566	844	3.530
Heltze atzerapena	90	32	187	77	386
Hizkuntzaren eta komunikazioaren garapenaren nahasmendua	685	386	1.425	822	3.318
Ikaskuntzaren nahasmendua	837	805	1.607	1.402	4.651
Arretaren nahasmendua	1.080	423	1.583	543	3.629
Adimen gaitasun handiak	396	323	379	196	1.294
Beste osasun diagnostiko batzuk	110	122	325	350	907
Ikaskuntza-hizkuntzaren ezjakintasun larria	268	226	1.169	949	2.612
Gizarte eta hezkuntza egoera zaugarria	2.041	1.877	8.648	8.259	20.825
Hezkuntza sisteman berandu sartzea	225	243	561	471	1.500
Egoera pertsonalak edo eskola historiarekin loturikoak	424	316	1.538	1.250	3.528

Iturria: Inklusio, Berdintasun eta Bizikidetzaz Zerbitzua

137. taula: Hezkuntzako laguntza premia berezia duten ikasle integratuak, sexuaren, irakaskuntza motaren eta ikastetxearen titulartasunaren arabera. Nafarroa. 2022-2023 ikasturtea

Titulartasuna	Sexua	HH	LH	DBH	Batxilergoa	Lanbide Hezkuntza	Hezkuntza Berezia	Helduak	Guztira
Itundua	G	828	2.089	1.688	301	505	225	0	5.636
	E	583	1.720	1.276	235	278	142	0	4.234
Itundua guztira		1.411	3.809	2.964	536	783	367	0	1.411
Publikoa	G	2.219	6.445	3.479	386	1.634	422	111	14.696
	E	1.850	5.300	2.974	540	969	252	135	12.020
Publikoa guztira		4.069	11.745	6.453	926	2.603	674	246	26.716
Orokorra	G	3.047	8.534	5.167	687	2.139	647	111	20.332
	E	2.433	7.020	4.250	775	1.247	394	135	16.254
Guztira		5.480	15.554	9.417	1.462	3.386	1.041	246	36.586

Iturria: Inklusio, berdintasun eta Bizikidetzaz Zerbitzua

Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen eskolatzea

Ikasle horiek nola eskolatu zehazteko eta, azken finean, ikastean eta parte hartzean oztoporik ez izatea bermatzeko, erabakiak hartzeko prozesu jakin bati jarraitu behar zaio, ziurtatzeko ikaslearen ezaugarrietzat egokiena den hezkuntza erantzuna emanen dela, beti ere testuinguru ahalik eta normalizatuenean.

Oro har, ikaslea ikastetxe arruntean eskolatzea proposatuko da ikaslearen hezkuntza premia bereziei (HPB) ikastetxeetako ohiko baliabideekin erantzuten ahal bazaie (eskolako orientatzailea, pedagogia terapeutikoko irakasleak, entzumeneko eta hizkuntzako irakasleak eta, hala dagokionean, zaintzailea, fisioterapeuta eta NHBBZtik kanpoko laguntzak).

Aldiz, ikaslearen HPBei erantzuteko etengabeko banakako laguntza baldintzak eta ikastetxe arrunt batek ezin eskaini dituen ekintza bereziak behar direnean, ikaslea Hezkuntza Bereziko ikastetxe batean eskolatzea proposatuko da. Hori gertatzen da ikasleak egokitzapen oso esanguratsuak behar dituztenean bere adinaren arabera dagokion curriculum ofizialeko arloetan eta, beraz, uste denean ikastetxe arrunt batean bere gizarteratzea eta ikasketetako lorpenak minimoak izanen direla.

Eskolatzeko modalitateak. Antolaketa aukerak

Bi eskolatzeko modalitate daude. Curriculumaren egokitze maila desberdinei dagozkien, ikasle bakoitzak behar dituen laguntza mota eta mailaren arabera:

- Ohiko ikastetxeko eskolatzeko modalitatea/antolaketa aukerak:
 - Lehentasunezko ikastetxea.
 - Garapenaren nahasmendu orokorrak dituzten ikasleentzako berariazko ikasgelak.
 - Haur eta gazteen eguneko ospitaleko terapia eta hezkuntza programa.
 - Curriculum Bereziko unitateak (CBU).
 - Lanbide Heziketa Bereziko programak (LHB)
- Hezkuntza Bereziko ikastetxeko eskolatzeko modalitatea/antolaketa aukerak:
 - Hezkuntza Bereziko ikastetxearen ordezkoko gela.

- Lanbide Heziketa Bereziko programak (LHB)
- Helduarora Igarotzeko Hezkuntza Programak (HIHP).

4.6.2. Hezkuntzako ekitatea

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak atarikoan ezartzen du aniztasunari arreta ematearen printzipioak oinarritzko hezkuntza guztia gidatu behar duela. Horrela, ikasle guztiei beren ezaugarriei eta beharrei egokitutako hezkuntza emanen zaie.

Ikastetxeetan aniztasunari nola erantzun arautzen duen Hezkuntzako kontseilariaren ekainaren 13ko 93/2008 Foru Aginduak ezartzen duenez, hezkuntza jasotzeko eskubidea gauzatzekoan berdintasuna bermatze aldera, hezkuntza administrazioek konpentsazio izaera duten jarduerak garatuko dituzte egoera ahulean dauden pertsona, talde eta lurralde eremuei dagokienez, eta horretarako beharrezkoak diren baliabide ekonomikoak eta laguntzak emanen dituzte.

138. taula: Irakaskuntza-hizkuntzaren ezjakintasun larria duten ikasleak, irakaskuntzaren eta ikastetxearen titulartasunaren arabera. Nafarroa. 2021-2022

	Guztira	Lehen Hezkuntza	DBH
Guztira	1.473	1.092	381
Ikastetxe publikoak	1.339	1.013	326
Ikastetxe itunduak	134	79	55

Iturria: Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioa. Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzen estatistika. Estatistikaren eta Azterlanen Zuzendariordetza Nagusia

- **Lehen Hezkuntzako ikastetxeak laguntzeko berariazko programa, egoera soziokultural ahulean dauden ikasleei edo/eta sisteman berandu sartutako ikasleei hezkuntza erantzuna emateko**

Egoera soziokultural ahulean dauden ikasleentzako eta sisteman berandu sartutakoentzako laguntza neurriak aniztasunari erantzuteko neurri arrunten osagarriak dira, eta haien berariazko premien arabera.

139. taula: Epez kanpoko matrikula. 2022-2023

Ikasturtea hasi aurretik	Epez kanpo		Guztira	
	AG	D		
DBH	1. maila	91	3	94
	2. maila	74	4	78
	3. maila	61	5	66
	4. maila	95	3	98
	DBH, guztira	321	15	336
Batxilergoa	1. maila	73	11	84
	2. maila	22	8	30
	Batxilergoa, guztira	95	19	114
Ikasturtea hasi ondoren				Guztira

DBH	1. maila			68
	2. maila			42
	3. maila			34
	4. maila			48
	DBH, guztira			192
Batxilergoa	1. maila			41
	2. maila			12
	Batxilergoa, guztira			53
Guztira				695

Iturria: Inklusio, Berdintasun eta Bizikidetzaz Zerbitzua

Ikastetxe jakin batzuek sisteman berandu sartu diren edo/eta egoera ahulean dauden ikasleen kopuru esanguratsua dutenez, ikastetxe horiek irakasle orduz hornitzen ditu Hezkuntza Departamentuak, eta ikastetxeari laguntzen dio curriculum atzerapen handia duten ikasleei eta komunikazio hizkuntza ez dakitenei arreta egokia ematen. Nolanahi ere, premia horiek dituzten ikasleak hartzen dituen ikaskuntza taldeko kide guztiek dute komunikazio hizkuntza erakusteko ardura.

140. taula: Nafarroan gizarte eta hezkuntza egoera desabantailatsuan dauden ikasleak, irakaskuntzaren eta ikastetxearen titulartasunaren arabera. 2021-2022

	Guztira	Lehen Hezkuntza	DBH
Guztira	4.048	2.264	1.784
Ikastetxe publikoak	3.386	1.959	1.427
Ikastetxe itunduak	662	305	357

Iturria: Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioa. Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzen estatistika. Estatistikaren eta Azterlanen Zuzendariordeztza Nagusia

- **Absentismoa eta ikasketak garaiz aurretik uztea**

Aukera-berdintasuna bermatzea xede duen ikuspegi batek hezkuntza sistemako arazo nabarmenen artean ikusi behar ditu absentismoa eta eskola uzte goiztiarra.

Foru Komunitateko Goi Fiskaltzak, Hezkuntzako eta Eskubide Sozialetako departamentuek, ijitoen elkarrekin eta beste elkarte batzuek osatzen dute absentismoaren eta eskola uztearen kontrako departamentu arteko batzordea, eta aldi behin biltzen da helburu hauekin:

- Absentismoaren aurkako protokoloaren jarraipena eta hedapena egitea.
- Horretan batera diharduten zerbitzuen koordinazio sistematikoa errazteko departamentu arteko ekintzak egitea, baliabideak optimizatzeko eta eraginkortasuna irabazteko.
- Toki mailako jardunbide egokiak hedatzea eta sustatzea. Horiek hainbat erakunderen artean egindakoak dira: ikastetxeak, oinarrizko gizarte zerbitzuak, Osasun Departamentua, udalak, etab.
- Absentismoaren gaia lantzeko esku hartzeak ugaritzea, arazo hori hobeki hautemateko.
- Nafarroako absentismoari buruzko datu-bilketa hobetzea Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta DBHn.

Protokoloaren bidez lortutako datuak EDUCari eginiko kontsulta batekin osatzen dira, Haur eta Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikastetxeetako ikasleen lehen hiru hilekoko asistentzia falten berri izateko (ikastetxe publiko zein itunduetan). Eskola ordutegian orduen % 20 baino gehiagotan huts egin duten ikasleen datuak lortu dira (80 falta baino gehiago).

141. taula: Absentismo batzordean jasotako protokoloak

Ikastaroa	1. hiru hilekoa	Ikasturte osoan zehar
2015/2016	44	191
2016/2017	122	126
2017/2018	56	128
2018/2019	146	168
2019/2020	64	129
2020/2021	206	438
2021/2022	207	736
2022/2023	196	542

Iturria: Inklusio, Berdintasun eta Bizikidetzaren Zerbitzua

2022-2023 ikasturteko absentismo datuak jaso dira ondoko taulan, hezkuntza etaparen arabera.

142. taula: Educa/Absentismoaren banaketa, etapen eta mailen arabera. 2022-2023

	Publikoa	Itundua
Haur Hezkuntza	175	27
Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. maila	279	35
Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. maila	260	32
Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. maila	252	33
DBHko 1.a	191	41
DBHko 2.a	100	28
3. eta 4. DBH	104	25
CEP	23	12
Oinarrizko LH	16	35
Guztira	1.400	268

Iturria: Inklusio, Berdintasun eta Bizikidetzaren Zerbitzua

Bestalde, hauek dira EDUCAn falta bat ere izan ez duten ikastetxeak:

143. taula: 0 falta indizea. 2022-2023

EDUCA – 0 falta indizea:		
	Publikoa	Itundua
Haur eta Lehen H.	3	13

DBH + Oinarrizko LH	0	29
---------------------	---	----

Iturria: Inklusio, Berdintasun eta Bizikidetzaz Zerbitzua

Horrela, bada, EDUCAn asistentzia faltarik gabeko ikastetxeen ehuneko handi bat jasotzen da. Badirudi beharrezkoa dela gertakari honen erregistroa hobetzea haren intzidentziaren datu zehatzagoak izateko.

- **Errefortzua, orientazioa eta hezkuntzako laguntza**

Honako hau ezartzen du ekainaren 13ko 93/2008 Foru Aginduak 8. artikuluan: “Ikastetxeak ikasle guztien hezkuntza premia orokorreari eta ikasle bakoitzaren premiei ahalik eta ongien erantzuteko diseinatu, aukeratu eta gauzatu dituen neurriak (curriculum egokitzapenak, antolaketak, neurriak, laguntzak eta errefortzu neurriak) Aniztasunari Erantzuteko Plana izeneko agirian biltzen dira”.

Foru agindu horren 7. artikuluan, bestalde, honako hauek sailkatzen dira hezkuntzako arreta neurrien artean: “Hezkuntza laguntza eta errefortzu programak: taldekatze desberdinak, taldeen bikoizketak, talde malguak, arlo edo irakasgaien errefortzua, eta ezagutzak handitu edo sakontzeko neurriak”.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren atariko tituluan jasotzen denez, ikasleen hezkuntza eta lanbide orientazioa eskubide aitortua da, beharrezkoa baita banakako prestakuntza eta hezkuntza integrala lortzeko, eta ezartzen du kalitate faktorea ere badela, botere publikoen arreta berezia jasoko duena.

Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeetan Hezkuntza eta Lanbide Orientazioa arautzen dituen urriaren 29ko 66/2010 Foru Dekretuak honako hau xedatzen du 1. artikuluan: “Foru dekretu honen xedea da hezkuntza orientazioa arautzea Nafarroako Foru Komunitatean funts publikoak eusten dituen ikastetxeetan, Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan, Lanbide Heziketan, Arte Plastikoetako eta Diseinuko lanbide ikasketetan eta Helduen Hezkuntzan ikasketak ematen dituztenetan”.

Era berean, zera esaten da 2. artikuluan: “Hezkuntza orientazioa kalitate eta hobekuntza elementua da eskola erakundean, eta bere helburua da ikasleen hezkuntza integrala eta banakakoa bultzatzea, haien aniztasunari erreparatu, aholkularitza eta laguntza tekniko emanaz ikasleei, gurasoei edo legezko tutoreei –hezitzaile lehen eta nagusi diren heinean–, ikastetxeei eta irakasleei”.

Hezkuntzako kontseilariaren urtarrilaren 20ko 4/2017 Foru Aginduak (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan diharduten ikasleak ebaluatu, mailaz igo eta haiei tituluak emateko era arautzen duena) honako hau xedatzen du 5.5 artikuluan: “Matrikulazioaren ikasmilako curriculum arrunta egiten duten, baina ikasketa prozesuan aitzina egiteko hezkuntza arreta arruntaz kanpokoak behar duten ikasleei aplikatuko zaie irakasgai batean hezkuntzaren sostengua edo errefortzua emateko neurria. Hezkuntzaren errefortzuan, besteak beste, sartzeko curriculum egokitzapenak egiten ahal dira baliabide material eta sartzeko baliabide arruntez kanpokoak behar dituzten ikasleentzat, bai eta curriculumak aberastekoak ere, adimen gaitasun handiko ikasleentzat, haiek ahalik eta gehien garatzeko”.

Azkenik, Hezkuntzako kontseilariaren apirilaren 19ko 50/2017 Foru Aginduak (horren bidez arautzen da Batxilergoan diharduten ikasleak ebaluatu, mailaz igo eta haiei tituluak emateko era) honako hau xedatzen du 5.5 artikuluan: “Hezkuntzako neurri gisa, aintzat hartzen ahal da Hezkuntza Errefortzua. Horrek sartzeko curriculum egokitzapenak izaten ahal ditu baliabide materialak eta sartzeko baliabide arruntez kanpokoak behar dituzten ikasleentzat, bai eta curriculumak aberasteko egokitzapenak ere, adimen gaitasun handiko ikasleentzat, haiek ahalik eta gehien garatzeko”.

Hizkuntza ez jakitea errefortzuaren eta hezkuntza laguntzaren beharraren adierazlea da. Hurrengo taularen bidez, adierazle horri buruzko datuen bat ikasten ahal dugu.

144. taula: Irakaskuntza-hizkuntzaren ezjakintasun larria duten ikasleak, irakaskuntzaren eta sexuaren arabera. Nafarroa. 2021-2022

	Guztira	Lehen Hezkuntza	DBH
Guztira	1.473	1.092	381
Gizonak	787	582	205
Emakumeak	686	510	176

Iturria: Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioa. Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzen estatistika. Estatistikaren eta Azterlanen Zuzendariordetza Nagusia

- **Adimen gaitasun handiko ikasleak**

Ekainaren 13ko 93/2008 Foru Aginduak honela definitzen ditu gaitasun handiko ikasleak 16. artikuluan: “Ikasle hauentzat ez dira egokiak adinkideen kurtsoko helburuak eta edukiak eta hezkuntza premia bereziak dituzte beren adimen gaitasun handiagatik, edo zenbait ikasgai goiz ikasi dituztelako, edo trebetasun bereziak nahiz sormen handia dutelako zenbait arlotan (arte, musika, matematika, hizkuntza etab.), ikasteko motibazio handiarekin batera, batzuetan”.

Lehen aipatutako Hezkuntzako kontseilariaren urtarrilaren 20ko 4/2017 Foru Aginduak (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan diharduten ikasleak ebaluatu, mailaz igo eta haiei tituluak emateko era arautzen duena) honako hau xedatzen du 5.5 artikuluan: “Matrikulazioaren ikasmailako curriculum arrunta egiten duten, baina ikasketa prozesuan aitzina egiteko hezkuntza arreata arruntaz kanpoko behar duten ikasleei aplikatuko zaie irakasgai batean hezkuntzaren sostengua edo errefortzua emateko neurria. Hezkuntzaren errefortzuan, besteak beste, sartzeko curriculum egokitzapenak egiten ahal dira baliabide material eta sartzeko baliabide arruntez kanpokoak behar dituzten ikasleentzat, bai eta curriculumak aberastekoak ere, adimen gaitasun handiko ikasleentzat, haiek ahalik eta gehien garatzeko”.

Azkenik, Hezkuntzako kontseilariaren apirilaren 19ko 50/2017 Foru Agindu lehen ere aipatuak (horren bidez arautzen da Batxilergoan diharduten ikasleak ebaluatu, mailaz igo eta haiei tituluak emateko era) honako hau xedatzen du 5.5 artikuluan: “Hezkuntzako neurri gisa, aintzat hartzen ahal da Hezkuntza Errefortzua. Horrek sartzeko curriculum egokitzapenak izaten ahal ditu baliabide materialak eta sartzeko baliabide arruntez kanpokoak behar dituzten ikasleentzat, bai eta curriculumak aberasteko egokitzapenak ere, adimen gaitasun handiko ikasleentzat, haiek ahalik eta gehien garatzeko”.

145. taula: Adimen gaitasun handiko ikasleak. 2022-2023

Etapia	Itundua		Publikoa		Guztira
	G	E	G	E	
1HH	9	11	9	5	34
2LH	227	189	184	83	683
3DBH	127	104	122	76	429
4Batxilergoa	28	19	46	30	123
5Lan. H	5		18	2	25
Guztira	396	323	379	196	1.294

Iturria: Inklusio, Berdintasun eta Bizikidetzaz Zerbitzua

146. taula: Adimen gaitasun handiko ikasleak, sexuaren arabera. 2022-2023

Etapa	Itundua	Publikoa	Guztira
Haur Hezkuntza	18	16	34
Lehen Hezkuntza	411	272	683
DBH	249	180	429
Batzilergoa	74	49	123
Lanbide H	23	2	25
Guztira	775	519	1.294

Iturria: Inklusio, Berdintasun eta Bizikidetzaz Zerbitzua

- **Ospitaleratutako ikasleak eta etxeako arreta**

147. taula: Ospitaleratutako ikasleak. 2022-2023

	Haur Hezkuntza	Lehen Hezkuntza	DBH	Derrigorrezko Hezkuntzaren	Guztira
Virgen del Camino ospitaleko arretak	100	133	28		261
Haur eta gazteentzako Eguneko Ospitaleko eta Ospitaleko Unitate Psikiatrikoko arretak		7	46	11	64
Etxeko arretak	6	15	39	11	71
Guztira	106	155	113	22	396

Iturria: Inklusio, Berdintasun eta Bizikidetzaz Zerbitzua

- **Ikastetxe publiko eta itunduentzako laguntza ekonomikoak**

Egoera sozio-ekonomiko ahulean dauden ikasleei arreta emateko laguntza ekonomikoak zirela-eta ikastetxe publiko eta itunduek 6.349.138 euroko zenbatekoa jaso zuten guztira 2022-2023 ikasturtean.

148. taula: Egoera sozioekonomiko ahulean dauden ikasleei arreta emateko laguntza ekonomikoak. 2022-2023

Epealdia/Xedapena Ebazpena	Ikastetxe onuradunak		Ikasle onuradunak		Guztira
	Haur eta Lehen	Bigarren Hezkuntza	Haur eta Lehen	Bigarren Hezkuntza	
560/2022 Ebazpena Ikastetxe publikoak (1)	4.806	667.782	9.826	4.806	
361/2022 Ebazpena Ikastetxe itunduak (2)	3.504 ordu 109 ikastetxe				4.665.617,97

482/2022 Ebazpena Ikastetxe itunduak (2)	264 ordu 21 ikastetxe		385.205,71
615/2022 Ebazpena Ikastetxe itunduak (2)	82 ordu 2 ikastetxe		76.213,70
41/2023 Ebazpena Ikastetxe itunduak (2)	25 ordu		30.962,88
398/2021 Ebazpena Ikastetxe itunduak (3)	58	1.883	479.995,53
Ijitoen Idazkaritza Fundazioa (5)			43.360
Guztira			6.349.138

(1) Egoera sozioekonomiko ahulean dauden ikasleei laguntzeko ikastetxe publikoei esleituriko dirulaguntzak (jantokirako laguntzak kontuan hartu gabe)

(2) Hezkuntza laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleei laguntzeko profesionalen orduak kontratatzeko esleipena, dela hezkuntza premia bereziak dituztelako, dela gizarte egoera ahulean daudelako

(3) Ikastetxe itunduei esleitutako laguntza ekonomikoak, egoera sozioekonomiko ahulean dauden ikasleen ekipamendurako eta jantokirako

(4) Ikastetxe itunduentzako laguntza ekonomikoen esleipena, egoera sozioekonomiko ahulean dauden ikasleen ekipamendurako eta jantokirako. Epe berezia

(5) Sinaduraren zain

Iturria: Inklusio, Berdintasun eta Bizikidetzaz Zerbitzua

- **Bekak eta ikasteko laguntzak**

Nafarroako Gobernuaren laguntza osagarri orokorrak

Laguntza hauek Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusiak emandako irailaren 6ko 398/2022 Ebazpenak arautzen ditu. Ebazpen horrek derrigorrezko ikasketen ondoko unibertsitateaz kanpoko ikasketak egiten dituzten ikasleentzako beken deialdi orokorra onetsi du, 2022-2023 ikasturterako, eta ondoren zuzendu egin da Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusiaren urriaren 4ko 441/2022 Ebazpenaren bidez.

Erdi eta goi mailako ikasketetarako Nafarroako Gobernuaren laguntza osagarriak 881 ikaslek jaso dituzte, 720.623,60 euroko guztizko zenbatekoarekin.

149. taula: Erdi eta goi mailako ikasketetarako Nafarroako Gobernuaren deialdi orokorreko bekak

	16/17	17/18	18/19	19/20*	20/21	21/22	22/23
1. Eskariak, guztira (ikasleak)	9.165	8.950	9.614	3.988	4.232	3.574	3.939
2- Emandako bekak, guztira	5.254	5.358	4.974	1.674	1.557	1.232	881
3- Emandako zenbatekoa, guztira	8.739.430	8.374.237	8.054.931	1.184.371	1.061.573,86	1.046.642,94	720.623,60


4-Ordaindutako zenbateko osoa	4.577.932	3.834.894	3.897.977	577.894	457.204,76	580.396,77	415.912,72
-------------------------------	-----------	-----------	-----------	---------	------------	------------	------------

2019-2020 ikasturteko datuak unibertsitateaz kanpoko ikasleei dagozkie

Iturria: Ikastetxeen Finantzaketaren, Ikasketetarako Laguntzen eta Zerbitzu Osagarrien Zerbitzua



162. grafikoa: Erdi eta goi mailako ikasketetarako Nafarroako Gobernuaren deialdi orokorreko beken bilakaera



Iturria: Hezkuntza Departamentuko Ikastetxeen Finantzaketaren, Ikasketetarako Laguntzen eta Zerbitzu Osagarrien Zerbitzua eta Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuko Unibertsitateko Zerbitzua

Hezkuntza Berezirako berariazko laguntzak

MEFP laguntzak

150. taula: Hezkuntza premia berezietarako MEFP laguntzen bilakaera

	16/17	17/18	18/19	19/20	20/21	21/22	22/23
Eskaera kopurua	1113	1170	1.196	1.269	1.190	1.103	1.096
Emandako dirulaguntzen kopurua	720	807	861	766	551	544	596
Laguntzen zenbatekoa	631.535,76	733.729,43	803.522,10	676.429,60	472.572	492.640,59	606.189

Iturria: Ikastetxeen Finantzaketaren, Ikasketetarako Laguntzen eta Zerbitzu Osagarrien Zerbitzua

151. taula: MEFPk, derrigorrezko irakaskuntzetan, Haur Hezkuntzan eta Hezkuntza Berezian, ikasketetarako emandako beken eta laguntzen bilakaera

Urtea	Ikasle	Beken eta laguntzen kopurua	Zenbatekoa
2011/12	1.064.217	1.102.366	105.738,1
2012/13	156.439	200.811	72.543,3
2013/14	139.858	190.174	77.551,3
2014/15	121.454	178.989	85.972,5
2015/16	119.542	119.542	95.372,3
2016/17	142.504	142.505	98.109,0
2017/18	147.717	147.717	106.374,7
2018/19	184.941	184.941	118.648,5
2019/20	191.196	191.195	130.378,9
2020/21	224.383	224.383	128.300,2
2021/22	231.686	231.686	129.671,1

Zenbatekoak eurotan (milakotan)

Iturria: Beken eta Ikasketetarako Laguntzen Estatistika. Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioa

152. taula: Hezkuntza Berezirako Nafarroako Gobernuaren beka eta laguntzak. 2022-2023

	Eskabideak		Emakidak		Emandako zenbatekoa, guztira (eurotan)
	G	E	G	E	
Haur Hezkuntza	151	57	88	32	106.637,80
Lehen Hezkuntza	202	122	85	43	125.030,83
Hezkuntza Berezia	118	45	65	28	80.487,98
DBH	46	26	16	8	22.059,72
LHBHZ	43	26	26	15	47.636,90
Batxilergoa	6	0	2	0	2.980,80
Erdi/Goi Maila	7	4	2	1	2.887
HBP	14	11	8	6	9.557
CBU	9	3	2	0	3.316
Garapenaren	41	10	20	9	19.561
Guztira	637	304	314	142	420.155,03

Iturria: Inklusio, Berdintasun eta Bizikidetzeta Zerbitzua

4.6.3. Irakasle lanbidearen garapena

Urteak joan urteak etorri irakasle lanbidearen kontzeptualizazioa aldatuz eta garatuz joan da, gizartea bera ere aldatuz joan den era berean. Irakasleek beren gaitasun guztiak garatu behar

dituzte gizarte aldakor honetan erronkei aurre egiteko gauza izateko eta irakasle lanbidea behar horiei estuki lotuta dago.

Hori dela eta, Prestakuntza Atalaren helburu nagusia irakasleen benetako beharrekin bat datozen eta horiei erantzuten dieten ikaskuntza aukerak eskaintzea da. Ikaskuntza aukera horiek arlo humanistikoari, zientifikoari, pedagogikoari, didaktikoari zein emozionalari lotutako kontuak lantzeko sortu dira, inoiz ahaztu gabe, sarean –lankidetzan– aritzeak ematen diola koherentzia irakasle lanari.

Irakasleak prestatzeko urteko plana egitean, irakasle jarduteko behar diren zortzi gaitasunak ere kontuan hartzen dira:

- Gaitasun pertsonala eta soziala
- Gaitasun pedagogiko-didaktikoa
- Gaitasun digitala
- Komunikazio eta informazio gaitasuna
- Hezkuntza berrikuntzarako eta ikerketarako gaitasuna
- Eskola antolaketarako eta kudeaketarako gaitasuna
- Curriculum eta diziplina gaitasuna
- Talde lanerako gaitasuna

4.6.4. Berrikuntza sareak

Sarean aritzearen helburua ikastetxeak elkarren artean harremanetan jartzea da, haien ikastetxe-proiektuak elkarri azaldu eta jardunbide egokiak parteka ditzaten. Sareak helmuga berera begira elkarlanean aritzea eskatzen du eta, bide horretan, pertsona bakoitzak, bere errealitateak, bere ezagutza ekartzen du, gainerakoena osatzeko. Kontua ezagutza eraikitzea da, hurbileko zein urruneko pertsonekin; egoera desberdinetan bestelako pertsonengandik ikastea; hurbilenekoa gainditzen duena ezagutzea eta aintzat hartzea.

Gaiak askotarikoak izaten ahal dira, ikastetxe bakoitzaren interesak diren bezalaxe. Hori lortzeko, sareek erreferentzia esparru bat sortzea dute helburu eta, gainera, euskarri teknikoa, prestakuntzakoa eta, hala behar izanez gero, ekonomikoa eskaintzen dute, tokiko zein estatu mailako erakundeen laguntza baitute horretarako.

4.7. Bizikidetzeta eta hezkidetzeta

Hezkuntza Departamentuak, Berdintasun eta Bizikidetzeta Atalaren bidez, Hezkidetzeta eta Bizikidetzeta oinarritutako Tratu Ona Nafarroako unibertsitateaz kanpoko hezkuntza sistemako ikastetxeetako ikaskuntza testuinguruetan sartu nahi ditu. Horren gauzapena da irakasleei eta ikastetxeei lagun egiteko eta prestakuntza prozesuak garatzeko proposamena, kalitate hobekuntza horiek ikastetxeen eta ikasgelen kudeaketan sartzeko.

4.7.1. Antolaketa

Hezkuntza Departamentuaren egitura organikoa 2019ko urriaren 30eko 267/19 Foru Dekretuan jaso bezala aldatu zen. Egitura horren barruan dago Inklusio, Berdintasun eta Bizikidetzeta Zerbitzua, zeinak bi atal baititu; horietako bat da Berdintasun eta Bizikidetzeta Atala, bi bulego osatua: Baterako Hezkuntza eta Bizikidetzeta.

Baterako Hezkuntzaren Bulegoa hezkidetzan espezialista diren irakaslez osatuta dago, eta bulegoko burutza eta aholkularitzak ditu. Bizikidetzeta Bulegoa ere irakasle espezialistek eta gizarte langile batek osatzen dute, eta bulegoko burutza eta aholkularitza espezifikoa ditu.

Bi bulegoek helburu espezifikoa dituzte, bai eta helburu komunak ere. Era berean, nabarmendu behar da lankidetzan aritzen direla Inklusio, Berdintasun eta Bizikidetzeta Zerbitzuaren gainerako atalekin, bai eta, departamentu arteko batzordeetan, beste departamentu batzuekin ere.

4.7.2. Araudia

SKOLAE eta LAGUNTZA izeneko proposamenak irakasleek duten arduraren ondorio dira, ikasleek hainbat gaitasun gara ditzaten bultzatu behar baitute, besteak beste gaitasun soziala eta zibikoa, hau da, berdintasunean bizitzen ikastea eta tratu onerako hezkuntza emozionala.

Betebeharrak eta gomendioak jasotzen dituzten arauak, planak eta dokumentuak ugariak dira, eta lan aktiboa egiteko eskatzen diete Hezkuntza Departamentuari eta ikastetxeei, hezkidetzan eta, bizikidetzari dagokionez, tratu onean oinarritutako eskola eredua lortzeko.

- **Bizikidetz**

Eskolako bizikidetzaz azpimarratzearen garrantzia eta egokitasuna jasota dago hainbat arau-esparrutan. Hauek dira esanguratsuenak:

- 3/2020 Lege Organikoa, abenduaren 29koa, zeinaren bidez aldatzen baita Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa.
- 8/2013 Lege Organikoa, abenduaren 9koa, hezkuntza kalitatea hobetzeari buruzkoa.
- 95/2022 Errege Dekretua, martxoaren 1ekoa, Lehen Hezkuntzako gutxieneko irakaskuntzak eta antolamendua ezartzen dituena
- 157/20232 Errege Dekretua, martxoaren 1ekoa, Lehen Hezkuntzako gutxieneko irakaskuntzak eta antolamendua ezartzen dituena
- 47/2010 Foru Dekretua, abuztuaren 23koa, Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publiko eta pribatu itunduetako ikasleen eskubide eta eginbeharrei eta ikastetxe horietako elkarbizitzari buruzkoa.
- 204/2010 Foru Agindua, abenduaren 16koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako eta pribatu itunduetako bizikidetzaz arautzen duena.
- 57/2014 Foru Dekretua, uztailaren 2koa, abuztuaren 23ko 47/2010 Foru Dekretua aldatzen duena. Dekretu hori Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publiko eta pribatu itunduetako ikasleen eskubide eta eginbeharrei eta ikastetxe horietako elkarbizitzari buruzkoa da.
- 61/2022 Foru Dekretua, ekainaren 1ekoa, Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzaren etapako irakaskuntzen curriculumaz ezartzen duena.
- 67/2022 Foru Dekretua, ekainaren 22koa, Nafarroako Foru Komunitateko Lehen Hezkuntzaren etapako irakaskuntzen curriculumaz ezartzen duena.

Lege-arau horietan jasota dauden jarraibideek garrantzi berezia ematen diote bizikidetzaz prestakuntzaren, prebentzioaren eta esku hartzearen bidez ikasteari, eta nabarmendu egiten dute oso garrantzitsua dela gatazkak modu baketsuan ebaztea eta eskola jazarpenaren alorreko ekintzak garatzea. Aipatutako arauen multzoan, intereseko alderdiak jasotzen dira eskolako bizikidetzaren inguruan, hala nola bizikidetzaz araudia, arduradunak, bizikidetzaz batzordea eta bizikidetzaz planak. Hori guztia, bizikidetzaz oinarritutako tratu ona sustatzeari begira.

Horretan guztian pisu garrantzitsua dute ikastetxeen barneko egiturek eta kanpokoek. Zehazki, Hezkuntza Departamentuaren esparruan, nabarmentzekoa da Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuaren Bizikidetzaz Atalak eginiko lana, bai eta Bizikidetzaren arloko Aholkularitza Bulegoarena ere, koordinatuta lan egiten baitute, batez ere zailtasun bereziko kasuetan.

- **Hezkidetz**

Era berean, araudiak hezkidetzaz oinarrituta eta generoari lotutako estereotipoak eta mandatuak gaindituta pertsonen arteko berdintasunaren ikaskuntzaren alde egitea eskatzen eta sustatzen du. Behean aipatzen den araudia azpimarratu behar da, SKOLAE programako ekintzak

bermatzen baititu, bai eta Hezkuntza Departamentuko Berdintasun eta Bizikidetzatza Atalaren hezkidetzatza planaren helburu estrategikoak ere.

Lege esparru moduan duten garrantziagatik, honako hauek aipatzen ahal dira:

- LOMLOE, hots, 3/2020 Lege Organikoa, abenduaren 29koa, zeinaren bidez aldatzen baita Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa.
- 72/2021 Foru Dekretua, abuztuaren 18koa, zeinaren bidez hezkidetzatza arautzen baita Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza sistemako ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan.
- 92/2021 Foru Agindua, irailaren 30ekoa, Hezkuntzako kontseilariak emana, zeinaren bidez onesten baita Hezkuntza Departamentuaren Hezkidetzatza Plana, 2021-23 aldirako.
- 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero indarkeriaren aurka babes integrala emateko neurriei buruzkoa.
- 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eragingarrirakoa.
- 15/2022 Legea, uztailaren 12koa, integrala tratu-berdintasunerako eta diskriminazio ezerako.
- 3/2018 Foru Legea, apirilaren 19koa, Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legea aldatzeko.
- 103/2016 Foru Dekretua, azaroaren 16koa, sexu- eta ugalketa-osasunaren arloko prestazioak ezartzen dituena.
- 8/2017 Foru Legea, ekainaren 19koa, LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialari buruzkoa.
- 17/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzkoa.

Hezkuntza arloko berariazko araudiak bezala berdintasun arlokoak ere beharrezkotzat eta garrantzitsutzat jotzen dute hezkuntza sisteman esku hartzea, pertsonen arteko aukera eta tratu berdintasunean aitzina egiteko, sexu- edo genero-identitatea edozein izanik ere.

Horregatik, Hezkuntza Departamentuak bultzada eman behar du, berdintasuna sustatzen, jokabide eta eduki sexistak saihesten eta estereotipoen transmisioa murrizten duten balioak eta ekintzak gara daitezten. Halaber, giza eskubideak eta gizonen eta emakumeen arteko tratu eta aukera berdintasuna sendotzeko balioko duten helburuak planifikatu behar ditu. Sexuen desberdintasuna balioetsi eta errespetatzeko proposamenak garatu behar ditu, eta gaitasun afektiboak indartzekoak esparru guztietan eta pertsonen arteko harremanetan.

Gobernuko departamentuek berariazko plan sektorialak egin dituzte berdintasunaren arloko foru legeen ondorioz; zehazki, Hezkuntza Departamentuak berdintasunaren alde egin behar du curriculumaren edukian, ikasmaterialetan, ikastetxeen egiturekin zerikusia duten neurrietan, irakasleen gaikuntzan eta ikuskatzailetzaren inplikazio gero eta handiagoan. Gainera, bermatu behar du berdintasunaren arloko arduradun bana izan dadin ikastetxeetan; hezkuntza ingurunean genero indarkeriari aurre egiteko neurriak eta politikak aurreikusi behar ditu, eta prebentzio neurriak garatu behar ditu eskola komunitateari, zerbitzuetao langileei eta gurasoen elkarteei zuzenduta.

4.7.3. Xedeak

Bizikidetzatza arloko tratu onaren ikuspegiak, zeina Bizikidetzatza Bulegoaren helburuen oinarrian baitago, eta generoaren eta hezkidetzaren gaineko ikuspegi kritikoak, zeina Baterako Hezkuntzaren Bulegoaren helburuen oinarrian baitago, bi noranzkotan eragiten diote elkarri, eta bi bulegoetarako helburu komunak ezartzen dira.

Baterako Hezkuntzaren Bulegoaren eta Bizikidetzatza Bulegoaren jardunaren xedea da helburu komun batzuk lortzea, hala nola eskolan indarkeria mota oro prebenitzea, arreta berezia jarritz prebentzio espezifikoa eta eskola jazarpenaren arazoari aurre egitean, ikasle eta irakasleen

arteko tratu onen esperientzian eta balioan, hezkuntza emozionalean, banako eta taldeko garapenaren oinarri bezala, eta hezkidetzan, horren bidez bermatuko baita ikasleek beren bizi proiektuak berdintasunean eta indarkeriarik gabe gara ditzaten, ingurunean dituzten despaketotasunak identifikatzeko eta eraldatzeko gaitasunarekin.

Helburuak:

- Generoaren ikuspegia eta bizikidetzan oinarritutako tratu onaren eta hezkuntza emozionalaren ikuspegia txertatzen dituen prestakuntza modua partekatzea.
- Jarduketak koordinatzea bi bulegoetan hezkidetzaren ikuspegitik.

Berdintasun eta Bizikidetzat Atalak bidea erraztu nahi die ikastetxeei, ikastetxeek hezkidetzako ikastetxe inklusiborantz eraldatzean eragina duten programak integra ditzaten.

Xedea:

- Atalaren programen jarraipena eta aholkularitza koordinatzea, biak ikastetxeetan sar daitezten, eta Inklusiorako Bulegoaren Hezigarri programarekin ere koordinatzea.

- ***Bizikidetzat. Helburuak***

Bulego hau, funtsean, hezkuntza komunitateari prestakuntza eta aholkularitza emateaz arduratzen da, bai bizikidetzat plana ezartzean, bai ikastetxeen ongizate psikosozialean eragina duten egoerei heldzean, batez ere eskola jazarpenari eta bizikidetzat hainbat arrazoiengatik alda dezaketen egoerei heldzean, eta, besteak beste, hauek identifikatzen ditu: sexu aniztasuna, araz kanpoko edozein adierazpidetan; ideagintza eta jokabide suizidak; galerak eta dolua; eta, hitz batean, ezinegona sortzen duen edozein egoera.

Bizikidetzat Bulegoaren lanak ikuspegi proaktibo bat du oinarri. Horren bidez, bizikidetzarako hezkuntzari jartzen zaio arreta, bai eta, ondorioz, hezkuntzaren testuinguruan, parte hartzea, errespetua eta gatazken konponketa baketsua sustatzeko ekintzen hezkuntza ahalmenari ere. Horrekin guztiarekin bat etorriz, helburu hauek lortu nahi dira:

- Jarraitzea Laguntza programaren pilotajea egiten, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasgeletan tratu ona sustatzea eta hezkuntza emozionala garatzea oinarritzat hartuta.
- Bigarren Hezkuntzako etapan Laguntza programaren pilotajea egiten jarraitzea.
- Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan Laguntza programa sustatzea, hala nahi badute, Aholkularitzaren bidez lagun eginez.
- Ikastetxean prestakuntza ematea, bizikidetzat planak berrikusteko.
- Irakasle jardunean laguntzea, prestakuntza moduluen bidez (ikastetxeoak eta espezializatzeoak).
- Esku hartzea eta lagun egitea Aholkularitzaren aholkuak behar diren kasuetan.
- Sareko ekintza komunitarioak sustatzea.
- Nafarroako Foru Komunitateko bullying eta cyberbullying-ari buruzko ikerketa epidemiologikoa egin da, biktima, erasotzaile eta behatzaile diren ikasleen prebalentzia zein den jakiteko (Lehen Hezkuntzako azken ziklotik Lanbide Heziketara arte). Behin ikerketa eginda, esku hartzeko ardatzak eta horien inplementazioa zehaztu behar dira, lortutako datuak erabiliz.
- Jazarpenaren eta ziberjazarpenaren prebentzioa sustatzea.
- Egonezinak hautematea eta aztertzea, hala nola, besteak beste, babesik eza, genero indarkeria, transexualitate kasuak, galera edo/eta dolu egoerak, buruaz beste egiteko jokabidea.

- **Hezkidetzaren Helburuak**

Pertsona guztien garapen osoa lortzeko, eta ikasleak prestatzeko, aniztasuna errespetatuko duen gizarte berdinzalea susta dezaten, Hezkuntza Departamentua SCOLAE hezkidetzaren programa garatzen ari da. Ikastetxeen eraldaketa prozesu sakona sustatzen du, bai curriculumean, bai kudeaketan eta pertsonen arteko harremanetan.

Baterako Hezkuntzaren Bulegoa hezkidetzaren arloko prestakuntzaz eta aholkularitzaz arduratzen da SKOLAE programari atxikita dauden ikastetxe guztietan. Alde batetik, prestakuntza prozesu osoa taxutzen du eta ikastaro teoriko-praktikoetako banakako tutoretza koordinatzen du; bestetik, ikastetxeetan hezkidetzaren inplementatzeko prozesuetan aholkularitza, prestakuntza eta jarraipen lanak egiten ditu.

Aurreko ikasturteetan garatuz joan diren helburuak sistematizatzen eta sendotzen ari dira 2022-2023 ikasturtean, eta zenbait helburu berri gehitu dira, hezkidetzaren kultura finkatzen laguntzeko, hala ikastetxeetan nola Hezkuntza Departamentuan:

- Hezkidetzako eraldaketa prozesuak koordinatzea eta haien jarraipena egitea ikastetxeetan, SKOLAE SAREEN bitartez.
- Tutoretzapeko prestakuntzaren bi maila eskaintzea SKOLAE programara bildutako irakasle guztientzat: hezkidetzari buruzko hastapen maila, eta hezkidetzako curriculum-programazioan sakontzeko maila.
- Tutoretzapeko prestakuntza eskaintzea programan hasi berri diren sustapen-taldeetako irakasleentzat, ikastetxearen beharrezko diagnostikoa eta haren hezkidetzaren identitatearen plana egin behar baitituzte.
- Baliabideak eskaintzea aurreko ikasturteetan programan hasi ziren sustapen-taldeentzat, beren ikastetxeetan hezkidetzaren identitatearen plana garatzen eta SKOLAE lantaldeak dinamizatzen ari baitira.
- Oraingo ikasturtean hezkidetzako online tutoretza taldea osatzen duten irakasleei prestakuntza ematea.
- 2023-2024 ikasturtean hezkidetzako online tutoretza taldean arituko diren irakasle berriei prestakuntza ematea.
- Programa garatzen ari diren ikastetxeetako familiei prestakuntza ematea, hala eskatzen badute.
- Programari atxikitako ikastetxeentzat ebaluazio gida bat sortzeko prozesua bukatzea.
- Genero eta hezkidetzaren ikuspegia finkatzea Berdintasun eta Bizikidetzaren Atalaren jarduketetan.
- Hezkuntza Departamentuko Ikuskapen Zerbitzuarekin elkarlanean jarraitzea, araudia betetzen ez duen ikastetxerik izan ez dadin.
- Nafarroako Gobernuak beste erakunde batzuekin koordinatzea eta elkarrekin jarduketak garatzea, batez ere Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuarekin (NOPLOI) eta Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin (NUP).
- Bizikidetzaren Bulegoarekin koordinaturik SKO-LAGUN jardunaldiak antolatu eta garatzea, maiatzean eta ekainean, Iruñean, Tuteran eta Bertzen.

4.7.4. Bizikidetzarako ekintzak

Helburu horiek lortzeko tresna garrantzitsuenetako bat irakasleen prestakuntza da, bere bi alderdietan: alde batetik, bizikidetzaren hobetzeko eta eskola-jazarpenera prebenitzeko, identifikatzeko eta aurre egiteko gaikuntza eta, bestetik, baterako hezkuntzako ekintzak gauzatzeko gaikuntza, eskolako etapa guztietan.

- ***Bizikidetzaren arloko aholkularitza: prestakuntza ekintzak***

Laguntza deritzon programa da Hezkuntza Departamentuak bizikidetza eta, bereziki, jazarpenaren eta ziberjazarpenaren prebentzioa hobetzeko abian jarritako erantzuna. Programak hurrengo ikasturteetarako dauzkan helburuetako bat da jazarpenaren prebentzio kontzeptua gainditzea, eta jarduna tratu onaren sustapenerantz eta ongizate emozionalaren garapenerantz bideratzea, jokabide bortitzak saihesteko helburu gehituarekin. Prestakuntza hurbila ildo horretatik doa, funtsezko garrantzia ematen dio hezkuntza sozio-emozionalari, eta moduluak eta Laguntza programan parte hartzea eskaintzen ditu, aitzina egiteko ikastetxearen eraldaketan. Funtsezkoa da ikastetxeko bizikidetzaren diagnostikoa modulu nagusi moduan mantentzea, eta, eginda daukaten ikastetxeei dagokienez, beste urrats bat ematea eta bizikidetza plana birpentsatu ahal izatea. Modulu zentral hori izan ezik, prestakuntza eskaintzaren gainerakoa independenteak baina elkarren osagarriak diren zenbait modulutan antolatuko da. Ikastetxeko prestakuntza, nagusiki, bizikidetza arloko prestakuntzan bidea egina duten ikastetxeei ahalbidetuko zaie.

Zehazkiago, 2022-2023 ikasturtean gai hauei heldu zaie:

- Hezkuntza-komunikazio emozionalki erresonantea.
- Uleretzea lotzeko: atxikimendua, lotura eta erresilientzia. Tutore amultsuaren hiru zutabeak.
- Bitartekaritza ikastetxeetan.
- Zirkulu errestituratuak.
- Jazarpen kasuei heltzea. Ziberbizikidetza. Sare sozialen erabilera.
- Haur Hezkuntza eta bizikidetza.
- Emo tresnak.
- Irakasleen ongizatea.
- Laguntza jardunaldiak.
- Zuzendari eta irakasle taldeen gainbegiratzea eta coaching prozesuak.
- Transexualitatea.
- Jokabide suizida.

LAGUNTZA irakasleak prestatzeko programa espezifiko bat da, eta xede du irakasleei prestakuntza ibilbide bat eskaintzea, bizikidetza sustatzeko eta hezkuntza jardunbidean egokitzen laguntzeko jarduketak abian jar daitezzen. Gainera, programak tratu ona eta hezkuntza emozionala sustatu nahi ditu, ikasgelan egonezin eta indarkeria egoerak prebenitzeko antidoto moduan. Horregatik, programaren helburua da ikastetxeak jazarpen egoerei tratamendu espezifikoak ematek haratago joatea, eta berdin arteko partaidetza, lankidetzak, errespetua eta laguntza ekarriko dituzten ekintzak abiaraztea. Aurrerantzean, ikastetxeek, aurrez hautemandako beharren arabera, sarbidea izanen duten zenbait modulu azalduko dira.

153. taula: 2022-2023 ikasturtean LAGUNTZA programara batu diren Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeak

Laguntza ikastetxeak	Herria
Zelandi HLHIP	Altsasu

La Cruz HLHIP	Allo
San Migel HLHIP	Agoitz
Beire HLHIP	Beire
Ricardo Baroja HLHIP	Bera
Río Arga HLHIP	Berbintzana
Mendialdea II HLHIP	Berriozar
Dos de Mayo HLHIP	Castejón
Cerro de la Cruz HLHIP	Cortes
Auzperri HLHIP	Aurizberri
San Donato HLHIP	Etxarri Aranatz
D ^a Álvaro Álvarez HLHIP	Faltzes
Ibarberri HLHIP	Lekunberri
Doña Blanca de Navarra HLHIP	Lerin
San Benito HLHIP	Miranda Arga
Raimundo Lanas HLHIP	Murillo el Fruto
Obanos HLHIP	Obanos
Otsagabia HLHIP	Otsagabia
Príncipe de Viana HLHIP	Erriberri
Amaiur Ikastola HLHIP	Iruña
Buztintxuri HLHIP	Iruña
Doña Mayor HLHIP	Iruña
Hegoalde Ikastola HLHIP	Iruña
Nicasio Landa HLHIP	Iruña
Paderborn Victor Pradera HLHIP	Iruña
San Francisco HLHIP	Iruña
Ximénez de Rada HLHIP	Arrada
Alfonso X el Sabio HLHIP	San Adrián
Hermanas Uriz Pi HLHIP	Sarriguren
Joakin Lizarraga HLHIP	Sarriguren
Griseras HLHIP	Tutera
Félix Zapatero HLHIP	Valtierra
Gloria Larrainzar Eugi HLHIP	Zubiri

Iturria: Berdintasun eta Bizikidetzatza Atala

154. taula: 2022-2023 ikasturtean LAGUNTZA programara batu diren DBHko ikastetxeak

Laguntza ikastetxeak	Herria
Agoitz DBHI	Agoitz

Mendaur DBHI	Doneztebe
Doña Álvaro Álvarez HLHIP	Faltzes
Amazabal BHI	Leitza
Ibarberri HLHIP	Lekunberri
Marqués de Villena BHI	Martzilla
Otsagabiko DBHI	Otsagabia
Erriberri P. de Viana HLHIP	Erriberri
Biurdana BHI	Iruña
Iparralde DBHI	Iruña
Iturrama BHI	Iruña
Mendillorri BHI	Iruña
Padre Moret-Irubide BHI	Iruña
Iñaki Ochoa de Olza DBHI	Iruña
San Adrián Ega BHI	San Adrián
Sarriguren BHI	Sarriguren
Valle del Ebro BHI	Tutera
Zizur BHI	Zizur Nagusia

Iturria: Berdintasun eta Bizikidetzaren Atala

Prestakuntza ekintzen balantzea

Prestakuntza programak garrantzi handia du, eta begi onez ikusten dute irakasleek. Horren adierazgarri dira egindako jardueren balorazio positiboak eta jarduera horietan guztietan irakasleek izandako bertaritze eta partaidetza handia.

Ikasturte honetan prestakuntza ekintzak antolatu dira etapa guztietan. Horrek esan nahi du irakasle ugari jaso dutela bizikidetzaren inguruko prestakuntza, jardunaldien, mintegi orokorren, ikastaroen, informazio saio orokorren, ikastetxeko informazio saioen, ikastetxeko mintegien eta tailerren bidez.

Aurten prestakuntza hori LAGUNTZA programako prestakuntza espezifikoarekin osatu da eta, ezarri den ikastetxeetan, oso balorazio positiboa eman diote esperientziari. Hori dela eta, ikastetxe horietako irakasleen prestakuntza indartzeaz gain, programa gero eta ikastetxe gehiagotan eta etapa guztietan ezartzen laguntzea aurreikusita dago.

Gainera, eta prestakuntza ekintza horien osagarri, promozio eta orientazio lanak egin dira ikastetxeetan bizikidetzaren planak aplikatzeko, horien zehaztapenak eta urteko memoriak egiteko eta aurrez aurreko, telefono edo e-mail bidezko aholkularitza eskaintzeko, hala zuzendaritza taldeei nola bizikidetzaren batzordeei edo/eta bizikidetzako arduradunei.

155. taula: Irakasleak prestatzeko 2022-2023 ikasturteko eskaintza

	G	E	Zenbat irakasle hartu duten parte
Jardunbide errestitutiboak Haur eta Lehen Hezkuntzan: hitzaren zirkulua	5	20	25
Eskola bitartekaritza	3	18	21
Hezkuntza emozionala eta irakasleen ongizatea	18	75	93

Ikasgelako gatazken konponketa	11	36	47
Familiekiko komunikazioa gainbegiratzea eta hobetu beharrekoak detektatzea	22	78	100
Ospitaleko eta etxeko hezkuntza arretako irakasleen gainbegiratze saioa	2	10	12
Emotresnak	13	32	45
Hezkuntza emozionala (Bigarren Hezkuntzako pilotajea. 1. mailako talde eragilea)	1	20	21
Hezkuntza emozionala (Bigarren Hezkuntzako pilotajea. 2. mailako talde eragilea)	8	39	47
Hezkuntza emozionala (Bigarren Hezkuntzako pilotajea. 1. mailako irakasle taldea)	133	257	390
Hezkuntza emozionala (Bigarren Hezkuntzako pilotajea. 2. mailako irakasle taldea)	145	290	435
Ikastetxeko bizikidetzaren azterketa	2	9	11
Diziplina positiboa	42	127	169
Lidergo sortzailea	10	51	61
Irakasleak erdigune ekologia emozionalaren eremuan	88	293	381
Gatazken kudeaketa positiboa Haur Hezkuntzan. Laguntza programako 2. maila	9	140	149

Iturria: Berdintasun eta Bizikidetzeta Atala

Aurten, aholkularitzak jarreraren eta emozioen esparruan prestakuntza beharrak hauteman ditu bizikidetzaren arazoak dituzten ikastetxeetan, eta hainbat ikasle gizarte bazterketako egoeran, baina modu positiboan heldu zaie. Irakasleei estresa sortzen dieten egoerei buruzko prestakuntza eta orientazio ekintzak garatu dira (galerak, doluak, suizidioa, etab.).

- **Bizikidetzaren arloko aholkularitza: aholkularitza eta esku hartzea**

Bizikidetzaren arloko Aholkularitza Bulegoak aholkularitza, prebentzio, kudeaketa eta arreta lan garrantzitsua egiten du hezkuntza komunitateko honako egoera hauek direla-eta: jazarpena edo/eta ziberjazarpena; dolua; transexualitatea; genero indarkeria; suizidatzeko ideiak eta saio autolitikoak; gatazkak eta bitartekaritza.

Horretarako, hezkuntzako kudeaketaren esparruko ekintzak egiten ditu eta, bereziki, aholkularitza ematen die ikastetxeei tokian bertan, Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuarekin elkarlanean, eta askotan, beste departamentu batzuekin eta kanpoko baliabideekin koordinatuta (Haur eta Gazteen Osasun Mentala, Gizarte Zerbitzuak, tokiko erakundeak...).


Landutako kasuen kopurua eta tipologia

Azaltzen diren datuek Bizikidetzaren arloko Aholkularitzari esku hartzeko egindako eskaeraren bilakaerarekin dute zerikusia.

Aurreko ikasturteei buruzko datuek errore tarte handia dute, sortuta dauden datu baseei dagozkienak irauli egin direlako eta balitekeelako zenbaitetan bikoiztu izana.


Horregatik, egokiagoztat jo dugu eskaerak urteotan zehar gaiaren arabera izandako bilakaeraren ehunekoak ematea grafikoan.

163 A grafikoa: Bizikidetzaren arloko Aholkularitzak artatutako kasuen ehunekoaren bilakaera gaiaren arabera



Iturria: Berdintasun eta Bizikidetzeta Atala

163 B grafikoa: Bizikidetzaren arloko Aholkularitzak artatutako kasuen ehunekoaren bilakaera gaiaren arabera



Iturria: Berdintasun eta Bizikidetzeta Atala

12.
erans
kina

Grafikoetako datuek ez dute adierazten Nafarroako ikastetxeen errealitatea, gehienetan ahalmen nahikoa baitute hezkuntza inguruneko egoerei erantzuteko. Aitzitik, ikastetxeek, ezohiko

egoeretan, edo barne mailan kudeatzen asmatu ez duten gatazka bat sortu denean, Aholkularitzari esku hartzeko egindako eskaera adierazten dute.

Bizikidetzaren arloko Aholkularitzak badu doako telefono zenbaki bat (900 841 551) hezkuntza komunitateko edozein kidek laguntza eskatu ahal izateko. Helbide elektronikoa bat ere badu (convive@navarra.es), eta webgune bat ere bai, hainbat material eta informazio biltzen dituena, bai eta esku hartzea eta laguntza eskatzeko eredia eta harremanetarako sistema bat ere.

Ondorioak eta erronka berriak Laguntzarentzat

Hezkuntza Departamentuaren lehentasunezko helburuetako bat da eskola jazarpenaren eta ziberjazarpenaren prebentzioa. Horregatik, Bizikidetzaren arloko Aholkularitza proiektu bat bultzatzen eta ezartzen ari da, jazarpenaren prebentzio kontzeptua gainditu eta tratu ona sustatzeko eta hezkuntza emozionala garatzeko ikasgeletan, jokabide bortitzetarako antidotorik onena delako.

Zenbait ikastetxetan garatu beharreko proiektu pilotuari esker, aukera izanen da ebaluatzeko zer emaitza lortzen diren tresna pedagogiko bat sartzean hezkuntza emozionalaren garapenaren inguruan bizikidetzara arautzeko, pixkanaka Nafarroako gainerako ikastetxe guztietara zabal dadin.

Bizikidetzara elkarrekin eraikitzen den prozesu bezala ulertu behar da. Prozesu horretan, pertsona guztiak elkarrengandik aberasten dira, bakoitzak bere baitako zerbait ekartzen duelako.

Hezkuntza Departamentuaren apustu bat da Laguntza programa, bat egin nahi duena haurrei eta nerabeei indarkeriaren aurka babes osoa emateko lege organikoaren proiektu berriarekin, honako helburu hauek lortzeko: tratu ona eta hezkuntza emozionala sustatzea eta gaitasun emozionalak lortzen eta gatazkek konpontzen laguntzea.

Gaur egun inoiz baino gehiago nabarmendu behar da irakasleen erregulazio emozionalak duen protagonismoa. Irakasleen ongizatea funtsezkoa da gure ikasleena ere lortzeko, eta eragina izateko ikastetxeko bizikidetzara maila orekatuan.

Eskolek hezkidetzazko patio integratzaileak behar dituzte, eraldaketaren ikuspuntutik garatutako bizikidetzara planak, hezkuntza komunitatean bizikidetzara eraiki behar dute, eta ikasleek sare sozialak desegokiro erabiltzen dituzten egoerak zuzentzeko ekintzak garatu.

Sozializatze eta interakzioak erregulatzeko prozesuak adin goiztiarretan hasi behar dira, Haur Hezkuntzako etapan. Era berean, beharrezkoa da familiak integratuta egotea ikastetxearen bizitzan.

Ildo horren barruan dago ikastetxeentzako proiektu pilotu hori abian jartzea, hobetzeko ardaztat eta proposamentzat eraldaketako prozesu pedagogiko batean sartzea izanez gero, eta inplikazioak hezkuntza komunitate osoa barneratuz gero, identitate propioan eta hezkuntza proiektuan errotzeko. Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoek bere egiten dute eraldaketa prozesuari jarraipena emateko konpromisoa, klaustro osoa gero eta gehiago inplikaturik, bai eta irakasleak ikaslearen arteko harreman begirunezko eta orekatuen erregulazioan sustatzeko ere.

Eta hala, hezkuntza baliabideak hurbildu nahi dira eskoletara, bizikidetzara maila hobetzeko, eta haien artean tutoretza eta laguntza prozesu bat izateko, jardunbide onen garapena sustatuta.

2020-2021 ikasturtean, ikastetxe pilotuetako talde eragileak eratzen ari dira, zuzendaritza taldeko eta bizikidetzara batzordeko kidez osatuta.

Talde eragile horiek hezkuntza esparruan garatu beharreko prozesua gidatzen dute, eta ikasgeletan, 3 urtetik DBHko 4. mailara arte, etapaz etapa, hezkuntza emozionalaren inguruan

antolatu eta sekuentziatutako hezkuntza baliabideak sartzen dituzte, ikasleei emozioak ezagutzen, ulertzen eta modu asertiboan kudeatzen laguntzeko.

Bestalde, gatazkak entzuteko eta konpontzeko egiturak eta guneak sortzen dira ikasgeletan, irakasleek gainbegiraturata, ikasleei emozioak adierazten eta ados jartzen laguntzeko.

Era berean, ikastetxeek konpromisoa hartzen dute zeharkako ardatz bihurtzeko hezkuntza emozionalaren garapena, curriculum edukizat hartuta. Prozesu horretan guztian zehar, baliabide didaktikoak sortu dituzten adituen talde teknikoen laguntza eta prestakuntza izanen dituzte, bai eta Bizikidetzaren arloko Aholkularitzarenak berarenak ere, egin beharreko bidea eta esperientzia koordinatu eta gainbegiraturako baititu.

Amaitzean den ikasturte honetan bukatuko da Laguntza programaren pilotajea Haur eta Lehen Hezkuntzako 12 ikastetxetan, eta Laguntza programaren eraginkortasuna egiaztatzeko ebaluazioak amaitzen ari gara ikastetxe horietan.

Hiru urteko pilotajea amaituta, aldi berri bati ekinen diogu eta ikasturte bakoitzean 15 ikastetxerentzako deialdia egingen dugu. Bai talde eragileak bai irakasleek Laguntza formatuari buruzko prestakuntza jasoko dute, eta ikastetxe horiek LAGUNTZA IKASTETXEAK deiturara bilduko dira.

Bigarren Hezkuntzan pilotajea egiten jarraituko dugu 2023-2024 ikasturtea amaitu arte, eta gero Laguntza programa Bigarren Hezkuntzako beste ikastetxe batzuetara zabaltzeko prozesuari ekinen diogu. Horrekin batera, hasiera- eta inpaktu-ebaluazioa egiten ari gara programaren eraginkortasunari buruz.

4.7.5. Berdintasunerako ekintzak

2022-2023 ikasturtea bukatuta, uztaillean hasi zen idazten Hezkuntza Departamentuaren 2024-2028 aldirako Hezkidetzeta Plana onesteko foru agindua. Dokumentua prestatzen ari da oraindik, eta urte amaierarako argitaratuta egonen da.

- **SKOLAE hezkidetzeta programa**

SKOLAE programak, departamentuaren 2017-2021 eta 2021-2023 aldirako Hezkidetzeta Planaren esparruan, ibilbide antolatua eta nahitaezkoa eskaintzen du, Nafarroako unibertsitateaz kanpoko hezkuntza sistemako etapa guztietan zehar garatzen dena, eta xede du genero ikuspegi kritikoa txertatzea ikastetxeen eta ikasgeleen kudeaketan, hartara hezkidetzaren kultura sortuz hezkuntzaren kalitatearen eta nortasunaren ikur gisa.

Hezkuntza Departamentuko Berdintasun eta Bizikidetzeta Atala prestakuntzarako laguntzaz, aholkularitzaz eta jarraipenaz arduratzen da. Horretarako badu lantalde tekniko bat Baterako Hezkuntzaren Bulegoan. Hura arduratzen da bai prestakuntza ikastaroak antolatu eta sortzeaz, bai baliabideak lantzeaz eta ikastetxeei aholku emateaz. Gainera, badu tutore talde bat, online prestakuntza prozesuan zehar banakako aholkularitza eskaintzeaz arduratzen dena.

- **Prestakuntza ekintzak**

Klaustroa osatzen duten irakasle guztiak dira programaren xede. Prestakuntza bakarka eta taldean gauzatzen da; izan ere, irakasle bakoitzaren hausnarketa eta jarduna uztartzen dira klaustro bat osatzen duten departamentuen edo zikloen arteko trukearekin eta jardunarekin. Nahi du prestakuntza indibidualak gogoetatzen bultzatzea, ezinbesteko baliabideak lortzea behar diren hezkidetzako konpetentzia profesionalak izateko; eta, garatzen diren eginkizunetan oinarrituta (zuzeneko irakaskuntza, bizikidetzaren ardura, tutoretza, ikasketen orientazioa, jolas orduetako eta patioko arduraduna...), ikastetxearen eraldaketan lagundu nahi du. Prozesua osatzeko, gaitasun horiek gainerako irakasleekin partekatzen dira, hezkidetzako ikuspegi pedagogikoa ikastetxeko egitura eta elementu guztietan zehar hedatzen baita.

Prestakuntza-konpromisoa lau fase edo ikasturtetan zehar luzatzen da. Fase bakoitietan, irakasleek lineako prestakuntza teoriko-praktikoa jasotzen dute bakarka, eta tutoreak lagun egiten die prozesu horretan. Fase bikoitietan, irakasleak aurrez aurreko lantaldeetan antolatzen dira, eta, haien ikastetxeko talde sustatzaileak koordinatuta, harekin elkarlanean aritzen dira Hezkidetzaren Identitatearen Plana garatzen.

Irakasleek tresnak, baliabideak eta ikuspuntu kritikoa bereganatzen dituzte, eta beren ikasleak gaitzen dituzte genero alborapenetatik libre bizitzeko eskubidea erabili ahal dezaten; hau da, ikasleak hezten dituzte gizarte berdinezalea, aniztasuna errespetatzen duena eta indarkeria sexistarik gabekoa sustatu eta eraiki ahal izateko.

Prestakuntza, esan bezala, nahitaez jaso behar dute programa garatzen duten ikastetxeetako irakasle guztiek, eta hartan hamar helburu edo ikasgai lantzen dira:

1.- Genero desparekotasunaren aurrean kontzientzia kritikoa izatea.

Ikasleek genero desparekotasunak identifikatzen eta aztertzen ikasten dute, bai eta ardurak hartzen ere, haiei aurre egiteko, eta eraldatzeko.

2.- Autonomia pertsonala, bizitza jasagarria izan dadin.

Ikasleek zaintza lanak eta enpleguari lotutakoak beren egiten ikasten dute, autonomiarako eta independentziarako oinarria baitira berdintasunezko bizi proiektuetan.

3.- Ahalduntzea, aitzindarritza eta erabakiak hartzeko gaitasuna.

Ikasleek erabakiak hartzeko eta, helburu komunak lortzeari begira, baterako jarduna sustatzeko gaitasun propioa ezagutzen ikasten dute.

4.- Hezkuntza afektibo eta sexual positiboa, osasungarria eta aniztasunarekiko errespetuzkoa.

Berdintasunean oinarritutako errespetua eta hazkunde pertsonala bultzatzen duten harreman afektiboak, sexualak eta bizikidetzazkoak adierazteko eta ezartzeko gaitasun pertsonala ikasten, ezagutzen eta onartzen dute ikasleek.

5.- Hizkuntza eta komunikazio inklusiboa eta sexismorik gabekoa.

Ikasleek sexismorik gabeko eta aniztasunaren errespetuzko hizkuntzaren erabilera sustatzen dute.

6.- Hezkuntza-orientazioaren arloko prozesuak.

Gure ikasleek eskolatzen diren unetik bertatik ikasten dute beren bizitzarako itxaropenak genero alborapenik gabe eraikitzen.

7.- Bizikidetzaren eta gatazkak konpontzea.

Ikasleek indarkeriarik gabeko metodoak ikasten dituzte, aniztasuna aitortzen dutenak eta tratuan oinarritzen direnak, berdintasuna eta ongizate emozionala abiaburu direla.

8.- Emakumeen eta neskatuen kontrako indarkeria modu guztiak prebenitzea.

Ikasleek emakumeen eta neskatuen kontrako indarkeriaren mekanismoei antzematen ikasten dute eta haiei aurka egiteko baliabideak eskuratzen dituzte.

9.- Aniztasuna.

Ikasten dute kontuan hartzen hainbat kategoriaren arteko intersektzioa, desparekotasunak ulertzeko: generoa, etnia, kultura, gizarte-klasea, gaitasunak, etab.

10.- Hezkidetzaren kultura.

Hezkuntza komunitate osoak parte hartzen du berdintasunezko sozializazio gune baten sorreran, eta bereziki sustatzen da ikasleek konpromisoak hartzea ikastetxean eta ingurunean.

Ikastetxean hezkidetzaren sustatzen duen taldea zuzendaritza taldeko pertsona batek eta klaustroko irakasle batzuek osatzen dute. Berariazko prestakuntza jasotzen dute diagnostikoa egiteko eta Hezkidetzaren Identitatearen Plana egiteko, hiru urterako. Dokumentu hori urteko programazio orokorrean sartzen da ikasturte hasieran, eta haren garapenaren emaitza ikasturte amaierako memorian jasotzen da. Helburua da hezkidetzaren testuinguruak sortzea, eta horretarako berrikusi egin behar dira idatzizko hizkuntza, ikur bidezkoa eta bisuala, gune komunak, parte-hartzea,

ikasgelako edukiak, baliabideak eta metodologiak, liburutegia, ikastetxeko planak, familien eta irakasle ez diren langileen inplikazioa, datuak, etab.

Talde sustatzaile horretan, irakasle batek koordinatzaile lanak egiten ditu eta mailaz mailako prestakuntza jasotzen du, ikastetxeak SKOLAE programa inplementatzen duen faseetan zehar: koordinatzailearen rolari buruzko lana, Hezkidetzaren Identitatearen Plana osatzen duten ataletan sakontzea, plana dinamizatzea, maskulinitate berdinzaleak, etab.

Talde sustatzaileek dinamizatze lana egiten dute Hezkidetzaren Plana abian jartzean, eta beren gain hartzen dute ikastetxean hezkidetzaren kultura sortzen joateko ardura. Horregatik, ikastetxean sortzen diren lantaldeak koordinatu behar dituzte. Lantalde horietako kide gehienak dagoeneko banakako prestakuntza jaso duten irakasleak dira. Talde sustatzailearekin elkarlanean aritzen dira eta, era horretara, bultzada ematen diote planari, planifikatutako ekintzak garatuz.

Hezkidetzazko eraldaketari indarra ematen dio familien eta gainerako hezkuntza komunitatearen inplikazioak.

Ikasturte honetan prestakuntza eskaini zaie SKOLAE programa garatzen ari diren ikastetxeetan seme-alabak dituzten familiei, haurrek ikasgelan ikasten dituzten edukiak lantzeko. Haur eta Lehen Hezkuntzako zortzi ikastetxetako hainbat familiak hezkidetzako edukiak eta dinamikak landu dituzte lau saiotan, gogoeta eginez eta guraso eginkizunetan oinarritutako esperientziak partekatuz. Ekimen horrekin bat egin dute 70 bat pertsonak, eta 5 puntutik 4,7ko balorazioa egin diote. Saioen ondoren, familiek programarekin lotutako gaietan eta, zehatzago, sexu hezkuntzan trebatzen jarraitzeko interes handia agertu dute.

SKOLAE programan parte hartzen duten ikastetxeak

Taulan, ikastetxeak programan urte anitzetan sartzea jaso da. Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe guztietatik % 85 ari dira modu aktiboan parte hartzen programan.

156. taula: SKOLAE programan parte hartzen duten ikastetxeak

Titulartasuna	Ikastetxe mota	Etapak	17/18tik 22/23era arte
Publikoa		Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza	173
		Bigarren Hezkuntza	36
		Hezkuntza Berezia	2
		Lanbide Heziketa	10
Itundua	Ikastolak	Etapak guztiak	17
	Erlijosok	Etapak guztiak	30
	Bestelakoak	Hezkuntza Berezia	2
Guztiak		0-3	14
Guztira			284

Iturria: *Berdintasun eta Bizikidetzaren Atala*

2022-2023 ikasturtean ehun ikastetxek baino gehiagok amaitu dute nahitaezko prestakuntza ibilbidea. Ikastetxe horiek hezkidetzako eraldatze prozesuan aurrera jarraituko dute,

Hezkidetzeta Plana beren kabuz aplikatuz. Hala ere, egiturei eutsiko zaie eta koordinatzaileak SKOLAE sareei laguntzen jarraituko du. Hurrengo ikasturtean ikastetxe horiek martxan jarriko dute gidatzeko eta ebaluatzeko tresna bat, Baterako Hezkuntzaren Bulegoak azken bi ikasturteetan kanpoko aholkulari baten eskutik diseinatua eta Ebaluazio Bulegoak balidatua.

Prestakuntza ekintzei buruzko datuak

Prestakuntza jardueretan hasten diren irakasleen kopurua taula honetakoa baino handiagoa da, baina irakasleek prestakuntzaz den bezainbatean duten benetako konpromisoa erakustea interesatzen zaigu. Horregatik, ematen ditugun datuak ikastaroak bukatu eta ziurtatu dituzten ikasleen kopuruari dagozkie.

Prestakuntza prozesuak zenbait sakontze maila behar dituzenez, eta sakontze hori indibiduala eta taldekoa izaten ahal denez, baliteke pertsona berak zenbait prestakuntza jardueratan agertzea.

157. taula: SKOLAE programan prestakuntza izan dutela ziurtatu duten irakasleei buruzko datuak, sexuaren arabera. 2017-2018tik 2022-2023ra

Skolae prestakuntza indibiduala I Hezkidetzeta jardunaren teoria eta praktika	1.960	6.748
Skolae prestakuntza indibiduala II Nola programatu hezkidetzaren ikuspegitik	818	3.423
Talde prestakuntza: Skolae talde sustatzailea. Ikastetxearen hezkidetzeta identitatea	141	776
Talde prestakuntza: Skolae lantaldeak (2022-23)	541	1.810
Talde prestakuntza: sareetako talde sustatzailea (2022-23)	129	634
Prestakuntza indibiduala: SKOLAE koordinatzailea (2022-23)	27	183
Prestakuntza indibiduala: prestakuntza sexu heziketan. Gizakiaren sexu egitatea	21	154
Prestakuntza indibiduala: Skolae tutoretza berriak	8	91

Iturria: *Berdintasun eta Bizikidetzeta Atala*

Parte hartu duten irakasleek programaz egindako balorazioa

Baterako Hezkuntzaren Bulegoarentzat, prestakuntzaren amaieran irakasleek ematen dituzten balorazioak eta tutoretza taldeak emandakoak informazio iturri baliotsuak dira hobetu behar diren proiektuaren alderdiak berri diseinatzeko eta proiektuaren indarguneei eusteko.

Ebaluazio galdetegietan lortutako erantzun indizea oso altua izan da. Iturri horien datuak kontuan hartuta, honako emaitza hauek nabarmentzen ahal ditugu:

Eskainitako ikastaro guztietan, batez besteko gogobetetze orokorra 10 puntutik 7,5ekoa da. Oro har, irakasleen ustez oso egokiak dira programaren kalitatea, funtzionaltasuna eta

diseinua, eta ikasgelan izandako harrera ona balioesten dute, bai eta eskaintzen diren proposamen didaktikoak ezartzen errazak izatea ere. Positiboki baloratu dute sakontze ikastaroa, hezkidetzan oinarrituta programatzen laguntzen dielako. Gainera, analisirako emandako tresnak eta ikastetxeetako hezkidetzako identitate planen zehaztasuna eskertu dituzte.

Aurreko ikasturteetan bezala, irakasleek nabarmendu dute prestakuntza horrek gogoeta eta eraldaketa sustatzen dituela, maila pertsonalean nahiz profesional moduan, eta hori ikasleekin batera egitea balioetsi dute. Baina, gainera, laudagarria iruditzen zaie irakasle talde osoa tartean sartzeari, eta hezkidetzak ikastetxeetako curriculumean sarrera izan dezan normalizatzea, beharrezkoa baita. Ideia hau errepikatu da: prestakuntzari esker gehiago jabetu direla berdintasun itxurakeriaz eta benetako aldaketa sozialaren beharraz. Irakasleek uste dute ezinbesteko prestakuntza dela ikastetxearen funtzionamendua hobeki ezagutzeko, eta norantz jo nahi den aztertzeko, aukera ematen duelako ikastetxeak dituen elementuen kontzientzia hartzeko, eta haien bidez berdintasunezko balioak zabaltzen dituzten ala ez jakiteko. Aitortu dute ez dela teoriarik gelditzen, eta esku hartzean helburu argiak dituela, emaitzak ikusteko.

Irakasleek oso egokitzat jo dute banakako tutoretza prozesuetan jasotako arretaren kalitatea ere, besteak beste erantzunaren denborari, tratua hurbiltasunari eta feedback-aren kalitateari dagokienez.

Irakasleen artean, programa nahitaez ezartzearen edo eduki jakin batzuen aurka nolabaiteko erresistentziak ere izan dira. Ekarpene horiek ez dute proposamen osoa deskalifikatzen, baina adierazten dute erresistentzia zehatza, profesionala eta soziala dagoela gai jakin batzuk lantzearen aurka.

Ikasturte honetan proposatu da ikastetxean lantaldeak eratzea, eztabaidarako eta esperientzia trukeko espazioak sortzeko, elkarlana sustatzeko eta hartutako prestakuntza indartzeko, bai eta ikastetxeko hezkidetzazko eraldaketako parte-hartzea ere. Proposamen horrek, aurreko ikasturtean bezala, oso harrera ona izan du; talde sustatzaileak lantaldeen buru aritu dira, eta Baterako Hezkuntzaren Bulegoko talde teknikoak eskaintako aholkularitza eta baliabideak jaso dituzte.

Hezkidetzako sareetan parte hartzea oinarria izan da, aurreko ikasturtean bezala, esperientziak, informazioa, prestakuntza eta ebaluazioa trukatzeko, eta ezinbestekotzat jo dute ikastetxeek bezala Baterako Hezkuntzaren Bulegoak ere, koordinazio eraginkor eta beharretara egokitu laguntzen duelako. Ikasturte honetan bi informazio saio egin dira online eta bi prestakuntza saio aurrez aurre. Saio horien balorazioa 10 puntutik 9koa izan da.

Tutoretzen taldeak prestakuntzaz egindako balorazioa

Prestakuntza prozesuan hezkidetzan espezializatutako irakasle talde bat dago, prozesuko faseetatik bitan tutoretza lana egiten duena online.

Talde hori hezkidetzaren jardunaren benetako eragile dinamizatzailea da. Gero eta pertsona gehiagok osatzen dute, horretarako diseinatutako prestakuntza espezifikoen ondorioz.

Programaz egindako ebaluazioan, koordinatzaileek eta tutoretza taldeak honako hauek azpimarratzen dituzte: planteamenduen, egituraren eta edukien kalitatea; baliagarria dela kontzientzia kritiko handiagoa sortzeko eta, horrenbestez, genero desparekotasunak hauteman eta aldaketa sozialarekiko konpromisoaren alde egiteko; hezkidetzaren lantzeko oinarri teoriko eta praktikoa izateko balio duela; eta dinamismoa nahiz egokitze gaitasuna.

Ikasturte honetan egindako prestakuntzari dagokionez, egokitzeak jotzen dute irakasleek prozesuan zehar izandako gogoeta eta engaiamendu maila, bai eta jarduerak curriculumen eta ikasgelako programazioen testuinguruan kokatu izana ere, hezkuntza lege berriari jarraikiz. Gainera, haien ustez, sakontzeko prestakuntza, hau da, *Skolae II. Nola programatu hezkidetzan banakako prestakuntza*, lagungarria da programazio didaktikoak curriculumak zehazten duten foru dekretuei egokitze.

Ondorioak eta erronka berriak hezkidetzaren programarentzat: SKOLAE

Esperientziak hurrengo puntuan adierazten diren hobekuntzetara bideratu gaitu. Oroitidazki honi amaiera ematen diogu 2023-2024 ikasturterako epe ertainera begira planteatu genituen erronkak azalduz; ikasturte honetan ere jarraituko dugu aurre egiten araudiaren eta eskari sozialaren ondoriozko eskakizunei erantzuteko beharrezkoak diren erronkei.

- 2024-2028 aldirako Hezkidetzaren Plan berria egitea, lan hori tutoretza taldearekin partekatuta eta adostuta, gero beste erakunde batzuekin erkatzeko (NOPLOI, NABI etab.). Plan berria hezkuntza komunitatearen eskariari egokitu behar zaio.
- Prestakuntza ibilbidea amaitzen duten ikastetxeekin sare berri bat sortzea SKOLAE gida- eta ebaluazio-tresna aplikatzeko. Tresna horren bidez ikastetxe bakoitzean neurtuko dira programaren garapen maila eta inpaktua.
- Aurreikusitako orokortze prozesurako behar den tutoretza taldea handitzea, eta laguntzako prestakuntza espezifikokoaren ekarpena egitea.
- Inklusio, berdintasun eta Bizikidetzaren Zerbitzuko eraldaketa orokorreko programekin koordinatzea.
- Departamentuko zerbitzuekin koordinatzen saiatzea (besteak beste, prestakuntza eta ikuskapen zerbitzuekin).
- Baliabideen berri zabaltzea eta haiek partekatzea, bai eta Hezkuntza Departamentuaren hezkidetzako proposamena eta esperientzia ere, SKOLAE webgune berriaren bidez.
- Aurreko ikasturtean familientzat hasitako prestakuntza proposamenari eustea.
- Ikasleen parte hartze aktiboa azpimarratzea, beren aldatetaren eragile izan daitezen, proposamen pedagogikoen bitartez eta Hezkuntza Departamentuak baliabide berriak jarrita.
- Lan ildo bat diseinatu eta martxan jartzea ikasgelan sexu hezkuntzari heltzeko trebetasunetan eta edukietan sakontzeko, berriazko prestakuntza moduluen bidez. Prestakuntza hori nahitaezko ibilbidea bukatu duten ikastetxeei eskainiko zaie.
- Baterako ekintza berri bat diseinatu eta koordinatzea SKOLAE ikastetxe guztientzat, sexualitatearen eta tratu onaren eta berdintasunaren gaiei buruzkoa.
- Berriazko prestakuntza diseinatzea Hezkuntza Laguntzako espezialistentzat (HLE).
- Hezkuntza Bereziko ikastetxeentzako berriazko prestakuntza berriz diseinatzen amaitzea.
- Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin partekatutako lana egiten jarraitzea, ahaleginak eta ardurak bateratzeko bai irakasleen hasierako prestakuntzan, Irakasletza graduetan eta Bigarren Hezkuntzako masterrean, baita haien praktikan ere.
- NUPeko Genero eta Berdintasun Gaietako unibertsitate masterrean elkarlanean jarraitzea, irakasgaietako batean.
- Iruñeko Hezitzaile Eskolako Berdintasuna Sustatzeko Graduan elkarlanean jarraitzea, bai eta praktikan ere.
- Hezkidetzaren arloan beste autonomia erkidego batzuekin elkarlanean jarraitzea.

4.8. Kalitatea eta hobekuntza

4.8.1. Eskola zuzendaritza

Europako Batzordeak kalitate politikak ET 2020 esparru estrategikoan txertatu ditu: «Hezkuntzaren eta prestakuntzaren kalitatea eta eraginkortasuna hobetzea». Helburuaren garrantzia begien bistakoa da, pedagogiako lidergoak (hau da, hezkuntzaren kalitatea helburu duenak) eta lidergo eraldatzaileak (hau da, pertsonak helburu komunengatik mugiarazteko gauza denak) hezkuntza sistemen hobekuntzan duten eragin nabarmena dela eta.

Uneotan zuzendaritzaren funtzioa Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoak (LOMCE) arautzen du. Lege horrek Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan (LOE) aldaketa partzialak egiten ditu. Itunpeko ikastetxe pribatuen zuzendaritza gai horren inguruan hezkuntzarako eskubidea arautzen duen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoak (LODE) esaten duenari jarraikiz arautzen da, itunpeko ikastetxeen zuzendaritzari buruz LOMCEk egindako aldaketak kontuan izanik.

Unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoak eta Lanbide Heziketako ikastetxe bateratu publikoak

Foru esparruan, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuaren mendeko ikastetxe publikoetako zuzendariak hautatu, ebaluatu, eta izendapena berritzeko prozesua honako hauen bitartez arautu da:

- 65/2022 Foru Agindua, abuztuaren 8koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuaren menpeko ikastetxe publikoetako zuzendariak hautatu, ebaluatu eta haien izendapena berritzeko arauak ematen dituena.
- 42/2017 Foru Agindua, martxoaren 29koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuaren mendeko ikastetxe bateratu publikoetako zuzendariak hautatu (izendapen librearen bidez), ebaluatu eta haien izendapena berritzeko arauak ematen dituena.

95/2022 Ebazpena, ekainaren 24koa, Hezkuntza Departamentuko Aldi Baterako Langileak Kudeatzeko Zerbitzuko zuzendariak emana, ikastetxe publikoetan 2023-2024 ikasturtean jardunean hasiko diren zuzendaritza-kargudunen izendapena egiten duena.

Emakumeen presentzia eskola zuzendaritzan

2021-2022 ikasturtean 48.187 emakumezko irakasle, aurreko ikasturtean baino 6.130 gehiago, izan ziren zuzendaritza taldeetako kide Espainiako unibertsitateaz kanpoko araubide orokorreko ikastetxeetan. Ikastetxeetan, emakumezko zuzendariak guztien % 67,8 dira; emakumezko ikasketaburuak % 68,2 eta emakumezko idazkariak % 68,7.

158. taula: Balio absolututan, zuzendaritzako langileen presentzia araubide orokorreko ikastetxeetan, ikastetxearen titulartasunaren arabera. 2021-2022

Ikastetxeak	Zuzendaritzako langileak	
	Guztira	Emakumeak
Ikastetxe guztiak	57.486	48.187
Ikastetxe publikoak	42.095	36.489

Ikastetxe pribatuak eta itunduak	15.391	11.698
----------------------------------	--------	--------

*Batxilergoa ematen duten arte eskoletako irakasleak barneratuta; kasuren batean, araubide orokorreko ikastetxeetan Helduen Hezkuntzako irakasgai espezifikoak edo araubide bereziko irakasgaiak baino ematen ez dituzten irakasleak ez dira kontabilizatzen

Iturria: Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioa. Estatistikaren eta Azterlanen Zuzendariorde Nagusia


Logikoa da Haur Hezkuntzan zuzendaritza karguetan emakumezkoak gehiengoa izatea, etapa horretako ia irakasle guztiak emakumezkoak baitira. Zuzendaritza karguetan dauden emakumeen ehunekoak behera egiten du hezkuntza sistemako mailetan aurrera egin ahala. Hala, ikastetxe publikoetako emakumezko zuzendariei dagokienez:

- Haur Hezkuntzan % 94,5 dira.
- Lehen Hezkuntzan, % 66,6.
- DBHn edo/eta Batxilergoan edo/eta LHn, % 44,3.

Bestalde, emakumezko ikasketaburu eta idazkarien ehunekoa handiagoa da emakumezko zuzendariena baino, eta joera hori areagotu egiten da Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan.


Autonomia erkidego guztietan, Nafarroan eta Euskal Autonomia Erkidegoan izan ezik, emakumeen presentzia erlatiboa txikiagoa da ikastetxeetako zuzendaritza karguetan irakasleen multzoan baino, araubide orokorreko irakaskuntzan.

164 A grafikoa: Emakumezko zuzendari, idazkari eta ikasketaburuen presentzia Espainian, ikastetxeak ematen duen irakaskuntza motaren arabera. 2021-2022



Iturria: Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioa. Estatistikaren eta Azterlanen Zuzendariorde Nagusia

164 B grafikoa: Emakumezko zuzendari, idazkari eta ikasketaburuen presentzia Espainian, araubide orokorreko irakaskuntzako ikastetxeetan. 2021-2022




Iturria: Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioa. Estatistikaren eta Azterlanen Zuzendariordetza Nagusia

13. erans kina

Gaia autonomia erkidego edo hiri autonomo bakoitzean aztertuz gero, egoera honako hau da:

165. grafikoa: Emakumezko irakasle, zuzendari, idazkari eta ikasketaburuen presentzia erlatiboa unibertsitateaz kanpoko araubide orokorreko ikastetxeetan, autonomia erkidego eta hiri autonomo bakoitzean. 2021-2022



Iturria: Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioa. Estatistikaren eta Azterlanen Zuzendariordetza Nagusia

14. erans kina


Nafarroan 2022-2023 ikasturtean emakumeek zuzendaritza karguetan duten presentzia honako taula hauetan jaso da.

159. taula: Nafarroako ikastetxe publikoetako zuzendaritza karguak, sexuaren arabera. 2022-2023

Gizonak	Emakumeak	Guztira
218	518	736

Iturria: Hezkuntza Baliabideen Zuzendaritza Nagusia


166. grafikoa: Nafarroako ikastetxeetako zuzendaritza karguen ehunekoa, karguaren eta sexuaren arabera. 2022-2023



Iturria: Hezkuntza Baliabideen Zuzendaritza Nagusia

15.
erans
kina

167. grafikoa: Nafarroako ikastetxe publikoetan zuzendaritza karguetan dauden emakumeak, postu motaren eta ikastetxe motaren arabera. 2022-2023



Iturria: Hezkuntza Baliabideen Zuzendaritza Nagusia

16.
erans
kina

4.8.2. Kalitatearen kudeaketa ikastetxeetan

- **Ikastetxe publikoak**

Kalitate sareak ikastetxe publikoetan

Politika publikoak eta zerbitzu publikoen kalitatea ebaluatzeari buruzko abenduaren 29ko 21/2005 Foru Legeak ebaluazio sistema publikoa sortu eta garatzeko behar diren neurriak ezartzen ditu, bai Nafarroako Administrazio Publikoak diseinatu eta gauzatutako politika publikoak, bai administrazio horiek –zeinek bere eskumenen esparruan– nafar herritarrei emandako zerbitzuen kalitatea ebaluatuko dituen.

Eskumen horren esparruan, Hezkuntza Departamentuak baimendu zuen "Kalitatea kudeatzeko sistemen hedapena" izeneko programa abian jartzea Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emaniko martxoaren 6ko 230/2006 Ebazpenaren bidez.

Era berean, Europako esparruan, EBko estatu kideen gobernuetako ordezkariak, 2007an, erabaki zuten beharrezkoa zela ahalegina egitea bermatzeko zuzentze funtzioak betetzen dituzten irakasleek, irakasteko gaitasunak eta esperientzia izateaz gain, ikastetxeak kudeatu eta zuzentzeko kalitate handiko prestakuntza eskuratzen dutela.

Hezkuntzako kontseilariaren uztailaren 5eko 63/2013 Foru Aginduak ikastetxeetan kalitatea kudeatzeko sistema bat (KKS) eratzea ahalbidetzen duen eredu bat ezartzen eta arautzen du; eraketa horretarako, arau propio bat kontuan hartzen da, IKKS-2013 Araua, zeinak

ikastetxeetako KKSek “Kalitatearekiko konpromisoa”, “Kalitatezko ikastetxea” eta “Ikastetxe bikaina” aitortzen lortzeko bete beharreko gutxienezko baldintzak zehazten baititu.

Hezkuntzako kontseilariaren otsailaren 5eko 10/2015 Foru Aginduaren bidez, aitortzen balio aldia aldatzen da eta “Kalitatezko ikastetxea” eta “Ikastetxe bikaina” aitortzen berritzeko KKSaren kanpo ikuskapena ezartzen da.

Hezkuntzako kontseilariaren abuztuaren 27ko 71/2020 Foru Aginduaren bidez IKKS-2020 Araua onesten da, Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan kalitatea kudeatzeko sistemak garatu, ezarri eta aitortzeko baldintzak arautzen dituen.

IKKS-2020 Arauan funtsezko elementuak hauek dira: kudeaketa eta estrategia esparrua zehaztea; prozesuz prozesuko kudeaketaren alde egitea; eta emaitzetara bideratutako orientazioa.

Kalitate Bulegoak eta Kadinetek baliabideak, estandarrak, tresna digitalak eta bideotutorialak garatzen dituzte, bide ematen dutenak modu azkar eta praktikoan ezartzeko arau hori. Baliabide horiek “IKKS-2020 Arauaren Baliabideak” sites webgunean argitaratzen dira, gaztelaniaz eta euskaraz. Hauek dira sistema garatzeko funtsezko tresnetako batzuk: Autodiagnostikoa, Prozesuak/Sistematikak, Plan Estrategikoa eta Jarraipena, Kontrol Adierazleak eta Aginte Taula.

Kalitate Bulegoak zuzendaritza taldeetako kideei eta sareetan parte hartzen duten ikastetxeetako kalitate arduradunei zuzenduta dauden prestakuntza ekintzak koordinatzen ditu.

2022-2023 ikasturtean, 129 ikastetxek hartu dute parte programa hasi zenetik eratu diren 23 kalitate sareetan; hau da, Nafarroako ikastetxe publikoen % 52,87k.

2022-2023 ikasturtean 7 ikastetxe gehiago sartu dira N15 sarean:

- Almandoz - Almandoz HLHIP
- Añorbe - Añorbe HLHIP
- Faltzes - Doña Alvara Alvarez HLHIP
- Elo - Sta. Bárbara HLHIP
- Iruña - Biurdana BHI
- Iruña - San Francisco HLHIP
- Iruña - Jose M^a Iribarren HHI

23 kalitate sareak bi sare motatan daude egituratuta:

- Sare autonomoak: 14 sare dira, eta horietan parte hartzen dute KKSaren aitortpena jaso duten 83 ikastetxek. Ikastetxeek lan autonomoa egiten dute arau berriaren arabera KKSa egokitu eta mantentzeko, jardunbide on berritzaileak garatzen dituzte, kudeaketa azkartzen duten tresna informatikoak ezartzen dituzte, eta irakaskuntzara eta emaitzak hobetzera bideratzen dituzte beren sistemak.

Sare ez-autonomoak: 9 sare, zeinetan 46 ikastetxek parte hartzen baitute. Ikastetxeek sareko mintegietan parte hartzen dute, Hezkuntza Departamentuaren IKKS 2020 Arauaren arabera kudeaketa sistema bat ezartzeko ikastetxean, aholkularitza eginkizunak betetzen dituen pertsona batek koordinatuta.

Jarraian ageri diren tauletan kalitate sareak osatzen dituzten ikastetxeen inguruko informazioa dago:


160. taula: Ikastetxe publikoek sareetan duten banaketa, eskolatzeko mailaren arabera. 2022-2023*

Maila	Sareetan dauden ikastetxeen kop.	Sareetan dauden ikastetxeen guztizkoaren gaineko maila bakoitzeko ikastetxeen ehunekoa	Ikastetxe publikoen kop.	Maila bakoitzeko ikastetxe publikoen guztizkoaren gaineko sareetan dauden ikastetxeen ehunekoa
Hizkuntza Eskolak	3	2,3	3	100,0

DBH- LH	5	3,9	6	83,3
Helduen Hezkuntza	1	0,8	7	14,3
Lanbide Heziketa	13	10,1	14	92,9
Lehen Hezkuntza	67	51,9	157	42,7
LH, DBH	5	3,9	10	50,0
DBH	35	27,1	47	74,5
Guztira	129		244	


* DBH: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza; LH: Lanbide Heziketa
 Iturria: Antolamendu, Prestakuntza eta Kalitate Zerbitzua

168. grafikoa: Kalitate sareetan dauden ikastetxe publikoen kopuruaren bilakaera denboran




Iturria: Antolamendu, Prestakuntza eta Kalitate Zerbitzua

169. grafikoa: Kalitate sareetan dauden ikastetxe publikoen kopurua, eskolatzeko mailaren arabera



LH: Lanbide Heziketa
 Iturria: Antolamendu, Prestakuntza eta Kalitate Zerbitzua

170. grafikoa: Kalitate sareetan dauden ikastetxe publikoen kopurua, hizkuntza ereduaren arabera



* ELEB: elebiduna; GAZ: gaztelaniazkoa; EUS: euskarazkoa
Iturria: Antolamendu, Prestakuntza eta Kalitate Zerbitzua

17.
erans
kina

Antolaketa-aldaketak sareetan

2022-2023 ikasturtean, taulan jasotako aldaketa hauek izan dira, ikastetxeak kalitate sareetan sartzeari eta haietatik irteteari dagokienez:

161. taula: Antolaketa-aldaketak sareetan. 2022-2023

Zentroa	Udalerria	Aldaketa
Almandoz HLHIP	Almandoz	Sartu da
Añorbe HLHIP	Añorbe	Sartu da
Doña Álvaro Álvarez HLHIP	Faltzes	Sartu da
Santa Bárbara HLHIP	Elo	Sartu da
Biurdana BHI	Iruña	Sartu da
San Francisco HLHIP	Iruña	Sartu da
Jose M. ^a Iribarren HHI	Iruña	Sartu da
Francisco Arbeloa HLHIP	Azagra	Utzi du
Azpilagaña HLHIP	Iruña	Utzi du

Iturria: Antolamendu, Prestakuntza eta Kalitate Zerbitzua

Prestakuntza saio laburrak

2022-2023 ikasturtean, prestakuntza saio laburretan oinarritutako prestakuntza eskaintzen da. Saio horietan IKKS 2020 Arau berriaren atalekin zerikusia duten alderdiak lantzen dira. Katalogoak 28 prestakuntza saio labor biltzen ditu, eta Kadineten web orrian dago.

Beheko taulan informazioa ematen da irakasleen prestakuntza plataforman argitaratutako prestakuntza saio laburrei buruz. Gainera, 60 prestakuntza-orduren 99 ziurtagiri espres eman dira, kalitate sareetako mintegiei dagozkienak. KKSa ezartzen ari diren ikastetxeetako parte-hartzaileek, zuzendaritzako kargua dutenek eta kalitate arduradunek, gutxienez sei prestakuntza saiotan parte hartu behar dute, eta lana egin behar dute ikastetxean, ziurtagiri hori lortzeko.

162. taula: 2022-2023 ikasturtean egindako prestakuntza jarduerak

Jarduerak			
Inskripzio kopurua	974		
Parte hartzaileen kop.	900		
Ziurtagiri kop.	791		
Parte hartzaileen/inskrizioen ehunekoa	92,4	Ziurtagirien/parte-hartzaileen ehunekoa	87,9

Iturria: Antolamendu, Prestakuntza eta Kalitate Zerbitzua

Lortutako emaitzetan agerienez, parte hartzaileen / inskripzioen ehunekoak lehengoan iraundu, eta ziurtagirien ehunekoa nabarmen handitu da, % 81,5etik % 87,9ra pasatu baita. Modalitate nagusia lineakoa da, baina modalitate presentzialean eta erdipresentzialean ere egin dira prestakuntza saio laburrak.

Kalitatea Kudeatzeko Sistemaren kanpo-auditoretza

2022-2023 ikasturtean egin dira lehenbiziko kanpo-auditoretzak IKKS 2020 Arauari jarraikiz. Arau hori abuztuaren 27ko 71/2020 Foru Aginduak onetsi zuen.

Antolamendu, Prestakuntza eta Kalitate Zerbitzuak 21 kanpo-auditoretza egin ditu "Kalitatezko ikastetxea" eta "Ikastetxe bikaina" aitortpenak berritzeko. Eskatutako auditoretza guztien % 100 izan dira. Kanpo-auditoretza horietatik % 81 aldekoak izan dira, % 14,3 aurkakoak, eta % 4,8 eten egin dira.

Kalitate Bulegoa metodologia eta tresna digital berri bat garatzen ari da auditoretzen eraginkortasuna eta kalitatea hobetzeko eta auditoreen lana errazteko.

163. taula: "Kalitatezko ikastetxea" edo "Ikastetxe bikaina" aitortpena berritu nahi izan duten ikastetxeen emaitzak. 2022-2023

Ikastetxea	Herria	Emaitza	Aitortpen mota
Zelandi HLHIP	Altsasu	Aldekoa	Kalitatezko ikastetxea
Arantza HLHIP	Arantza	Aldekoa	Kalitatezko ikastetxea
Elizondo HLHIP	Elizondo	Aldekoa	Kalitatezko ikastetxea
Santa Ana HLHIP	Buñuel	Aldekoa	Kalitatezko ikastetxea
San Donato HLHIP	Etxarri Aranatz	Aldekoa	Kalitatezko ikastetxea

Irain HLHIP	Lesaka	Aldekoa	Kalitatezko ikastetxea
San Bartolomé HLHIP	Martzilla	Aldekoa	Kalitatezko ikastetxea
Príncipe de Viana HLHIP	Erriberri	Aldekoa	Kalitatezko ikastetxea
Navarro Villoslada BHI	Iruña	Aldekoa	Ikastetxe bikaina
Virgen del Camino IBP	Iruña	Etenda	
Pitillas HLHIP	Pitillas	Aurkakoa	
San Miguel HLHIP	Doneztebe	Aldekoa	Ikastetxe bikaina
Ricardo Baroja HLHIP	Bera	Aldekoa	Kalitatezko ikastetxea
Toki-Ona BHI	Bera	Aurkakoa	
Lorenzo Goicoa HLHIP	Atarrabia	Aldekoa	Ikastetxe bikaina
Iturrama BHI	Iruña	Aldekoa	Ikastetxe bikaina
Mendillorri HLHIP	Iruña	Aldekoa	Ikastetxe bikaina
Joaquín Romera DBHI	Mendabia	Aldekoa	Ikastetxe bikaina
Valle del Aragón DBHI	Zarrakaztelu	Aurkakoa	
San Juan Donibane II IB	Iruña	Aldekoa	Ikastetxe bikaina
Atargi HLHIP	Atarrabia	Aldekoa	Ikastetxe bikaina

Iturria: Antolamendu, Prestakuntza eta Kalitate Zerbitzua

KKSaren aitortpenak

Beheko taulan, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoek 2014tik aurrera lortutako aitortpenen kopurua jaso da.


164. taula: Ikastetxe publikoek lortutako kalitateko kanpo-aitortpenen kopuruaren bilakaera

Kanpo aitortpenak	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23
Bikaintasunarekiko konpromisoa (kudeaketa aurreratuko eredua)					1					
ISO 9001:2008 ziurtagiria. Bureau Veritas	2		2			2			1	
"Ikastetxe Bikaina", Hezkuntza Departamentua	5	8	13	6	7	10	5	13	8	9
"Kalitatezko ikastetxea", Hezkuntza Departamentua	4	2	2	3	1	10	2	4		16
"Kalitatearekiko konpromisoa", Hezkuntza Departamentua		5	6	7	7	10	4	8		

Iturria: Antolamendu, Prestakuntza eta Kalitate Zerbitzua

Grafikoan, KKSaren aitortzen dituzten indarrean duten ikastetxeen kopuruari buruzko datuak jaso dira.

171. grafikoa: Aitortzen dituzten indarrean duten ikastetxeen kopurua. 2022-2023



CoC: Kalitatearekiko konpromisoa; CC: Kalitatezko ikastetxea; CE: Ikastetxe bikaina; ISO: International Organization for Standardization

Iturria: Antolamendu, Prestakuntza eta Kalitate Zerbitzua

Kalitate taldeak emandako zerbitzuen inguruko gogobetetasun emaitzak


KKSaren ezarpen eta mantentze programan parte hartu duten pertsonen, zuzendaritza taldeetako kideen eta kalitate arloko arduradunen iritzia jakiteko, ikasturte amaieran gogobetetasun inkesta bat bidaltzen zaie, Kalitateko taldeak emandako zerbitzuei buruzkoa. Kalitate sareetan parte hartzen duten 129 ikastetxeetara bidaltzen da inkesta.

Berritasun gisa nabarmendu behar da gogobetetasuna neurtzeko eskala berri bat eta emaitzak aztertzeko tresna berri bat sortu direla. Ikastetxe publikoei beren interes taldeen, ikasleen, irakasleen eta familien gogobetetasuna neurtzeko eskaintzen zaizkien tresnen parekoak dira.

Eskalak 12 item ditu, ikastetxeei eskainitako zerbitzuari buruzko baieztapen banarekin. Inkesta egiten zaien pertsonak adierazi behar dute zenbateraino dauden ados baieztapen horiekin. Bost erantzunen artetik aukeratu behar dute: esaldiarekin erabat ados, ados, zalantzan, kontra eta erabat kontra.


Erantzun dutenak % 35,7 izan dira, portzentaje txikia beste ikasturte batzuen aldean. Beherakada horren arrazoia izan daiteke inkesta berandu bidali eta erantzuteko epe laburra ezarri izana. Gogobetetasun maila handia lortu da. Hain zuzen ere pertsonen % 90 baino gehiago gogobeteterik agertu dira item guztietan, hauetan izan ezik: jardunbide egokien trukea (% 80), ikastetxeetara moldatzea (% 80) eta Hezkuntza Departamentuko unitate teknikoekiko koordinazioa (% 50).

172 A grafikoa: KADINETek emandako zerbitzuekiko gogobetetze maila. 2022-2023



Iturria: Antolamendu, Prestakuntza eta Kalitate Zerbitzua

172 B grafikoa: Kadinetek emandako zerbitzuekiko gogobetetze maila. 2022-2023




Iturria: Antolamendu, Prestakuntza eta Kalitate Zerbitzua

Kanpo-azterketarekiko gogobetetasuna


2022-2023 ikasturtean 21 auditoretza egin dira, eta horietatik lau kanpo-entitateek egin dituzte, ez zegoelako behar adina auditore euskarazko ikastetxe guztientzat.

173 A grafikoa: Kanpo-azterketarekiko gogobetetze maila. 2022-2023



Iturria: Antolamendu, Prestakuntza eta Kalitate Zerbitzua

173 B grafikoa: Kanpo-azterketarekiko gogobetetze maila. 2022-2023



Iturria: Antolamendu, Prestakuntza eta Kalitate Zerbitzua

Erantzun dutenen ehunekoa handia da, % 71. Item guztietan emaitzak 8tik gorakoak dira, eta gogobeterik dauden pertsonen ehunekoa % 85etik gorakoak. Nabarmentzen dira auditore taldearekiko eta Kalitate Bulegoarekiko komunikazioari buruz lortutako emaitza altuak, hurrenez hurren 4,9 eta 4,8.

Kalitate Bulegoa-KADINETen 2020-2024 aldirako Plan Estrategikoaren jarraipena

Kalitate Bulegoak –KADINET (Nafarroako ikastetxe publikoen kalitate sareak)– dituen helburu estrategikoen artean honako hauek daude:

- Ikastetxeen jarraipena hobetzea. Arauaren atalak ikastetxeko KKSan nola ezartzen ari diren ebaluatzeko txostenak egiten dira.
- Autodiagnostikoan aurrerapenik agertzen ez duten ikastetxe autonomoei erreskate neurriak aplikatzea.
- Ikastetxeentzako banakako aholkularitza areagotzea.
- Prestakuntza sustatzea ikastetxeko urteko planen bidez. Ekainean, ikastetxeek hurrengo ikasturterako prestakuntza plan bat zehazten dute.
- Prestakuntzarako laguntza sustatzea.
- Autodiagnostiko arloko prestakuntza bultzatzea. Ikastetxeek autodiagnostikorako tresna bat dute, sistemaren ezarpen maila ebaluatzeko, ikasturtean egindako aurrerapena egiaztatzeko eta banakako prestakuntza plana eskatzeko.
- Estrategiari eta prozesuz prozesuko kudeaketari buruzko prestakuntza sustatzea, funtsezkoak baitira arau berrian.
- Kudeaketa tresnen eta estandarren eskaintza handitzea.
- Pertsona laguntzaileen poltsa handitzea.
- Hezkuntza Departamentuko unitate teknikoekiko koordinazioa hobetzea.

Eranskinean ageri dira helburu estrategikoetan lortutakoak.

18.
erans
kina

Plan Estrategikoaren emaitzak aztertuta, hau ondorioztatu da:

- Plan Estrategikoan ezarritako funtsezko zazpi emaitzetatik hiru lortu dira (emaitza horiek lortu nahi dira ikastetxeei eskaintzen zaien zerbitzua hobetzeko, baina Kalitate taldeak ezin ditu zuzenean kudeatu):
 - Prestakuntzarako onartzen ez diren ikastetxeen ehunekoa jaistea.
 - Kadineteen pertsonen kualifikazioa hobetzea.
 - Kadineteen irudia hobetzea.
- Helmugak gaintu dira helburu estrategikoen % 50etan; helburu horiek Kalitate taldeak egindako lanaren mende daude zuzenean. Hauek nabarmentzen dira: kudeaketa tresnen gehikuntza, ikastetxeei emaitzak kudeatzeko eskaintzen zaizkien tresnen hobekuntza, Kalitate Bulegoak eskainitako prestakuntzan parte hartzea, eta aitorpenak berritzeko kanpo-auditoretzak egiteko kualifikatutako pertsonen kopurua.

- ***Ikastetxe itunduak***

Ikastetxe pribatuek kanpo-aitorpen hauek lortu dituzte:

165. taula: Ikastetxe itunduak kalitateagatik lortutako kanpo-aitorpenak. 2022-2023

Aitorpen mota	Ematen duen erakundea	Ikastetxeak
Kalitate Egitasmo Integratua (KEI) Berriztapena	Fundación Horreum	Ikastola Erentzun (Viana)

Iturria: Nafarroako Bikaintasunerako Fundazioa eta Nafarroako Ikastolen Elkarte

4.8.3. Irakasleen etengabeko prestakuntza

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak esaten du etengabeko prestakuntza irakasle guztien eskubidea eta betebeharra dela, eta hezkuntza administrazioen eta ikastetxeen arduraren. Halaber, Europar Batasunaren gomendioekin bat, helburu gisa ezartzen du hezkuntza sistemaren kalitatea eta eraginkortasuna hobetzea. Irakasleen etengabeko prestakuntza funtsezko tresna da helburu hori lortu ahal izateko, ezagutzaren gizartean sortzen diren hezkuntza premia berriei erantzutea ahalbidetzen baitu.

Prestakuntza hori, 2022-2023 ikasturtean, honako hauek baliatuta egituratu da: Hezkuntza Departamentuko Irakasleentzako Laguntza Zentroen (ILZ) Sarea; entitate laguntzaileekiko hitzarmenak; eta Hezkuntza Departamentuko beste atal batzuek emandako edo antolatutako prestakuntza.

Irakasleen Prestakuntza Planaren helburu nagusia da Nafarroako hezkuntza sistemaren kalitatea hobetzea, ikastetxeek antzemandako beharrei erantzunez eta irakaskuntzako gaitasunen

garapena sustatuz. Hori guztia ondoren zehazten diren sei jarduera lerro estrategiko edo lehenetsuen bidez egituratzen da:

- L1. Ikasleek aktiboki eta lankidetzan ikastea sustatzen duten metodologiak ezartzea, erritmo, estilo eta premia ezberdinei erantzuteko balio dutenak eta gaitasunen ikuspegi inklusibo batetik abiatuz.
- L2. Hezkuntza teknologiak irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuan txertatzea.
- L3. Hezkuntza esperientzien eta eskola antolamendu eta kudeaketa arrakastatsuen berrikuntza, ikerketa, zabalkundea eta trukea.
- L4. Baterako hezkuntzarekiko konpromisoa eta kontzientzia kritikoaren garapena: genero berdintasuna, bizikidetzaren eta tratua, erantzukizuna eta justizia soziala, herritartasun globala, jasangarritasuna eta ingurumena.
- L5. Eleaniztasuna sustatzea, Nafarroako berezko hizkuntzetatik abiatuz eta hizkuntzen tratamendu integratua erabiliz.
- L6. Laneko arriskuen prebentzioa eta osasun integralaren hobekuntza.

ILZen jarduera nagusietako bat da egokituta daukaten eremurako beren urteko prestakuntza planean bildu jardueren antolaketaz eta garapenaz arduratzea, beti ere prestakuntza-prozesuen ardatz gisa ikastetxea hartuz. Hala bada, eta benetako prestakuntza beharretara hurbiltzeko, beren eragin eremuko ikastetxeei laguntzen dieten bost ILZ daude. Tuterako, Lizarrako, Tafallako, Iruñeko eta Lekarozko zentroyen bidez, Urteko Prestakuntza Plana garatzen da, eta aholkularitza bakoitzak ikastetxeei ematen dien laguntza antolatzen da.

Era berean, batzorde tekniko bat dago prestakuntza planen jarraipena eta ebaluazioa bermatzeko, eta batzordekideak hauek dira: Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuko pertsona bat; Orientazio Bulegoko pertsona bat; ILZ bakoitzeko zuzendaritza eta haren talde pedagogikoaren ordezkariak.

2022-2023 ikasturtean, prestakuntza sareak azpiko taulan zehaztutako zuzendaritzak eta aholkularitzak izan ditu.

166. taula: Irakasleentzako laguntza zentroak eta haiei atxikitako aholkularien kopurua. 2022-2023

ILZ	Aholkularien kopurua
Lizarra	3
Lekaroz	2
Iruñea	13
Tafalla	3
Tutera	4
HHTT*	16
Guztira	41

*Hezkuntzako teknologiei buruzko aholkularitzak, ILZe atxikiak
Iturria: Prestakuntza eta Kalitate Atala

Hezkuntza Departamentuarekin lankidetzaren hitzarmenak dituzten erakundeek beren prestakuntza planak aurkeztu zituzten eta Prestakuntza eta Kalitate Atalak onetsi eta gainbegiratu zituen, irakasleen etengabeko prestakuntzarako erabiltzen diren irizpide berak baliatuz.

2022-2023 ikasturtean Hezkuntza Departamentuko irakasleen etengabeko prestakuntzaren sarearen bidez egin den irakasleen etengabeko prestakuntza aurkeztu da ondoko taulan.

167. taula: Irakasleentzako laguntza zentroek (ILZ) aurkeztutako prestakuntza jardueren buruzko datuak: jarduerak, parte hartzaileak eta ziurtagiriak. 2022-2023

ILZ	Jarduerak	Parte hartzaileak	Ziurtagiriak
Lizarra	69	1.197	1.039
Lekaroz	38	892	707
Iruñea	394	9.049	7.378
Tafalla	56	1.105	956
Tutera	72	1.829	1.509
Guztira	629	14.072	11.589

Iturria: Prestakuntza eta Kalitate Atala

Halaber, modalitatearen arabera banatuta ematen dira irakasleentzako laguntza zentroetan antolatutako prestakuntza jardueren datuak. Jarduera horiek ILZetako prestakuntza sareak koordinatu ditu edo/eta Hezkuntza Departamentuko administrazio unitateekin lankidetzan koordinatu dira.

168. taula: ILZetan antolatutako jardueren datuak, prestakuntza modalitatearen arabera. 2022-2023

ILZ	Lizarra	Lekaroz	Iruñea	Tafalla	Tutera	Guztira
Mintegiak	17	17	99	27	22	182
Ikastaroak	23	17	177	14	37	268
Informazio saioak	8	1	42	6	6	63
Jardunaldiak			2	1	3	6
Lantaldeak	21	3	71	8	3	106
Hitzaldiak			3		1	4
Guztira	69	38	394	56	72	629

Iturria: Prestakuntza eta Kalitate Atala

Irakasleentzako laguntza zentroyen sarearen bidez garatutako etengabeko prestakuntzari buruzko datu orokorrean gain, beste taula bat aurkezten da jarraian, Antolamendu, Prestakuntza eta Kalitate Zerbitzuari atxikitako beste administrazio unitate batzuek antolatu eta diseinatutako prestakuntza programei dagozkien ziurtagiriak datuekin.

169. taula: Antolamendu, Prestakuntza eta Kalitate Zerbitzuari atxikitako administrazio unitateek antolatu eta diseinatutako programa espezifikotako prestakuntza jardueren buruzko datuak. 2022-2023

Programa espezifikoa	Ziurtagiriak
Berrikuntza-proiektuak	482
Aste berdea, urdina eta zuria	463
Guztira	945

Iturria: Prestakuntza eta Kalitate Atala

Aurrekontuko gastuaren bilakaera, 2017ko ekitalditik 2023kora bitartekoa, beheko taulan jaso da.

170. taula: Irakasleentzako prestakuntza jardueretarako aurrekontuan ezarritako gastuaren bilakaera

	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Irakasleen prestakuntza jarduerak (prestakuntza programa orokorrak)	410.000	600.000	600.000	600.000	615.710	635.710	915.434*
Hezkuntza berrikuntzako programak	50.000		50.000	70.000	75.000	90.000	90.000
Irakasleen prestakuntza hizkuntzetan (irakasleak hizkuntza modernoetan birziklatzeko programak)		50.000				133.500	150.000
Irakasleen prestakuntzarako banakako dirulaguntzak	0			20.000	20.000	20.000	20.000
Kalitatea			46.000	46.000	46.920	46.920	31.920
Guztira	460.000	650.000	696.000	736.000	757.630	792.630	1.207.354

*Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoko funtsak barne
Iturria: Prestakuntza eta Kalitate Atala


Azkenik, atal hau bukatzeko, irakasleen prestakuntza programen bilakaeraren laburpena ematen da. Bertan 2009-2010 ikasturtetik 2022-2023 ikasturtera bitarteko jardueren, parte hartzaileen eta emandako ziurtagirien kopurua eta gauzatutako aurrekontuaren datuak jasotzen dira (euroak, milakotan).

171. taula: Irakasleen prestakuntza programen laburpena

Ikastaroak	Jarduera kopurua	Parte-hartzaileak	Ziurtagiriak	Aurrekontua (milaka eurotan)
2009/10	797	17.388	14.092	1.108
2010/11	797	15.123	12.320	663
2011/12	662	13.056	10.656	518
2012/13	1.223	20.001	13.897	384
2013/14	1.365	20.100	15.120	392
2014/15	1.415	20.130	15.135	392
2015/16	1.106	17.616	15.349	406
2016/17	1.282	18.482	16.335	410
2017/18	883	14.127	12.030	
2018/19	973	15.356	13.461	
2019/20	945	17.114	15.371	
2020/21	431	12.659	10.688	681*
2021/22	697	12.481	8.813	701*
2022/23	629	14.072	11.589	915

*Zenbatekoak Prestakuntza eta Kalitate Atalak mobilizatutakoak dira
Iturria: Prestakuntza eta Kalitate Atala

174. grafikoa: Irakasleen prestakuntza programen laburpena. 2012-2023



Iturria: Prestakuntza eta Kalitate Atala

Irakasleen euskarazko hizkuntza prestakuntza

Egun, ez da antolatzen irakasleak lan lizentziarekin birziklatzeko talde espezifikorik. Irakasleen hasierako hizkuntza prestakuntzarako lan lizentziarik gabeko autoikaskuntza ikastaroak egin ditzakete irakasleek, bai helduentzako Zubiarte Euskaltegian, bai Euskarabidean, eta Zubiarte Euskaltegian gainerako modalitateei dagokienez (232/2022 *Ebazpena, ekainaren 10ekoa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez onesten baita Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko irakasleak euskaraz prestatzeko planeko 42. deialdia, 2022-2023 ikasturterako, eta plana garatzeko konpromiso ekonomikoa baimentzen baita*).

Bertan, maila hauetako hainbat irakaslek parte hartu dute:

172. taula: Irakasleen hasierako prestakuntzarako autoikaskuntza ikastaroak. 2022-2023

Maila		A1	A2	B1	B2	C1	Total
Zubiarte Euskaltegia	Ikasleak	11	9	7	7	9	43
Euskarabidea, autokudeatua	Ikasleak			1	1		2
Euskarabidea, tutorearekin	Ikasleak						0
	Guztira						45

Iturria: Euskara Atala. Zubiarte Euskaltegia. Euskarabidea

173. taula: Euskara ikasteko irakasleentzako prestakuntza ikastaroak, gainerako modalitateetan. 2022-2023

Maila		A1	A2	B1	B2	C1	Total
Zubiarte Euskaltegia	Ikasleak	18	7	13	14	16	68

Iturria: Euskara Atala. Zubiarte Euskaltegia. Euskarabidea

Euskaraz irakasten duten unibertsitateaz kanpoko irakasleentzako euskarazko etengabeko prestakuntzaren barruan, honako prestakuntza jarduerak egin dira, Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroak (EIBZ) antolatuta, Hezkuntza Departamentuko Euskara Atalaren laguntzarekin (Euskara, eta Zubiarte Euskaltegian gainerako modalitateetan) (232/2022 Ebazpena, ekainaren 10ekoa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez onesten baita Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako irakasleak euskaraz prestatzeko planeko 42. deialdia, 2022-2023 ikasturterako, eta plana garatzeko konpromiso ekonomikoa baimentzen baita).

174 A taula: Euskararen hobekuntza linguistiko eta teknikorako ikastaroak. 2022-2023. EIBZko irakasleek emanda

Jarduera	Modalitatea	Orduak, guztira	Kopurua, jardueraren hasieran	Emandako ziurtagiriak	
				Kopurua	%
Ahozko Hizkuntza Ebaluatzea (AHE)	Online	35	7	7	100
Ahozko Hizkuntza Irakastea	Online	35	11	7	64
Ahozko Hizkuntza Irakastea eta Ebaluatzea (Zubiarte euskaltegia)	Erdipresentziala	25	20	20	100
Ahozko Hizkuntza Irakastea eta Ebaluatzea (Lekaroz BHI)	Erdipresentziala	25	17	16	94
Bigarren Hezkuntzako ikasleen hizkuntza atxikimendua lantzea (Lizarralde BHI)	Erdipresentziala	20	10	8	80
Booktrailerrak eta booktubeak: irakurzaletasuna sustatzeko tresnak	Online	15	14	12	86
Erregistro informala eta intimoa	Online	20	17	11	65
Euskara hobetzeko online ikastaroa (EHOI)	Online	35	28	18	64
Euskara ikas-irakasteko jarduerak	Online	10	14	12	86
Fonemen ipuinak	Aurrez aurre	3	48	44	92
Ikasleen ahozko gaitasuna lantzeko eta IKKIren estrategiak erabiltzeko mintegia Altsasuko BHI	Aurrez aurre	23	27	25	93

Kamishibai tailerra	Online	30	13	10	77
Ohiko akatsak zuzentzen I	Online	30	27	19	70
Ohiko akatsak zuzentzen II	Online	30	21	18	86
Sormen digitala (15 ikastetxe)	Online eta aurrez aurre	25	27	16	59
Sormen digitala - aldizkaria	Online	3	29	24	83
Ulermenezko irakurketa irakasgai guztietan	Online	12	11	10	91
Zalantzak argitzeko baliabideak sarean	Online	20	26	18	69
Guztira		396	367	295	

Iturria: Euskara Atala. EIBZ

174 B taula: Euskararen hobekuntza linguistiko eta teknikorako ikastaroak. 2022-2023. Euskara Atalak antolatuta, Atalekoak diren eta Hezkuntza Departamentukoak ez diren hizlariekin.

Jarduera	Modalitatea	Orduak, guztira	Kopurua, jardueraren hasieran	Emandako ziurtagiriak	
				Kopurua	%
Bertsoa erraminta didaktikoa, Haur Hezkuntzatik Goi mailetara. Lekarozen	ikastaro	10	8	8	100
Ikasleen ahozko gaitasuna lantzeko eta IKKIren estrategiak erabiltzeko mintegia Altsasuko BHIIn 2022-2023 (23 ordukoa)	mintegia ikastetxean	23	27	25	93
Literatur solasaldi dialogikoak Lehen Hezkuntzan 2021-22	ikastaro	10	11	11	100
Ipuin kontaketa hastapenak ikastaroa 2022-23	ikastaro	10	10	6	60
LHko 1. Ziklorako Hizkuntza jolasak eta dinamikak	informazio-saioa	2,5	21	9	42
LHko 2. Ziklorako Hizkuntza jolasak eta dinamikak	informazio-saioa	2,5	10	9	90
LHko 3. Ziklorako Hizkuntza jolasak eta dinamikak	informazio-saioa	2,5	8	5	62
LHko 1. Ziklorako Hizkuntza jolasak eta dinamikak. Errepikapena	informazio-saioa	2,5	13	12	92
Sormen digitala	ikastaro	25	34	16	47
Totales		139	155	98	

Iturria: Euskara Atala

4.8.4. Prestakuntza kontseiluak

Bere eragin eremuko irakasleen ordezkarien partaidetza bermatzea da, nagusiki, irakasleentzako laguntza zentrokotako prestakuntza kontseiluaren egitekoa. Ordezkari horiek pedagogia taldeari beren ikastetxeetan antzeman dituzten prestakuntza beharrak helarazten dizkiote eta prestakuntza planeko prestakuntza-proposamenak ebaluatzen dituzte. Prestakuntza kontseilua honako hauek osatzen dute: ikastetxe publiko eta itunduen ordezkariak; aholkularien taldeak; eta kasuan kasuko ILZko zuzendariak, zeina kontseiluko burua baita.

Prestakuntza kontseilua hirutan biltzen da ikasturtean zehar.

4.8.5. Hezkuntza berrikuntzako proiektuak

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak adierazten duenez, etengabeko prestakuntza irakasle guztien eskubidea eta betebeharra da, bai eta hezkuntzako administrazioen eta ikastetxeen beren erantzukizuna ere. Era berean, ezartzen du hezkuntza administrazioei dagokiela berrikuntza programak sustatzea, irakaskuntzaren kalitatea eta zentroen funtzionamendua hobetzeko.

Arau hori betez, Hezkuntza Departamentuak hezkuntza berriztapena sustatzeko ekintzak bultzatzen ditu, berrikuntza proiektuetarako deialdien bidez.

Horrela xedatuta dago Hezkuntzako zuzendari nagusiaren martxoaren 28ko 114/2022 eta 115/2022 ebazpenetan; horien bidez arautzen dira irakasleen etengabeko prestakuntza planeko hezkuntza berrikuntzarako proiektuen deialdiak, 2022-2023 ikasturtean.

Deialdi horiek, nagusiki, laguntza ematea dute helburu, hezkuntza berritzeko proiektuak ikastetxeen eguneroko jardunean sar daitezen. Proiektu horiek bide egokia dira proposamen pedagogiko berri gehiago aplikatzeko eta haiek baliorik ba ote duten aztertzeko. Proposamen pedagogiko horiek egokiak izan behar dute etengabe aldatzen ari den gizarte honen eskaerei erantzuteko, aurrerapen didaktiko, metodologiko eta teknikoak aldiro sortzen diren garai honetan. Proiektuek hobetu nahi den alderdiaren aldaketa planifikatua egiteko modua proposatu behar dute, eta ikerketarako metodo bati jarraitu, hots, hipotesi bat formulatu eta, proiektua garatu bitartean, hipotesia egiaztatu. Halaber, aldaketak gainerako ikastetxeetara eraman ahal izatea sustatuko da.

Deialdietan, Nafarroako Foru Komunitatearen funts publikoekin mantentzen diren unibertsitateaz kanpoko araubide bereziko eta araubide orokorreko ikastetxeetan garatzen diren hezkuntza berrikuntzako proiektuetarako aitorpen eta laguntza neurriak arautzen dira.

- Haur eta Lehen Hezkuntzako bigarren zikloko ikastetxeak
- Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa)
- Araubide bereziko ikastetxeak
- Hezkuntza Bereziko ikastetxeak
- Helduen Hezkuntzako ikastetxeak
- Curriculum Egokituko Programa (CEP) edo/eta lanbide lantegiak eskaintzen dituzten ikastetxeak

Behin proiektuak aurkeztu direnean, hautapen batzorde batek aztertuko ditu, eta Hezkuntzaren webgunean eta Nafarroako Gobernuaren Zerbitzuen Katalogoan argitaratuko ditu bai proiektu onartuen zerrenda bai horiek lortutako behin-behineko puntuazioa.

Egiteko prozesua amaitzean, proiektuaren koordinatzaileak azken memoria bidali behar du

Prestakuntza eta Kalitate Atalera. Une horretatik aitzina, Hezkuntza Departamentuak hautatu diren lanak jendaurrean jartzen ahalko ditu, osorik edo zati bat.

175. taula: Onartutako berrikuntza proiektuak. 2022-2023

Proiektua	Ikastetxea
Un planeta en clave de Sol sostenible	Valle del Ebro BHI
Programando juntos un futuro mejor	Joaquín Romera DBHI
Radio IESO La Paz	La Paz DBHI
Edutical pursuit	Santos Justo y Pastor HLHIP
Mugituz bizi - Vivir en movimiento	Lumbier LH IBP
“A. H. Lifestyle” o “estilo de vida activo y saludable”	Lumbier LH IBP
Momentu bat, hamar bizipen	Legasako IP
Miradas con mucho arte	Sancho III el Mayor BHI
Ab imperio romano usque ad imperium aerium. Toulouse: de la cité romaine á l’industrie aéronautique	Lekaroz BHI
HezIKTe	Erleta IP
Zirkulazio anitza, inklusio eta ekitaterantz	Nazabal eskola
Escuela de familias, familias a la escuela	Raimundo Lanas HLHIP
Sostenibilidad ambiental MD	Mater Dei ikastetxea
Los niños y niñas que susurraban a los caballos	Hijas de Jesús - Jesuitinas ikastetxea
Txoko MORE	Bernat Etxepare IP
El kiosko, un aula del futuro	Juan Bautista Irurzun IP
Porque fueron somos, porque somos serán	Ntra. Sra. de la Asunción HLHIP
Olite diVINO	Príncipe de Viana HLHIP
Kukuline proiektua: negutegia	Elizondo IP
Interdisciplinarietà entre materias STEM	Ega BHI
Isterria en Bimodal	Isterria HBI
¡Cómo hemos cambiado!	La Ribera ikastetxea
Ambientando la música	García Galdeano HLHIP
Matematika eta robotika jendartearen eraldatzeko	Erreniega IP
El patio de los sentidos	Camino de Santiago HLHIP
Una radio para el cambio	Del Camino DBHI
BUKA: buruzko kalkuluan trebetasuna areagotzeko proiektua	Labiaga ikastola
El ambiente como tercer educador: cocina y laboratorio para la coeducación	San Miguel IP - Agoitz DBHI
Alimentación y ejercicio van de la mano	Lizarralde BHI
Volando a través de las estaciones	José María de Huarte IP
Hacia un diseño competencial del aula	Ángel Martínez Baigorri HLHIP
Txokotik txokora	San Donato ikastetxea
EMOFIT	ETI IBP
Disfrutando del teatro, aprendiendo mientras tanto	Gloria Larrainzar IP
Baso patioa	Las Amescoas IP
“Jugando a tope”, “Jolasean topera”, “Having fun”	Virgen Blanca IP (Uharte)
Patio osasungarria	San Donato IP
Onda Villena	Marqués de Villena BHI

Dicastillo TV	Virgen de las Nieves HLHIP
Taller de cocina	Sahats HLHIP
Palabra de pincel	Virgen de la Cerca HLHIP
Emozioa eta mugimendu librearekin ikasteko aukera ematen duten ekosistemen antolaketa	Elizondo IP
Haziak lurrean bezain errotuak	Otsagabia HHLHIP
Cántamelo todo	La Ribera ikastetxea
Smartland: laboratorio del territorio	Fundación El Castillo
Cocinando nuestro laboratorio científico	San Francisco IP
AR-SANDBOX: un recurso educativo interactivo para la modelización y simulación de procesos geológicos	San Francisco IP
Abriendo puertas	Mendillorri HLHIP
Klima aldaketa ikertzen: Pirinioko baso bat eredu (Phenoclim basoa, metodologia aktiboen inplementazioa Haur Hezkuntzako geletan)	Otsagabia DBHI
Implementación de metodologías activas en las aulas de infantil	San Miguel IP – Agoitz DBHI
XX. mendeko memoria historikoa Zaraitzun	Otsagabia DBHI
Mendavia en verde	San Francisco Javier HLHIP (Mendabia)
Auzolanean espazioak eraldatzen	Irurita HLHIP
Te presento mi pueblo	Virgen de Nieves HLHIP
Mendixiki irratia	Mendigoiti HLHIP

Iturria: Irakasleentzako Laguntza Zentron eta Berriztapen Proiektuen Bulegoa

Nahiz eta azken bi urteetan COVID-19aren ondorioz etenaldia izan den, proiektuen berri zabaltzen da, 2016-2017 ikasturteaz geroztik, udazkenean egiten diren berrikuntza jardunaldietan, Nafarroako Eskola Kontseiluarekin lankidetzan. Jardunaldi horiek aukera ematen dute:

- Proiektuetako batzuk aurrez aurre aurkezteko, Tuteran eta Iruñean antolatzen diren saio batzuetan.
- IDEA aldizkari digitalaren ale monografiko bat idazteko (bertan, jaso diren proiektuen komunikazio guztiak aurkezten dira).
- Haren bilduman liburu monografiko bat argitaratzeko, jasotako komunikazioekin.

4.9. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak

4.9.1. Informazioaren eta komunikazioaren teknologien (IKTen) hedapena eta erabilera

Ukaezina da haurrak eta gazteak IKTak erabiltzera ohituta daudela bai eremu pribatuan bai hezkuntza sisteman. Txosten honen helburuei dagokienez, prozesu horren abiadurak erronka eginez bihurtzen du azterketa; izan ere, IKTen hedapenari eta sakontasunari buruzko ikerketak zahartuta gertatzen dira argitaratu bezain laster. Horren adibide argia da, geroago aipatuko den bezala, hainbat hezkuntza administrazio ikastetxeetako konexioak dibertsifikatzeko eta hobetzeko proiektuak bultzatzen ari direla eta, horrez gain, hezkuntza aplikazioak banatzen, ikastetxeak ekipoz hornitzen eta irakasleak eta ikasleak zeharka prestatzen dituztela. Hezkuntza Departamentuak, jarraian nabarmenduko diren ekimenak direla eta, berebiziko garrantzia du.

Edonola ere, eta aipatu berri ditugun oztopoak gogoan izanda, hona hemen eskuragarri dauden intereseko datu batzuk, erreferentzia gisa. Hala, besteak beste, haurrak interneten intentsiboki sartzearen inguruko datuak eta telefono mugikorra izatearen ingurukoak ageri dira. Hondar urtean, batezbesteko nazionalak Nafarroako sarrera maila gainditu du.

176. taula: Interneteko konexio datuen bilakaera, 10 eta 15 urte bitarteko haurren artean, urte bakoitzeko azken hiru hilabeteetan

	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Espainia	91,9	92,0	93,6	95,2	95,1	92,8	92,9	94,5	97,5	94,9
Nafarroa	96,6	97,0	98,3	95,3	98,1	93,4	92,0	92,5	97,3	95,5

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Familietan informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzeari eta ekipamenduari buruzko inkesta

19.
erans
kina

177. taula: IKTen erabilera hondar hiru hilabeteetan, 10 eta 15 urte bitarteko haurren artean. 2022


	Ordenagailuen erabiltzaileak	Interneteko erabiltzaileak	Mugikorra erabilera
Guztira	93,1	94,9	69,5
Sexuaren arabera			
Gizonak	92,9	95,4	68,4
Emakumeak	93,2	94,5	70,7
Adinaren arabera			
10 urte	90,1	90,0	21,2
11 urte	92,2	93,2	40,3
12 urte	92,9	94,8	75,5
13 urte	93,1	95,5	87,1
14 urte	94,0	96,9	91,6
15 urte	95,5	98,3	94,9

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Familietan informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzeari eta ekipamenduari buruzko inkesta

10-15 urteko biztanleen artean, oro har, oso handia da IKTen erabilera proportzioa. Ordenagailuaren erabilera (% 93,1) oso zabaldua dago; are gehiago Internetena (% 94,9). Bestalde, 10-15 urteko biztanleen % 69,5ek telefono mugikorra du. Sexuaren arabera, neskatoket neurri handiagoan erabiltzen dituzte teknologia berriak. Eta zenbat eta urte gehiago izan, orduan eta gehiago erabiltzen dira IKTak, batez ere 13 urtetik aurrera.

Halaber, ikastetxe publikoetan ordenagailu bakoitzeko dagoen batez besteko ikasle kopuruari dagokionez –lehenasunez irakasleek erabiltzen dituztenak eta ikasleekin irakaskuntzan baliatzeko erabiltzen direnak barne hartuta–, azken datu orokor konparagarriari erreparatuta, ikusiko dugu autonomia erkidegoetako balioen artean desberdintasun handiak daudela.

175. grafikoa: Ordenagailuen batez besteko kopurua unitateko/taldeko, ikastetxearen titulartasunaren/motaren arabera, autonomia erkidego eta hiri autonomo bakoitzean. 2020-2021



Iturria: Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioa. Estatistikaren eta Azterlanen Zuzendariordetza Nagusia

20. erans kina

Antzeko zerbait ikusten da autonomia erkidego guztietan, ikasleak beren gailuekin konekta daitezzen hari gabeko konexioa duten ikastetxeen ehunekoari erreparatuz gero.

178. taula: Interneten argitaratutako webgunea duten ikastetxeen ehunekoa autonomia erkidego eta hiri autonomo bakoitzean, ikastetxearen titulartasunaren/motaren arabera. 2020-2021

	Guztira	Ikastetxe publikoak	Lehen Hezkuntzako eta Hezkuntza Bereziko ikastetxe publikoak	Ikastetxe publikoak-Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide-Heziketako ikastetxeak	Ikastetxe pribatuak
Espainia	91,7	90,1	87,4	97,4	96,7
Nafarroa	84,2	80,2	75,7	92,1	98,5

Iturria: Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioa. Estatistikaren eta Azterlanen Zuzendariordetza Nagusia

21. erans kina

179. taula: SDIak dituzten ohiko ikasgelen ehunekoa autonomia erkidego eta hiri autonomo bakoitzean, ikastetxearen titulartasunaren/motaren arabera. 2020-2021

	Guztira	Ikastetxe publikoak	Lehen Hezkuntzako eta Hezkuntza Bereziko ikastetxe publikoak	Ikastetxe publikoak-Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide-Heziketako ikastetxeak	Ikastetxe pribatuak
Espainia	65,8	63,2	70,8	52,6	72,9
Nafarroa	65,4	62,1	65,4	57,6	74,8

Iturria: Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioa. Estatistikaren eta Azterlanen Zuzendariordetza Nagusia

22.
erans
kina

180. taula: Ikaskuntzarako ingurune birtualeko zerbitzuak dituzten ikastetxeen ehunekoa autonomia erkidego eta hiri autonomo bakoitzean, ikastetxearen titulartasunaren/motaren arabera. 2020-2021

	Guztira	Ikastetxe publikoak	Lehen Hezkuntzako eta Hezkuntza Bereziko ikastetxe publikoak	Ikastetxe publikoak-Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide-Heziketako ikastetxeak	Ikastetxe pribatuak
Espainia	68,6	67,9	61,2	85,4	71,0
Nafarroa	63,6	61,2	54,4	79,4	72,3

Iturria: Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioa. Estatistikaren eta Azterlanen Zuzendariordetza Nagusia

23.
erans
kina

181. taula: Hezkuntza teknologiek inbertsioa duten proiektuetan parte hartzen duten ikastetxeen ehunekoa autonomia erkidego bakoitzean, ikastetxearen titulartasunaren arabera. 2020-2021

	Guztira	Ikastetxe publikoak	Lehen Hezkuntzako eta Hezkuntza Bereziko ikastetxe publikoak	Ikastetxe publikoak-Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide-Heziketako ikastetxeak	Ikastetxe pribatuak
Espainia	41,3	41,7	38,3	50,7	40,1
Nafarroa	31,3	28,0	21,3	46,0	43,1

Iturria: Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioa. Estatistikaren eta Azterlanen Zuzendariordetza Nagusia

4.9.2. Hezkuntzako Teknologien eta IKT Azpiegituren Zerbitzua

Hezkuntzako Teknologien eta IKT Azpiegituren Zerbitzuak hezkuntzaren digitalizazioa du eginkizun nagusia, eta arlo hauetaz arduratzen da, besteak beste:

- Hezkuntzako informazioaren kudeaketa: EDUCA, Nafarroako Gobernuaren eskola kudeaketarako sistema, funtsezko tresna da eskualdeko hezkuntza prozesuen administrazioan eta koordinazioan. Haren diseinuak eta funtzionalitateak eskola informazioaren kudeaketa eraginkor eta zentralizatua ahalbidetzen dute eta hezkuntza komunitatearen lana errazten.
- Ikaskuntza-ingurune birtualak eta tresna digitalak: EDUCA harmoniaz txertatu da Classroom, Moodle eta horrelako ikaskuntza-ingurune birtualetan, ekosistema digitala sortuz. Bertan trabarik gabe egiten dute bat eskola kudeaketak eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak. Gainera, EDUCA hezkuntzako beste zerbitzu batzuekin uztartzen da, eta horrela irismen eta ahalmen handiagoa du hezkuntza esparruko behar aldakorrei erantzuteko.
- Eskola informazioaren ustiapena: eskola estatistikak egitea, hezkuntzako datuen eskaerei erantzutea, hezkuntzako adierazleak aztertu eta argitaratzea, eta hezkuntzako datuen argitalpenean erreferente diren erakundeekin lankidetzan aritzea.
- Digitalizazioa sustatzea hezkuntzan: teknologiak curriculumean integratu daitezen sustatzea, hezkuntzaren digitalizazioa sustatzea eta proiektu berritzaileak garatzea STEAMen, robotikaren eta adimen artifizialaren arloetan, besteak beste.
- Konektibitatea eta komunikazioak: ikastetxeetan Internetarako sarbidea eta konektibitatea bermatzea, eta, gainera, departamentuaren eta ikastetxeen arteko komunikazio eta informazio-trukerako sistemak kudeatu eta mantentzea.
- Koordinazioa eta lankidetzak: baliabide informatikoei dagozkien ekintza teknikoak beste administrazio unitate batzuekin koordinatzea eta hezkuntzako teknologiarekin zerikusia duten proiektu eta foroetan Hezkuntza Departamentua ordezkatzeko.
- ikasNOVA Baliabide Digitalen Zentroa: ikasNOVA Baliabide Digitalen Zentroaren ekintzak kudeatu eta koordinatzea, behin zentroa eratu ondoren, eta hezkuntzaren digitalizazioaren erreferente bihurtzea.
- Prestakuntza eta aholkularitza: irakasleentzako tresna eta metodologia digitalei buruzko prestakuntza espezifikoa eskaintzea, hezkuntza komunitatea aholkatzea curriculum-integrazioari eta gailuei buruz, eta beste unitate batzuekin koordinatzea hezkuntzaren digitalizazioari buruzko prestakuntza emateko.
- Ekipamendu hornidura eta laguntza: ikastetxeak informatikako eta ikus-entzunekeo ekipamenduez, robotikaz eta komunikazio sistemaz hornitzeko irizpide eta planak zehaztea.
- IKT azpiegitura: informatika ekipamendua erregularizatu eta eguneratzea ikastetxeetan, sistema eragileak eta aplikazioak garatu eta mantentzea, eta erabiltzaileei arreta eta laguntza informatikoa ematea.

Zerbitzuaren jarduketetan, segurtasunak eta azpiegiturak bat egiten dute ekosistema digital sendoa eta, batez ere, segurua sortzeko. Konektibitatea dagoeneko ez da sarerako sarbide hutsa, hezkuntza komunitatea batzen duen zubia baino, eta interakzio bizkor eta aberasgarriak egiteko aukera ematen du. Konektibitate horri indarra ematen dio ekipamenduaren hornidurak, hezkuntza esparruko egungo eta etorkizuneko eskariei erantzuteko diseinatuta baitago.

Hezkuntzako ekitate digitala giltzarrietako bat da, mundu gero eta interkonektatuago honetan funtsezkoa baita tresna eta baliabide digitalen irispide ekitatiboa bermatzea. Horregatik ezinbestez jo behar da konektibitate hutsetik harago; bermatu behar da ikasle bakoitzak, bere jatorria, trebetasunak edo inguruabarrak gorabehera, hezkuntza ingurune digitalean aurrera egiteko aukerak eta behar dituen laguntzak izanen dituela. Desberdintasunak estimatzen eta onartzen dituzten ikaskuntza-inguruneak sortzeko lan egiten dugu, ikasle bakoitza baloratua eta ahaldundua senti dadin. Ekitate digitala aniztasunarekiko benetako arretarekin konbinatuz eraiki nahi dugun hezkuntza sisteman teknologia ez da hesia izanen, aukerak eskura jartzen dituen zubia baizik.

Halaber, giro bat sustatu behar dugu non errespetua eta lankidetzat digitala ikasteko funtsezko tresnak izanen diren eta hezkuntza komunitateko kide bakoitzak ingurune segurua eta aberasgarria irakatsi, ikasi eta elkarlanean jardun ahalko duen.

4.9.3. ikasNOVA Baliabide Digitalen Zentroa

Aurreko ikasturteko ildotik jarraituz, 2023-2024 ikasturtean asmo handiko lan bati ekin diogu: hezkuntzaren digitalizaziorako programan urratutako bidea sendotu eta zabaltea, ikasNOVA Baliabide Digitalen Zentro berria ikusmiran dugula. Baliabide zentro horrek, baliabide digitalen epizentro bat ezartzeaz gain, berrikuntza pedagogiko eta teknologikoaren faro bat izatea ere du helburu.

Behin ezarritakoan, ikasNOVA Baliabide Digitalen Zentroa zutabe nagusia izanen da Nafarroan hezkuntzaren digitalizazioaren sustapenean eta aurrerabidean. Zentro horrek ikastetxeen berezitasunei eta eskakizunei egokituko zaizkien plan digitalak diseinatu eta gauzatzeko gaitasuna izanen du. Gainera, aholkularitza eta babes eskainiko ditu hezkuntzaren testuinguruan proiektu digitalak abian jartzeko, eta horien inplementazio eta moldakortasun egokiak bermatuko ditu.

Tresna eta metodologia digitalei buruzko ikastaro espezializatuak ere antolatu eta eskainiko ditu, irakasleek esparru teknologikoan dituzten konpetentziak indartzeko. Horrekin batera, plataforma digitaletarako hezkuntzako materialak sortzen eta egokitzen jardunen du, eta lan horretan eduki bakarrak eta etorkizuneko hezkuntza sistemaren eskariekin lerrokatuak bermatuko ditu.

Haren eginkizun nabarmenetako bat izanen da irakasle eta ikasleen konpetentzia digitalak ebaluatzea eta ziurtagiriak ematea esparru digitalean duten prestakuntza aintzat hartuta.

Gainera, zentroak aktiboki sustatuko du pentsamendu konputazionala curriculumean sar dadin eta irakaskuntzako hainbat metodologiaren aplikazioa dadin, eta hezkuntzaren digitalizazioa sustatuko du STEAMen, robotikaren eta adimen artifizialaren arloetan, besteak beste. Horrekin guztiarekin batera, berrikuntza sustatuko du hezkuntza esparruan, eta hezkuntza esparruko eraldaketa digitalarekin lotutako proiektuak gidatu eta ebaluatuko ditu.

IkasNOVA gela. Metodologia berriak, gune berriak eta tresna berriak

Aipamen berezia merezi dute pixkanaka ezartzen ari diren ikasNOVA gelek. IkasNOVA gelak European Schoolnet-en 'Future Classroom Lab' delakoan du jatorria, Bruselan. Gela berritzaile hauek hiru zutabe dituzte, funtsezkoak eta ezinbestekoak: espazio malguak, teknologiararen integrazioa, eta ikasle guztien ikaskuntza aktiboa sustatzen duen pedagogia.

Ikasleen ikaskuntza aktiboa ezinbestekoa da gela honetan. Ikasleak beren ikaskuntzaz jabetzen dira, eta aldatu egiten da haien rola ikasgelan, irakasleen rola aldatzen den bezala: ikaskuntzan gidari, aholkulari eta bidelagun bilakatzen dira. Gela honetan ikerketaren bitartez ikasten da, ikaskideekin elkarlanean, gogoeta eginez, elkarri erakutsiz eta aurkeztuz aurkikuntzak, sortutako produktuak, proiektuak etab.

Ikasgela egokia da irakaskuntza partekatua gauzatzeko, maila arteko eta diziplina arteko lanerako, talde interaktiboetan jarduteko, gaitasun oinarrizko eta espezifikokoak garatzeko eta ikasle guztiak gelan integratzeko ikaskuntzaren diseinu unibertsalaren gidalerroei jarraituz eta bizikidetzatza digitala sustatuz.

Helburua da, azken batean, gela honetan egiten den guztiak oihartzuna izatea ohiko ikasgeletan, eta ikaskuntza aktiboa eta teknologiaren integrazioa ikastetxeko ikasgela guztietara zabaltzea.

Aurreko ikasturteetan bezala, 2023-2024 ikasturtean zehar sare publikoko ikastetxeei deialdia egingen zaie ikastetxeko proiektua aurkezteko; hala, edukiko dugu ikastetxe interesdunen zerrenda ordenatu bat, erreferentzia izanen dena ikasNOVA gelako jarduerak planifikatzeko 2024-2025 ikasturterako.

182. taula: 2023-2024 ikasturtean ikasNOVA gelen gune espezifikoak izanen duten ikastetxeak

Instalazio mota	Instalazio kopurua*
ikasNOVA gelak dituzten ikastetxeak	69

Iturria: Hezkuntzako Teknologien eta IKT Azpiegituren Zerbitzua

4.10. Lanbide Heziketa

4.10.1. 2030 Agenda

Lanbide Heziketa, 2030 Agendan eta hartatik eratorritako gidalerroetan adierazten denez, funtsezko elementua da Europako garapen ekonomiko eta sozialerako eta europarren ongizaterako.

Lanbide Heziketa sustatzearen alde eginda, nabarmen egin dute hobera sistema horren bidez prestatzen diren pertsonen buruzko datuek, eta herritarren ustez arrakasta izateko bidea da lanbide heziketa. Europako 2030 Agendak, kualifikazio eskariari dagokionez, zehaztu du ezen Espainian, 2025era begira, kualifikazio maila handia duten pertsonen lanpostuen % 37 izanen dituztela, kualifikazio maila ertaina dutenek, berriz, % 49 izanen dituztela eta kualifikazio maila apalekoek, azkenik, %14 baino ez. Gainera, gehiago eskatuko dira profil teknikoak eta STEM (Zientzia, Teknologia, Ingeniaritza eta Matematika) prestakuntzari lotutakoak, sormenaren eta berrikuntzaren garrantzia ahanzi gabe: STEAM (arteak eta diseinua gehituta).

Horregatik, garapen ekonomikoaren ikuspuntutik, Nafarroan Lanbide Heziketak pertsonen kualifikazio beharrak ase behar ditu, jakintzan, eraldaketa digitalean eta ekonomia berde jasangarrian oinarritutako ekonomiarantz aurrera egiteko eta, gainera, ongizatea eta gizarte kohesioa bermatzeko eta herritarrek garapen pertsonal eta profesionalari begira dituzten itxaropenei erantzuteko.

Esparru horretan –2030 Agenda, Next Generation EU suspertze funtsaren hiru zutabeak eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plan Nazionala–, hamar palanka-politikatiko bat garatzen da, “Hezkuntza eta jakintza, etengabeko prestakuntza eta gaitasunen garapena” deritzona, eta horren neurrietako bat da Lanbide Heziketa Bultzatzeko Plan Estrategikoa, honako hauek baliatzen dituena: titulazioak modernizatzea, laneko kualifikazio sistemen garapena (*life-long learning*) eta LH Dualaren garapena.

Badago egoera berri honetan bereziki garrantzitsua den beste alderdi bat: lanbide heziketako irakaskuntzak dibertsifikatzea, eta, horretarako, bizitzan zeharreko prestakuntza sustatzea, bai eta berriz kualifikatzea ere, sarean, modu erdipresentzialean eta moduluz modulu dauden prestakuntza eskaintzen bidez, eta prestakuntza partekatzea enpresekin Lanbide Heziketa Duala erabiliz.

Bestalde, begi bistakoa da metodologia berritzeko prozesua ezin dela gehiago geroratu; izan ere, berrikuntza hori beharrezkoa da, alde batetik, heziketa duala eskainiko duten ikastetxeei antolatzeko malgutasuna emateko eta, bestetik, ikasleak lan-munduan gero eta garrantzitsuagoak diren gaitasun berri transbertsalak eskuratzera bultzatzeko, besteak beste, ekimena, talde-lana, autonomia, sormena, arazoei aurre egiteko ahalmena... Horregatik, bultzada berezia ematen zaio proiektuetan oinarritutako elkarlaneko ikaskuntzako metodologiaren ezarpenari, Kimua programaren inguruan egituratuta. Ildo horretan bultzada berezia ematen zaio ekintzailetzarako konpetentzien garapenari ere, Inizia programaren bidez.

Azkenik, ikasturte honetan garrantzi bereziko gertakaria izan da uztailaren 18ko 659/2023 Errege Dekretua onestea. Dekretu horrek Lanbide Heziketaren Sistemaren antolamendua garatzen du.

2022-2023 ikasturtean Lanbide Heziketako ikastetxe bateratuetan eskainitako modalitate eta bideetan, prestakuntza ziklo guztietan matrikulatutako ikasleei buruzko datuak ematen dira hurrengo taula honetan.

183. taula: Lanbide Heziketako ikastetxe bateratuetako ikasleak. 2022-2023

Titulartasuna	Ikastetxe integratua	Ikasleak		
		G	E	Guztira
Publikoa	ETI IBP	888	557	1445
	Maria Ana Sanz Administrazioako, Merkataritzako eta Informatikako IB	719	613	1332
	Nafarroako Lanbide Eskola Tekniko Sanitarioa IB	300	641	941
	Donapea IIP	611	326	937
	Burlada LH IB	269	556	825
	Lizarrako II Politeknikoa	442	271	713
	Virgen del Camino IIP	667	44	711
	CI San Juan – Donibane IB	444	83	527
	CI Escuela de Educadoras y Educadores – Hezitzaile Eskola II	74	450	524
	Nekazaritza eta Basogintzako IB	335	151	486
	Tafalla IBP	290	192	482
	Huarte IBP	266	109	375
	Lumbier IB LH	269	65	334
	Energia Berriztagarrien Goi Mailako II	295	25	320
	CIP Elizondo Lanbide Eskola IIP	123	108	231
	CIP FP Sakana LH IBP	190	32	222
	Ikasleak guztira ikastetxe integratu publikoan	6.182	4.223	10.405
	Pribatua	Politécnico Salesianos IB	613	71
Cuatrocientos IB		385	236	621
María Inmaculada IB		76	279	355
Carlos III IB		99	170	269
Escuela Politécnica Navarra IB		24	148	172
Fundación Laboral de la Construcción IB		62	3	65
Ikasleak guztira ikastetxe integratu itunduetan		1.259	907	2.166
Alumnado total en Centros Integrados		7.441	5.130	12.571

Iturria: Lanbide Heziketaren Antolamendu eta Ebaluaziorako Atala

Bestalde, eskaintako titulazioak eta heziketa zikloak, Lanbide Heziketako, Digitalizazioko eta Hezkuntza Zerbitzuetako Zuzendaritza Nagusiaren eskumena diren lanbiderako irakaskuntzetako teknikari eta goi mailako teknikari tituluei eta haien espezializazio ikastaroei dagozkienak (Lanbide Heziketako irakaskuntzak, Arte Plastikoetako eta Diseinuko lanbide irakaskuntzak eta Kirol irakaskuntzak), eta azken ikasturteetan izan duten bilakaera beheko taulan ageri dira.

184. taula: Eskaintako teknikari eta goi mailako teknikari tituluaren kopuruaren bilakaera

Ikastaroa	Erdi maila (Teknikari titulua)	Goi maila (Goi mailako teknikari titulua)	Guztira
2009/10	32	46	78
2010/11	34	48	82
2011/12	32	47	79
2012/13	32	48	80
2013/14	34	51	85
2014/15	37	51	88
2015/16	38	52	90
2016/17	42	51	93
2017/18	40	55	95
2018/19	41	61	102
2019/20	41	61	102
2020/21	43	60	103
2021/22	51	65	116
2022/23	51	71	122

Iturria: Lanbide Heziketaren Antolamendu eta Ebaluaziorako Atala

Lanbide Heziketako erdi mailako zikloetan, erdi mailako ziklo presentzial baten 2. maila egiten ari diren ikasleen % 11,6 LH Dualeko modalitatean ari dira (ehuneko 2,4 puntu gehiago 2021-2022 ikasturteko kopuruaren aldean).

Lanbide Heziketako goi mailako zikloetan, goi mailako ziklo presentzial baten 2. maila egiten ari diren ikasleen % 19,3 LH Dualeko modalitatean ari dira (ehuneko 2,5 puntu gehiago 2021-2022 ikasturteko kopuruaren aldean).

Lanbide Heziketa Antolatu eta Bateratzeari buruzko martxoaren 31ko 3/2022 Lege Organikoak Lanbide Heziketako heziketa ziklo guztien izaera duala ezarri du.

185. taula: Lanbide Heziketa Dualari buruzko datuak. 2022-2023

LH DUALA	Ikastetxeak	Zikloak	Ikasleak LH Dualeko enpresan		
			G	E	Guztira
LH Berezia	1	1	3	6	9
Oinarrizko LH	3	4	40	13	53
Erdi maila	14	17	170	89	259
Goi maila	15	24	298	193	491
Guztira	21	46	511	301	812

Iturria: Lanbide Heziketaren Antolamendu eta Ebaluaziorako Atala

4.10.2. Lanbide Heziketa Duala

Nafarroako Foru Komunitatean, 2022-2023 ikasturtean Lanbide Heziketa Duala garatu da Lanbide Heziketako 21 ikastetxetan, 46 heziketa ziklotan, eta 812 ikaslek eta 1.100 enpresak baino gehiagok parte hartu dute. Aurreko ikasturtearekin alderatuta, 19tik 21era igo da LH Duala garatzen duten LHko ikastetxeen kopurua, eta 665etik 812ra, berriz, ikasleen kopurua. Erdi eta goi mailako zikloetan, bigarren mailako ikasleetatik ia % 15,7 ari dira LH Dualeko modalitatean.

Gainera, 3/2022 Legearen eta LH Dualeko eredu berriaren testuinguruan, Hezkuntza Departamentuak 2022-2023 ikasturtean talde eragile bat sortu du Lanbide Heziketa Dualeko eredu berria saiatzeko. Talde eragile horretan 13 ikastetxe publikok eta 3 ikastetxe itunduk parte hartzen dute, oinarritzko mailako, erdi mailako eta goi mailako 33 heziketa ziklotan, guztira.

Talde eragile horren esparruan, Uharte IBPak eta Corellako Arte eta Goi mailako Diseinu Eskolak Lanbide Heziketa Dualeko eredu berria garatu dute, lehen mailako ikasleei prestakuntza emanaz enpresetan.

186. taula: Nafarroako Lanbide Heziketa Dualaren datuak, sexuaren eta ikasketen arabera. 2022-2023 ikasturtea

	Erdi maila			Goi maila			Guztira		
	G	E	Guztira	G	E	Guztira	G	E	Guztira
2. mailako ikasle dualak	170	89	259	298	193	491	468	282	750
2. mailako ikasleak	1.365	874	2.239	1.528	1.019	2.547	2.893	1.893	4.786
Ehuneko	12,5	10,2	11,6	19,5	18,9	19,3	16	14,9	15,7

Iturria: Lanbide Heziketaren Antolamendu eta Ebaluaziorako Atala

4.11. Landa eskola

Landatartasun terminoak erreferentzia egiten dio komunitate batek landa eremu geografikoarekin ezartzen duen loturari, baina komunitate bat landatarra dela uste izaten da baldin eta, baliabide naturalen eskaintza dela-eta, biztanleek lortzen badute lurraldearekiko halako atxikimendua garatzea non prest baitaude gizarte bat eraikitzeko baliabide horietan oinarrituta. Beraz, toki jakin batean bizitzea baino zerbait gehiago da: harekin identifikatzeko modu bat ere bada.

Landa eskola publikoa da, txikia da eta herrikoa da.

Eginkizun sozial bikoitza betetzen du. Alde batetik, herrietako haurrentzat hezkuntzarako atea da, eta bestetik, lurraldea garatzeko funtsezko zerbitzua da, biztanleak errotzea ahalbidetzen duelako.

Landa eskolek ikasleen eta familien hezkuntza eskariei erantzuten diete. Eskari txikiak izaten dira oro har, eta ez dute eskola mailakatu eta "osatuak" eratzeko biderik ematen, 3-12 urte bitarteko eskola maila dagokienez. Horren orde, adin desberdinetako ikasleak talde-ikasgela berean elkartzen dira eta irakasle bat dago talde bakoitzeko, adin desberdinetako haurrekin lan egiten duena aldi berean (Haur Hezkuntzako 2. zikloa eta Lehen Hezkuntza). Horregatik *maila anitzeko eskola* deitzen zaie.

Nafarroan honela definitzen dira landa eskolak: *landa lurraldeetan kokatutako ikastetxe publikoak, bederatzi unitate edo talde baino gutxiago dituztenak, Haur eta Lehen Hezkuntzaren etapetako haurrei hezkuntza zerbitzua ematen dietenak, ikasgela guztiak edo ikasgeletako batzuk maila anitzekoak izanda.*

Nafarroako landa eremu guztiek dituzte horrelako ikastetxeak. Besteak beste:

- Eskola unitarioa da ikasle guztiak talde-ikasgela bakarrean elkartzen dituen
- Eskola "osatugabea" da Haur eta Lehen Hezkuntzako maila batzuk falta dituen
- Landa eskola osatua da maila guztiak dituen, denak edo batzuk maila anitzeko ikasgeletan bilduta.

(*Eskola mailakaturik edo osatua da hezkuntza maila bakoitzeko talde bat duena gutxienez, eta, beraz, ez da landa eskolatzat jotzen).

Berezitasun horiek, alegia, landatartasunak eta maila aniztasunak, metodologia didaktiko askotarikoak eta malguak bilatzera behartzen dituzte irakasleak, eta koordinazio eta lankidetzarako espazioak behar dira ikastetxe bateko taldeak eta hurbileko ikastetxeetakoak elkartzeko. Kasu askotan zonako irakasle taldeak ere osatzen dira hezkuntza proiektu beraren inguruan.

Horrek guztiak hezkuntza eredu desberdin eta berezi bilakatzen ditu landa eskolak. Erronka pedagogikotzat dute berrikuntza, eta inklusiorako, ekitaterako eta kalitaterako eraldaketa ahalbidetzen die.

Eskolatzeari buruzko ikuspegi orokorrak eta eskolek udalerrien arabera duten banaketak argi eta garbi adierazten dute zein sakabanatuta dagoen eskolaztea. Hala, Iruñean 43 ikastetxe daude, tipologia askotakoak, eta Nafarroako beste 109 udalerritan eskola bakarra dute, betiere publikoa. Horietatik 62 landa eskolak dira.

- **Ezaugarriak**

Ez dago landa eskolaren definizio zehatzik, eskola bakoitza bakarra delako, herri bakoitza bezala. Hala ere, guztiek gutxi-asko partekatzen dituzten ezaugarri orokor batzuegatik bereizten ahal dira.

- Normalean herri txikien behar espezifikoak erantzuten dien eskola mota da. Nahiz eta herri horiek iraganean, oro har, nekazaritza, abeltzaintza edo basogintza jardueri edo eratorri lotutako ekonomia izan duten, egun ezaugarri ekonomiko lausoagoak dituzte, zerbitzuen eta turismoaren arloko jardueren gehikuntza dela eta.
- Herriko helduak eta aurreko belaunaldiak eskola berean eskolatuak izan ohi dira. Horregatik, oso sendoak izaten dira eskola komunitateari eusten dioten loturak.
- Eskola herriari bizia ematen dion erakundea da eta herria ezin da ulertu eskolarik gabe. Horregatik, biztanle guztiek ikastetxea balioetsi eta harekin modu aktiboan elkarlanean jardun ohi dute.
- Eskolak harreman handia izan ohi du herriko udalarekin. Udalak ikastetxeari laguntzen dio bere esku dituen baliabideak emanez: instalazioak eta mantentzea, jarduerak, laguntza ekonomikoak, etab.
- Komunitateak, aldi berean, eskolaren instalazio eta zerbitzuak erabiltzen ditu herriko jardueretarako.
- Beren ezaugarriengatik –sustraiak, landatartasuna, komunitatearekiko eta ingurunearekiko harreman handia eta taldekatzeak–, ikastetxe hauek berriazko prestakuntza duten irakasleak behar dituzte. Landa eskolako irakasleek urtez urte aldatzen diren egoera, maila eta adinetara egokituz gauzatu behar dute beren lana.

- Eremu bereko ikastetxeek irakasle espezialistak partekatzen dituzte. Hori dela-eta, beharrezkoa da ikastetxeen arteko koordinazioa.
- Funtsezkotzat jotzen da landa eskola hurbileko gizarte, natura eta kultura ingurunera egokitzea eta ikaskuntza harekin lotzea. Hori lortzeko, funtsezkoak dira esperimendazio hezigarria eta pedagogia aktibo, inklusibo eta lankidetzazkoen garapena.
- Landa eskoletako taldekatzeak aldakorrak dira maila bakoitzean eskolatutako haurren kopuruaren arabera eta eskolaren antolaketari buruz hartzen diren erabakien arabera.
- Maila anitzeko taldeetan beharrezkoa da haurren arteko laguntza eta elkarlanerako jarrera.
- Ikasleen kopurua urria bada, baliteke gertuko beste ikastetxe batzuekin batera jarduerak egin beharra.
- Landa eskola oso ingurune egokia da ikasle eta familia guztiek eta herriko komunitate osoak parte hartzeko jarduerak antolatzeko.
- Jantoki eta garraio zerbitzu osagarriak antolatzeko zailak dira, eta funtzionatzeko baliabide eta babes egokiak behar dituzte.
- Ikastetxe hauetan irakasleen mugikortasuna izugarri handia izaten da, eta horrek zaildu egiten du epe luzeko proiektuak garatzea.

Eranskinean landa-eskolek kontsulta zaitzakete.

25.
erans
kina

Landa eskolek hainbat hizkuntza eredu eskaintzen dituzte, haien aniztasunaren erakusgarri:

187. taula: Hizkuntza ereduaren arabera laburpena

Hizkuntza ereduak	2018/19		2019/20		2020/21		2021/22		2022/2023	
	Ikasl.	Kopurua kop.	Ikasl.	Kopurua kop.	Ikasl.	Kopurua kop.	Ikasl.	Kopurua kop.	Ikasl.	Kopurua kop.
D ereduak	1.604	147	1.455	139	1.548	152	2.488	209	2.577	218
IIP programa	19	2	7	1	5	1				
G/A ereduak	642	70	742	72	569	58	704	69	717	63
D eta G/A ereduak	189	19	198	17	155	15	163	12	27	4
G/A eta IIP ereduak	640	53	795	75	928	87	1.077	101	1.123	105
Guztira	3.094	291	3.197	304	3.205	313	4.432	391	4.444	390

Iturria: Haur Eskolen eta Landa Eskolen Atala

Eremu hauetan jaiotze tasa aldakorra denez, landa eskoletako taldekatzeak ere aldakorrak dira maila bakoitzean eskolatutako haurren kopuruaren arabera eta eskolaren antolaketari buruz hartzen diren erabakien arabera. Errealitate hain konplexu hori ezagutzea interesgarria izan daiteke.

26.
erans
kina

Inguru edo zona bateko ikastetxeen arteko lan koordinatuak garrantzi handia hartzen du, aukera ematen baitu irakasleak edo/eta baliabideak partekatzeko eta hezkuntza- zein zerbitzu-proiektu bateratuak garatzeko.

Koordinazio hori errazte aldera, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak, Nafarroako Irakaskuntza Publikoaren Kalitatea Hobetzeko Itunean (2018), hamabi koordinazio-eremu ezarri zituen. Gero antolaketa hori neurri batean aldatu zen 2019an, haren funtzionamendua hobetu nahian, eta horrek bide emanen die hezkuntza errealitate aurreratuago eta partekatuagoi.

Bestalde, Nafarroako Eskola Kontseiluaren “Nafarroako Landa Eskola” monografian (2017), zeinean azaltzen baita zein den Nafarroako landa eskolaren egoera, honako hau adierazten da landa eskola berrirako proposamen gisa: “... landa eskolen multzoak koordinazio sareak diseinatu behar ditu, askotariko eskualdeetan hezkuntzaren, ingurumenaren, kulturaren eta gizartearen arloan dauden baliabideak partekatzeko moduan, jarduera horiek beren hezkuntza proposamenetan txertatuz, eta eskualdeko baliabideak ustiatzeko, ikasleen gizarteratzea sustatzeko eta tokian tokiko erakundeekin lankidetzarako bideak ezartzeko bide emanen.”

Honako hau argitaratu zen 2018-2019 ikasturtean: 329/2019 Ebazpena, ekainaren 7koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko Landa Eskolen Sarea sortzeko oinarriak onesten dituena.

27.
erans
kina

4.12. Beste administrazio batzuk eta hezkuntza

Txosten honen hainbat ataletan azaldu den bezala, hezkuntza jarduera gero eta zabalagoa eta dibertsifikatuagoa da. Hezkuntza jarduerak, arautuak ala ez-arautuak izan, pertsonen bizitza aktibo osoan landu behar direlako ideia gero eta orokorragoa denez, asko dira hezkuntzari loturiko jarduerak antolatzen dituzten antolakunde publiko zein pribatuak.

Gaur egun araututako derrigorrezko hezkuntza eta derrigorrezkoaren ondoko hezkuntza ezin dira ulertu hainbat elkarte eta administrazioek sustatutako hezkuntza programekin lotzen dituzten sare konplexuak kontuan hartu gabe. Elkarte eta administrazio horien artean daude, besteak beste, udalak, mankomunitateak, Hezkuntza Departamentuaz bestelako departamentuak, enpresak, komunikabideak, erakundeak, gizarte boluntariotza eta irabazi asmorik ez duten beste erakunde batzuk.

Hain elkarlan konplexu horrek, besteak beste, gizarteak hainbat organismoren bidez hezkuntzari gero eta garrantzi handiagoa ematen diola nabarmentzeko abagunea ematen du. Txosten honek hartzen duen azterketa esparrua kontuan izanik, beharrezkotzat jo da, gehiegi sakondu gabe

bada ere, proposamen horietako batzuei erreferentzia egitea. Daukaten garrantziagatik, esparru publikoko batzuk nabarmentzen dira: toki administrazioak, ingurumena, bakea eta bizikidetzeta, ogasuna eta osasuna.

- **Toki administrazioak**

Nafarroako toki erakundeek badituzte hezkuntzaren alorreko eskumen batzuk, toki araubidearen oinarriak arautzen dituen legeak aitortutakoak. Aipatutako arau horren 25. artikulua honako hau dio, besteak beste: “Derrigorrezko eskolatzea betetzen dela ziurtatzeko zaintzan parte hartzea, eta dagozkien hezkuntza administrazioekin lankidetzan jardutea, ikastetxe berriak eraikitzeko beharrezkoak diren orubeak lortzeko. Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza edo Hezkuntza Bereziko zentro publikoak hartzen dituzten toki titulartasuneko eraikinen kontserbazioa, mantenua eta zaintza”.

Nafarroako udalak Lehen Hezkuntzako ikastetxeen titularrak dira, eta horien mantentze lanez arduratzen dira. Ikastetxe horietan beste herri batzuetako ikasleei ere zerbitzua ematen bazaie, Nafarroako Gobernuak gastu horien zati bat ordaintzen laguntzen du. Bestalde, ohikoa da udalek beste ekarpen batzuk egitea ikastetxeei.

Arestian aipatutakoaz gain, toki erakundeek finkatuz joan den hezkuntza arloko eskaintza egiten dute, batzuetan, hezkuntza sistemarekin zuzenki lotuta eta, beste batzuetan, haur eta gazte orokorrean bideratuta.

Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren (NUKF) elkarlanari esker, hezkuntza ekarpen hori nolakoa den jakiten ahal dugu, gutxi gorabehera. Horretarako, bereziki haurrei eta gazteei bideratutako kultura eta hezkuntza programei buruzko txosten bat eskatu zitzaion Nafarroako 2.000 biztanle baino gehiagoko udalerriei eta mankomunitate guztiei 2019ko udaberrian. Orduetik aurrera, udalen eta mankomunitateen webguneen bitartez bildu da informazioa, baita oinarrizko gizarte zerbitzuek bidalitako mezu elektronikoen bidez ere.

Jasotako informaziotik nabarmentzekoa da udalen eskaintza oso ugaria dela. Hona hemen jarduera horietako batzuk:

- Zailtasunak dituzten ikasleentzako eskola laguntzako programak.
- Ingurumena eta ingurune hurbila ezagutzea.
- Nafarroako beste kultura errealitate batzuk ezagutzea.
- Jolas jardueren bidez euskararen eta ingelesaren erabilera sustatzea.
- Kulturalki egoera ahulean dauden familientzako edo familia immigranteentzako laguntza.
- Ingurumenari, gaikako bilketari, birziklapenari eta zaborrari buruzko lantegiak.
- Gazteentzako lantegiak: autoestimua hobetzea, hezkuntza emozionala, autokontrola.
- Gatazkei era positiboan heltzea.
- Berdintasunaren eta tratu onen aldeko nahiz genero estereotipoen kontrako ekimenak, eta sexualitateari eta hezkidetzari buruzko lantegiak.
- Ikaskuntza eta zerbitzu programak.
- Proiektu komunitarioak.
- Irakurmena sustatzea, ipuin kontalariak, irakurle klubak.
- Ohitura osasungarriak sustatzea: hamaiketakoak, fruta eta barazkien kontsumoa sustatzea, droga-menpekotasunak prebenitzea, jarrera-hezkuntza.
- Kirol jarduerak.
- Teknologia digitala arduraz erabiltzea.

- Plastika, dantza, antzerkia eta musikari loturiko jarduerak.
- Haur eta gazteentzako kanpamentuak, hiri kanpamentuak.
- Bide hezkuntza, eskola bideak.
- Ikasturte osoan zehar edo/eta opor garaian zabalik dauden ludotekak.
- Jarduerak, gazte etxeetan eta lokaletan.
- Ikastetxeen eskolaz kanpoko jardueretarako dirulaguntzak.
- Ikastetxeetako liburutegietarako dirulaguntzak.

**28.
erans
kina**

Nafarroako mankomunitateek lantzen dituzten proposamen gehienak ikastetxeekin elkarlanean garatzen dira, eta mankomunitateek oso rol aktiboa dute horiek egiteko eta kudeatzeko garaian. Gai ugari lantzen diren arren, mankomunitateen funtzioak ezagututa, ez da harrizkeoa ingurumenari loturiko kontuetan ardaztuta egotea proposamen gehienak.

Hala, azken ikasturtean gai hauei buruzko programak proposatu dira:

- Hondakinak eta birziklapena ikastetxeetan edo instalazio komunitarioetan.
- Ura eta haren erabilera.
- Garraioa eta mugikortasun iraunkorra.
- Ibai parkeak: paisaia, bioaniztasuna, bizitza ekonomikoa eta soziala.
- Zarata eta kutsadura.
- Kirol jarduerak.

Nabarmendu beharrekoa da NILSAk (ibaiak lehengoratzten eta hondakinak kudeatzen dituen enpresa publikoa) Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamenduarekin koordinatuta egiten duen lana. Besteak beste, honako hauek egiten ditu Nafarroako mankomunitateen laguntzarekin: lantegiak, araztegiak bisitatzea, gela birtuala eta udako jarduerak.

**29.
erans
kina**

Oinarrizko gizarte zerbitzuek ere eskaintzen dituzte hezkuntza arloko programak, besteak beste:

- Bizimodu fisiko eta mental osasungarriak izateko jardunbidea.
- Jatorri bat baino gehiagoko komunitateak elkarrengana hurbiltzea errazteko topalekuak sortzea.
- Haur eta nerabeekiko tratu onak sustatzea.
- Sexu hezkuntza eta hezkidetzaren sustatzea.
- Gatazkak konpontzeko lantegiak.

- Sare sozialei buruzko programak.
- Gizarte bazterketa jasaten duten giza taldeei arreta berezia ematea, imigranteak izan ala ez.
- Informazioaren eta sentsibilizazioaren bidez, komunitateetan drogen prebentzioa lantzea.
- Alkoholak eta beste sustantzia batzuek sortutako kaltea gutxitzea.
- Familia bizikidetzaren hobetzea, batez ere, nerabeei zuzendutako prebentzio jarduerak.
- Gizarte bazterketako egoeretan dauden haurren arrakasta hobetzea.
- Eskola laguntzako prebentzio programak.

30.
erans
kina

- **Ingurumena**

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak ingurumen hezkuntzari buruzko jarduerak eskaintzen ditu, bai publiko orokorrari bai eskola-haurrei zuzendutakoak. Oro har, departamentuko langileek garatzen dituzte, edo, bestela, departamentuak ingurumen hezkuntzarako dituen ekipamenduak kudeatzen dituzten enpresek.

Neurri handi batean, Nafarroako Gobernuaren mendeko naturaren interpretazio zentroek, parke naturalek eta jolas eremu naturalek osatzen dituzte urteko jarduerak. Honako hauek dira:

- Naturaren Interpretazio Zentroa, Otsagabian. Zaraitzu.
- Naturaren Interpretazio Zentroa, Erronkarin. Erronkaribar.
- Naturaren Interpretazio Zentroa, Bertizko Jaurerria Natur Parkean.
- Arroilen Interpretazio Zentroa, Irunberrin.
- Natura Parkea, Urbasa-Andian.
- Natura Erreserbako Hegaztien Behatokia, Pitillasko aintziran.
- Natura Erreserbako hegaztien "El Bordo" behatokia, Las Cañas urtegian. Viana.

Instalazio horiek, ikasturtean zehar, bisitak dituzte ikastetxeentzat, zeinetan kokatuta dauden lurraldearen ingurumen balioak jakinarazten baitira. Arreta berezia jartzen da toki eskoletan, hainbat gai landuz, hala nola flora edo klima-aldaketa.

Eginkizunetako bat dute herritarrak beren inguruneaz sentsibilizatzea, eta horretarako, beste ekintza batzuen artean, inguruko herri eta ibarretako eskolekin batera lan egiten dute lurraldearekin lotutako ingurumen gaietan.

Horrekin batera, herritar oroendako jarduerak dituzte, eta eskolako adinean daudenendako jarduerak ere egiten ahal dira. Haietako bik, Otsagabikoak eta Erronkarikoak, eskola umeen eski kanpaina ere laguntzen dute, eta han jorratu dituzte ingurumenari eta klima aldaketari buruzko gaiak.

2022-2023 ikasturtean, ez da gauzatu Irakasleen Laguntzarako Zentroarekiko ohiko lankidetzaren irakasleen prestakuntza, irakasle gutxi eskatu dutelako.

Zentroen eskaintzaz gainera, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak ere erantzuten dio herritarrentzako ingurumen hezkuntzako jardueren eskariari. Hala, departamentuko ataletako teknikariek eta Basozainak-Ingurumena Zaintzeko Taldeak 30 bat jardueratan parte hartu dute Nafarroa osoko ikastetxeekin batera. Askotariko gaiak landu dituzte, hala nola espezie exotiko inbaditzaileak, basozainen zeregina, baso suteen ondoko lehengoratzet lanak edo ibaiaren balio naturalak. Osotara ia 120 ikaslek parte hartu dute jarduera horietan.

Gainera, Basozainak-Ingurumena Zaintzeko Taldeak lankidetzak akordioa dauka Agroforestal IBarekin, eta horren bitartez ikastetxeko ikasleen hezkuntzan laguntzen du.

Bestalde, elkarlanean aritzen da zuzenean Nafarroako ikastetxeekin Eskola Jasangarrien Sarearen bidez (iraunkortasuna eta ingurumen proiektuetan hezkuntza komunitatearen parte hartzea lantzen eta sustatzen dituzten Nafarroako ikastetxeen sarea). Departamentuak aholkularitza eta ikuskatze lana egiten du, eta laguntza ematen die sarea osatzen duten ikastetxeek aurkeztutako ingurumen proiektuei, laguntza teknikoa kontratatuz. Gainera, sare horren ordezkari moduan, Estatuko ikastetxe jasangarrien sarearekin (ESenRED) batera ere lan egiten da. Aurten azpimarratzekoa da Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak laguntza eman duela Nafarroako Eskola Jasangarrien Sareko ikastetxeen urteroko bilera egiteko. Ekainaren 5ean egin zen, Mendillorriko ur biltegietan.

2023-2024 ikasturtean lehiaketa hauek ebatzi dira: II. Kartel Lehiaketa DBHko 3., 4., 5. eta 6. mailetako ikasleentzat, eta VI. Mikrobideo Lehiaketa, "Ingurumenaren zaintzaileak", Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat. Guztira 36 lan aurkeztu dira lehiaketan, hainbat kategoriatan. Nafarroa osoko 11 ikastetxetako 72 ikaslek eta 12 irakaslek parte hartu dute.

Bestalde, askotariko gobernuz kanpoko elkarte eta erakundeek garatutako ingurumen hezkuntzako proiektuak, ingurumen boluntarizakoak eta herritarren zientziakoak diruz laguntzen dira, eskola umeekin lan egiten duten elkarteak ere barnean harturik, bereziki ikasleen gurasoen elkarteak. 2023ko deialdian dirulaguntza eman zaie Cascante, Amaiur, Lekunberri, Baztan, Tafalla, Ultzama, Iruña eta Tuterako ikastetxeekin lotutako elkarte batzuei.

- **Memoria eta bizikidetzak**

Nafarroako Gobernuak Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuko Memoria eta Bizikidetzak Zuzendaritza Nagusiaren programan aurreikusitako helburu nagusietako bat bizikidetzak da, gizarte anitzagoa, demokratikoa eta kohesionatuagoa izan dezagun, arazoei eta desadostasunei elkarriketaren bidez helduko diena, elkarrenganako errespetuan eta konponbideen bilaketa partekatuan oinarrituta. Bizikidetzaren xedea lortzeko, programak lau helburu zehatz planteatzen ditu, hauek alegia:

- Iragana argitzea, egia eta justizia helburu.
- Eragindako kalteak sendatzea: elkartasuna biktimizekiko.
- Bizitza soziala eta politikoa normalizatzea: hurbilketa, elkarte soziala eta kontziliazioa.
- Bakearen eta giza eskubideekiko begirunearen kultura sustatzea, aniztasunak dakarren aberastasuna nabarmenduta.

Helburu horiek lortzeko, jarduketarako ildo batzuk prestatu dira, hiru atal nagusitan bilduta: memoria historikoa, berriki gertatutakoaren memoria eta bizikidetzak. Hiru lan arlo horien baitan, beste helburu eta lan ildo batzuk daude, nahitaez Nafarroako ikastetxeekin elkarlanean landu behar direnak. Hala, memoria historikoaren arloan planteatzen da beharrezkoa dela hezkuntza

baliabideak hobetzea, 1936ko kolpe militarrean, gerra zibilean eta frankismo garaian gertatutako giza eskubideen urraketekin zerikusia duten alderdietan. Horretarako, ikerketa zentroekin, unibertsitateekin eta arlo horretan adituak diren beste eragile eta elkarte batzuekin elkarlanean, Nafarroan garai horietan gertatutakoari buruzko kontakizun zorrotz eta egiazkoa finkatzea izanen da helburua, ikerketa berriak eta biktimen testigantza ere aintzat hartuta. Horrekin batera, biktimei eta memoriari lotutako lekuei buruzko prestakuntza eta jarduera eskaintza bat jartzen du ikastetxeen eskura. Berriki gertatutakoaren memoriaren arloan ere lehentasunezko helburutzat ezarri da bakearen aldeko kultura garatzea, bai eta motibazio politikoko indarkeriaren biktimenganako elkartasunaren eta erreparazioaren garrantzia nabarmentzea ere, biktimek beren sufrimenduari buruz emandako lekukotasunak eta haien analisia baloratuz. Azkenik, Bizikidetzaren arloak planteatu du eskolako eta unibertsitateko jardueretan beste zenbait jarduera txertatzea, honako gai hauei lotutako esperientzietan oinarritutako ezagutza, trebakuntza eta ikaskuntza lantzeko helburuarekin: giza eskubideak eta haien urraketak, gatazkak modu baketsuan konpontzea, indarkeriaren desagerpena, aniztasunak dakarren aberastasuna eta bizikidetzak. Horrez gain, Nafarroako ikastetxeek bakearen eta bizikidetzaren aldeko ekimen eta jendaurreko ekitaldietan inplikatu eta parte hartzea sustatzea izanen da beste xede bat.

Alde horretatik, apirilaren 28ko 9/2010 Foru Legeak V. kapituluaren ezartzen duenez, Nafarroako Gobernuak Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntza Programa bat bultzatu beharko du urtero, Nafarroako gizarte osoari zuzendua. Foru legeak berariaz esaten du V. kapitulu horretan bertan Hezkuntza Departamentuak hezkuntza programa bat garatuko duela Nafarroako Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan, terrorismoaren aurrean bizikidetzak baketsu eta demokratikoaren balioak jaso eta islatuko dituena, eta gazteengan hitzak duen balioaren kontzientzia errotuko duena, ideiak modu demokratikoan defenditzeko bitartekoa eta modua den aldetik.

Era berean, apirilaren 10eko 16/2015 Foru Legeak, “Bakerako eta bizikidetasunerako hezkuntza” izeneko artikuluan (7.a) honakoa adierazten du: “Bakearen eta giza eskubideen aldeko urteroko heziketa programan eta hezkuntzaren arloko departamentu eskudunak garatutako programen esparruan, kontuan hartuko dira foru lege honetan jasotako helburu eta printzipioak”, eta, horien artean, “Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean bildutako balioak sustatzea”.

Hezkuntza Zuzendaritza Nagusia, zehazki, Antolamendu, Prestakuntza eta Kalitate Zerbitzuaren eta Inklusio, Berdintasun eta Bizikidetzak Zerbitzuaren bidez, aspalditik ari da lanean planak eta zerbitzuak garatzen, erantzuna emateko bi arau hauen aplikaziotik datozen gaiei erantzuteko: batetik, 47/2010 Foru Dekretua, Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publiko eta pribatu itunduetako ikasleen eskubide eta eginbeharrei eta ikastetxe horietako elkarbizitzari buruzkoa, eta, bestetik, 204/2010 Foru Agindua, Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako eta pribatu itunduetako bizikidetzak arautzen duena. Alde horretatik, hezkuntza ikuskapeneko zerbitzuak, aholkularitza juridikokoak eta bizikidetzarako aholkularitzakoak egindako lanaren ondorioz hainbat zerbitzu eskaintzen dira, zerbitzu beharrezkoak eta maiz eskatzen direnak, aholkularitza, prestakuntza eta parte hartze arlokoak, eta hezkuntza komunitate osoari zuzendutako (gehienbat ikasle, irakasle eta familiei), ikastetxe bakoitzean bizikidetzak giroa urratzen duten egoeren prebentzio eta tratamendurako. Bestalde, Memoria eta Bizikidetzak Zuzendaritza Nagusian Hezkuntza Departamentuak betetzen duen lana osatzeko aukera ikusten da, gazteen artean bake kultura finkatzeko xedea duten baliabideak indartuz eta sustatuz, ikastetxe bakoitzeko bizikidetzak testuinguru partikularraz harago. Kultura horren abiapuntua, betiere, historia hurbilean eta iraganean gertatutakoa jakitea izanen da, eta gai hauen inguruko ezagutza, gogoeta eta bizipenak sakonduko ditu:

- Giza eskubideak eta haien urraketak.
- Terrorismoaren eta indarkeria politikoaren biktimekiko erreparazioa eta elkartasuna.
- Indarkeria helburuak erdiesteko tresna gisa deslegitimatzea.
- Gatazkak modu baketsuan konpontzea, bizikidetzak baketsu eta demokratikorako abiapuntu gisa.
- Aniztasunak dakarren aberastasuna baloratzea muturreko joeren eta fobien aurrean.

Helburu multzo horrekin, elkarlan bat sortu da Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuaren eta Hezkuntza Departamentuaren artean, batera landutako proiektu bat sortzea ahalbidetu duena. Hortaz, lan proiektu dinamikoa da, lankidetzazkoa, berrikuntza pedagogikoa sustatu dezakeena eta gaitasuna izanen duena bertan parte hartzen duten eta haren onura jasotzen duten pertsona guztien oinarri etiko eta demokratikoa sendotzeko (bakearen eta bizikidetzaren balioei dagokienez). Onuradun nagusiak hauek izanen dira: ikasleak, oro har, irakasleak, ikastetxeetako zuzendaritza taldeak eta ikasleen gurasoak.

Memoria duten eskolak, bakearen eta bizikidetzaren aldekoak

Memoria eta Bizikidetzaren Zuzendaritza Nagusiaren programa hau bi ardatzen inguruan garatzen da: Memoria duten eskolak eta Bakearen eta bizikidetzaren aldeko eskolak. Irakaskuntzarako prestakuntza eskaintza zabala du, bai eta hainbat jarduera eta esperientzia ere. Helburua da Nafarroako ikastetxeetan bake eta bizikidetzaren kultura hezteko, ikastetxe horietan errotutako proiektuen bidez.

Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuarekin sinatutako hitzarmen baten bidez garatzen da programa.

Memoria duten eskolak

Nafarroako Memoriaren Institutuaren programa hau zeharkako proiektu gisa sortu da, eta hezkuntza munduaren eta memoria politika publikoen arteko elkargune bilakatu nahi du, bereziki landuz memoriaren tokiak, desobiratzeak eta giza eskubideak urratu dituzten prozesuei buruzko ikerketa. Gizarte zientzien didaktika berritzaileago batekin lotuta dago. Izan ere, proposatzen du curriculumean arazoak lantzea eta ikasgelan arazo sozial garrantzitsuei heltzea, eta gizarte zientzien irakaskuntzan azpimarra jartzea herritartasun demokratikorako hezkuntzari. Alde horretatik, zalantzarik gabe beharrezkoa da belaunaldi gazteenei hurbiltzea historiografiak azken hamarkadetakoa erreprezio frankistari buruz egindako ekarpen garrantzitsuenak, horiek auzitan jartzen baitituzte iraganaren azalpen batzuk, gizartean oso zabaldua daudenak. Ezagutza historiko hori, ordea, ez da gelditu behar curriculum atal itxi batean gordeta, eta horretarako era berean beharrezkoa da, pentsamendu kritikoa eta giza eskubideekiko errespetuan oinarritutako hezkuntzaren aldeko konpromisoa direla medio, ikasleei erakustea prozesu historiko haiek hainbat hamarkadatan izan duten itzal luzea, zeinaren ondorioek gaur arte iraun baitute.

Asmo handiko eta zeharkako programa gisa finkatuta, lau interesguneen inguruan garatzen ari da. Lehenbizikoak, irakasleen prestakuntzak, haien eguneratze zientifikoa eta didaktikoa sustatzea du helburu, eta elkarlana bultzatzea materialak eta esperientziak sortzeko. Alde horretatik, ikasturte honetako apustu nagusia da *Memoria duten eta Bakearen eta Elkarbizitzaren alde ari diren Eskolen Sarea* sendotzea Nafarroan, eta estatu mailan bultzada ematea *Memoriaren aldeko Zentroen Sareari*. Asmoa da bi sareetan elkartzea zentrotik bertatik sortutako proiektuak garatzen ari diren ikastetxeak, etapa guztietakoak. Bigarrena, berriz, ikasleei memoriari loturiko leku eta pertsonekin elkartzeko aukera emanen dieten hezkuntza jarduerak proposatzean datza. Ez du eskaintza itxia izan behar, berriz lantzen ahal diren aukerak iradoki eta irekitzen dituenak baizik. Hirugarrena ikastetxeekin lankidetzaren akordioak sinatzean datza, memoria historikoaren inguruko ikerketarako eta hezkuntza berrikuntzarako, prestakuntzarako edo/eta pentsamendu zientifikoa zabaltzeko proiektuak batera sustatzeko. Laugarrena biltzar bat antolatzea da: II. "Memoria duen Historia Hezkuntzan" Nazioarteko Biltzarra, Iruñean, 2024-2025 ikasturtearen hasieran.

Ikasleentzako jardueren artean hauek aipa ditzakegu:

- Belaunaldien arteko bilerak 1936ko estatu kolpearen ondoren erail edo erreprezaliatutako pertsonen senitartekoekin; urtero horrelako bilera bat egiten da Sartagudako Memoriaren Parkean.

- Ibilaldia GR225aren zati batean, 1938an San Kristobal gotorlekutik ihes egindakoek egin zuten bideari jarraituz.
- Gorpuzkiak lurpetik atera dituzten lekuak bisitatzea.
- Memoriarekin zerikusia duten gaiei buruzko arte eszenikoen edo dokumentalen emanaldiak.
- Ikastetxeetan bilerak egitea errepresio frankistaren biktimekin, memoria elkarteekin edo ikertzaileekin.
- Erakusketak programatzea eta bisitatzea.
- Lantegiak edo arte plastiko edo eszenikoak, non ikasleak ez diren ikusle hutsak, errepresio frankista jasan zuten pertsonengana hurbiltzen dituzten egoeretako protagonistak baizik.
- Txangoak eta irtenaldiak memoriaren tokietara, bai Nafarroan bai beste autonomia erkidego batzuetan, are Europako beste herrialde batzuetan.
- Eskola trukeak estatuko edo Europako beste ikastetxe batzuekin, memoria erreferentzia-esparru dela.

Gainera, Nafarroako Memoriaren Institutuak Nafarroako ikastetxeetako ikasle eta irakasleen eskura jartzen du hezkuntza baliabideen bilduma garrantzitsu bat. Baliabide horien artean nabarmentzekoak dira honako hauek:

- Memoria Historikoa eta Hezkuntza bloga, Hezkuntza Departamentuaren zerbitzarietan ostatatua.
- Iruñean 2022ko urrian egindako I. "Memoria duen Historia Hezkuntzan" Nazioarteko Biltzarrean sortutako materialak.
- Oroibidea, memoriaren bidea. Nafarroako iragan traumatikoari buruzko ahozko memoriaren artxiboa eta erakusketa birtualak.
- Nafarroako Memoria Historikoaren Dokumentu-funtsa.
- Nafarroako hobien mapa.

Bakearen eta bizikidetzaren aldeko eskolak prestakuntza jarduerak egiteko proposamen bat da eta, Memoria duten Eskolak proiektuak bezala, bakerako hezkuntza eta kultura bultzatu nahi ditu, bizikidetzak baketsu eta demokratikoaren gaian sakonduz Jarduera horiek Nafarroako ikastetxe publiko eta pribatu itunduen sare osoari eskaintzen zaizkio, eta ikasleek, irakasleek eta familiek euskaraz nahiz erdaraz parte hartzeko aukera ematen dute. Jarduera horien programazioan honelakoak aurkituko ditugu:

- Antzerki forumeko saioak, adiskidetzarekin eta aniztasunarekin zerikusi duten gaiekin.
- Lankidetzazko jolasak eta jarduera ludikoak gatazken konponbideari eta giza eskubideei buruz, gazteenei zuzenduak.
- Intereseko gai hauei buruzko trebakuntza lantegiak: sare sozialen bidez indarkeria erabiltzearen prebentzioa; pertsona gisa haztea; gatazkak modu baketsuan konpontzeko trebetasunak, etab.

Lantegi eskaintzaren osagarri, ikastetxeen eskura jartzen dira "Bakearen eta bizikidetzaren aldeko liburuen mailetak" eta parte hartzeko proiektu hauek: "Aniztasuna aberastasun iturri", "Giza eskubideen kate ipuina" eta "Bizikidetzari buruzko horma-irudiak". Horrela ikasle eta irakasleen zuzeneko inplikazio aktiboa sustatzen da.

Lankidetzarako esparru dinamiko eta etengabe honek ahalbidetuko ditu, gainera, proposatutako proiektu eta jardueren ebaluazioa eta haien hobekuntza etengabea, eta jarduera eskaintza hau aberastu dezaketen ekimen berriak aztertu eta prestatzea, hala nola intereseko gaiei buruz batera egindako ikerketak eta lanak, kontzientziazio eta sentsibilizazio jarduerak eta kanpainak jendartean, eta abar.

Gainera, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zerbitzuak ikastetxei aukera ematen die Biktima Hezitzaileen “ESKUtik de la MANO” programan lan egiteko, zeinaren bidez biktimek beren sufrimenduaren lekukotasuna ematen baitute honako gai hauek lantzen dituen prozesu baten barruan: giza eskubideak, biktimak, enpatia eta bizikidetzeta.

- **Ogasuna**

Egungo erreferentziako legeriaren arabera, alderdi hori Gizarte Hezkuntzaren eta Herritartasun Demokratikorako Hezkuntzaren barruan sartzen da. Alde horretatik, LOMCEk (Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeari buruzko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoa) Atariko Tituluaren 1. artikuluan hezkuntza zibikoaren garrantzia jasotzen du, bere printzipioetako bat baita.

“Espainiako hezkuntza-sistema, Konstituzioaren balioen arabera eratua eta Konstituzioan aitortutako eskubide eta askatasunen errespetuan oinarritua, honako printzipio hauetan oinarritzen da: ... c) Askatasun pertsonala, ardua, herritartasun demokratikoa, elkartasuna, tolerantzia, berdintasuna, errespetua eta justizia bultzatuko dituzten eta diskriminazio mota oro gainditzen lagunduko duten balioen transmisioa eta praktikan jartzea.”

LOMCEren 2. artikuluan, Espainiako hezkuntza sistema zein helburu lortzera bideratuko den azaltzen da; besteak beste: *“Herritartasuna gauzatzeko eta bizitza ekonomikoan, sozialean eta kulturean aktiboki parte hartzeko prestatzea, jarrera kritikoarekin eta arduratsuekin, eta jakintzaren gizarteko egoera aldakorretara egokitzeko gaitasunarekin.”*

Era berean, 60/2014 Foru Dekretuak (uztailaren 16koa, Nafarroako Foru Komunitatean Lehen Hezkuntzako irakaskuntzetarako curriculumaz ezartzen duena), 8. artikuluan, gaitasunak jasotzen ditu.

“8. artikulua. Gaitasunak.

Ikasleek eskuratu beharreko gaitasunak honako hauek dira:

- Hizkuntza komunikazioa.
- Matematikako gaitasuna.
- Zientzia eta teknologiako oinarritzko gaitasunak.
- Gaitasun digitala.
- Ikasten ikastea.
- Gaitasun sozial eta zibikoak.
- Ekimen-zentzua eta izaera ekintzailea.
- Kultura kontzientzia eta adierazpenak.”

Gizarte eta Zerga Hezkuntzaren xede nagusia balioak eta jarrerak transmititzea da; hau da, zerga-erantzukizunaren aldeko balio eta jarrerak, eta iruzurrezko jokabideen aurkakoak. Eduki akademikoak baino gehiago, eduki zibikoak eskaintzea du xede.

Gizarte eta zerga hezkuntzak balioetan oinarrituta egon behar du, herritar aktibo eta arduratsuak izateko. Hurrek eta nerabeek:

- Ondasun eta zerbitzu publikoak identifikatu ahal izateko.
- Ondasun eta zerbitzu publikoen balio ekonomikoa eta eragin soziala ezagutzeko.
- Ondasun eta zerbitzu publikoen finantzaketa iturriak ezagutzeko, bereziki zergen bidezkoak.
- Gastu publikoa eta diru-sarrera publikoak erlazionatuta daudela jakiteko (Aurrekontu publikoa).

- Gauza publikoekiko errespetuzko jarrerak barneratzeko, konturaturik denen ahaleginarekin finantzatzen direla eta denen onerako erabiltzen direla.
- Jabetzeko kultura demokratiko batean erantzukizun fiskala gizarteko bizikidetzaren oinarritzako balioetako bat dela, eta zerga-betebeharrak betebeharrak zibikotzat hartzeko.
- Ulertzeko fiskalitateak bi alde dituela, diru-sarrerak eta gastu publikoak, eta gizarte demokratiko batean, besteak beste, fiskalitatearen esparruan hartzen dutela indarra justiziaren, ekitatearen eta elkartasunaren balioek.
- Nafarroan, gainera, garrantzitsua da jakitea eta ulertzea zer den Hitzarmen Ekonomikoa eta zer dakarren berekin zergen foru-araubide batean egoteak.

Halaber, tributu betebeharrak ez betetzeak norbanakoarengan eta gizartean zer-nolako ondorioak dituen nabarmentzea ere garrantzitsua da.

Ogasunaren webgunean (<https://ikasgelafiskalanafarroa.com/>) aurkezten diren materialen helburua da irakasleei laguntzea Gizarte eta Zerga Hezkuntza irakasten Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako etapetan.

- **Osasuna**

Osasuna sustatzea onuragarria da adin guztietan eta pertsona guztientzat; sustapen hori haurtzarotik eta eskola esparruan gauzatzen bada, osasunari mesede egiten dioten bizi estiloak eta inguruneak finkatzea erraztuko da. Funtsezkoa da haur eta nerabeek portaera osasungarriak beren kabuz hautatu ahal izateko behar dituzten ezagutzak eta trebetasunak berenganatzea, lagun egiten dieten eta erraztasunak ematen dizkieten espazioetan eta pertsonekin.

Horregatik, ikastetxeak haur eta nerabeen osasuna sustatzeko gune pribilegiatuak dira.

Ikasturte honetan nabarmendu behar dugu 2023ko martxoaren 3an Hezkuntza Departamentuko Hezkuntza Zuzendaritza Nagusiak eta Osasun Departamentuko Osasun Zuzendaritza Nagusiak akordioa sinatu zutela osasuna hezkuntza esparruan sustatzeko.

Hain zuzen, eskola esparruan osasunaren sustapena garatzeko eta prebentzio kultura sustatzeko lankidetzak akordioa da.

Hezkuntza esparruan osasuna sustatzeko konpromisoa jasotzen du, eta lagungarria da haur eta gazteek bizimodu osasuntsuagoa gara dezaten, bizitzarako prestatuz, beren osasunaren gaineko kontrola areagotzeko eta hala osasuna hobetzeko. Akordioak osasunaren sustatzaile gisa duten eginkizuna betetzen lagunduko die ikastetxeei, eta Osasuna Sustatzen duten Eskolen Sarearen sorrera bultzatuko du.

Hauek dira ikasturte honetako jarduketako ildo nagusiak eta jarduerak:

- **Osasuna sustatzen duten eskolak**

Osasuna Sustatzen duten Eskolen Nafarroako Sarea estatuko eta Europako SHE sarearen barruan dago –Schools for Health in Europe Network–, zeina elkarlanean aritzen baita Europako OMErekin eta EBrekin, eskola ingurunean osasuna sustatzeko. Hezkuntza Ministerioko Lurralde Lankidetzak eta Hezkuntza Berrikuntzako Zuzendariordetza Nagusiak koordinatzen du sarea Espainian.

Sarea osatzen duten ikastetxeek jardunbide egokiak dituzte arlo askotan: elikadura eta kontsumoa, elkarbizitzaren ikastea, droga arazoak prebenitzeko hezkuntza, ingurune osasungarria, osasuna eta garapen pertsonala, bizi estilo osasungarria bidean lan egitea. Ikastetxe horiek ahalegina egiten dute ikasleen, irakasleen eta ikastetxeko langileen osasuna hobetzeko eta saiatu egiten dira bizitzeko, ikasteko eta lan egiteko leku osasungarria izateko duten gaitasuna etengabe garatzeko.

Egitura bat dago sareari laguntzeko, Hezkuntza eta Osasun Batzorde Teknikoa, zeinak honako hauek egiten baititu: sarearen jarraipena; hezkuntza materialak egin edo/eta banatzea; irakasleak prestatu eta trebatzea; SHE sarean sartzeko deia egitea; etab.

Urtero argitaratzen da sarean sartzeko deialdia arautzen duen ebazpena, proiektuak ebaluatzen dira eta deialdiko oinarriak betetzen dituzten ikastetxeak sarean sartzen dira. Ikasturtean zehar topaketak egiten dira sarea osatzen duten ikastetxeen artean, bai esperientziak partekatzeko, bai osasunaren sustapenerako alderdi interesgarriren baten berri izan edo horretan sakontzeko. Beharrezkotzat jo denean, bisitak egin dira zenbait ikastetxetara.

SHE sareko ikastetxeen kopurua handituz joan zen: 2016-2017 ikasturtean 44 ziren; 49, berriz, 2017-2018an; eta 54 izan ziren 2018-2019 ikasturtean.

2019an, sarearen egitura aldatu zen; sarean sartzeko 2019-2020 ikasturteko deialdi ebazpenak hiru bide ezarri zituen sarean sartzeko: berrikuntza bidea, prestakuntza bidea eta, hirugarrenik, 2017an eta 2018an sarean sartu izana eta hartutako konpromisoari eustea. 2019-2020 ikasturte horretan 32 ikastetxe zeuden sarearen barruan. 2020-2021 ikasturtean, 14 ikastetxe zeuden sarearen barruan: berrikuntza bidetik sartuak, 4; prestakuntza bidetik, berriz, 6; eta beste 4 ikastetxeak 2018ko deialdian sartu ziren sarean eta konpromisoari eusten zioten. 2021-2022 ikasturtean 10 ikastetxe egon ziren sarean, horietatik 2 berrikuntza bidetik sartuak, eta 8, berriz, prestakuntza bidetik.

2022-2023 ikasturtean laguntzen deialdia egiteko ebazpen bat argitaratu da, eskola esparruan Osasunerako Hezkuntzaren sustapena eta garapena bultzatzea helburu, eta 24 ikastetxek parte hartu dute deialdian askotariko proiektuekin. Gainera, beste 3 ikastetxek osasuna sustatzeko proiektuak garatu dituzte. Ikastetxe horiekin guztiekin ikasturte hasierako topaketa egin zen irailean eta esperientziak trukatzeko beste bat martxoan.

Ikastetxeetan osasuna sustatzeko beste jarduera batzuk ere egiten dira. Adibidez, unitate didaktikoak eta "Nerabeekin garapen pertsonala eta osasuna lantzeko gida", "Ikasgela osasungarriak, nerabe trebeak" eta "Lagundu hazten. Guraso taldeekin lan egiteko gida" material didaktikoak egin, banatu eta horien inguruko aholkularitza eskaintzen da; gurasoak trebatzeko hainbat ekimenetan parte hartu eta horiek babesten dira profesionalak prestatuz eta dirulaguntzak emanez; eta aholkularitza eskaintzen da irakasleek, guraso elkarteek edo ikastetxeetan esku hartuko duten osasun zentroetako profesionalak hala eskatuz gero.

o Laneko arriskuen prebentzioa ikasgeletan

LHko oinarritzko graduekiko lankidetzari eusten zaio, "Kimua" ikaskuntza aktiboaren bitartez prebentzioaren kultura sustatzeko, baterako proiektuak egiteko (aurreko urteetan "Hazi arte-crecer con arte" eta "Inspiratu" proiektuak garatu ziren elkarlanean) eta material, bideo eta gida didaktikoak egiteko. Azken helburua litzateke lanbide arlo guztietarako prestakuntza programa eta materialak diseinatzea pixkanaka.

Proposatu da mugikorretarako aplikazio bat garatzea elkarlanean, aire zabalean egiten diren lanetan estres termikoaren arriskua prebenitzeko, bero kolpeei aurrea hartuz (osasunaren arloko ekintzailatza proiektua INIZIA programaren barnean, 2022-2023 ikasturtean, Maria Ana Sanz ikastetxe bateratuarekin elkarlanean).

Aurreko ikasturteetan bezala, nekazaritza sektorearekin hasitako lankidetzari eutsi zaio ikasleei laneko arriskuen prebentzioari buruzko prestakuntza emateko. Horrela ekarpena egin nahi da nekazaritza eta abeltzaintza ustiatzietako, baso lanetako eta lorezaintzako ikasleek prestakuntza eta gaitasunak beregana ditzaten. (Iruñeko Agroforestal IB eta Azkoiengo Ribera del Arga BHI). Zehazki, ikasleak sentsibilizatu eta hezteko "Irauli gabe bizi" kanpainaren bi edizio egin dira.

Halaber, LHko Lanbide Arriskuen Prebentzioko goi mailako graduko ikasle baten heziketa dualean lagundu da 2021-2022 ikasturtean; 600 orduko heziketa izan da.

- o **Ijitoentzako Estrategia**

Ijito adingabeen eskolatzearen sustapenean elkarlanean jarraitu da, akonpainamendu eta orientazio unitateekin (AOU) koordinaturik betiere.

- o **Irakasleen prestakuntza eta laguntza teknikoa osasunaren arloan**

2022-2023 ikasturtean, ikastetxeetan osasunarekin zerikusia duten prestakuntza beharrak eta lehentasunak detektatzeko lana egin da.

Ikastetxeek, irakasleek eta beste profesional batzuek osasunaren arloko laguntza teknikoa jasotzeko egindako eskaerei erantzun zaie.

- o **Ongizate emozionala**

Cascanteko Santa Vicenta María IPan ongizate emozionalerako proiektua egin da Cascanteko osasun-etxearekin lankidetzan, Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasleentzat eta haien familientzat. Hezkuntza emozionalari, elikadura osasungarriari eta jarduera fisikoari buruzko jarduerak garatu dira bai ikastetxean bai ingurunean. Gainera honako hauek parte hartu dute proiektuan: Cascanteko Udalak, guraso elkarteak, Liburutegi Publikoak, udalerriko jatetxeetako langileek, Muérdago elkarteak, Gurutze Gorriak eta herriko enpresa eta partikularrek.

Osasuna Sustatzeko eta Politika guztietan Txertatzeko Atalaren Gurasoen Eskolan online lantegi hau egin da 12-17 urte bitarteko seme-alabak dituzten familientzat: "Elkarrekin hazten: nerabeen osasun emozionala babesteko tresnak". 290 pertsonak parte hartu zuten lantegi horretan.

- o **Elikadura osasungarria**

Fruta eta barazkiak banatzeko programa. Esnea banatzeko programa

Horniduren eta banaketen kontratazio publikorako kudeaketak hasi ziren, baina frutaren programan lehiaketa huts deklaratu zen eta ezin izan da programa garatu.

Esnea banatzeko programa bai, garatu da, eta neurri honekin osatu: programan parte hartu duten ikastetxe batzuetan zenbait mailatako ikasleei lagun egitea abeltzaintza ustiategi baterako bisitetan.

Beheko taulan jaso dira banaketa programetan parte hartutako ikastetxeen eta ikasleen datuak.

188. taula: Fruta eta barazkien programa. Esnea banatzeko programa

Curso	17/18	18/19	19/20	20/21	21/22	22/23
Fruta eta barazkien programa						
Ikastetxeak	140	152	155	No se realiza	141	No se ha realizado
Ikasleak	12.000	12.916	14.035		14.000	
Esnearen programa						
Ikastetxeak	88	80	79	No se realiza	64	70
Ikasleak	14.300	11.304	11.297		8.200	9.600

Iturria: Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua

“Elikadura hobetzen eskola adinean” materialaren banaketa

2022-2023 ikasturtearen hasieran ez zen egin “Elikadura hobetzen eskola adinean” materiala ikastetxeetara banatzeko proposamenik. Horren ordez, zenbait ikastetxeren eskaerak jaso ziren eta beheko taulan ageri diren ale kopuruak bidali ziren.

189. taula: “Elikadura hobetzen eskola adinean” materialaren banaketa

“Mejorando la alimentación en edad escolar-Elikadura hobetzen eskola adinean”			
Ikastaroa	Gaztelania	Euskara	Liburuxkak guztira
2021/22	3.325	630	3.955
2022/23	999	28	1027

Iturria: Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua

Eskola jantokiak

Ikastetxeetako elikagai eskaintza ezagutzeko jarduerak hasi dira, eskola esparruan elikadura osasungarria sustatzen jarraitzeko.

- **Drogen kontsumoaren eta adikzioen prebentzioa**

Aurreko urteetan bezala, indarrean dago Hezkuntza Departamentuak (zuzendaritzek, irakasleek eta familiek) 2018-2023 aldirako Drogak eta Adikzioak Prebenitzeko III. Planean duen esku hartzea. Plan horrek aurreko planak jasotzen ditu, eta Drogen eta Toxikomanien Europako Behatokiaren 2013-2020rako Estrategia eta Planaren barruan kokatzen da, bai eta Drogen Plan Nazionalaren 2017-2024ko Adikzioei buruzko Estrategia Nazionalaren barruan ere; gainera, Nafarroako Osasun Planean eta beste plan estrategiko batzuetan ere parte hartu du, hala nola Osasun Mentaleko Planean eta, hezkuntzan, Aniztasunari Erantzuteko Planean.

Familiantzako materialen eskaerei erantzun zaie (“Lagundu zure seme-alabei drogen arloan”, “Familian prebentzioa lantzeko eta drogekin arazoak izatea ekiditeko gida” eta “Ez dezatela dena irentsi! Alkoholari buruzko orientabideak seme-alaba adingabeak dituzten gurasoentzat”).

Tabako kontsumoaren prebentziorako “Tabakorik gabeko belaunaldi baterantz” unitate didaktikoa aurkeztu, ezagutarazi eta banatu da. Bigarren Hezkuntzako ikastetxeei zuzenduta dago.

- **Nastat**

Nafarroako Estatistika Institutua, Nastat, Nafarroako Foru Komunitateko estatistika erakunde publiko ofiziala da. Aurten webgune berri bat jarri du, Web escolar izeneko atal batekin (<https://nastat.navarra.es/es/servicios/web-escolar>). Bertan, Hezkuntza Departamentuarekin elkarlanean, hezkuntza esparruan estatistika sustatzeko proiektua bultzatzen du, honako ekintza hauek biltzen dituena:

- Irakasleak materialez hornitzea.
- Curriculum garrantzia areagotzeko ekintzak bultzatzea.
- Irakasleak berriaz trebatzea.
- Lehiaketak sustatzea, ikasleek parte har dezaten.

Irakasleak materialez hornitu ahal izateko lan eginez eta ikasleentzako lehiaketak sustatuz hasi da gauzatzen proiektua. Geroko faseetarako utzi dira beste bi ekintzak, material akademiko egokia eskuratutakoan hasi behar dela erakitzen iritzita, eta apurka sortu behar dela estatistikaren eta datuen erabileraren garrantziari buruzko kultura. Arlo horietan emaitzak lortzen hasitakoan beste bi ekintzei heldu ahalko zaie, batez ere irakasleen prestakuntzari, lan horretarako unitate didaktiko gokiak behar baitira.

Irakasleak materialez hornitzea

Kontsultatu zaien eragileek, batez ere Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako irakasleek, azaldu duten iritziarekin bat, erabaki da material propioak garatzea, alegia, egoera didaktikoak, estatistikako tekniken erabilera sustatuko dutenak ikasleek hurbil dituzten arazo zehatzak konpontzeko, eskura dituzten tresna informatikoez baliaturik.

Bi lantalde eratu dira horretarako, bata Bigarren Hezkuntzan eta bestea Lehen Hezkuntzan, irakasle boluntarioek osatuak eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak babestuak, adibide gisa balioko duen egoera didaktiko bat garatzeko eta hortik aurrera, gainerako irakasleen oharrak jasota, haien kopurua handituz joateko. Aipatutako materialak sortu ahala webgunean jarriko dira, estatistikako baliabideen atalean.

Lehiaketak sustatzea, ikasleek parte har dezaten

“Zundaketen eta Saiakuntzen Inkubagailua” lehiaketa antolatu dute Estatistikaren eta Ikerketa Operatiboaren Elkarteak (SEIO), fase nazionalan, eta Nafarroako Unibertsitateak eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak, Nafarroako fasean. Lehiaketa hori sustatu eta dinamizatu nahi da, ahalik eta ikastetxe gehienetara irits dadin, ikaskuntzaren hasiera-hasieratik estatistikaren eta datuen aldeko kultura sortuz joateko.

Lehiaketaren helburua da estatistikarekiko jakin-mina piztea ikasleengan, ikerketarako funtsezko tresna den aldetik hala zientzia esperimentaletan nola gizarte zientzietan.

Horretarako, Nastatek, Nafarroako Unibertsitatearekin eta Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin elkarlanean, hainbat ekintza sustatuko ditu irakasle eta ikasleek parte har dezaten. Hartara estatistikaren erabilgarritasuna ikusiko dute eta lehiaketetan parte hartzeko gogoia izanen dute, ikasteko modu erakargarri gisa.

Lehen urratsa izan da webgunean espazio bat prestatzea non kontsultatu ahalko baitira lehiaketaren deialdiak, garatutako materialak eta albiste nagusiak.

- ***Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusia***

Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusia kultura erakunde bat da, 1940an Nafarroako Foru Diputazioak sortua eta egun indarrean dirauena. Kultura eta Kirol Departamentuaren mendekoa da. Nafarroako kultura ondarearen kontserbazioaz arduratzen da, eta argitalpenen bidezko zabalkundeaz ere bai.

Zuzeneko lotura dago ondarearen, kontzientzia kolektiboaren eta ikaskuntza prozesuaren artean eta hezkuntzaren eta kultura ondarearen artean. Artxiboek behar-beharrezkoa dute beren dokumentu funtsen edukia zabaltzea eta ezagutaraztea; beren funtzionamendua eta eginkizun soziala erakustea, herritarren eskubideen bermatzaileak eta komunitate baten historia eta kultura ondarearen zati handi baten kontserbaziorako zentroak baitira; beren errentagarritasuna areagotzea zerbitzu publiko gisa; dokumentu ondarearen ezagutza eta errespetua sustatzea; eta etorkizunean ikertzaile gaituak izanen direla bermatzea.


Ikastetxeentzat funtsezkoa da gizarte zientzietan, oro har, ikaskuntza prozesua aberastea dokumentu iturriak baliaturik; ikasleei gogoeta eragin eta sen kritikoa sortzea, artxiboetako dokumentuen bitartez beren inguruko errealitatera hurbilaziz eta historiako gertaerek beren inguruko gertaerekin duten lotura erakutsiz.

Helburu horiekin bat egiten du Artxiboen eta Dokumentu Ondarearen Zerbitzuak ikastetxeei egiten dien eskaintzak. Zerbitzu horrek ikaskuntza-hezkuntza osagaia koordinatzeko eginkizuna betetzen du. Nafarroako Errege Artxibo Nagusiaren eginkizuna da Nafarroako dokumentu ondarea zabaltzea eta ezagutaraztea, eta Nafarroako Artxibo Garaikideak, berriz, Nafarroako funts garaikideei eta egungo funtsei buruzko ikerketa eta zabalkunde programak bultzatzen ditu.

Ondoren deskribatzen dira, antolatzailearen arabera sailkatuta:

- Nafarroako Errege Artxibo Nagusia
 - Paper-sortak motxilan: Iruñeko UNEDekin elkarlanean gauzatutako jarduera, Batxilergoko ikasleentzat.
- Testu historikoen gaineko iruzkinak dituzten fitxa didaktikoak eskaintzean datza. Testuak gaiaren arabera multzokatuta daude (kultura eta hezkuntza, familia eta ezkontza, migrazio mugimenduak, aisia eta eguneroko bizitza, osasuna eta izurriteak, lanbide eta ogibideak, etxebizitza eta hirigintza).
- Unitate didaktikoak: NUPEkin eta Historiaren Didaktikako masterreko irakasle eta ikasleekin elkarlanean gauzatutako jarduera. DBHko 3.eko eta 4.eko ikasleentzat.

Bi unitate didaktiko dira, "transposizio didaktikoa"ren metodologia Nafarroako historiari aplikatzen diotenak. Nafarroako Erdi Aroko historia dute aztergai, hain zuzen ere "Gizarte feudala eta Nafarroa Beherearen sorrera" eta "Ustelkeria Erdi Aroko Nafarroan".



- "Erregerik gabeko erresuma" lantegi historikoa: DBHko 1.eko eta 2.eko ikasleentzat.
- "Erregerik gabeko erresuma. Tronu joko" unitate didaktikoaren bidez lankidetzan ikasteko jarduera da. 1328. urtera begira lan egiten da, Nafarroako tronuaren ondorengotza eta errege berriaren hautaketa eta aldarrikapen unera. Bost laguneko taldeetan lan egiten da, eta talde horietan ikasleek rol sozial eta profesional desberdinak hartzen dituzte: kleroa, nobleak, burgesak, nekazariak, gutxiengo erlijiosoak; eta multzo bakoitzaren barruan, parte hartzaileek prokuradore, notario, ikertzaile, artxibozain edo eskribau gisa aritzen dira.
- Lantegia, Gerra Zibileko dokumentuekin: Batxilergoko 2.eko ikasleentzat.
- Espainiako Gerra Zibilean nafarrek bizi izandako gorabeherak gordinki islatzen dituzten jatorrizko dokumentu eta espedienteak esku artean izateko berebiziko aukera moduan planteatzen da. Horretarako, heriotzen epez kanpoko inskripzioen espediente judizialak eta soldaduen fitxak kontsultatzen ahal dira.
- Ikerketako Batxilergoari lotutako jarduerak, Plaza de la Cruz BHLarekin lankidetzan. Batxilergoko ikasleentzat.

- Nafarroako Artxibo Garaikidea
 - Arbelak eta Ikasmahaiak unitate didaktikoa. Memoriaren aldarrikapena. Tuterako Valle de Ebro BHIko eta NUPEko irakasleekin elkarlanean. DBHko 1.eko eta 2.eko ikasleentzat.

Jarduera eta baliabide didaktikoak sortzeko diziplina arteko lana da, non ikasleek, lehen mailako iturriei helduta, horien erabilerari, kritikari eta interpretazioari buruzko gaitasunak bereganatzen baitituzte. Dokumentu ondarearen gaineko hiru helburuak (babesa, eskuragarritasuna eta kontzientziakoa) lortzen laguntzen du; gainera, ezagutzera ematen du jakintza arlo horretako profesionalen lana (katalogazioa, kontserbazioa, zabalkundea, etab.).



- Ikerketako Batxilergoari lotutako jarduerak. Tuterako Valle de Ebro BHIarekin eta Barañain BHIarekin elkarlanean. Batxilergoko ikasleentzat.

Institutu horiekiko hitzarmen bat dela bide, erakunde laguntzailearen baliabideak eskaintzen dira (bibliografia, materialak, guneak), bai eta ikasleen kolaborazio-egonaldiak, ikerlan berrien sustapena eta baterako jardueren hedapena ere.

- Proposamen berriak:
 - Artxiboen lagunak diren eskolen sarea sortzea
 - Bisita gidatuak, lehentasunez ikasturte amaieran
 - Historiako edo Gizarte Zientzietako irakasgaiekin lotutako jarduerak (bai Lehen Hezkuntzako ikasleentzat, bai Bigarren Hezkuntzakoentzat eta Batxilergokoentzat). Oraintsuko gai eta mugari historikoei buruzko proposamenak izanen dira: trantsizioa eta demokraziako lehen urteak, herrietako irakasleak edo eskolak, gertaera jakin baten aurreko eta ondoko egoera sozial eta politikoa...

4.13. Parte hartzea

Nafarroako gizarteak interes handia erakutsi du hezkuntzarekin lotutako gaien inguruan. Horren ondorioz, jarduera eta dinamismo handia dago, alor ugari ikusten ahal dena; besteak beste: Hezkuntzako Departamentuaren kudeaketan gutzitako gardentasuna eskatzea etengabe; familia

elkartek, ikastetxeetako zuzendaritza taldeek edo sindikatuek erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzeko eskaera; Nafarroako Parlamentuan landutako gaien garrantzia; eta eragile askok antolatutako hedapen edo eztabaida jarduerak.


Urteko txosten honen bidez, prozesu horien ildo nagusiak ezagutarazi nahi ditugu, baina, onartu beharra dago, hori ez da posible izan kasu guztietan, partaidetza organo batzuen berririk jaso ez dugulako. Beraz, adierazle batzuk bakarrik aurkeztu ditugu.

4.13.1. Nafarroako Eskola Kontseilua

Nafarroako Eskola Kontseilua hezkuntza komunitatearen partaidetza organo gorena da unibertsitateaz kanpoko Nafarroako ikasketen plangintzari dagokionez. Bertan, hezkuntzarekin zerikusia duten sektore nagusiak daude ordezkatuta.

Nafarroako Eskola Kontseilua azaroaren 4ko 12/1997 Foru Legearen bidez sortu zen. Haren eginkizunetako bat da Nafarroako Foru Komunitatean unibertsitateaz kanpoko hezkuntza arautuko duten arau egitasmoak aztertzea eta horien gainean eztabaidatzea, eta adostutako zuzenketak Hezkuntza Departamentuari jakinaraztea. Gainera, hezkuntzaren alderdi adierazgarriei buruzko ikerketak eta txostenak prestatzen ditu, hausnarketa eta jardunbide egokiei buruzko jardunaldiak antolatzen ditu eta Estatuko Eskola Kontseiluan parte hartzen du.

176. grafikoa: Nafarroako Eskola Kontseiluko kideak



Iturria: Nafarroako Eskola Kontseilua

Hona hemen haren eginkizunak:

- Hezkuntza Departamentuak igortzen dituen arau egitasmoak aztertzea eta horiei buruz eztabaidatzea, irakaskuntzaren programazio orokorreko alderdi guztien gainean legez ezinbestekoak diren irizpenak prestatzeko. Hauen inguruko egitasmoak dira:
 - Hezkuntzarekin loturiko gaiei dagokienez, Nafarroako Gobernuak onetsi beharreko erregelamendu exekutibo orokorretarako egitasmoak edo foru legeetarako aurreproiektuak.

- Ikastetxeak sortu, aldatu, kendu eta lurraldean zehar banatzeari buruzko plangintza orokorrerako printzipioak, oinarriak eta irizpideak.
 - Ikastetxeen eta ikastetxeetako langile eta ekipamenduen ezaugarriei buruzko araudi orokorra.
 - Ikastetxe publikoen eta itunpeko ikastetxe pribatuen eta diruz lagunduen finantzaketari buruzko irizpide orokorrak.
 - Hizkuntza-ereduen ezaugarriei eta ezarpenari buruzko xedapen orokorrak.
 - Bekei eta ikasketetarako laguntzei buruzko printzipio orokorrak.
 - Eskolaz kanpoko ekintzei eta zerbitzu osagarriei buruzko araudi orokorra.
 - Hezkuntza gaitan Estatuarekin edo beste autonomia erkidego batzuekin lankidetzak hitzarmenak edo akordioak egiteko proiektuak.
 - Hezkuntzaren kalitatea hobetzea edo desberdintasun sozial eta indibidualak konpentsatzea helburu duten xedapenak.
- Txostenak egitea Hezkuntza Departamentuak eskatutako gaien gainean.
 - Bere ekimenez ikerketak eta proposamenak egitea, irakaskuntzaren programazio orokorrarekin lotutako bestelako gaii buruz, eta goragokoei igortzea.
 - Urtero hau bezalako txosten bat prestatzea Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza sistemaren egoerari buruz.
 - Urtero Nafarroako Eskola Kontseiluaren jardueren memoria prestatzea.
 - IDEA aldizkaria prestatzea eta kaleratzea.
 - Eskola Kontseilurekiko topaketa jardunaldiak antolatzea.
 - Parte hartzea Estatuko Eskola Kontseiluaren osoko bilkuran eta autonomietako eskola kontseiluen partaidetza batzordearen saioetan.

190. taula: 2022-2023 ikasturtean egindako jarduera garrantzitsuenak

Jarduera mota	Kopurua edo deskribapena
Osoko bilkurak	8
Batzorde Iraunkorraren saioak	8
Emandako irizpenak	18
Ekimen propioko txostenak	<ul style="list-style-type: none"> • Nafarroako Hezkuntza Sistemari buruzko txostena, 2021-2022 • Nafarroako Hezkuntza Sistemaren adierazleei buruzko txostena • 2021-2022 ikasturteko memoria
Argitaratutako IDEA aldizkariak	<ul style="list-style-type: none"> • 56. zk.: "Autonomia, lidergoa, ebaluazioa eta parte-hartzea ikastetxeetan / Autonomía, liderazgo, evaluación y participación en los centros educativos" • 57. zk.: "Eskola jardunaldia. Hausnarketak eta datuak / La Jornada Escolar. Reflexiones y Datos"

Webgunea	<ul style="list-style-type: none"> • Etengabe eguneratzea eta astero zabaltzea aldizkari bat Nafarroako ikastetxe eta profesionalentzat
Jardunaldiak	<ul style="list-style-type: none"> • XXVIII. Eskola Jardunaldia. Hausnarketak eta datuak. Urtarrilean, Iruñean • XXIX. Neurohezkuntza Jardunaldia. Nola ikasten du burmuinak? Martxoan, Iruñean
Eskola Kontseiluaren arratsaldeak	<ul style="list-style-type: none"> • Aurten ez da egin
Estatuko autonomia erkidegoetako eskola kontseiluak	<ul style="list-style-type: none"> • Autonomia Erkidegoen Partaidetza Batzordeko eta Estatuko Eskola Kontseiluko Osoko Bilkurako kidea • Estatuko Eskola Kontseiluaren Erregelamenduaren arau berrikuspina egiteko lantaldeko kidea • Autonomia erkidegoetako eskola kontseiluen funtzionamenduari buruzko dokumentazioa eta esperientziak trukatzea
Parte hartzea	<ul style="list-style-type: none"> • Bilerak egitea Hezkuntza Ituneko lantaldeetako kideekin, eta sinatzea • Nafarroako Unibertsitatearen ikasturte hasierako ekitaldia • Agerraldia Parlamentuan, Hezkuntza Batzordearekin. Nafarroako Foru Komunitateko Hezkuntzaren aldeko Itun Sozialaren aurkezpena • NUPen ikasturte hasierako ekitaldia • Ikasturtea irekitzeko ekitaldira joatea Padre Moret-Irubide BHIra • XXX. Kultur Aste Espainiar-alemaniarraren aurkezpen ekitaldira joatea • Gurasoen Mahaia • Ikastetxeetara bisitak: Paderborn, Zangozako Luis Gil, Noaingo San Miguel, Mendillorriko Mendigoiti, Iberoko Isterria • Elkarrizketa RNEn, Radio Tudelan • Nafarroako Kultura Klasikoaren IV. Jardunaldietara joatea • Bilera Santiago Irabururekin, "Etorkizunari, talentuari eta garapenari buruzko elkarrizketa. Gizarte Kontseilua eta unibertsitatea ingurunera irekitzea" jardunaldiak prestatzeko • "Etorkizunari, talentuari eta garapenari buruzko elkarrizketa. Gizarte Kontseilua eta unibertsitatea ingurunera irekitzea" jardunaldietara joatea • Bilerak Iruñeko eta Corellako Arte Eskolarekin • Koordinazio bilerak Hezkuntzako kontseilariarekin • Ikaslearen Eguna ospatzera joatea. EEK. Madril • Bilerak zenbait zuzendari elkarterekin • Elkarrizketa Navarra TVn. 2023-2024 ikasturterako aurreinskripzioak ikastetxeetan • Anna Forés eta Carme Trinidaden jardunaldietara joatea Mendigoiti IPan • Bilera Caro Baroja BHIko zuzendariarekin eta Nafarroako Saskibalo Federazioarekin • Bigarren Hezkuntzako Ikastetxeetako Zuzendarien Klubaren bilera. NUP. "Neurodidaktika eta neuroemozioak: ikaskuntzaren, prebentzioaren eta esku-hartzearen bidegurutzea eskola testuinguruan" • Bilera Hezkuntza Departamentuko Aurrekontuen eta Kudeaketa Ekonomikoaren Ataleko Sagrario Arroquirekin • "Nafarroako Guardia Zibila, orainalditik geroari begira" jardunaldira joatea

	<ul style="list-style-type: none"> • Institutu Zuzendarien Elkartearen topaketa, "Lidergoa eta berrikuntza pedagogikoa". Navarra Villoslada BHI • Artea Oinez erakusketara joatea. Kondestablearen jauregia • "Hezkuntza garaia baino lehen uztea" prestakuntza jardunaldira joatea. Gaztela eta Leongo Eskola Kontseilua • Bilerak egitea Juan Ardaizekin NHSTaren ebaluazio-ereduaren diagnostikoari buruz, CdM-aren eta haren adierazleen egoera berrikustea enpresarekin • Granadako topaketak prestatzeko bilerak • Estatuko eta Autonomia Erkidegoetako Eskola Kontseiluen XXIV. Topaketara joatea Granada • Nafarroako Parlamentuan 21/22 NHSTa aurkeztea • Hezkuntza Departamentuak antolatutako "Adimen artifiziala hezkuntzaren etorkizunean" jardunaldira joatea • ...
Zabalkundea	Hezkuntzarekin zerikusia duten berriak biltzea, hemeroteka eguneratzeko, eta astero zabaltzea Nafarroako ikastetxe eta profesionalentzako aldizkaria.

Iturria: Nafarroako Eskola Kontseilua

4.13.2. Ikastetxeetako eskola kontseiluak

Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeetako eskola kontseiluak, hauteskundeak egiteko, partzialki berritzeko, postu hutsak betetzeko eta eratzeko prozesuari dagokionez, ondoren aipatzen diren 2022-2023 ikasturterako ebazpenek araututa daude (ebazpen bakoitzak dagokion araudia garatzeko balio du, kontuan hartuta nolakoa den ikastetxea eta bertan zer etapa ematen diren):

- 394/2022 EBAZPENA, irailaren 7koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez jarraibideak onesten baitira Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean dauden Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako, Hezkuntza Bereziko ikastetxe publikoetako eta Helduen Oinarrizko Hezkuntzako ikastetxe publikoetako eskola kontseiluak hautatzeko, eratzeko, haien zati bat berritzeko eta haietan hutsik dauden tokiak betetzeko.
- 395/2022 EBAZPENA, irailaren 7koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez jarraibideak onesten baitira Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean dauden Bigarren Hezkuntzako institutueta eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako institutueta eskola kontseiluak hautatzeko, eratzeko, haien zati bat berritzeko eta haietan hutsik dauden tokiak betetzeko.
- 393/2022 EBAZPENA, irailaren 7koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez jarraibideak onesten baitira Iruñeko eta Tuterako Hizkuntza eskola ofizialetako eta Nafarroako Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofizialetako eskola kontseiluak hautatzeko, eratzeko, haien zati bat berritzeko eta haietan hutsik dauden tokiak betetzeko.
- 392/2022 EBAZPENA, irailaren 7koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez jarraibideak onesten baitira Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean dauden Arte Irakaskuntzen ikastetxe publikoetako eskola kontseiluak hautatzeko, eratzeko, haien zati bat berritzeko eta haietan hutsik dauden tokiak betetzeko.
- 391/2022 EBAZPENA, irailaren 7koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez jarraibideak onesten baitira Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean dauden ikastetxe itunduetako eskola kontseiluak hautatzeko, eratzeko, haien zati bat berritzeko eta haietan hutsik dauden tokiak betetzeko.

191. taula: Eskola kontseiluetarako hauteskundeak ikastetxe publikoetan. 2022-2023

Lehen Hezkuntza	Irakasleen sektorea		Gurasoen sektorea		Ikasleen sektorea		AZLen sektorea	
	Bai	Ez	Bai	Ez	Bai	Ez	Bai	Ez
Eskola Kontseilua berritu behar duten ikastetxeak: 133 ¹ ikastetxe								
Sektorea osatzen duten ikastetxeak	124	0	106 ²	10	15 ³	0	10 ⁴	4
Botazioak egiten dituzten ikastetxeak	44	77	17	99	2	13	1	13
Sektoreak osatzen dituzten ikastetxeak, berritu beharrik ez badute ere: 8 ikastetxe								
Bigarren Hezkuntza	Irakasleen sektorea		Gurasoen sektorea		Ikasleen sektorea		AZLen sektorea	
	Bai	Ez	Bai	Ez	Bai	Ez	Bai	Ez
Eskola Kontseilua berritu behar duten ikastetxeak: 17 ikastetxe								
Sektorea osatzen duten ikastetxeak	17	0	13	3	16	1	4 ⁴	0
Botazioak egiten dituzten ikastetxeak	7	10	3	13	6	11	0	4
Sektoreak osatzen dituzten ikastetxeak, berritu beharrik ez badute ere: 10 ikastetxe								
Helduen Hezkuntza	Irakasleen sektorea		Gurasoen sektorea		Ikasleen sektorea		AZLen sektorea	
	Bai	Ez	Bai	Ez	Bai	Ez	Bai	Ez
Eskola Kontseilua berritu behar duten ikastetxeak: 0 ikastetxe								
Sektorea osatzen duten ikastetxeak								
Botazioak egiten dituzten ikastetxeak								
Sektoreak osatzen dituzten ikastetxeak, berritu beharrik ez badute ere: 0 ikastetxe								
Arte eskolak	Irakasleen sektorea		Gurasoen sektorea		Ikasleen sektorea		AZLen sektorea	
	Bai	Ez	Bai	Ez	Bai	Ez	Bai	Ez
Eskola Kontseilua berritu behar duten ikastetxeak: 1 ikastetxe								
Sektorea osatzen duten ikastetxeak	1	0	1	0	1	0	1 ⁴	0
Botazioak egiten dituzten ikastetxeak	0	1	0	1	0	1	0	1
Kontserbatorioak	Irakasleen sektorea		Gurasoen sektorea		Ikasleen sektorea		AZLen sektorea	
	Bai	Ez	Bai	Ez	Bai	Ez	Bai	Ez
Eskola Kontseilua berritu behar duten ikastetxeak: 2 ikastetxe								

Sektorea osatzen duten ikastetxeak	2	0	2	0	1	1	1 ⁴	0
Botazioak egiten dituzten ikastetxeak	0	2	0	2	0	2	0	1
Hezkuntza Berezia	Irakasleen sektorea		Gurasoen sektorea		Ikasleen sektorea		AZLen sektorea	
	Bai	Ez	Bai	Ez	Bai	Ez	Bai	Ez
Eskola Kontseilua berritu behar duten ikastetxeak: 1 ikastetxe								
Sektorea osatzen duten ikastetxeak	1	0	1	0	-	-	1 ⁴	0
Botazioak egiten dituzten ikastetxeak	1	0	1	0	-	-	1	0

¹ 133 ikastetxe horietatik 9 dira unitate bateko edo biko ikastetxeak, eta horrelakoetan ez da bozketarik egiten, eskola kontseiluko kideek ez dutelako hautagaitzarik aurkeztu behar, zuzenean izendatzen baitituzte ikastetxeko zuzendariak, gurasoen elkarteak zuzenean izendatutako elkartekideak eta udaleko ordezkariak. Azterketa gainerako 124ren gainean egin da

² Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako 8 ikastetxe publikori ez dagokie sektore horretako kideak berritzea

³ Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publiko batzuk, DBHko lehen eta bigarren mailak ematen dituztenak edo eskola esparrua DBHlekin batera partekatu eta ikasleen sektorea berritzea dagokienak

⁴ AZLen sektorea bigarren erdia berritu behar den ikastetxeetan bakarrik berritzen da

Iturria: Ikasketak Antolatzeko Atala

192. taula: Eskola kontseiluetarako hauteskundeak ikastetxe itunduetan. 2022-2023

	Irakasleen sektorea		Gurasoen sektorea		Ikasleen sektorea		AZLen sektorea	
	Bai	Ez	Bai	Ez	Bai	Ez	Bai	Ez
Eskola Kontseilua berritu behar duten ikastetxeak: 54 ikastetxe								
Sektorea osatzen duten ikastetxeak	53	1	51	3	32 ⁵	2	12 ⁶	0
Botazioak egiten dituzten ikastetxeak	8	46	16	38	14	20	1	11
Sektoreak osatzen dituzten ikastetxeak, berritu beharrik ez badute ere: 2 ikastetxe								

⁵ DBHko 1. mailatik aurrera, ikasleen sektorea berritzea egokituz gero

⁶ AZLen sektorea bigarren erdia berritu behar den ikastetxeetan bakarrik berritzen da
Iturria: Ikasketak Antolatzeko Atala

Ikastetxeetako eskola kontseiluak bi urtean behin erdika berritzen dira.

Ikasturte honetan, 2022-2023an, berritu den ikastetxe kopurua aski da baloraziorako lagin adierazgarritzat jotzeko.

- Eskola kontseilua berritu behar duten ikastetxeen ehuneko handi batean ez da bozketarik egin, aurkeztu diren hautagaitzen kopurua bete beharreko postuen bera edo txikiagoa izan delako.
- Bozketak egin diren tokietan, gurasoen sektorea da parte hartzearen ehuneko txikiena izan duena.

- Eskola kontseilua berritzera beharturik ez badaude ere, ikastetxe batzuetan diote kontseiluaren osaera osoa mantendu nahi dutela eta, hartara, sektoreetako edozeinetan sortutako postu hutsak betetzeko prozedurari ekin diote.

4.13.3. Unibertsitateaz kanpoko irakasleen mahai sektoriala

2022-2023 ikasturtean zehar unibertsitateaz kanpoko irakasleen mahai sektoriala 13 aldiz bildu da, eta gai hauek aztertu ditu:

- 2022-09-20ko mahai sektoriala

Hezkuntza Departamentuko Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuko zuzendariaren ebazpen baten zirriborroa. Ebazpen horren bidez, dei egiten da estatu mailako lekualdatze-lehiaketarako, kidego hauetako irakasle funtzionarioentzat: maisu-maistren kidegoa, Bigarren Hezkuntzako katedradunen eta irakasleen kidegoa, Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoa, hizkuntza eskola ofizialetako katedradunen eta irakasleen kidegoa, Musikako eta Arte Eszenikoetako katedradunen eta irakasleen kidegoa eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko irakasleen eta tailer maisu-maistren kidegoa.

-Hezkuntza Baliabideen Zuzendaritza Nagusiak izapidetzen dituen deialdi eta jarduketetarako letren zozketa.

- 2022-10-7ko mahai sektoriala

-Lekualdatze lehiaketako lanpostuen zerrenda aurkeztea.

- 2022-10-10eko mahai sektoriala

-Lekualdatze lehiaketaren deialdiari buruzko informazioa.

- 2022-10-28ko mahai sektoriala

-Egonkortze-deialdietako ebazpenen zirriborroa.

- 2022-11-7ko mahai sektoriala

-Aparteko merezimendu-lehiaketari buruzko lurralde arteko akordioari buruzko informazioa.

- 2022-11-30eko mahai sektoriala

-Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuko zuzendariaren ebazpen batzuen zirriborroak, honako deialdi hauei dagozkienak:

Merezimendu lehiaketa, zerbitzu-eginkizunen araubidean betetzeko irakasleentzako laguntza zentroetako (ILZ) aholkularitza eta zuzendaritza lanpostuak.

Merezimendu lehiaketa, zerbitzu-eginkizunen araubidean betetzeko Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroan (EIBZ) lanpostuak.

- 2022-12-16ko mahai sektoriala

1. Hezkuntza Departamentuko Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuaren zuzendariaren ebazpen baten zirriborroa. Horren bidez onesten dira, Nafarroako Foru Komunitatearen eremuan, Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen kidegoa (desagertzera doana)

Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoan integratzeko deialdia eta deialdi horren ondoren irekitako prozedura, Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoan integratzea eskatzeko, 2026ko urtarrilaren 19ra arte.

2. Hezkuntza Departamentuko Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuko zuzendariaren ebazpen baten zirriborroa. Horren bidez honako hauek onesten dira: unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioei behin-behineko destinoak, praktiketakoak eta zerbitzu eginkizunetakoak esleitzeko jarraibideak, zuzendaritza-karguen izendapena eta irakasleen lanaldiaren murrizketak eskatzeko prozedura, 2023-2024 ikasturterako.

3. Foru dekretu baten zirriborroa, zeinaren bidez aldatzen baita apirilaren 30eko 37/2014 Foru Dekretua, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioiko unibertsitateaz kanpoko irakasle kidegoei dagozkien lanpostuen hornidura arautzen duena.

- 2023-01-12ko mahai sektoriala

-Foru dekretu baten zirriborroa, zeinaren bidez aldatzen baita apirilaren 30eko 37/2014 Foru Dekretua, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioiko unibertsitateaz kanpoko irakasle kidegoei dagozkien lanpostuen hornidura arautzen duena.

-Foru dekretu baten zirriborroa, Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan atzerriko hizkuntzetan ikasteko programen oinarritzko alderdiak arautzen dituena.

-2023-01-12ko mahai sektoriala

Foru dekretu baten zirriborroa, zeinaren bidez aldatzen baita apirilaren 30eko 37/2014 Foru Dekretua, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioiko unibertsitateaz kanpoko irakasle kidegoei dagozkien lanpostuen hornidura arautzen duena.

2-Foru dekretu baten zirriborroa, Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan atzerriko hizkuntzetan ikasteko programen oinarritzko alderdiak arautzen dituena.

3-Bestelako gaiak.

- 2023-01-16ko mahai sektoriala

-Foru dekretu baten zirriborroa, zeinaren bidez aldatzen baita apirilaren 30eko 37/2014 Foru Dekretua, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioiko unibertsitateaz kanpoko irakasle kidegoei dagozkien lanpostuen hornidura arautzen duena.

- 2023-01-26ko mahai sektoriala:

1-Hezkuntza Departamentuko Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuko zuzendariaren ebazpen baten zirriborroa, deialdi bat onesten duena Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuko Hezkuntza Ikuskapen Zerbitzuan behin-behineko ikuskatzaile lanpostuak zerbitzu eginkizunetan aldi baterako betetzeko izangaien bi zerrenda eratzeko, bata euskaraz eta bestea gaztelaniaz.

2-Foru dekretu baten zirriborroa, Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan atzerriko hizkuntzetan ikasteko programen oinarritzko alderdiak arautzen dituena.

- 2023-02-24ko mahai sektoriala

1-Maisu-maistren kidegoko 160 lanpostuen espezialitateak zehaztea.

- 2023-03-29ko mahai sektoriala:

1-Hezkuntza Departamentuko Langileen Araubide Juridikoaren Zerbitzuko zuzendariaren ebazpen baten proposamena, zeinaren bidez aldatzen baita Hezkuntzako kontseilariak emandako apirilaren 8ko 37/2020 Foru Aginduaren I. eranskina. Foru agindu horrek onesten ditu Hezkuntza Departamentuaren zerbitzuan aldi baterako kontratuarekin irakasle lanpostuetan aritzeko izangai zerrendak kudeatzeko arauak.

2-Hezkuntza Departamentuko Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuko zuzendariaren ebazpen baten proposamena, zeinaren bidez onesten baita deialdi bat, Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoa desagertzearen ondorioz Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sarturik gelditu diren espezialitateetako zerrendetan aldi baterako kontratazioetarako agertzen diren izangaiei zuzendua, aukera izan dezaten espezialitateko betekizunak frogatzeko. Betekizun horiek Hezkuntzako kontseilariaren apirilaren 8ko 37/2020 Foru Legearen I. eranskinean ezarrita daude.

- 2023-06-16ko mahai sektoriala

1.-Unibertsitateaz kanpoko irakasleen mahai sektoriala eratzea, maiatzaren 17ko hauteskunde sindikalen ondoren.

2.-Sindikatuaren lokalak.

3.-Hezkuntza Departamentuko Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusiaren ebazpen baten zirriborroa, zeinaren bidez eskumenak beste baten esku uzten baitira Hezkuntzako kontseilariaren apirilaren 8ko 37/2020 Foru Aginduaren I. eranskina aldatzeko eta Hezkuntzako kontseilariaren maiatzaren 13ko 36/2022 Foru Aginduaren eranskina aldatzeko, eta aipatu bi eranskinak aldatzen baitira (37/2020 Foru Aginduak onetsi zituen Hezkuntza Departamentuaren zerbitzuko lanpostuak aldi baterako kontratuen bidez betetzeko izangaien zerrendak kudeatzeko arauak, eta 36/2022 Foru Aginduak irakasleek akreditatzen ahal dituzten profil espezifikoak zehaztu eta horiek akreditatzeko prozedura ezartzen du).

Unibertsitateaz kanpoko irakasleen hezkuntza itun sektoriala negoziatzeko mahaiaren osaera beheko taulakoa da.

193. taula: Unibertsitateaz kanpoko irakasleen mahai sektoriala. 2022-2023

Sindikatuak	Ordezkariek	%	
LAB	11	21,82	
STEILAS	10	20,00	
AFAPNA	8	20,00	
CCOO	6	12,73	
ANPE	6	18,18	
ELA	4	7,27	Mahai orokorrean egoteagatik
UGT	0	0,00	Mahai orokorrean egoteagatik
Total	45	100	APS eta CSIF ez dira sartu ordezkaritzaren %10era iristen ez direlako eta ez daudelako Mahai Orokorrean

Iturria: Hezkuntza Baliabideen Zuzendaritza Nagusia

4.13.4. Gurasoen Mahaia

Nafarroako Foru Komunitateko Gurasoen Mahaia Hezkuntzako kontseilariak maiatzaren 28an emandako 79/2008 Foru Aginduaren bidez eratu zen. Geroago, foru agindu hura otsailaren 4ko 14/2010 Foru Aginduak aldatu zuen, hezkuntza esparruan ikasleen gurasoen elkarteak biltzen dituzten federazioen bitartez guraso elkarten parte hartzea indartzeko xedez.

Gurasoen Mahaiaren helburua da Nafarroako Foru Komunitatean hezkuntza sisteman interes sozial berezikotzat harturiko gaietan ikasleen aita, ama edo legezko tutoreen elkarten arteko lankidetzeta eta parte hartzea indartzea, horiek parte diren federazioen bitartez eta Hezkuntza Departamentuarekin elkarlanean.

Honako hauek dira kideak:

- Hezkuntzako kontseilaria; mahaiburua izanen da.
- Hezkuntza Departamentuko zuzendari nagusiak; horietako bat, Hezkuntzako kontseilariak izendatua, mahaiko lehendakariordea izanen da, eta mahaiburuaren eginkizunak beteko hura ez dagoenean.
- Hezkuntza Departamentuaren bi ordezkari, Hezkuntzako kontseilariak izendatuak landu beharreko gaien arabera.
- Hezkuntza Departamentuko Elkarten eta Federazioen Erroldan dauden eta kasuan kasuko elkarteetan afiliatutako familia kopuru handiena duten Nafarroako guraso elkarten federazioetako bakoitzeko pertsona bat, sei kideko kopurura iritsi arte.
- Irakasleen elkarteak eta sindikatuak.

4.13.5. Gurasoen federazioak eta konfederazioak

2022-2023 ikasturtean ikasleen gurasoen federazioek eta konfederazioek egin dituzten jarduerarik esanguratsuenak ondoko tauletan jaso dira.

194. taula: HERRIKOAK egindako jarduera nagusiak. 2022-2023

Jardueraren izena	Norentzat	Saio kopurua, guztira	Parte hartzaileak, guztira
Prestakuntza: Kuxkuxeatzen: sexu hezkuntzan ere lagun egin	Guraso elkarteak eta familiak	80	1.500
Prestakuntza: eskolako eta Interneteko jazarpenari (bullying-a eta cyberbullying-a) aurrea hartzeko gakoak			
Prestakuntza: gure seme-alabekiko komunikazioa hobetzen			
Prestakuntza: mugak eta aukerak			
Zinera Herrikoarekin	Guraso elkarteak eta familiak	2	2.000
Hauetan parte hartzea:		Tokia eta eguna	
Nafarroako Eskola Kontseiluaren jarduerak		Eskola Kontseiluaren egoitza	
Eskolatzeko Batzordea		Hezkuntza Departamentua	
Itunen Batzordea		Hezkuntza Departamentua	
Beka Batzordea		Hezkuntza Departamentua	
Eskolaldiari buruzko lantaldea		Hezkuntza Departamentua	
IIP lantaldea		Hezkuntza Departamentua	

Iturria: Herrikoa

195. taula: SORTZENek egindako jarduera nagusiak. 2022-2023

Jardueraren izena	Norentzat	Saioak
“Euskaraz Mintza” programa, euskararen erabilera ikastetxean sustatzeko. Nafarroako 15 ikastetxetan	Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleak	Ikasturte osoan
“Jolasteka”, euskararen erabilera jolasaren bidez sustatzeko tailerrak, Nafarroako Hegoaldean D eredua berriki ezarritako 18 herritako familien artean.	Gurasoak, irakasleak eta ikasleak	Urria-maiatza
Hileroko informazio buletina	Gurasoak, irakasleak, ikasleak eta udal eta mankomunitateak	9
Sexualitateari buruzko prestakuntza 10-14 urte arteko ikasleentzat eta familientzat; irakasleek ere parte hartu zuten	Familiak eta ikasleak	6 saio
“Sortzentipak”, asteroko aholkuak euskaraz eta gaztelaniaz, sare sozialen bitartez	Familiak eta hezkuntza-komunitate osoa	Urte osoan zehar
“Ikasle Euskaldun Eleaniztunak” programa garatzea zenbait ikastetxetan Programa horren gida aurkeztea ikastetxe batzuetan.	Gurasoak, irakasleak, ikasleak eta udal eta mankomunitateak	Urria-maiatza
“Gurasoteka”, Nafarroako Hegoaldean D eredua berriki ezarritako herri bateko familien artean euskararen erabilera sustatzeko tailerrak, saiakuntza gisara	Familiak	Apirila-maiatza
Hauetan parte hartzea:		Tokia eta eguna
Nafarroako Eskola Kontseilua, eta Hezkuntza Departamentuaren deiak		Presentziala eta online
Jangela, eskola jantoki osasungarriago, jasangarriago eta hezigarriagoen alde		Presentziala eta online
Euskararen Kontseilua, Iruñerriko euskalgintza		Presentziala eta online
Nafarroako Euskararen Gizarte Kontseilua		Presentziala eta online
Nafarroako Hezkuntza Ituna		Presentziala eta online
Errigora ekimena, Nafarroako Erriberako produktu ekologikoen kontsumoa eta eskualdean euskararen erabilera sustatzeko		Presentziala eta online
Beste batzuk		Tokia eta eguna
Euskarazko Eskola Publiko Berriaren aldeko festa (Euskara Antzokira). Iruñerriko bost ikastetxek parte hartu zuten		2023ko maiatza
Hezkidetzan eta eskola feministan oinarrituriko eredu pedagogiko berriaren aldeko dinamikak		2022-23 ikasturtea
Euskararen eskubideak Nafarroa Osoan		2022-23 ikasturtea
Kide diren gurasoen elkarleen koordinazioa		2022-23 ikasturtea
Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikasle eta familien eskubide eta premien alde ikasturtean zehar sortutako ekimenetan parte hartzea		2022-23 ikasturtea

Iturria: SORTZEN

196. taula: Nafarroako CONCAPAK egindako jarduera nagusiak. 2022-2023

Jardueraren izena	Norentzat	Saio kopurua, guztira	Parte hartzaileak, guztira
Hitzaldia: "Autoestimua: baliatu ezazu ikasturtea hura indartzeko". Hizlaria: Antonio Gervás. Irabia-Izaga Ikastetxea. Presentziala	Kide diren guraso elkarteetako hezkuntza etapa guztietako gurasoak eta irakasleak eta Nafarroako edo/eta Espainiako gainerako biztanleak	1	27 bertaratuta
Hitzaldia: "Autoestimua: baliatu ezazu ikasturtea hura indartzeko". Hizlaria: Antonio Gervás. Jesuiten ikastetxea, Tuter. Presentziala edo/eta streaming-ean	Kide diren guraso elkarteetako hezkuntza etapa guztietako gurasoak eta irakasleak eta Nafarroako edo/eta Espainiako gainerako biztanleak	1	55 bertaratuta 52 online
Hitzaldia: "Pornografiaren fikzioa eta sexualitatearen edertasuna aurrez aurre". Hizlaria: Blanca Elías. Santa Luisa de Marillac ikastetxea. Presentziala edo/eta streaming-ean	Kide diren guraso elkarteetako hezkuntza etapa guztietako gurasoak eta irakasleak eta Nafarroako edo/eta Espainiako gainerako biztanleak	1	25 bertaratuta 7 online
Hitzaldia: "DOLUAN lagun egitea haurtzaroan eta nerabeztaroen". Hizlaria: Sonia López. Online	Kide diren guraso elkarteetako hezkuntza etapa guztietako gurasoak eta irakasleak eta Nafarroako edo/eta Espainiako gainerako biztanleak	1	90 online
Hitzaldia: "Pornografiaren fikzioa eta sexualitatearen edertasuna aurrez aurre". Hizlaria: Blanca Elías. Online	Kide diren guraso elkarteetako hezkuntza etapa guztietako gurasoak eta irakasleak eta Nafarroako edo/eta Espainiako gainerako biztanleak	1	50 online
Hitzaldia: "Teknologia, baimendu ala debekatu?". Hizlaria: María Zabala. Santa Teresa de Jesús ikastetxea. Presentziala edo/eta streaming-ean	Kide diren guraso elkarteetako hezkuntza etapa guztietako gurasoak eta irakasleak eta Nafarroako edo/eta Espainiako gainerako biztanleak	1	50 bertaratuta 56 online
Hitzaldia: "Bullying-a: detekziozko eta prebentziozko tresnak". Hizlaria: Belén Colomina. Santa Catalina Labouré ikastetxea. Presentziala edo/eta streaming-ean	Kide diren guraso elkarteetako hezkuntza etapa guztietako gurasoak eta irakasleak eta Nafarroako edo/eta Espainiako gainerako biztanleak	1	40 bertaratuta 50 online
Hitzaldia: "Oihurik gabe hezi". Hizlaria: Laura Monge. La Anunciata ikastetxea, Tuter. Presentziala edo/eta streaming-ean	Kide diren guraso elkarteetako hezkuntza etapa guztietako gurasoak eta irakasleak eta Nafarroako edo/eta Espainiako gainerako biztanleak	1	30 bertaratuta 33 online
Hitzaldia: "Alkoholaren eta beste droga batzuen erabilera eta abusua: prebentzioa eta alerta zantzuak". Hizlaria: Cristina Larráyo. Luis Amigó Ikastetxea. Presentziala edo/eta streaming-ean	Kide diren guraso elkarteetako hezkuntza etapa guztietako gurasoak eta irakasleak eta Nafarroako edo/eta Espainiako gainerako biztanleak	1	20 bertaratuta 30 online
Hitzaldia: "Netflix-ek edukia sortzen laguntzen didanean". Hizlaria: J. Martín Aguado. Claret-Larraona ikastetxea. Presentziala edo/eta streaming-ean	Kide diren guraso elkarteetako hezkuntza etapa guztietako gurasoak eta irakasleak eta Nafarroako edo/eta Espainiako gainerako biztanleak	1	15 bertaratuta 20 online

Hitzaldia: "Zailtasunen aurrean indarra izateko gako fisikoak, mentalak eta emozionalak". Hizlaria: David Serrato Ruiz de Loizaga. Iruña	Nafarroako Concapari atxikitako guraso elkarteak	1	25 bertaratuta
Prestakuntza ekitaldia guraso trebatuentzat: "Aseribotasuna eta autoestimua"	Kide diren guraso elkarteetako hezkuntza etapa guztietako gurasoak eta irakasleak	1	12 bertaratuta
Kultura edo/eta kirol jarduera: Gabonetako lehiaketa	Kide diren guraso elkartearen ikastetxeetako ikasleak	1	272 bertaratuta
Familia-kontziliazioa, kirolaren sustapena eta osasuna: Pazko Asteko kirol kanpamentua, Athletics Kids kamp. Nafarroako Unibertsitatea	Kide diren guraso elkartearen ikastetxeetako ikasleak	4	80 bertaratuta
Familia-kontziliazioa, kirolaren sustapena eta osasuna: Futboleko kirol kanpamentua. Talentia, Tuteria	Kide diren guraso elkartearen ikastetxeetako ikasleak	4	26 bertaratuta
Familia-kontziliazioa, osasunaren sustapena edo/eta ingurumenaren zaintza eta prebentzioa. Basaberre kanpamentua, Lizarra	Kide diren guraso elkartearen ikastetxeetako ikasleak	4	60 bertaratuta
Kultura jarduera: Liburuaren Eguna	Kide diren guraso elkartearen ikastetxeetako ikasleak eta familiak	1	10 bertaratuta
Kultura jarduera: Amaren Eguna	Kide diren guraso elkartearen ikastetxeetako ikasleak	1	22 bertaratuta
Nafarroako Concapari atxikitako guraso elkartearen II. Jardunaldia eta Batzar Orokorra antolatzea.	Nafarroako Concapari atxikitako guraso elkarteak	1	23 bertaratuta
Hauetan parte hartzea:		Tokia eta eguna	
Hezkuntza Departamentuko Gurasoen Mahaiaren bileretara joatea eta parte hartzea		Iruñean, 2022ko irailean	
Nafarroako Eskola Kontseiluko Batzorde Iraunkorren bileretara joatea eta parte hartzea		Iruñean, 2022ko irailetik 2023ko ekainera	
Nafarroako Eskola Kontseiluaren osoko bilkuretara joatea eta parte hartzea		Iruñean, 2022ko irailetik 2023ko ekainera	
Hezkuntza Departamentuko Eskolatze eta Beka Batzordearen bileretara joatea eta parte hartzea		Iruñean, 2022ko irailetik 2023ko ekainera	
Hezkuntzari, ikastetxea hautatzeko askatasunari eta Nafarroako Concapak antolatutako hitzaldiei buruzko prentsako eta irratiko hainbat erreportajetan parte hartzea (Cadena Ser, Ondacero, Cope, Radio Nacional, Noticias de Navarra, Diario de Noticias)		Iruñean, 2022ko irailetik 2023ko ekainera	
Hezkuntza Departamentuko Beka Batzordearen bileretara joatea eta parte hartzea		Iruñean, 2022ko irailetik 2023ko abuztura	
Sepna-Fsie sindikatuaren 35. urteak ospatzeko festara joatea		Iruñean, 2022ko irailaren 7an	
Sociedad Civil Navarra elkarteak hezkuntzari buruz antolatutako hitzaldira joatea. Hizlaria: Inger Enkvist		Iruñean, 2022ko urriaren 14an	

Concapako Lehendakarien I. Topaketara joatea	Madriren, 2022ko azaroaren 19an
Concapa Nazionaleko kontseilu konfederalatan parte hartzea	Madriren, 2022ko azaroaren 18an
Eguberriko lehiaketako sariak banatzeko jaia antolatzea	Iruñean, 2022ko abenduaren 17an
Haur eta Lehen Hezkuntzako aurreinskripzioari buruzko publikitate kanpaina parte hartzea Diario Navarra.com-en	Iruñean, 2023ko martxoaren 6an
SOS Ucraina klusterraren galara joatea. Omenezko saria jaso genuen Ukrainari laguntzen parte hartzeagatik	Iruñean, 2022ko martxoaren 24an
Diario de Navarrak hezkuntzari buruzko legegintzaldiko balantzea egiteko antolatutako jardunaldietan parte hartzea eta laguntzea	Iruñean, 2023ko apirilaren 19an
Sociedad Civil Navarra elkarteak antolatutako hitzaldian parte hartzea: "Hezkuntzaren defentsan. Hezkuntza askatasuna eztabaidagai"	Iruñean, 2023ko apirilaren 26an
Cerminek antolatutako jardunaldi honetara joatea: "Desgaitasuna duten ikasleekin esku hartzeko jardunbide onen trukea: desgaitasunaren arloko gizarte entitateen esperientzia berritzaileak"	Iruñean, 2023ko apirilaren 27an
Jesuitinas ikastetxean bertako guraso elkarteak antolatutako Apirileko Feriara joatea	Iruñean, 2023ko apirilaren 28an
Fabre Fundazioaren Ideien II. Olinpiada 2030 lehiaketako epaimahaian parte hartzea	Iruñean, 2023ko maiatzaren 31n
Teresianas ikastetxean bertako guraso elkarteak antolatutako Familiaren Festara joatea	Iruñean, 2023ko ekainaren 3an
Nafarroako Concapako familientzako euskaristia antolatzea eta bertara joatea	Iruñean, 2023ko ekainaren 4an
San Cernin ikastetxeko Familiaren Festara joatea	Iruñean, 2023ko ekainaren 10ean
Autonomia Erkidegoetako eta Estatuko Eskola Kontseiluen XXIV. Topaketan parte hartzea	Granadan, 2023ko ekainaren 12tik 14ra
Santísimo Sacramento ikastetxeak antolatutako "Vaiana" musikalera joatea	Iruñean, 2023ko ekainaren 19an
Beste batzuk	
Diru dohaintza Gurutze Gorriari. Turkia eta Siriako lurrikarek kaltetutakoentzat	Iruñean, 2023ko otsailaren 9an
Informazio bilera NOPLOIren 2023ko dirulaguntzei buruz	Iruñean, 2023ko otsailaren 13an
Lan bilera Nafarroako Concapako lehendakari nazionalarekin eta Nafarroako kontseilari konfederalarekin	Iruñean, 2023ko maiatzaren 1ean
Lan bilera Iruñeko Udaleko ordezkari politikoeekin	Iruñean, 2023ko maiatzaren 4an
Talde-laneko bilera: Hezkuntza inklusiboan sartzeko desparekotasunei aurre egiten Portugalen, Italian eta Espainian (TSI-2022-EUROCH-IBA - 101100120 PROIEKTUA)	Iruñean, 2023ko ekainaren 28an
Nafarroako Concapari atxikitako guraso elkarteekiko bilerak, zalantzak argitzeko, kexak kudeatzeko edo/eta laguntza emateko, kide diren familiei hezkuntzaren inguruan gertatzen zaien edozein egoeratan	Iruñean, 2022ko irailetik 2023ko ekainera
Nafarroako Concapako batzordearen lan bilerak	Iruñean, 2022ko irailetik 2023ko ekainera

Lan bilerak Lemon eskolarekin, 2023-2024 ikasturterako hitzaldien antolaketa	Iruñean, 2023ko apiriletik abuztura
--	-------------------------------------

Iturria: Nafarroako CONCAPA

Beren jarduerak aurrera eramateko gurasoen elkarte eta federazioek jaso dituzten dirulaguntzak bildu dira beheko tauletan, eskuragarri dauden datuekin.

197. taula: Ikasleen gurasoen elkarteentzako eta federazioentzako dirulaguntzak

Urtea	Guztira	Elkarteak				Federazioak
		Publikoak		Itunduak		
		Kopurua	Zenbatekoa	Kopurua	Zenbatekoa	
2009	244.500	169	140.607	45	47.393	56.500
2010	218.000	157	114.534	33	29.966	73.500
2011	2011. urtean ez zen dirulaguntza hauetarako deialdirik izan					
2012	78.200	129	27.288	28	10.712	40.200
2013	2013. urtean ez zen dirulaguntza hauetarako deialdirik izan					
2014	45.000	Ez zen dirulaguntza hauetarako deialdirik izan				45.000
2015	45.000					45.000
2016	45.000					45.000
2017	45.000					45.000
2018	45.000					45.000
2019	45.000					45.000
2020	45.000					45.000
2021	45.000					45.000
2022	63.654					63.654

Iturria: Inklusio, Berdintasun eta Bizikidetzaz Zerbitzua

198. taula: Ikasleen gurasoen elkarten federazioak. 2016-2022

Federazioa		2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Herrikoa	Elkarteen kopurua	170	134	135	127	137	132	132
	Kideak, guztira	35.000	30.232	32.102	31.620	35.075	35.473	34.761
	Esleitutako zenbatekoa	21.691,9	2.342,1	23.267,7	14.004,71	17.618,39	10.926,40	14.584,80
Concapa	Elkarteen kopurua	44	31	30	30	32	34	30
	Kideak, guztira	23.500	12.691	21.053	20.853	20.284	21.706	20.224
	Esleitutako zenbatekoa	9.034,7	6.534,3	7.543,5	5.084,11	6.539,09	73185,47	11.330,87
Sortzen	Elkarteen kopurua	40	41		46	45	41	41
	Kideak, guztira	8.625	8.718		11.500	11.185	9.640	10.599
	Esleitutako zenbatekoa	7.491,9	8.717,7		7.562,26	12.301,87	18.102,47	26.135,69

Britila	Elkarteen kopurua	14	16	21	24	26	32	32
	Kideak, guztira	4.500	3.163	7.245	2.980	2.533	7.269	7.509
	Esleitutako zenbatekoa	3.040,2	3.919,3	8.400,1	2.172,44	4.195,53	4.639,39	6.363,58
NIE	Elkarteen kopurua	13	13	13	13	15	14	18
	Kideak, guztira	3.692	3.692	5.098	5.059	5.696	3.512	5.463
	Esleitutako zenbatekoa	3.741,4	3.483,6	5.788,7	4.917,23	4.345,12	4.146,26	5.239,06

Iturria: Inklusio, Berdintasun eta Bizikidetzaz Zerbitzua

4.13.6. Eskolatzeko Batzorde Nagusia

33/2021 Foru Dekretuak (apirilaren 28koa, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan eta pribatu itunduetan ikasleak onartzeko arauak ezartzen dituen), III. kapituluan, onarpen prozesuko berme organoak arautzen ditu: eskolatzeko batzordeak. Hala bada, araudi berri horrekin, Nafarroako Eskolatzeko Batzorde Nagusia eta tokiko eskolatzeko batzordeak izanen dira.

Nafarroako Eskolatzeko Batzorde Nagusiak definizioa, osaera eta eginkizunak 33/2021 Foru Dekretuan (apirilaren 28koa, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan eta pribatu itunduetan ikasleak onartzeko arauak ezartzen dituen) araututa dauzka, III. kapituluan.

Aipatu dekretuaren 25. artikuluan, Nafarroako Eskolatzeko Batzorde Nagusiaren definizioa, atxikipena eta eskumenen esparrua arautzen dira, eta 26. artikuluan eta 27. ean, hurrenez hurren, eginkizunak eta funtzionamendua.

Batzorde horren osaera dekretu beraren 28. artikuluan araututa dago. Batzordea 16 pertsonak osatzen dute, eta batzordeburua Hezkuntzako zuzendari nagusia da. Bestalde, Nafarroako Eskolatzeko Batzorde Nagusian honako hauek daude ordezkaturik: udalak eta kontzejuak, ikastetxe publikoetako eta itunduetako zuzendariak, sindikatuak, sare publikoko eta itunduko gurasoak, eta Hezkuntza Departamentuko zerbitzu batzuetako zenbait profesional.

Eskolatzeko Batzorde Nagusiaren eginkizunak hauek dira:

- Ikasleak onartzeko prozesua eta sortzen diren tokiko eskolatzeko batzorde guztien jarduketaren koordinatzea eta, orobat, gainbegiratzea ikasleak onartzeko prozesuaren baremazioa eta foru dekretu honetan ezarritako lehentasuneko irizpideen eta, dagokionean, irizpide osagarrien aplikazio egokia.
- Eskolatzeko ikastetxeetan ikasposturik lortu ez duten ikasleak eskolatzeko irizpideak betetzen direla gainbegiratzea, deusetan galarazi gabe foru dekretu honek tokiko eskolatzeko batzordeei esleitzen dizkien eginkizunak.
- Hezkuntza laguntzaren arloan berriazko premiak dituzten ikasleak eta egoera sozioekonomiko ahulean edo bestelako egoeraren batean dauden ikasleak eskolatzeko irizpideak betetzen direla gainbegiratzea.
- Ikastetxea aldatzeko eskaerak baimentzea epetik kanpo, behar bezala justifikatutako ohiz kanpoko zirkunstantziak daudenean.
- Hezkuntza Departamentuak planifikatutako hezkuntza eskaintza ezagutzea.

- Ikastetxeei eta tokiko eskolatzeko batzordeei argibideak eta aholkuak ematea foru dekretu honen edukiaren gainean eta, orobat, ikasleen onarpen prozesua arautzeko onesten den araudiaren gainean.
- Bere eskumen esparruaren barnean eskolatzearen arloko zuzendaritza nagusi eskudunak esleitzen diren beste eginkizun oro, hezkuntzari buruzko oinarritzko legerian ezarritakoaren esparruan.

2022-2023 ikasturtean Eskolatzeko Batzorde Nagusia hamar aldiz bildu da: irailaren 2an, urriaren 6an, azaroaren 3an, abenduaren 15ean, urtarrilaren 13an, martxoaren 16an, apirilaren 1ean, maiatzaren 5ean eta ekainaren 23an. Batzordeak ikasturtearen hasieran informazioa jaso du Nafarroako tokiko eskolatzeko batzordeen sorrerari eta kideen izendapenari buruz, ikasleak onartzeko araudiak ezartzen duen bezala. Bestalde, ekainaren 26an egindako bileran Nafarroako Eskolatzeko Batzorde Nagusiko kideei azaldu zitzaizkien nola garatu eta arituko diren ikasturtean zehar tokiko batzorde horiek.

Aurrez aurreko bilera horiez gain, larritasunagatik edo konplexutasunagatik bereziki premiazkoak diren egoerak arintzeko, eta aldaketa hori justifikatzen duten erakunde ofizialen txosten eztabaidaezinez izanda, kasu batzuk bidali zaizkie posta elektronikoz batzordea osatzen dutenei, azter eta botoa eman dezaten.

Izandako bilera guztietan ezohiko gorabeherengatik ikastetxez aldatzeko eskaerak aztertu dira. Eskatutako aldaketa onartu da aztertutako 91 kasuetako 66tan (% 79). Askotariko arrazoi bidez argudiatu dira aldaketa eskaerak: sozioekonomikoak (negozioa ixtea, banantzea, langabezia geratzea...), familia bizitzaren kontziliaziarako arazoak, epai judizialak, genero indarkeria, gaixotasunak eta eskola jazarpena, besteak beste. Kasu horien guztien artean posta elektronikoz bidalitako kasuak sartuta daude.

Eskatutako aldaketa ez baimentzeko arrazoiak artean, hauek nabarmentzen dira: ikasposturik ez egotea aldaketaren xede den ikastetxean; agiri bidez ez justifikatzea aldaketa eskatzeko arrazoiak; eta familiak aipatutako eskola jazarpena edo beste arazoren bat egiaztatuta ez egotea horrelako kontuak aztertzeko dituzten Hezkuntza Departamentuko zerbitzuetan edo erakunde ofizialetan.

4.13.7. Tokiko eskolatzeko batzordeak

Apirilaren 28ko 33/2021 Foru Dekretuak, 2. atalean, Nafarroako tokiko eskolatzeko batzordeen definizioa, sorrera, eginkizunak, osaera eta funtzionamendua zehazten ditu. Tokiko eskolatzeko batzordeen xedea da derrigorrezko etapetan ikasten ari diren ikasle guztiak Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeetan sartzeko eta eskolatzeko aukera berdintasuna sustatzea eta bermatzea, bereziki hezkuntza laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleentzat eta arrazoi sozioekonomikoengatik edo bestelakoengatik egoera ahulean dauden ikasleentzat, honako eginkizun hauekin:

- Eskatzen duten pertsonen aholku ematea, eta informazioa ematea hezkuntza sistemari eta derrigorrezko irakaskuntzaren doakotasunari buruz, ikastetxeei eta haien ezaugarriei eta ikaspostuen kopuruari buruz eta, orobat, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeetan, eta bereziki pertsona horien lurralde eremukoetan, ikasleak onartzeko prozesuari buruz.
- Ikasleak onartzeko prozesua eta hori erregulatzen duten arauak betetzen direla ikuskatzea, bereziki arrazoi sozioekonomikoengatik edo bestelako arrazoiengatik ikasleen segregazioa saihestekoak.
- Ikastetxe guztiek hezkuntza laguntzaren arloan berariazko premiak dituzten ikasleak eta arrazoi sozioekonomikoengatik edo bestelako arrazoiengatik egoera ahulean daudenak bidezkeriaz eskolatzen lagun dezaten laguntzea. Horretarako, beste jarduketak batzuen artean, egokienak iruditzen zaizkien neurriak proposatzeko dizkiote Nafarroako Eskolatzeko Batzorde Nagusiari, ikasle horien eskolatzeko ahalik eta baldintza onenetan egin dadin.

- Ezarritako epeetatik kanpo jasotzen diren eskolatze eskaerak kudeatzea. Eginkizun hori betetzeko, jarduera hauek eginen dituzte:
 - Ikaspostua eskatzen duten gurasoengandik, legezko tutoreengandik eta, dagokionean, adinez nagusi diren ikasleengandik hezkuntza eta gizarte esparruetako informazioa jasotzea.
 - Ikasleen gainean jasotako datuak balioestea, esleipen proposamena prestatzea lurralde esparruko ikastetxeetan eskolatzearen gainean dagoen informazioaren arabera, eta, familiek esan beharrekoa entzun ondoren, familiak aukeratutako ikaspostua proposatutakoen artekoetatik esleitzea.
 - Ikaspostuaren esleipenaren berri ematea gurasoei, legezko tutoreei eta, dagokionean, adinez nagusi diren ikasleei, bai eta dagokion ikastetxeari ere.
- Hala denean, Nafarroako Eskolatze Batzorde Nagusiak agintzen dien beste edozein, hezkuntzaren arloko oinarritzko legerian ezarritakoaren esparruan.

Osaerari dagokionez, toki batzorde bakoitzak kide hauek ditu:

- Batzordeko burua: eskualdeko hezkuntza ikuskatzailea, Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuko zuzendariak proposatutakoa.
- Batzordekideak:
 - Herriko edo eskolatze eremuko ikastetxe publiko bateko zuzendaria, dagokion lurralde eremuko zuzendariak proposatutakoa.
 - Herriko edo eskolatze eremuko ikastetxe pribatu itundu bateko zuzendaria, sektoreko erakunde patronalek proposatutakoa.
 - Herriko edo eskolatze eremuko ikastetxeetako irakasleen ordezkari bat, erakunde sindikalek proposatutakoa.
 - Herriko edo eskolatze eremuko ikastetxeetako ikasleen gurasoen ordezkari bat, ikastetxe horietako guraso elkarteek proposatutakoa.
 - Udalerriari edo eskolatze eremuari dagozkion toki entitateetako gizarte zerbitzuetako pertsona bat, dagozkien instituzio edo erakundeek proposatutakoa.
- Batzordeko idazkaria ikastetxe publikoko zuzendaria izanen da.

Lehen aipatu araudian, honako leku hauetan sortu dira tokiko eskolatze batzordeak: Altsasu, Bera, Elizondo, Lizarra, Etxarri Aranatz, Lesaka, Lodosa, Tafalla eta Tuteria. Batzorde horiek 2021eko ikasturtearen hasieratik funtzionatzen ari dira.

4.13.8. Nafarroako Lanbide Heziketaren Kontseilua

Kide anitzeko aholku organo bat da, partaidetza instituzional eta sozialekoa Lanbide Heziketaren gaian. Nafarroako Lanbide Heziketaren Kontseilua foru dekretu bidez sortu zen, 2000. urtean. 2017an, dekretua aldatu zen, zegokion ordezkaritza handitzeko funtsezko xedearekin. Bestek beste, eginkizun hauek ditu: parte hartzea Nafarroako Lanbide Heziketa garatzeko planei eta tresnei buruzko proposamenak egiten, eta haien jarraipena egitea; urteko txostena egitea,

proposamenak aplikatzearen eta izandako betetzearen ondoriozko emaitzak ebaluatzeko; eta Gobernuari aholkuak ematea, aurkezten zaizkion gaietan.

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Lanbide Heziketaren Kontseilua berritzea erabaki zuen 2021eko ekainaren 6an. Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilari Mikel Irujo sartu zuen kontseiluan, Foru Administrazioa ordezkatzeko kide moduan, eta beste lau urtez luzatu zuen idazkariaren eta gainerako 21 kideen eginkizuna.

Ordezkaritza instituzionalak eta sozialak ditu Lanbide Heziketaren arloko kide anitzeko organo aholku-emaile horrek.

Bestalde, Nafarroako Lanbide Heziketaren Kontseilua sortzen duen uztailaren 3ko 247/2000 Foru Dekretuaren 9. artikuluan ezarritakoarekin bat, kontseilu horren menpeko lan batzorde bat eratzea proposatu zen, lanbide heziketaren eskaintzarekin lotutako gaiez arduratu zedin eta, halaber, bere gain har zitzan abuztuaren 27ko 66/2014 Foru Dekretuaren 23. artikuluan aipatzen den Egiaztapenerako Batzordearen eginkizunak (dekretu horrek finkatzen ditu pertsonak lan-espereztian edo prestakuntza bide ez-formaletan lortutako lanbide gaitasunak ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozedura Nafarroako Foru Komunitatean ezartzeko arauak eta horretaz arduratuko den antolaketa egitura).

Beraz, 2022ko uztailaren 2an Nafarroako Lanbide Heziketaren Kontseiluko Prestakuntza eta Egiaztapen Batzordea eratu zen. Parte hartzeko organo aholku-emailea da, eragile ekonomiko eta sozialen arteko parekidetasuna du, eta Nafarroako Lanbide Heziketaren Kontseiluak eskuordetuta jarduten du lanbide heziketa egiaztagarriaren arloan eta kompetentziaren egiaztapenaren arloan. Hauek dira haren osaera eta eginkizunak:

- Osaera:

Hauek dira batzordeko kideak:

- Lanbide Heziketaren Plangintza eta Integrazioarako Zerbitzuko zuzendaria. Bera da batzordeko lehendakaria.
- Lanbide Heziketako Proiektuen eta Kualifikazioen Zerbitzuko zuzendaria.
- Nafarroako Enplegu Zerbitzuko ordezkari bat.
- Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuko ordezkari bat.
- Nafarroako Lanbide Heziketaren Kontseiluan parte hartzen duten eragile ekonomiko eta sozialen ordezkari bana (CEN, CEPES-ANEL, UGT, CCOO, ELA, LAB, Nafarroako Ganbera).
- Lanbide Heziketaren Zuzendaritza Nagusiko funtzionario bat, idazkari jardunen duena.

- Eginkizunak:

Batzordeak eginkizun hauek ditu:

- Sektore edo kolektibo zehatzentzat kompetentziak egiaztatzeko prozeduraren deialdiak egin daitezela proposatzea, etenik gabe irekita dagoen prozeduratik harago ekimen zehatzak garatzea egokituz jotzen denean. Horrek barruan hartzen du enpresek edo beste kolektibo batzuek pertsona interesdunen talde jakinentzat sustatutako deialdiak bideratzea.
- Egiaztapen prozedurekin lotutako informazioa eta orientazioa bultzatzeko irizpideak proposatzea.
- Kompetentzia ebaluatu eta egiaztatzeko prozeduraren osagarri den prestakuntzaren beharra baloratzea, profesionaltasun-ziurtagiriaren edo Lanbide Heziketako tituluen egiaztapen ofizial osoak lortzea errazte aldera.
- Hezkuntza Administrazioari proposamenak egitea Lanbide Heziketa egiaztagarriaren plangintzari buruz, ingurune ekonomiko eta sozialen beharren arabera.
- Programatutako prestakuntza ekintzen garapenaren jarraipena egitea.

- Prestakuntzarekin eta enpleguarekin zerikusia duten eragileen arteko lankidetzaz sustatzea, berrikuntzarekin eta ekintzailetzarekin zerikusia duten zeharkako jarduketaren garapena errazteko prestakuntzaren esparruan.
- Txostenak eta proposamenak egitea Lanbide Heziketaren arloan eskumena duten administrazioei erabakiak hartzen laguntzeko.

Batzordea bilduko da hiru hilean behin, gutxienez, eta Batzordeko kideen % 50ek edo gehiagok eskatzen duten aldi guztietan.

4.13.9. Hezkuntza Itunen Batzordea

Abenduaren 14ko 416/1992 Foru Dekretuak (1993ko 8. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua, urtarrilaren 18an) Nafarroako hezkuntza itunei buruzko arauak biltzen dituen erregelamendua sortu zuen.

Dekretu horren 23. artikuluan ezartzen denez, Administrazioak berariaz izendatutako batzordeen esku utzi ahalko du aurkeztutako eskaeren ebaluazioa. Batzorde horietan, hezkuntza arloko agintariekin batera, ordezkariak izanen dituzte eragindako sektore guztiek, beren ordezkari-erakundearen bitartez. Betiere, batzorde horien proposamenak bat etorriko dira aurrekontu-kontsignazio baliagarriekin.

Batzorde horiek aztertu egingen dituzte aurkeztutako eskaerak eta oroitidazkiak, eta proposamenak egingen dizkiote agintaritzaren eskudunari, proposamen arrazoituak betiere, Hezkuntzarako Eskubidea arautzen duen Lege Organikoaren 48.3 artikuluan ezartzen den lehentasun-hurrenkerari jarraituz.

Deialdia egiten duen foru aginduan zehaztuko da batzordeen osaketa. Nolanahi ere, batzorde bakoitzean beti izanen dira Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak izendatutako ordezkari bat, gizarte ekimeneko ikastetxeetan ordezkari handiena duten enpresaburuen elkartearen bi ordezkari, gizarte ekimeneko ikastetxeetan delegatu gehien dituzten sindikatuen bi ordezkari, Nafarroako gizarte ekimeneko ikastetxeetan ordezkari handiena duen guraso elkartearen ordezkari bat eta Hezkuntza Administrazioak izendatutako sei kide; azken horietako bat batzordeko burua izanen da, eta kalitatezko botoa izanen du.

Honako hauek osatuko dute Hezkuntza Itunen Batzordea, Hezkuntza Itunei buruzko Arauen Erregelamendua onesten duen abenduaren 14ko 416/1992 Foru Dekretuaren 23.3 artikulua arabera:

- Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusia; batzordeburua izanen da. Berdinketarik gertatuz gero, kalitatezko botoa izanen du.
- Hezkuntzako zuzendari nagusia.
- Lanbide Heziketaren zuzendari nagusia.
- Hezkuntza Departamentuko idazkari tekniko nagusia.
- Azterlan Ekonomikoen eta Nominen Zerbitzuko zuzendaria.
- Ikastetxeen Finantzaketaren, Ikasketetarako Laguntzen eta Zerbitzu Osagarrien Zerbitzuko zuzendaria.
- Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuko zuzendaria.
- Antolamendu, Prestakuntza eta Kalitate Zerbitzuko zuzendaria.
- Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak izendaturiko ordezkari bat.
- Gizarte ekimeneko ikastetxeetan ordezkari handiena duten enpresaburuen elkarteetako hiru ordezkari.

- Gizarte ekimeneko ikastetxeetan ordezkari kopururik handiena duten sindikatuetak bi ordezkari.
- Nafarroako gizarte ekimeneko ikastetxeetan ordezkari handiena duten ikasleen gurasoen erakundeetako bi ordezkari.
- Hezkuntza Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusiari atxikitako Administrazio Publikoko arlo juridikoko teknikari bat, batzordeko idazkaria izanen dena, hitza duela baina botorik ez.

Besteak beste, eginkizun hauek ditu: parte hartzea Nafarroako itunak garatzeko planei eta tresnei buruzko proposamenak egiten, eta haien jarraipena eta berriztapena egitea; urteko txostena egitea, proposamenak aplikatzearen eta izandako betetzearen ondoriozko emaitzak ebaluatzeko; eta Gobernuari aholkuak ematea, aurkezten zaizkion gaietan.

Hezkuntza itunak berritzeko prozesuan bi ebazpen ematen dira: lehenbizikoak hezkuntza itunen araubidea aplikatzeko prozedura ezartzen du etapa berrirako. Bigarrenak ituna berritzeari buruz erabakitzen du, Hezkuntza Itunen Batzordeak aurkeztutako eskaerak eta oroitidazkiak baloratu eta gero. Aurreikuspenen aldean matrikulan aldaketarik izanez gero, bigarren ebazpen hori aldatzen duen beste ebazpen bat ematen da.

Lehen Hezkuntzan itunak sei urterako berritzen dira, eta gainerako hezkuntza etapetan lau urterako. Gaur egun ebazpen hauek dute indarra:

Hezkuntza ituna berritzea Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako, Lanbide Heziketako oinarritzko, erdi eta goi mailako heziketa zikloetarako eta Hezkuntza Bereziko unitateetarako.

- 606/2022 EBAZPENA, abenduaren 29koa, Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez ezartzen baita hezkuntza itunen araubidea aplikatzeko prozedura 2023-2024 eta 2026-2027 ikasturteen arteko aldirako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako oinarritzko, erdi eta goi mailako heziketa zikloetako mailetan eta Hezkuntza Bereziko unitateetan.
- 125/2023 EBAZPENA, apirilaren 5koa, Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez ebazten baita Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako oinarritzko, erdi eta goi mailako heziketa zikloetako mailetan eta Hezkuntza Bereziko unitateetan hezkuntza itunak berritzearen gainean.

4.14. Europar Batasuneko hezkuntza programak

Erasmus+ 2021-2027 Hezkuntza, Prestakuntza, Gazteria eta Kirolerako EBko programa da. Guztientzat aukera gehiago dituen programa bat da, inklusiboagoa, digitalagoa eta ekologikoagoa, mugikortasun eta lankidetzak aukerak eskatzen dituen hezkuntzaren eta prestakuntzaren esparru guztietan.

Erasmus+ funtsezkoa da Europako politiken helburuak lortzeko:

- 2025erako Hezkuntzako Europako Esparrua
- 2021-2027ko Ekintza Digitaleko Plana
- Europako gaitasunen agenda
- Europar identitatea sendotzea Hezkuntza eta Kulturaren bidez (2017)
- Gazteriarentzako EBko estrategia
- Kirolerako EBko plana

Programaren helburu nagusia da laguntza ematea pertsonak, ikaskuntza iraunkorraren bidez, hezkuntza eta lanbide arloan nahiz pertsona moduan gara daitezen hezkuntzaren, prestakuntzaren, gazteriaren eta kirolaren esparruetan, Europa barruan eta bizi diren lurraldetik kanpo, eta, hartara, hazkunde jasangarrian, kalitatezko enpleguan eta kohesio sozialean laguntzea, berrikuntza sustatzeaz eta europar identitatea nahiz herritartasun aktiboa indartzeaz gain.

Programak helburu espezifiko hauek ditu:

- Pertsonen eta kolektiboen hezkuntza mugikortasuna ez ezik, honako hauek ere sustatzea: lankidetzaren, kalitatearen, inklusioaren eta ekitatearen, bikaintasunaren, sormenaren eta berrikuntzaren hezkuntzaren eta prestakuntzaren esparruko antolakunde eta politiketan;
- Ikaskuntza ez-formalean eta informalean mugikortasuna eta gazteen artean parte hartze aktiboa sustatzea, bai eta honako hauek sustatzea ere: lankidetzaren, kalitatearen, inklusioaren, sormenaren eta berrikuntzaren gazteriarako antolakundeetan eta politiketan;
- Kirol esparruan dihardutenen hezkuntza mugikortasuna bultzatzea, eta hauek ere sustatzea: lankidetzaren, kalitatearen, inklusioaren, sormenaren eta berrikuntzaren kirol erakundeetan eta kirol politiketan.

Europako programa guztiek zazpi urteko indarraldia dute 2021eko deialdi hori 2021-2027 aldiko lehena da.

Azpimarratzekoa da, aldi berriak dakartzan aldaketa garrantzitsuen ondorio gisa, ikastetxeek oso interes nabarmena agertu dutela ikasleen eta irakasleen mugigarritasunerako 1. gako-ekintzako (KA1) proiektuetan parte hartzeko.

Ondoren, Eskola Hezkuntzan (Haur Hezkuntzatik Batxilergora arte) dauden sektoreei eta Helduen Hezkuntzari buruzko datuak baino ez dira jasotzen. eTwinning programa izan ezik; izan ere, hezkuntza sektore guztietako irakaskuntzak biltzen ditu (Eskola Hezkuntza, LH, Goi mailakoa).

199. taula: Erasmus+ programa. 2022-2023

	SEPIEK onartutako eskaeren kopurua*	SEPIEK esleitutako zenbatekoa
ESKOLA HEZKUNTZAREN ETA HELDUEN HEZKUNTZAREN SEKTOREA		
Irakasleen eta ikasleen mugigarritasunerako 1. gako-ekintzako (KA1) proiektuak	19	721.981
2. gako-ekintzako (KA2) lankidetzaren proiektuak (koordinatzaileak eta elkartuak)	3	680.000
eTWINNING programa		
EBko ikastetxeen artean online senidetzeko proiektuak (hezkuntzaren sektore guztiak: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza, LH, Helduak, Goi Mailakoa)	68 proiektu eginda	Programa honek ez du inolako gasturik eragiten. Proiektuak birtualak dira eta online plataforma baten bidez garatzen dira

* SEPIE = Hezkuntza Nazioartekotzeko Espainiako Zerbitzua, Erasmus+ Programarako Espainiako Agentzia

Iturria: Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzua

Azpirarratzekoa da 2022ko irailaren 30ean modu ofizialean eta behin betiko itxi zela eTwinning plataforma zaharra, eta ESEP (European School Education Platform / Eskola Hezkuntzako Plataforma) plataforma berria ezarri zela, eTwinning eta School Education Gateway plataforma zaharrak batzen dituen. Urtean zehar gorabehera tekniko ugari eta larriak izan ondoren, erregistroen eta proiektuen kopuruak jaitsiera nabarmena izan du Europar Batasun osoan. Etengabeko eguneratzeetan arazoetako batzuk konpontzen joan dira, baina oraindik luze joko du normaltasunera itzultzeak.

Beste programa, ekimen eta proiektu batzuk:

- Tempus

EBko herrialdeetako hezkuntza sistemen eta programen bikaintasunaren ondorioz, goi mailako hezkuntza modernizatu behar duten hirugarren herrialdeetako hezkuntza gaitasunak garatzen dituzten programak sustatzen dira.

Tempus programa Ekialdeko Europako herrialdeetan, Mendebaldeko Balkanetan, Asia Erdialdean, Afrika Iparraldean eta Ekialde Ertainean garatzen da batez ere, eta programa horretako proiektuen eta neurri estrukturalen bidez, EBk hezkuntza metodo berriak garatzen laguntzen, unibertsitate mailako hezkuntza erreforma bultzatzen eta Europako hezkuntza sistemekiko bateratzea sustatzen du.

- Erasmus Mundus

Erasmus Mundus Europar Batasunaren eta beste herrialde batzuen arteko goi mailako hezkuntzako lankidetzarako eta mugikortasunerako programa nagusienetako bat da egun.

Ikasten jarraitu nahi duten –bereziki, master bat edo doktorego bat eginez– gazteei zuzenduta dago. EBtik kanpoko unibertsitateetan prestatzen jarraitu nahi duten gazte europarrek eta Europako unibertsitateetara etorri nahi duten Europatik kanpoko gazteek hartzen ahal dute parte.

Programak beste ildo batzuk ere baditu, adibidez, irakasleen prestakuntza eta hezkuntza kalitatearen hobekuntza.

- Erasmus+ Emaizten Plataforma

Erasmus+ proiektuen Emaizten Plataforma Europako Batzordeak Erasmus+ programarentzat diseinatu duen tresna bat da. Horretan, eraginari eta komunikazioari dagokienez emaitza bikainak lortu dituzten proiektuen inguruko informazioa eta esperientziak jasotzen dira. Aipatutako plataformak proiektuen ikusgarritasuna areagotzen, emaitzak partekatzeo aukera ematen eta inspirazio iturri gisa funtzionatzen du, eta hori gutxi balitz bezala, beste proiektu batzuk sortzeko bazkideak aurkitzea ere errazten du.

- Europass

Dokumentuz osatutako txosten bat da eta, horren bidez, herritarrek modu argi eta sinplean ematen ahal dute beren bizitzan lortu dituzten gaitasunen, tituluen eta egiaztatagiren berri. Hainbat herrialde eta sektoretan baliatzen ahal da.

- Kanpoko ebaluatzaileak eta adituak

Aditu independentez osaturiko talde bat da, SEPIErekin aritzen dena elkarlanean, Erasmus+ Programako eta haren kudeaketa esparruko beste ekimen batzuetako ekintza deszentralizatuak buruzko txostenak eta eskabideak ebaluatzen.

- Europako unibertsitateak

Ekimenaren helburua da 20 “europar unibertsitate” baino gehiago sortzea 2024. urterako; zehazki, EB osoan behetik sortutako unibertsitate sareak eratzea, ikasleek titulu bat lortzeko

zenbait ikasketa egitean EBko herrialde batzuetan, eta Europako unibertsitateak nazioartean lehiakorrek izaten laguntzeko.

- Erasmus+, inspiratzen duten pertsonak

Ekimenaren xedea da europar balioak sustatzea gazte espainiarren artean, bizi esperientzia iradokitzailea izandako pertsonen esku hartzearen bidez.

Hitz batean, jarduerak egin nahi dira gizarteratzea sustatzeko, herritartasun aktiboa bultzatzeko eta giza duintasuna, askatasuna, demokrazia, berdintasuna eta giza eskubideak errespetatzean oinarritutako europar balioekiko konpromisoa indartzeko.

- Irakaskuntza Berritzailearen Europako Saria (European Innovative Teaching Award)

EITA (European Innovative Teaching Awards) direlakoak urtero ematen diren sari batzuk dira, Erasmus+ programako irakaskuntza praktika bikainak nabarmendu nahi dituztenak, Europako lankidetzaren proiektuetan esku hartzen duten ikastetxeen eta haietako irakasleen lana aitortzeaz gain. Ekimenak azpimarratu nahi du zer-nolako balioa duen Europako lankidetzaren hezkuntzaren esparruan, bai eta Europako Hezkuntza Esparrua ezartzeak ere.

- EuroApprentices

EuroApprentices sare bat da, zeinaren bidez Erasmus+ programan parte hartu duten Lanbide Heziketako ikasleek beren historiak zabaltzen baitituzte, esperientzia horrek beren bizitzetan izandako eragina ikusarazten laguntzeko eta gainerako ikasleak programa horretan parte hartzera bultzatzeko.

- Hizkuntzen Europako zigilua

“Hizkuntzen irakaskuntza eta ikaskuntzarako ekimen berritzaileentzako Europako zigilua” Europako Batzordearen ekimen bat da, hizkuntzen ikaskuntza sustatzeko duen interesa erakusten duena, Europa benetan integratzeko ezinbestekoa baita.

- Hizkuntzen Europako Portfolioa

Dokumentu pertsonal bat da, Europako Kontseiluak sustatua, balio duena hizkuntzak eskolan edo eskolatik kanpo ikasten ari direnek edo ikasi dituztenek hizkuntzak eta kulturak ikasten izaniko esperientziak jasotzeko eta horiei buruz hausnarketa egiteko.

- Ikastetxeko Hizkuntza Proiektua (IHP)

“Ikastetxeko Hizkuntza Proiektua egiteko Europako Baliabideak” ekimena Hezkuntza Nazioartekotzeko Espainiako Zerbitzuaren proposamen bat da, autonomia erkidegoekin adostua, eleaniztasuna sustatu eta hizkuntza komunikaziorako gaitasuna garatzea xede duena.

- Bolognan Aditu diren pertsonen Espainiako Taldea (BET)

Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparrua (GHEE) –batez ere Bolognako prozesua izena hartu duena– sortzeko ahaleginaren barruan, unibertsitate kontuetan aditu diren pertsonen osatutako talde bat jarri zen martxan, plan hori ezartzen laguntzeko.

- Erasmus+ irakasle akademiak

Irakasleen hasierako hezkuntzako sareak sortzeko proiektuak, eta etengabeko lanbide garapenaren hornitzaileak, eta beste alde interesgarri eta garrantzitsu batzuk, honako hauek ematen dituztenak:

- Lankidetzaren EBko funtsezko lehentasunen inguruan; besteak beste: ikaskuntza digitala, jasangarritasuna, bidezketasuna eta inklusioa.
- Ikaskuntza eskaintza bateratu bat garatzea, ikasleentzat eta zerbitzuko irakasleentzat, europar alderdi indartsu batekin, eta lankidetzaren berritzaile eta praktikoaren bidez.

- Jean Monnet ekintzak

Jean Monnet ekintzek aukerak ematen dituzte goi mailako hezkuntzaren esparruan eta hezkuntzaren eta prestakuntzaren beste esparru batzuetan. Era berean, Europar Batasunaren integrazio kontuei buruzko ezagutzak zabaltzen laguntzen dute. Ekintza hauetan laguntzen da:

- Jean Monnet ekintzak goi mailako hezkuntzaren esparruan
- Jean Monnet ekintzak hezkuntzaren eta prestakuntzaren gainerako arloetan

Hezkuntza eta Kultura arloko Europako Agentzia Betearazleak gauzatuko ditu ekintza horiek (EACEA).

200. taula: Lanbide Heziketako Europako programak: “Leonardo Da Vinci” eta “Erasmus”

	13/14	14/15	15/16	16/17	17/18	18/19	19/20	20/21	21/22	22/23
Programa Leonardo Da Vinci*										
Ikasleak	100									
Irakasleak	6									
Erasmus programa eta Erasmus+										
Ikasleak	16	221	133	135	188	180	35	70	235	299
Irakasleak		18	8	10	20	60	1	5	29	45
POCTEFA (PyireneFP-Piremobv) Programa										
Ikasleak	48	81	0	0	53	74	12	Bukatu		
Irakasleak	4	5	0	0	9	27	22	Bukatu		
Beste proiektu batzuk-Berrikuntza edo jardunbide egokiak										
Proiektu kop.	4	4	3	3	3	2	2	2	2	2

*Programa hau Erasmus+ programa heltzearekin batera bukatu zen

**Erasmus+ Esparru programa honek irakaskuntza maila guztiak hartzen ditu: Eskolak, Lanbide Heziketa, Unibertsitateak eta Helduak. 2014-2015 ikasturtean hasi zen, eta Nafarroan Leonardo Da Vinci eta Erasmus programetako onuradunak batu ziren

***Poctefa deritze Frantziarekin eginiko proiektu mugakideei, eta Pirinioen inguruko eskualde guztiak biltzen dituzte Iturria: Lanbide Heziketaren Berrikuntza, Nazioartekotze eta Kalitaterako Atala

2022-2023 ikasturtean ikasleek egindako mugikortasunetatik 123 bi edo hiru hilabetekoak izan dira, eta beste 176, berriz, B modalitatekoak (15 egun irakasle laguntzailearekin, erdi mailako ikasleentzat bakarrik).

2022-2023 ikasturtean irakasleek egindako mugikortasunetatik 12 astebeteko banakako egonaldiak izan dira, eta 33, berriz, B modalitateko irakasle laguntzaileenak edo irakasle taldeenak izan dira.

Hauek dira berrikuntzarako edo jardunbide egokietarako proiektuak:

- Nave2
- Aries4

5. ESKOLA SISTEMAREN EMAITZAK

5.1. Hezkuntza sistemarako sarbidea

Eskolatzea edozein hezkuntza sistemaren kalitatearen adierazleetan lehena da. Hezkuntza inklusioa ezinbesteko baldintza da gizarte inklusiorako, eta eskolatze prozesuaren emaitzak lehen erreferentea dira baliabideak eta aplikatu diren hezkuntza erabakiak sistemara egokitzen direla egiaztatzen. Laburbilduz, eskolatze prozesua egokia bada, hezkuntza sistemak hobetzeko aukera ematen du.

5.1.1. Eskolatze prozesuaren emaitzak

- **Bilakaera orokorra**

Autonomia erkidego guztiak kontuan hartuta, sare publikoan araubide orokorreko irakaskuntzetan eskolatzen diren ikasleen proportzioa % 66,9 da. Hala ere, handiagoa da Batxilergoan eta Lanbide Heziketan gainerako hezkuntza etapetan baino, eta txikiagoa, Haur Hezkuntzako 1. zikloan.

Edonola ere, autonomia erkidegoen artean handiak dira desberdintasunak. Erkidego batzuetan eskolatze publikoaren tasa % 80 baino handiagoa da (Gaztela-Mantxa, Ceuta, Extremadura eta Melilla), baina beste batzuetan % 65 ingurukoa edo txikiagoa da (Katalunia, Madril eta EAE).

201. taula: Ikastetxe publikoetan araubide orokorreko irakaskuntzetan matrikulatutako ikasleen ehunekoa, irakaskuntza motaren arabera. Espainia eta Nafarroa. 2022-2023

	Guztira	Haur Hezkuntza, 1. zikloa	Haur Hezkuntza, 2. zikloa	Lehen Hezkuntza	DBH	Batzilergoa	LH HZ Oinarrizkoa	LH HZ Erdi-maila	LH Goi-maila	Beste hezkuntza-programa batzuk
Espainia	66,9	53,1	67,7	67,7	67,0	71,4	76,3	71,6	70,0	74,7
Nafarroa	66,6	84,6	64,0	65,9	62,3	60,5	61,1	80,2	76,3	60,1

* Batxilergoan eta Lanbide Heziketako erdi eta goi mailako prestakuntza zikloetan araubide arruntean eta helduen araubide presentzian ari diren ikasleak sartzen dira.

Iturria: Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioa. Estatistikaren eta Azterlanen Zuzendariordetza Nagusia

1.
erans
kina

- **Prozesuaren arauketa**

Ikasleek hezkuntza sistemara, onarpen prozesura edo eskolatzera iristeko aukera izatea oso garrantzitsua da familientzat, bai eta hezkuntza administrazioarentzat ere. Prozesua arau multzo batek erregulatzen du; arau horietan, prozedura, baldintzak eta epeak ezartzen dira, ikasleak hezkuntza maila guztietan onartzeko: Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan. Prozesua arautzen duen araudia honako hau da:

- 33/2021 Foru Dekretua, apirilaren 28koa, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan eta pribatu itunduetan ikasleak onartzeko arauak ezartzen dituena.
- 46/2021 Foru Agindua, maiatzaren 4koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, zeinaren bidez garatzen baita Haur Hezkuntzako bigarren zikloko, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko irakaskuntzak egiteko Nafarroako Foru Komunitatean dauden ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan ikasleak onartzeko prozesua.
- 9/2023 Ebazpena, urtarrilaren 25ekoa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, funts publikoak jasotzen dituzten Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeetan 2023-2024 ikasturtean haurrak onartzeko prozedura onartzen duena.
- 21/2023 EBAZPENA, otsailaren 13koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez deialdia egiten baita eta jarraibideak ezartzen Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan eta pribatu itunduetan ikasleak onartzeko prozesurako, aipatu ikasleek Haur Hezkuntzako bigarren zikloko eta Lehen Hezkuntzako ikasketak egin ditzaten 2023-2024 ikasturtean.
- 38/2023 EBAZPENA, martxoaren 8koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan ikasleak onartzeko prozesuaren deialdia egin eta garatzen duena, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko irakaskuntzak egiteko 2023-2024 ikasturtean.

Hezkuntza laguntzaren berriazko premia duten ikasleen banaketa orekatua bermatzea da onartzeko araudiaren funtsezko helburuetako bat. Horregatik, Hezkuntza Departamentuak, urtero, ikastetxe bakoitzeko, hezkuntza laguntzaren berriazko premia duten ikasleen eskolatze indizea prestatuko du. Apirilaren 28ko 33/2021 Foru Dekretuan xedatuta betez, ikastetxeko ACNEAE indizea argitaratu da aurreko ebazpenetan.

Ondoko taulan ikasleak onartzeko ohiko prozesua arautzen duten lehentasunezko irizpideak eta irizpide osagarria zehazten dira.

202. taula: Eskolatze prozesuaren arauketa

Irizpideak	
Ikastetxe berean anai-arrebak matrikulatuta egotea.	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ikaslea onartzeko eskatu den ikastetxean haren anai-arrebarik badago matrikulatuta, 3 puntu emanen dira, anai-arreben kopurua edozein izanik ere. 2. Eskatzaileak ikastetxean anai-arrebak dituela ulertuko da onarpena eskatzen den ikasturte horretan horiek ikastetxean segitu behar baldin badute. 3. Behar bezala egiaztatutako familia harreran dauden ikasleei aurreko apartatuetan aurreikusitakoa aplikatuko zaie.
Gurasoren baten edo legezko tutoreen bizilekua edo lantokia hurbil egotea.	<ol style="list-style-type: none"> 1. Bizilekuaren hurbiltasuna balioesteko, ondoko hauen arteko egoera bakar bat hartuko da kontuan: <ol style="list-style-type: none"> a) Ikaslearen bizilekua uztailaren 3ko 80/2019 Foru Dekretuan zehaztutako eremuetan badago: 4 puntu. b) Ikaslearen bizilekua ikastetxearen eragin eremuaren barnean badago: 3 puntu. c) Ikaslearen bizilekua ikastetxearen eragin eremuaren mugakidea bada: 1 puntu. d) Ikaslearen bizilekua ez badago aurreko egoeretako batean: 0 puntu. 2. Eskabidean, bizilekuaren hurbiltasunaren ordez ikaslearen guraso edo legezko tutoreen baten lantokiaren hurbiltasuna

	hautatzen ahalko da irizpide gisa.
Familia unitatearen per capita errenta	<p>1. Familia-unitatearen per capita errenta ondoko baremo honen arabera balioetsiko da:</p> <p>a) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortpeneko likidazio oinarria(k) zati aitortpenean agertzen diren familia-unitateko kideen kopurua (aitortzailea, ezkontidea eta, PFEZaren foru araudian ezarri bezala, kenkaria egiteko eskubidea sortzen duten pertsonak). Eraitza lanbide arteko gutxieneko soldataren erdia edo txikiagoa bada, puntuazio hau emanen da: 3 puntu.</p> <p>b) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortpeneko likidazio oinarria(k) zati aitortpenean agertzen diren familia unitateko kideen kopurua (aitortzailea, ezkontidea eta, PFEZaren foru araudian ezarrita dagoen bezala, kenkaria egiteko eskubidea sortzen duten pertsonak). Eraitza lanbide arteko gutxieneko soldataren erdia baino handiagoa eta lanbide arteko gutxieneko soldataren hiru laurden edo txikiagoa bada, puntuazio hau emanen da: 2 puntu.</p> <p>c) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortpeneko likidazio oinarria(k) zati aitortpenean agertzen diren familia unitateko kideen kopurua (aitortzailea, ezkontidea eta, PFEZaren foru araudian ezarrita dagoen bezala, kenkaria egiteko eskubidea sortzen duten pertsonak). Eraitza lanbide arteko gutxieneko soldataren hiru laurdenak baino handiagoa eta soldata hori bera edo txikiagoa bada, puntuazio hau emanen da: 1 puntu.</p> <p>d) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortpeneko likidazio oinarria(k) zati aitortpenean agertzen diren familia unitateko kideen kopurua (aitortzailea, ezkontidea eta, PFEZaren foru araudian ezarrita dagoen bezala, kenkaria egiteko eskubidea sortzen duten pertsonak). Eraitza lanbide arteko gutxieneko soldata baino handiagoa bada, puntuazio hau emanen da: 0 puntu.</p> <p>2. Familia-unitatearen per capita errentari buruzko irizpide honen balorazioa borondatezkoa da, eta bakarrik aplikatuko da horrela eskatzen bada.</p>
Ikasleak edo haren guraso, legezko tutore edota anai-arrebaren batek desgaitasuna izatea.	<p>1. Ikaspostua eskatzen duen ikasleak desgaitasuna badu, ofizialki egiaztatua, 2 puntu emanen dira.</p> <p>2. Desgaitasuna ikaspostua eskatzen duen ikaslearen gurasoek, legezko tutoreek edo anai-arrebek dutenean, 0,5 puntu emanen dira, alde batera utzita zenbat pertsonak duten desgaitasuna, eta betiere ofizialki egiaztatuta badago.</p>
Genero indarkeriaren edo terrorismoaren biktima izatea	Genero indarkeriaren edo terrorismoaren biktima izatearen egoera balioetsiko da bi inguruabarrak edo bietako bat gertatzen bada: 1 puntu.
Gurasoek edo legezko tutoreek ikastetxean lan egitea	Irizpide horrengatik 0,8 puntu emanen dira.
Legez familia ugariko kide izatea	Irizpide horrengatik 0,8 puntu emanen dira.
Familia guraso bakarrekoa izatea	Irizpide horrengatik 0,8 puntu emanen dira.

Erditze anizkoitzean jaiotako ikasleak	Irizpide horrengatik 0,8 puntu emanen dira.
Ikasleak batxilergoko irakaskuntzetarako onartzean, espediente akademikoa baloratzea.	Ikasleak onartu behar direnean batxilergoko irakaskuntzetan sartzeko, indarreko araudiaren arabera batxilergoan sartzeko ezarritako irakaskuntzetako espediente akademikoa kontuan hartuko da. Ikasketa horietan lortutako batez besteko nota hartuko da kontuan, eta indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera kalkulatu da. Batez besteko nota foru dekretu honetan araututako gainerako irizpideen balioespenetan lortutako puntuazioari batuko zaio.
Hurbiltasun linealeko irizpide osagarria	Hezkuntza Departamentuak ofizioz 0,5 puntu emanen dizkio eskatzaileari, baldin eta haren gurasoetako edo legezko tutoretako baten bizilekutik edo lantokitik hautatutako edozein ikastetxetara dagoen distantzia –Hezkuntza Departamentuak daukan ikastetxeen erregistroan ageri diren moduan– 1.500 metro linealekoa edo hortik beherakoa bada.

Iturria: Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzua

5.1.2. Araubide orokorreko irakaskuntzetan eskolatutako ikasleak

- **Balio orokorrak**

203. taula: Araubide orokorreko irakaskuntzako ikasleak Nafarroan, hezkuntza mailen arabera

	14/15	15/16	16/17	17/18	18/19	19/20	20/21	21/22	22/23
H. Hezkuntza	24.634	24.628	24.439	24.493	24.241	24.525	22.838	22.864	22.635
L. Hezkuntza	40.468	40.908	41.369	42.235	42.916	43.175	42.859	42.464	42.408
H. Berezia	599	618	631	643	674	725	722	742	781
DBH	25.538	26.108	26.561	26.898	27.606	27.989	28.356	28.855	29.686
Batxilergoa	9.098	9.359	9.285	9.254	9.308	9.441	9.457	9.111	9.128
Oinarrizko LH	497	819	941	1.058	1.127	1.201	1.184	971	1.146
LH HZ Erdi-maila	3.644	3.695	3.682	3.939	4.049	4.372	4.748	4.943	4.993
LH HZ Goi-maila	3.555	3.445	3.560	3.791	4.053	4.384	4.787	4.809	5.028
Beste hezkuntza-programa batzuk	152	119	319	309	290	286	303	319	283
LHKP	518	201	20						
sozioekonomikoa horren aldekoa ez duten ikasleek baino, eta tarteak esanguratsuak dira lurralde guztietan, Balear Uharteetan izan ezik. Bataz beste, EBko herrialdeetan hirugarren mailako hezkuntzako ikasketak egiteko itxaropena aldeko egoera sozioekonomikoa duten ikasleen kasuan 37,5 puntu handiagoa da beste muturreko ikasleena baino. Espainian, tarte hori txikiagoa da (26,3 portzentaje puntu). Autonomia erkidegoetan, tarterik handienak ikusten dira Asturiasen (33,3 portzentaje puntu) eta Melillan (32,8 portzentaje puntu), eta txikiak, berriz, 20 portzentaje puntutik beherakoak nabarmenki, Nafarroan eta Katalunian.

344. taula: ISEK indizearen arabera (aldeko eta kontrako egoera sozioekonomikoaren arabera) hirugarren mailako hezkuntzako ikasketak egiteko itxaropena duten ikasleen portzentajea, autonomia erkidegoka

	Egoera sozioekonomikoa aldekoa ez dutenak	Aldeko egoera sozioekonomikoa dutenak	Aldea
EB	46,1	83,6	-37,5
Espainia	62,5	88,8	-26,3
Andaluzia	57,1	84,2	-27,1
Aragoi	60,8	87,8	-27,0
Asturias	59,9	93,1	-33,3
Balear Uharteak	70,5	87,4	-16,8
Valentziako Erkidegoa	56,0	84,6	-28,6
Gaztela-Mantxa	59,3	85,7	-26,4
Gaztela eta Leon	63,2	87,7	-24,5
Kanariak	59,4	81,8	-22,5
Kantabria	70,2	90,6	-20,5
Katalunia	75,6	93,2	-17,6
Ceuta	40,1	64,1	-24,0
Extremadura	58,0	82,5	-24,6
Galizia	63,8	86,6	-22,8
Errioxa	62,8	89,4	-26,7
Madril	66,5	89,4	-22,9
Melilla	61,3	94,1	-32,8
Murtzia	60,7	88,6	-27,9
Nafarroa	72,8	89,3	-16,5
Euskadi	70,1	91,4	-21,3

Iturria: ELGA 2018ko PISA txostena

- Bilakaera irakurmenean

Irakurmenean batezbesteko puntuazioan beherakada handiena izan duten erkidegoen artean bigarrena dago Nafarroa (42 puntuko beherakada).

Madrilek du beherakada handiena, 46 puntuko. Eta gainerako autonomia erkidegoetan ere jaitsi egin da batezbesteko puntuazioa.

345. taula: Irakurmeneko puntuazioaren bilakaera autonomia erkidegoen arabera

	PISA txostena (2015)	PISA txostena (2018)	Aldea
Madril	520	474	-46
Nafarroa	514	472	-42
Valentziako Erkidegoa	499	473	-26
Gaztela eta Leon	522	497	-25
Errioxa	491	467	-24
Gaztela- Mantxa	499	478	-21
Espainia	496	477	-19
Kantabria	501	483	-18
Aragoi	506	490	-16
Katalunia	500	484	-16
Euskadi	491	475	-16
Galizia	509	494	-15
Andaluzia	479	466	-13
Kanariak	483	472	-11
Extremadura	475	464	-11
Balear Uhartek	485	479	-6
Murtzia	486	481	-5
Asturias	498	795	-3
Ceuta	Ez zuen parte hartu	404	
Melilla	Ez zuen parte hartu	438	

Iturria: ELGA 2018ko PISA txostena

- Bilakaera matematika kompetentzian

Matematika kompetentzian batezbesteko puntuazioan beherakada handiena izan duten erkidegoen artean bigarrena dago Nafarroa (15 puntuko beherakada).

Madrilek du beherakada handiena, 17 puntukoa. 10 puntu edo gehiagoko beherakada dute, halaber, Valentziako Erkidegoak eta Kataluniak.

346. taula: Matematika kompetentziako puntuazioaren bilakaera autonomia erkidegoen arabera

	PISA txostena (2015)	PISA txostena (2018)	Aldea
Andaluzia	466	467	1
Aragoi	500	497	-3
Asturias	492	491	-1
Balear Uhartek	476	483	7
Valentziako Erkidegoa	485	473	-12
Kanariak	452	460	8

Kantabria	495	499	4
Gaztela-Mantxa	486	479	-7
Gaztela eta Leon	506	502	-4
Katalunia	500	490	-10
Ceuta	Ez zuen parte hartu	411	
Espainia	486	481	-5
Extremadura	473	470	-3
Galizia	494	498	4
Errioxa	505	497	-8
Madril	503	486	-17
Melilla	Ez zuen parte hartu	432	
Murtzia	470	474	4
Nafarroa	518	503	-15
Euskadi	492	499	7

Iturria: ELGA 2018ko PISA txostena

- Bilakaera zientziarako konpetentzian

Zientziarako konpetentzian batezbesteko puntuazioan beherakada handiena izan duten erkidegoen artean bigarrena dago Nafarroa (20 puntuko beherakada).

Madrilek izan du beherakada handiena (29 puntu) eta Gaztela eta Leonek, Valentziako Erkidegoak, Aragoik, Kataluniak, Gaztela-Mantxak eta Errioxak ere 10 puntu baino gehiago egin dute behera.

347. taula: Zientziarako konpetentziako puntuazioaren bilakaera autonomia erkidegoen arabera

	PISA txostena (2015)	PISA txostena (2018)	Aldea
Andaluzia	473	471	-2
Aragoi	508	493	-15
Asturias	501	496	-5
Balear Uharteak	485	482	-3
Valentziako Erkidegoa	494	478	-16
Kanariak	475	470	-5
Kantabria	496	495	-1
Gaztela-Mantxa	497	484	-13
Gaztela eta Leon	519	501	-18
Katalunia	504	489	-15
Ceuta	Ez zuen parte hartu	415	
Espainia	493	483	-10
Extremadura	474	473	-1
Galizia	512	510	-2

Errioxa	498	487	-11
Madril	516	487	-29
Melilla	Ez zuen parte hartu	439	
Murtzia	484	479	-5
Nafarroa	512	492	-20
Euskadi	483	487	4

Iturria: ELGA 2018ko PISA txostena

6.2. Adierazleak

6.2.1. Eskolatzearen adierazleak eta hezkuntza-ingurunea

Definizioa:

Edozein hezkuntza-mailatako 0-29 urteko biztanleria eta eskolatzeara, eta ikasleen eta adin horretako biztanle guztien arteko ehunekoen erlazioa.

Analisia:

Nafarroan, derrigorrezko eskolatzearaldien aitzineko Haur Hezkuntzako adinetan, eskolatutako biztanleriaren ehunekoak gora egiten du adinak gora egin ahala, eta 3 urterekin eskolatzeara ia erabatekoa da. Derrigorrezko eskolatzearaldia 6 urterekin hasten da, 15 urtera arte, biak barne, eta adin horiek bat datoz oinarritzko hezkuntza egiteko urte teorikoekin. 16 urtetik aurrera hezkuntza-sistema utz daiteke, baina derrigorrezko hezkuntzaren ondoko lehen adinetan eskolatzeara maila oso handiari eusten dio eta eskola uzteak oso motel gertatzen dira. Hala ere, kontuan izan behar da datu horiek eta jarraian deskribatuko diren tasek aldatu egin daitezkeela biztanleriaren kopuruen eta eskolatzear-datuen arteko desoreka txikien ondorioz.

Eskolatzear-tasak aztertzean, derrigorrezkoak ez diren etapak soilik hartu dira kontuan. Haur Hezkuntzan, bigarren zikloko adinei lotutako tasak handiagoak dira Espainiako batezbestekoa baino (3 urterekin % 95,6 eta 5 urterekin % 99,6), eta lehenengo ziklokoak baino, batezbestekoaren azpitik (urtebete baino gutxiagoko kasuan % 6,5 eta 2 urteko kasuan % 41,1). Bestalde, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren ondoko adin teorikoetan, hau da, **16 eta 17 urtekoen eskolatzear tasak % 100,0 dira kasu bietan. Goi-mailako hezkuntzari dagozkion adinetan, tasa garbiak jaitsi egiten dira adinak gora egin ahala: 18 urterekin % 89,3, 21 urterekin % 56,9 eta 24 urterekin % 19,1.**

Autonomia erkidegoaren arabera, **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondoko (15-24 urte) batezbesteko tasarik handienak Nafarroako Foru Komunitatean**, Euskal Autonomia Erkidegoan, Galizian, Gaztela eta Leonen eta Kantabrian atera dira; Unibertsitatez kanpoko Goi-mailako Hezkuntzan (17-24 urte), batezbesteko tasarik handienak Euskal Autonomia Erkidegoan, Katalunian, Errioxan eta Galizian; unibertsitate-hezkuntzan (18-24 urte), Madrilgo Erkidegoan, Gaztela eta Leonen, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Errioxan. Azkenik, Helduen Hezkuntzan (16-24 urte), Hasierako Irakaskuntza eta Helduen Bigarren Hezkuntza kontuan hartuta, Ceuta, Extremadura, Gaztela-Mantxa eta Balear Uharteak dira adin-talde horretan batezbesteko eskolatzear-tasa handienak dituztenak.

348. taula: Eskolatzeko-adierazleen eta hezkuntza-ingurunearen balantzea

ADIERAZLEAK	NAFARROA	ESPAINIA	EB-28	AZKEN 3 URTEOTAKO JOERA
1 Eskolatzeko eta biztanleria				
Eskolatzeko eta eskolatu daitekeen biztanleria (0-29 urte)				
Haur Hezkuntzako eskolatzeko-tasa garbia (0-2 urte)	27,8	37,5	86,5	↑
Haur Hezkuntzako eskolatzeko-tasa garbia (3-5 urte)	99,6	97,3	95,0	↑
Hezkuntza Bereziko eskolatzeko-tasa garbia (0-21 urte)	0,47	0,37		↑
Bigarren Hezkuntzako bigarren etapako eskolatzeko-tasa garbia (16-17 urte)	100,0	93,4	93,1	↑
Bigarren Hezkuntzako bigarren etapako eskolatzeko-tasa garbia (23-24 urte)	25,7	33,9		↑
Unibertsitatez kanpoko Goi-mailako H. eskolatzeko-tasa garbia (17-24 urte)	10,3	10,8		↑
Unibertsitateko Hezkuntzako eskolatzeko-tasa garbia (18-22 urte)	38,7	35,7		↑
Helduen Hezkuntzako eskolatzeko-tasa garbia (17-24 urte)	0,6	1,4		→
Eskolatzeko ikastetxearen titulartasunaren arabera				
Ikastetxe publikoetan eskolatutako ikasleen %-a Haur Hezk.	68,1	63,4		↑
Ikastetxe publikoetan eskolatutako ikasleen %-a Lehen Hezk.	65,6	67,7	88,6	→
Ikastetxe publikoetan eskolatutako ikasleen %-a Derrigorrezko Bigarren Hezk.	60,3	66,2	84,3	→
Ikastetxe publikoetan eskolatutako ikasleen %-a Bigarren Hezk. 2. etapa	69,2	71,9	81,5	→
Ikastetxe publikoetan eskolatutako ikasleen %-a Unibertsitatez kanpoko Goi-mailako Hezk.	92,0	90,8	65,7	↑
Eskola-bizirako itzaropena bost urtetik aurrera	18,4	18,0	18,0	↑
2 Eskolatzeko-tasak derrigorrezkoak ez diren mailetako adin teorikoetan (INSN 0, 3, 4 eta 5)				
Haur Hezkuntza INSN 0				
0-1 urteko haurren eskolatzeko-tasa garbia	30,7	41,0		↑
2 urteko haurren eskolatzeko-tasa garbia	46,5	63,1		↑
3 urteko haurren eskolatzeko-tasa garbia	97,8	96,1	86,5	→
4 urteko haurren eskolatzeko-tasa garbia	99,5	97,2	93,0	↑
5 urteko haurren eskolatzeko-tasa garbia	98,7	97,8	96,6	↓
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondokoa INSN 3-4				
16 urteko gazteen eskolatzeko-tasa garbia	100,0	94,9	94,8	↑
17 urteko gazteen eskolatzeko-tasa garbia	93,6	89,3	91,5	↓
18 urteko gazteen eskolatzeko-tasa garbia	43,2	45,8	80,5	→
Goi-mailako Hezkuntza INSN 5				

Unibertsitateko Hezkuntzako eskolatzeta-tasa garbia	33,2	32,4		
3 Ikasle atzerritarrek				
Unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan eskolatutako ikasle atzerritarren %-a	8,8	9,9		
Unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan eskolatutako ikasle atzerritarren %-a. Hezkuntza Publikoa	85,8	78,1		
4 Ikasleak talde eta irakasle bakoitzeko				
Ikasleak hezkuntza-talde bakoitzeko				
Ikasleen batezbesteko kop. hezkuntza-talde bakoitzeko Haur Hezkuntzan	16,8	17,5		
Ikasleen batezbesteko kop. hezkuntza-talde bakoitzeko Lehen Hezkuntzan	19,9	21,8	19,9	
Ikasleen batezbesteko kop. hezkuntza-talde bakoitzeko DBHn	24,8	25,0	21	
Ikasleen batezbesteko kop. hezkuntza-talde bakoitzeko Batxilergoan	27,4	25,8		
Ikasleen batezbesteko kop. hezkuntza-talde bakoitzeko Oinarrizko LHn	12,2	12,4		
Ikasleen batezbesteko kop. hezkuntza-talde bakoitzeko Erdi-mailako LHn	18,6	19,3		
Ikasleen batezbesteko kop. hezkuntza-talde bakoitzeko Goi-mailako LHn	18,5	20,6		
Ikasleen batezbesteko kop. hezkuntza-talde bakoitzeko Hezkuntza Berezian	4,7	5,3		
Ikasleak irakasle bakoitzeko				
Lanaldi osoaren baliokidean dagoen irakasle bakoitzeko batezbesteko ikasle kop. unibertsitatez kanpoko araubide orokorreko ikastetxeetan	11,0	12,2	12,7	
Lanaldi osoaren baliokidean dauden irakasleen batezbesteko kop. eskola-unitate bakoitzeko unibertsitatez kanpoko araubide orokorreko ikastetxeetan Ikastetxe publikoak	2,1	1,9		
5 Lanbide Heziketa				
Lanbide Heziketako sarbidearen eta titulazioaren tasa gordinak				
Oinarrizko LHko Heziketa Zikloetako sarbidearen tasa gordina	8,2	7,8		
Erdi-mailako Heziketa Zikloetako sarbidearen tasa gordina	30,2	34,8		
Goi-mailako Heziketa Zikloetako sarbidearen tasa gordina	29,7	38,2		
Oinarrizko LHko Heziketa Zikloetako titulazioaren tasa gordina	4,8	7,8		
Erdi-mailako Heziketa Zikloetako titulazioaren tasa gordina	22,0	34,8		
Goi-mailako Heziketa Zikloetako titulazioaren tasa gordina	22,5	38,2		
Lanbide Heziketako ikasleak lanbide-familiaren eta sexuaren arabera				
Emakumeen %-a Oinarrizko LHn	30,0	39,7		
Emakumeen %-a Erdi-mailako Heziketa Zikloetan	36,7	20,8		
Emakumeen %-a Goi-mailako LH Familian	39,2	30,4		

6 Atzerriko hizkuntzak ikastea				
Atzerriko hizkuntza irakasgai gisa				
1. atzerriko hizkuntza ikasten ari diren ikasleen %-a Haur Hezkuntzako 2. zikloan	96,5	84,8		↑
1. atzerriko hizkuntza ikasten ari diren ikasleen %-a Lehen Hezkuntzan	100,0	100,0	77,9	↑
1. atzerriko hizkuntza ikasten ari diren ikasleen %-a DBHn	100,0	100,0	35,7	↑
1. atzerriko hizkuntza ikasten ari diren ikasleen %-a Batxilergoan	98,7	96,7	41,8	→
2. atzerriko hizkuntza ikasten ari diren ikasleen %-a Lehen Hezkuntzan	14,3	20,0	7,6	↑
2. atzerriko hizkuntza ikasten ari diren ikasleen %-a DBHn	44,6	41,6	62,4	↑
2. atzerriko hizkuntza ikasten ari diren ikasleen %-a Batxilergoan	22,1	24,1	48,1	↑
Ematen diren atzerriko hizkuntzen batezbesteko kopurua Lehen Hezkuntzan	1,2	1,2	0,9	↑
Ematen diren atzerriko hizkuntzen batezbesteko kopurua Lehen Hezkuntzako 1. etapan (INSN 2)	1,6	1,5	1,6	↑
Ematen diren atzerriko hizkuntzen batezbesteko kopurua Bigarren Hezkuntzako 2. etapan (INSN 3)	1,4	1,3	1,6	↑
Atzerriko hizkuntza bat irakaskuntzarako hizkuntzatzat erabiltzea				
Atzerriko Hizkuntza irakasgaiak besteko arlo/irakasgaiak atzerriko hizkuntza batean irakasten zaizkien ikasleen %-a Lehen Hezkuntzan	39,3	40,4		↑
Atzerriko Hizkuntza irakasgaiak besteko arlo/irakasgaiak atzerriko hizkuntza batean irakasten zaizkien ikasleen %-a DBHn	23,0	29,8		↑
Atzerriko Hizkuntza irakasgaiak besteko arlo/irakasgaiak atzerriko hizkuntza batean irakasten zaizkien ikasleen %-a Batxilergoan	0,9			↑
7 Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak				
Ikastetxe publikoetan eskolatuta dauden hezkuntza-premia bereziko ikasleen %-a sare publikoko ikasleen guztizkoari dagokionez	76,1	76,0		↓
Ikastetxe publikoetan eskolatuta dauden hezkuntza-premia bereziko ikasleen %-a ikasleen guztizkoari dagokionez (G+A ereduak)	64,8			↓
Ikastetxe publikoetan eskolatuta dauden hezkuntza-premia bereziko ikasleen %-a ikasleen guztizkoari dagokionez (D+B ereduak)	11,2			↓
Itunpeko ikastetxeetan eskolatuta dauden hezkuntza-premia bereziko ikasleen %-a ikasleen guztizkoari dagokionez (D+B ereduak)	2,2			↓
Itunpeko ikastetxeetan eskolatuta dauden hezkuntza-premia bereziko ikasleen %-a ikasleen guztizkoari dagokionez (G+A ereduak)	21,7			→
Ikastetxe publikoetan eta itunpekoetan eskolatuta dauden hezkuntza premia bereziko ikasleen ehunekoa ikasleen guztizkoari dagokionez (G+A ereduak)	86,6			↓
Ikastetxe arruntetan dauden HPB ikasleen %-a	89,6	83,0		↑
8 Hezkuntza-sistemako irakasleak				

Irakasleak irakaskuntza araubidearen eta titulartasunaren arabera				
Unibertsitatez kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzetako irakasleen portzentajeazko hazkundea 2014-15 ikasturtetik 2018-19 ikasturtera	8,9	6,5		↑
Unibertsitate irakaskuntzako irakasleen portzentajeazko hazkundea 2014-15 ikasturtetik 2018-19 ikasturtera	7,1	8,7		↑
Araubide bereziko irakaskuntzetako irakasleen portzentajeazko hazkundea 2014-15 ikasturtetik 2018-19 ikasturtera	11,8	8,1		↑
Helduen Hezkuntzako zentroetako eta jarduketetako irakasleen portzentajeazko hazkundea 2014-15 ikasturtetik 2018-19 ikasturtera	17,9	7,4		↑
Unibertsitatez kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzetako irakasleen %-a	74,6	80,1		
Unibertsitate irakaskuntzetako irakasleen %-a	16,2	14,0		
Araubide bereziko irakaskuntzako irakasleen %-a	6,0	4,6		
Helduen Hezkuntzako zentroetako eta jarduketetako irakasleen %-a	0,5	1,2		
Irakasleak sexuaren eta adinaren arabera				
Emakumeen %-a irakasleen artean	71,2	68,3	68,6	↓
50 urte edo gehiagoko irakasleen %-a	36,6	39,9	38,9	↑
30-49 urteko irakasleen %-a	53,8	58,3	53,0	↑
30 urte baino gutxiagoko irakasleen %-a	9,6	5,9	8,1	↑
Unibertsitatez kanpoko araubide orokorreko ikastetxeetako emakumezko zuzendarien %-a	66,6	63,3	69,4	↑
9 Etengabeko ikaskuntzan parte hartzea				
Hezkuntza-Prestakuntzan parte hartzen duten 25-64 biztanleak	13,0	10,6	10,8	↑
Irakasleen prestakuntza-programetako ziurtapenen %-a	89,8			↑
Irakasleen prestakuntzara bideratutako aurrekontu-gastuaren hazkundea aitzineko ikasturteari dagokionez	8,9			↑

6.2.2. Hezkuntza-finantzaketaren adierazleak

Definizioa:

Hezkuntzako gastu publikoak (aurrekontu likidatuak) administrazio eta unibertsitate publikoek hezkuntzara bideratzen duten gastua adierazten du, ikastetxe publikoetan edo pribatuetan gauzatzen den alde batera utzita. Jarraian, administrazio finantzatzailearen eta hezkuntza-jardueraren araberako banaketa aurkeztuko da, bai BPGaren, bai gastu publiko guztiaren ehuneko moduan. Familiek hezkuntzan egindako gastua ere sartzen da.

Testuingurua:

Hezkuntzara bideratzen diren giza baliabideak eta baliabide materialak hezkuntzari ematen zaion garrantziaren adierazgarri dira. Baliabide horien Adierazleen artean, hezkuntzako gastu publikoaren bolumena eta familiek hezkuntzan egindako gastuaren bolumena har daitezke kontuan.

Analisia:

- **2021, urtean, hezkuntzako gastu publikoa administrazio publiko eta unibertsitate publiko guztietarako 59.657 milioi eurokoa da, hau da, % 8,1eko hazkundera 2020. urtearen aldean.** 2015ean hasitako hazkundera mantentzen da, 2011 eta 2013 artean izandako beherakaden ondokoa, hain zuzen, eta 2014an egonkortu ondotik. Beraz, aztertutako hamarkadaren hasieran lortutako gehienekotik gora kokatzen dira datuak. **Nafarroan, gastu publikoa 829 milioi euro da, eta aurreko urtearekin igoera + % 7,4 izan da.** Nafarroan, gorakada horrek 2013an hasitakoari jarraitzen dio, **2012.** urteko jaitsiera nabarmenaren ondoren. Espainian, jaitsiera nabarmena gertatu zen **2012**tik 2013ra bitarte eta, gero, 2014an egonkortu eta 2015etik aurrera gora egin du. **Nafarroa Estatu bano gehiago hazi da ehunekotan.**
- **Hezkuntzara bideratutako gastu publikoa BPGari dagokionez % 4,94 izan da 2021ean (2020an % 4,94).** **Autonomia erkidegoetako administrazio publikoek hezkuntzara bideratutako gastu publikoa BPGaren % 4,19 da, Hezkuntza Ministerioak % 0,43 bideratu,** eta autonomia erkidegoei egindako transferentziak kendu ondoren % 0,19an geratzen da. Azkenik, “beste administrazio batzuek” hezkuntzara bideratutako gastua BPGaren % 0,38 da. **Nafarroan hazkunde esanguratsua izan da (Estatuko BPGaren % 0,6tik % 1,4ra).** Adierazle horrek azken hamarkadan izan duen bilakaerari begiratuta, ikusten da nabarmen egin zuela behera 2014ra arte, hezkuntzarako gastu publikoa nabarmen murriztearen ondorioz. Hurrengo urteetan, nahiz eta hezkuntzarako gastua hazi, BPGak izandako hazkunde nabarmenak adierazleak pixka bat behera egitea eragin zuen, baina 2020an eta 2021ean hezkuntzarako gastuan izandako hazkunde esanguratsuak pixka bat berreskuratzea dakar.
- **Familiek hezkuntzan egindako gastua 11.049 milioi eurokoa izan da 2021ean,** hau da, BPGaren % 0,92 (% 0,99 2020an), Kontabilitate Nazionalak ematen dituen xedeen arabeko etxeko azken kontsumoaren gastuaren datuen arabera, zeinak INEK 2021ean eguneratuta baitaude. **Familien gastuak beherakada txikia izan du 2021ean 2020arekin alderatuta;** izan ere, urte horretan hasi zen pandemia, eta gastu horretan beherakada nabarmena izan zen. Nafarroako familien batezbesteko gastuak nabarmen egin du gora, 2009ko 68,0 eurotik 2021eko 119,6 eurora, nahiz eta aurreko urtearekin alderatuta 20,5 puntuko beherakada egon. Espainiaren seriea egonkorragoa da, eta antzeko igoerak izan ditu (2009ko 40,6 eurotik 2021eko 128,3 eurora).
- **2021. urtean, Espainiako guztizko gastu publikoaren % 9,8 bideratu da hezkuntzara, hiru hamarrekotan gaindituta 2020an egindako gastuaren ehunekoa.** Gastua egiten duen administrazio motaren arabera: % 8,3 dagokie autonomia erkidegoetako hezkuntza administrazioei, % 0,4 Hezkuntza Ministerioari, behin autonomia erkidegoen transferentziak deskontatuta, % 0,8 beste administrazio batzuei eta % 0,4 “beste batzuei”. **Nafarroan, pixka bat hazi da 2009tik (% 13,49) 2021era (% 14,54).** **Gainera, hezkuntzara bideratutako gastu publikoaren ehunekoa Espainian bano lau puntu handiagoa da.**
- 2021. urtean, hezkuntzako gastu publikoa honela banatu zen **hezkuntza jardueraren arabera** Espainian: % **75,0 unibertsitatez kanpoko hezkuntzan inbertitu zen,** % 18,8 Unibertsitateko Hezkuntzan, % 1,9 Lanbide Heziketan eta % 4,4 bekak eta laguntzak emateko izan zen. **2021ean gastu publikoaren ehuneko handiena unibertsitatez kanpoko hezkuntzara bideratu duten erkidegoak Balear Uharteak, Nafarroako Foru Komunitatea eta Gaztela-Mantxa** dira (% 90,3 lehenengoak eta % 87,1 beste biek). Unibertsitate Hezkuntzan, Madrilgo Erkidegoak bideratzen du ehuneko handiena (% 28,3), eta jarraian datoz **Gaztela eta Leon** (% 23,9) eta **Valentziako Erkidegoa** (% 22,1). Nafarroa (%12,4) ehuneko txikiena bideratzen dutenetako bat da.
- **20219an, Europar Batasunean, herrialde gehienetan hezkuntzaren hasierako finantzaketa zentralizatuta dago,** eta gobernu zentralak dira finantzatzaile handienak herrialde gehienetan. Eskualdeetako agintariak dira finantzatzaile nagusiak Alemanian, Espainian eta Belgikan; tokiko agintariak, berriz, Suedian eta Finlandian.
- **Langileen gastua da erakunde publikoetako gastuaren ehunekorik handiena Europar Batasuneko herrialdeetan 2019an,** baina aldaketa esanguratsuak izan dira

herrialdeen artean; izan ere, Grezia, Portugal, Belgika eta Txipren % 80tik gorako zifrak dituzte, eta beste Finlandian eta Txekiar Errepublikan, berriz, % 60tik beherakoak. Herrialde gehienetan langile-gastuak guztizkoaren %60-80 osatzen du. Hori bera gertatzen da beste zerbitzu arrunt batzuetara bideratutako ehunekoarekin. Finlandian, Suedian eta Txekiar Errepublikan % 30 gainditzen dute, baina Grezian, Belgikan, Maltan, Txipren eta Portugalen ez dira % 15era iristen. Kapitaleko gastuak bi herrialdetan ez dira % 4ra iristen (Portugal eta Txipre), eta % 10 baino gehiago inbertitzen dute Letonian, Maltan, Grezian, Luxenburgon, Txekiar Errepublikan, Herbeheretan eta Finlandian. **Nafarroako langile-gastuak (% 64,7) Espainiakoak (% 76,5) eta Europako batezbestekoak (% 71,5) baino txikiagoak dira. Kapitaleko gastuen kasuan (% 4,6), konparazioa antzekoa da: Espainiak % 5,4 eta EBk % 7,5. Aitzitik, beste gastu arrunt batzuetan ehuneko handiagoa du Nafarroak (% 30,7), Espainian % 18,1 eta EBn % 20,9 izanik.**

349. taula: Hezkuntza finantzaketaren adierazleen balantzea

ADIERAZLEAK	NAFARROA	ESPAINIA	EB-28	AZKEN 5 URTEOTAKO JOERA
10 Hezkuntzako guztizko gastua				
Hezkuntzako guztizko gastua BPGari dagokionez eta Hezkuntzako guztizko gastu publikoa				
Hezkuntzako gastu publikoa 2009ari dagokionez (ehunekoetan)	% 8,0	% 4,7		↑
Familiek hezkuntzan egindako batezbesteko gastua. Guztizkoaren gaineko ehunekoa	% 1,59	% 1,59	% 1,2	↓
Hezkuntzako gastu publikoa BPGari dagokionez	% 3,27	% 4,21	% 4,94	↑
Hezkuntzara bideratutako gastu publikoa, gastu publikoaren guztizkoaren gainean	% 14,54	% 10,14		↑
Unibertsitatez kanpoko hezkuntzako gastu publikoa, hezkuntza-gastuaren guztizkoaren gainean	% 87,1	% 75,3		→
Itunetara bideratutako gastu publikoa				
Hezkuntza-administrazioek titulartasun pribatuko ikastetxeetara egindako transferentziak, hezkuntzako gastu publikoaren guztizkoari dagokionez	% 18,6	% 14,6		↓
Itunetara bideratutako gastu publikoa Haur eta Lehen Hezkuntzan	% 47,4	% 50,3		↓
Itunetara bideratutako gastu publikoa Bigarren Hezkuntzan eta Lanbide Heziketan	% 44,0	% 42,4		↑
Itunetara bideratutako gastu publikoa Hezkuntza Berezian	% 2,7	% 6,1		↓
Itunetara bideratutako gastu publikoa Beste irakaskuntza batzuetan	% 5,8	% 0,3		↑
Itunetara bideratutako gastu publikoaren aldakuntza-indizea 2009ari dagokionez	% 103,6	% 104,9		↑
11 Hezkuntzako gastua ikasle bakoitzeko				
Ikasle bakoitzeko gastu publikoa	6.173	5.163	7.233	↑
Ikasle bakoitzeko gastu publikoa ikastetxe publikoetan. Unibertsitatez kanpoko irakaskuntza	7.622	5.968		↑

6.2.3. Hezkuntza-emaitzen adierazleak

Definizioa:

Honako datu hauek zehazten dira: 15 urteko ikasleen oinarritzko kompetentziei buruzko PISA 2018ko datuak, hainbat urtetako ikasleen egokitasun tasak, eskola uztea, graduatze tasak, helduen prestakuntza tasak, eta jarduera zein langabezia tasak.

Testuingurua:

PISA (Ikasleen Nazioarteko Ebaluaziorako Programa) ELGAREN nazioarteko azterketa konparatiboa da, eta ikasleek ikastetxeetan ikasi eta praktikatu dituzten ezagutzak eta trebetasunak zenbateraino erabiltzeko gai diren balioestea du xede, ezagutza horiek garrantzitsuak izan daitezkeen egoeretan daudenean. Hiru urtean behin egiten da, eta 15 urteko ikasleak ebaluatzen ditu, hiru eremu nagusitan oinarrituta: Irakurketa, Matematika eta Zientziak.

Egokitasun tasa hezkuntza sistemaren emaitzak neurtzeko faktore garrantzitsua da, beren adinari dagokion ikasmilan dauden ikasleak agertzen baitira. Adierazle honetan bost adin teoriko aukeratu dira: 8 eta 10 urte, Lehen Hezkuntzako hirugarren eta bosgarren maila dagozkienak, eta 12, 14 eta 15 urte, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen, hirugarren eta laugarren mailaekin lotutakoak. 15 urteko adina Oinarritzko Lanbide Heziketaren hasierarekin ere lotzen da.

Ikasle errepikatzaileen ehunekoa ikasmila bakoitzerako kalkulatu da, ikasle errepikatzaileen ehunekoa aitzineko ikasturteko matrikularekin erlazionatuta.

Europa 2020 Estrategiaren lehentasunezko helburuetako bat hezkuntza eta prestakuntza goiz uzten dutenen ehunekoa % 10etik behera kokatzea da. Espainian, ehunekoa handia denez, kopuru hori % 15etik jaitea litzateke asmoa. Europako Batzordeak ere adierazle hori GJHen jarraipena egiteko finkatutako Europako adierazlearen barruan sartzen du. Bigarren Hezkuntzako bigarren etapako gutxieneko maila lortu gabe eskola uzteak ondorioak eta kostuak ditu banakoen eta gizartearen gainean, bai lan merkatuaren ikuspegitik, bai ongizate orokorraren ikuspegitik begiratuta. Gazteen ingurune sozioekonomikoa funtsezkoa da eskola uzteari dagokionez.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatze tasa gordina honela definitzen da: hezkuntza etapa hori arrakastaz amaitu eta DBHko Gradua lortzeko proposatzen diren ikasleen (adina gorabehera) eta etapa horretako azken ikasmila hasteko "adin teorikoa" (15 urte) duen biztanleriaren guztizkoaren arteko erlazioa.

Bigarren Hezkuntzako bigarren etapako graduatze tasa gordina honela zehazten da: aintzat hartutako derrigorrezko bigarren hezkuntzaren ondoko irakaskuntza bakoitzean gradua lortu duten pertsonen kopuruaren eta irakaskuntza horietako azken ikasmila hasteko "adin teorikoa" duen biztanleriaren guztizkoaren arteko erlazioa.

Prestakuntza mailaren arabera jarduera tasak landun edo langabe izateko beharrezko baldintzak betetzen dituzten 25-64 urteko biztanleen ehunekoa neurtzen du, lortutako prestakuntza mailaren arabera.

Langabezia tasa, aldiz, 25-64 urteko langabeen ehunekoa da, adin horretako biztanleria aktiboari dagokionez.

Analisia:

- **Egokitasun tasek behera egiten dute ikasleak adinean gora doazen heinean.** Espainian, 2020-2021 ikasturtean, 8 urteko ikasleen % 95,0 LHko 3. mailan zeuden matrikulatuta, hots, adinerako zegoen maila teorikoa; 10 urterekin, berriz, LHko 5. mailako tasa % 91,0koa zen. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapari dagozkion adinen esparruari begira, 12 urteko ikasleen % 87,2 etapa horretako 1. mailan dago; 14 urtekoen % 79,0 dago 3. mailan; eta 15 urtekoen % 75,5 4. mailan dago edo oinarritzko lanbide heziketa hasi du..

- Autonomia erkidegoka, 12 urtekoen egokitasun tasei begira, Lehen Hezkuntza amaitu eta Derrigorrezko bigarren hezkuntza hasten den adinekoena, alegia, baliorik handienak dituzte Kataluniak (% 94,1), Asturiasko Printzerriak (% 89,6), Galiziak (% 88,3) Euskal Autonomia Erkidegoak eta Kantabriak (bietan % 88,1). **15 urterekin (teorikoki DBHko laugarren eta azken mailan beharko lukete**, edo oinarritzko lanbide heziketa hasten) egoera oso antzekoa da: tasa altuenak Katalunian (% 86,2), EAEn (% 80,5), Kantabrian (% 78,8), Asturiasen (% 78,6) eta Galizian (% 78,2) daude.
- **15 urterekin eta 2010-11 ikasturtearen eta 2020-21 ikasturtearen artean Espainian 14,3 portzentaje puntu egin du gora egokitasun tasak.** Tasa horretan hazkunderik handiena izan duten erkidegoak dira Balear Uharteak, Extremadura, Kantabria eta Ceutako hiri autonomoa; izan ere, 17 portzentaje puntu baino gehiagoko hazkundera izan dute. **Hazkunderik txikiena izan dute, berriz, Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroako Foru Komunitatean eta Asturiasko Printzerrian**, baina aintzat hartu behar da 2010-11 ikasturtean zuten egokitasun tasa batezbestekoa baino nabarmen handiagoa zela.
- **Ikasmaila errepikatzeko ehunekoak handiagoak dira mutilen artean nesken artean baino derrigorrezko hezkuntza osoan**, Lehen Hezkuntzako hirugarren mailan izan ezik, eta alderik handiena (3,3 puntu) DBHko bigarren mailan izaten da. Hala ere, kontuan izan behar da, lehen aipatu denez, ikasmaila horretan izaten dela errepikapen ehuneko handienetako bat. **DBHn Nafarroa nabarmetzen da, ehunekorik txikienetakoa baitu (% 6,7).**
- **2020-21 ikasturtean** ikasmaila errepikatu dutenen zifrek COVID-19aren pandemiaren ondorioz ikastetxeak ixteari lotuta 2019-20 ikasturtearen amaierako ebaluazioaren salbuespenezko egoeraren eragin nabarmena dute, **eta nabarmen egin du behera errepikatzaileen kopuruak. Lehen Hezkuntzako errepikatzaileen portzentajea % 1,2 da, eta DBHn % 4,2 dira errepikatzaileak;** aurreko ikasturtean % 2,3 eta % 7,6 ziren, hurrenez hurren.
- **Lehen Hezkuntzan**, errepikatzaileen portzentajerik handiena lehenengo mailakoa da (% 1,6 Espainian, % 2,5 Nafarroan), eta jarraian doaz bigarren maila (% 1,5) eta seigarren maila (% 1,4). Guztizko portzentajea % 1,2 da. **Nafarroak % 1,2ko portzentajea du.**
- **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan**, lehenengo mailan dago portzentajerik handiena (% 5,0), eta beherakada progresiboa dago hurrengoetan: bigarren mailan % 4,5, hirugarrenean % 3,8 eta laugarrenean % 3,3. **Nafarroan, berriz, % 4,1, % 3,7, % 2,9 eta % 2,5. Batezbestekoa, beraz, % 3,3. Autonomia-erkidegoka, Lehen Hezkuntzako portzentajerik txikienak dituzte Kanariar Uharteak (% 0,3), Kataluniak (% 0,4), Valentziako Erkidegoak (% 0,6) eta Asturiasko Printzerriak eta Galiziak (% 0,7); handienak, berriz, Ceutako hiri autonomoak (% 3,3), Murtziako Eskualdeak (% 2,9), Aragoik (% 2,3) eta Gaztela eta Leonek (% 2,1).**
- **DBHn, portzentajerik txikienak dituzte Kataluniak (% 2,2), Aragoik (% 2,4), Asturiasko Printzerriak eta Galiziak (bietan da % 2,5),** eta handienak, berriz, Melillako hiri autonomoak (% 9,5), Murtziako Eskualdeak (% 7,4), Andaluziak (% 6,4) eta Gaztela-Mantxak (% 4,8).
- **2022an, hezkuntza eta eta prestakuntza goiz uzten dutenak % 13,9 izan dira Espainian**, eta 0,6 puntu igo da aitzineko urtearen aldean (% 13,3). **Azpimarratu behar da 2022. urtean adierazle horrek jarrera desberdina izan duela sexuaren arabera aztertuta;** 0,2 portzentaje puntu egin du behera mutilentzat, eta 1,5 puntu gora neskentzat, baina ikasketak uztearen portzentajeak nabarmen handiagoa jarraitzen du izaten mutilen artean (% 16,5) nesken artean baino (% 11,2).
- **Autonomia erkidegoka, ikasketak uztearen adierazlea oso heterogeneoa da 2022an:** Europak 2030erako % 9aren azpitik egoteko ezarritako xedea bete dute Euskal Autonomia Erkidegoak (% 5,6), **Nafarroako Foru Komunitateak (% 5,7)** eta Kantabriak (% 8,9), eta oso hurbil geratu dira Galizia (% 9,9) eta Gaztela eta Leon (% 9,9). Gainontzekotik zazpi autonomia erkidego daude % 15aren azpitik eta beste zazpi % 15 eta % 19 bitartean.

- **Gurasoen hezkuntza mailak, bereziki amarenak, eragin nabarmena du ikasketak uztean.** 2022. urtean, goi mailako ikasketak egindako amak dituzten ikasleen uzte portzentajea % 3,1 da soilik, baina % 8,7ra igotzen da amak Bigarren Hezkuntzako bigarren etapara iristen direnean. Balioak batezbestekoa baino handiagoak dira Bigarren Hezkuntzako lehenengo etapa denean lortutako maila, % 17,9, eta are handiagoak Lehen Hezkuntzako maila edo txikiagoa badu amak: % 36,3.
- **Europar Batasuneko herrialdeetan, 2022an,** hezkuntza eta prestakuntza goiz uztearen portzentajea % 9,6 da, 2021ean baino 0,2 portzentaje puntu gutxiago. UE27 taldeko hamar herrialdek dituzte Europako batezbestekoaz gaindiko portzentajeak: Danimarka, Malta, garia, Estonia, Italia, Alemania, Hungaria, Espainia eta Errumania. Hamazortzi herrialde daude Europak ezarritako % 9ko balioaren azpitik, eta, horietatik, seik % 5,0tik beherako balioak dituzte.
- **2020-2021 ikasturtean, DBHko gradudunen tasa gordina % 82,2 da** 15 urteko biztanleekiko. Tasarik handienak dituzten erkidegoak dira Euskal Autonomia Erkidegoa (% 88,7), **Nafarroako Foru Komunitatea (% 87,5)**, Kantabria (% 87,2) eta Asturiasko Printzerria (% 87,2). Tasarik txikienak dituzte, berriz, Melilla (% 60,3) eta Ceutako (% 65,0) hiri autonomoek, Murtziako Eskualdeak (% 75,5) eta Gaztela-Mantxak (% 76,8).
- **Nafarroan, 2022. urtean, 25-29 urteko biztanleen %57,7k goi mailako hezkuntza maila du, EBko batezbestekotik 18,4 puntu gorago;** Espainian portzentajea txikiagoa da: % 50,2. **30-34 urteko biztanleriari** dagokionez, talde hori ez dago Goi mailako Hezkuntzako tituludunen azken aldiko bilakaerarekin hain lotuta; izan ere, oro har, duela urte batzuk utzi zuten hezkuntza sistema. **EBko ehunekoa % 41,0ra iristen da,** eta adierazle horretarako Europa 2020 estrategian ezarritako % 40ko helburua bete da. **Espainia % 44,8an dago,** helburu hori gaindituta 2007tik, eta **Nafarroak, berriz, aise gainditzen du (% 54,1).**
- **Nafarroan, 2022. urtean, 25-64 urteko biztanleriaren % 87,5ek Bigarren Hezkuntzako bigarren etapako ikasketak amaitu ditu, gutxienez ere, eta % 80,7ra igotzen da 25-34 urteko adin tartean.** Espainian, kopuru horiek ordena berean, % 62,9 eta % 71,7 dira.
- **Gazteen jarduera tasa 25-64 urteko biztanleriarena baino handiagoa da oro har, eta prestakuntza mailarekin batera gora egiten du tasa guztietan 25-64 urtekoen taldean, eta gehienetan gazteen 25-34 urteko taldean. Nafarroak Espainiako batezbesteko jarduera tasa gainditzen du 25-64 urteko biztanleen kasuan, eta 25-34 urtekoetan txikiagoa da.** Jarduera tasak handiagoak dira goi mailako ikasketak dituztenen artean, eta handiagoak gizonen artean emakumeen artean baino.
- **2022an, Nafarroan, 25-64 urteko biztanleria aktiboaren % 9,1 langabezian dago.** Tasa % 15,0ra igotzen da baldin eta Bigarren Hezkuntzako bigarren etapatik beherako ikasketak dituztenak soilik hartzen baditugu kontuan. Bigarren Hezkuntzako bigarren etapako ikasketak dituztenen langabezia tasa ere % 9,1 da. Langabezia tasarik txikiena (% 6,3) goi-mailako ikasketak dituen biztanleriari dagokio.

350. taula: Hezkuntza emaitzen adierazleen balantzea

ADIERAZLEAK	NAFARROA	ESPAINIA	EB-27	AZKEN 5 URTEOTAKO JOERA
12 Oinarrizko kompetentziak 15 urterekin				
Oinarrizko kompetentziak 15 urterekin: Matematika (PISA 2018)				
Batezbesteko puntuazioak matematikaren eskalan	503	481	494	↓
Errendimendu mailak 2. mailatik behera	% 17	% 25	% 22	↓
Errendimendu mailak 4. mailatik gora (5. eta 6. mailak)	% 11	% 7	% 11	↓

Ikasleen errendimendua generoaren aldagaiari dagokionez	G (505) E (500)	G (485) E (478)	G (497) E (490)	
Ikasleen errendimendua immigrazioaren aldagaiari dagokionez	Bertakoa (517) Immigrantea (449)	B (488) I (449)	B (501) I (463)	
Ikasleen errendimendua errepikatzearen aldagaiari dagokionez	Errepikatzailea 426 Ez Errepikatzailea 528	E (410) EE (511)	E (420) EE (508)	
Ikasleen errendimendua titulartasunaren aldagaiari dagokionez, ISEK kenduta	Publikoa (504) Itunpekoa (504)	P (490) I (487)		
Oinarrizko konpetentziak 15 urterekin: Irakurmena (PISA 2018)				
Batezbesteko puntuazioak irakurmenaren eskalan	472	477	489	
Errendimendu mailak 2. mailatik behera	% 26	% 25	% 21	
Errendimendu mailak 4. mailatik gora (5. eta 6. mailak)	% 4,4	% 4,4	% 8,2	
Ikasleen errendimendua generoaren aldagaiari dagokionez	G (459) E (485)	G (464) E (490)	G (476) E (503)	
Ikasleen errendimendua immigrazioaren aldagaiari dagokionez	Bertakoa (480) Immigrantea (444)	B (483) I (451)	B (498) I (457)	
Ikasleen errendimendua errepikatzearen aldagaiari dagokionez	Errepikatzailea 404 Ez Errepikatzailea 495	E (408) EE (505)	E (411) EE (504)	
Ikasleen errendimendua titulartasunaren aldagaiari dagokionez, ISEK kendu gabe	Publikoa (458) Itunpekoa (493)	P (468) I (493)	P (484) I (507)	
Oinarrizko konpetentziak 15 urterekin: Zientziarako Konpetentzia (PISA 2018)				
Batezbesteko puntuazioak Zientziarako Konpetentziaren eskalan	492	483	490	
Errendimendu mailak 2. mailatik behera	% 18	% 21	% 21	
Errendimendu mailak 4. mailatik gora (5. eta 6. mailak)	% 5	% 4,2	% 6,9	
Ikasleen errendimendua generoaren aldagaiari dagokionez	G (493) E (491)	G (484) E (482)	G (490) E (491)	
Ikasleen errendimendua immigrazioaren aldagaiari dagokionez	Bertakoa (501) Immigrantea (461)	B (490) I (456)	B (499) I (456)	
Ikasleen errendimendua errepikatzearen aldagaiari dagokionez	Errepikatzailea (425) Ez Errepikatzailea (515)	E (417) EE (511)	E (419) EE (504)	
Ikasleen errendimendua titulartasunaren aldagaiari dagokionez, ISEK kendu gabe	Publikoa (481) Itunpekoa (514)	P (476) I (499)	P (485) I (511)	
13 Egokitasuna ikasleen adinean				
Egokitasuna derrigorrezko hezkuntzako ikasleen adinean				
Egokitasun tasa 8 urterekin	% 92,0	% 95,0		
Egokitasun tasa 10 urterekin	% 88,0	% 91,0		
Egokitasun tasa 12 urterekin	% 84,0	% 87,0		

Egokitasun tasa 14 urterekin	% 80,0	% 79,0		↑
Egokitasun tasa 15 urterekin	% 78,0	% 75,0		↑
Maila errepikatu duten ikasleak				
Ikasle errepikatzaileren batezbesteko tasa Lehen Hezkuntzan	% 1,2	% 1,2		↑
Ikasle errepikatzaileren tasa Lehen Hezkuntzako 1. mailan	% 2,5	% 1,6		↓
Ikasle errepikatzaileren tasa Lehen Hezkuntzako 2. mailan	% 1,8	% 1,5		↑
Ikasle errepikatzaileren tasa Lehen Hezkuntzako 3. mailan	% 1,1	% 0,9		↑
Ikasle errepikatzaileren tasa Lehen Hezkuntzako 4. mailan	% 0,8	% 1,1		↑
Ikasle errepikatzaileren tasa Lehen Hezkuntzako 5. mailan	% 1,2	% 1,8		↑
Ikasle errepikatzaileren tasa Lehen Hezkuntzako 6. mailan	% 1,3	% 2,3		↑
Ikasle errepikatzaileren batezbesteko tasa Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan	% 1,7	% 1,4		↑
Ikasle errepikatzaileren batezbesteko tasa Lehen Hezkuntzako itunpeko ikastetxeetan	% 0,4	% 0,8		↑
Ikasle errepikatzaileren batezbesteko tasa DBHn	% 3,3	% 4,2		↑
Ikasle errepikatzaileren tasa DBHko 1. mailan	% 4,1	% 5,0		↑
Ikasle errepikatzaileren tasa DBHko 2. mailan	% 3,7	% 4,5		↑
Ikasle errepikatzaileren tasa DBHko 3. mailan	% 2,9	% 3,8		↑
Ikasle errepikatzaileren tasa DBHko 4. mailan	% 2,5	% 3,3		↑
Ikasle errepikatzaileren batezbesteko tasa DBHn: Gizonak	% 5,9	% 6,9		↑
Ikasle errepikatzaileren batezbesteko tasa DBHn: Emakumeak	% 2,1	% 3,2		↑
Ikasle errepikatzaileren batezbesteko tasa DBHko ikastetxe publikoetan	% 4,8	% 5,2		↑
Ikasle errepikatzaileren batezbesteko tasa DBHko itunpeko ikastetxeetan	% 1,2	% 2,2		↑
Ikasle errepikatzaileren batezbesteko tasa Batxilergoan	% 2,3	% 3,4		↑
Ikasle errepikatzaileren batezbesteko tasa Batxilergoko 1. mailan	% 1,3	% 2,5		↑
Ikasle errepikatzaileren batezbesteko tasa Batxilergoko 2. mailan	% 3,4	% 4,3		↑
14 Hezkuntza eta prestakuntza behar baino lehenago uztea				
Hezkuntza behar baino lehenago utzi duten 18-24 urteko pertsonen ehunekoa	% 5,7	% 13,9	% 9,6	↑
Hezkuntza behar baino lehenago utzi duten 18-24 urteko pertsonen ehunekoa: gizonak	% 7,9	% 16,5	% 11,1	↑
Hezkuntza behar baino lehenago utzi duten 18-24 urteko pertsonen ehunekoa: emakumeak	% 4,2	% 11,2	% 8,0	↑
15 Graduatze tasak				
DBHko graduatze tasa gordina	% 87,5	% 82,2		↑

DBHko graduatze tasa: gizonak	% 85,0	% 78,1		↑
DBHko graduatze tasa: emakumeak	% 90,2	% 86,6		↑
DBHko 1. maila gainditu duten ikasleen ehunekoa	% 95,9	% 91,6		↑
DBHko 2. maila gainditu duten ikasleen ehunekoa	% 96,3	% 87,5		↑
DBHko 3. maila gainditu duten ikasleen ehunekoa	% 97,1	% 87,6		↑
DBHko 4. maila gainditu duten ikasleen ehunekoa	% 97,5	% 88,5		↑
Graduatze tasa gordina Bigarren Hezkuntzako bigarren etapan				
Batxilergoko graduatze tasa gordina, guztira	% 57,7	% 55,0		↑
Gizonak	% 49,5	% 47,4		↑
Emakumeak	% 66,1	% 63,1		↑
Oinarriko LHko graduatze tasa gordina	% 6,1	% 4,6		↑
Gizonak	% 8,1	% 6,2		↑
Emakumeak	% 3,7	% 3,0		↑
Erdi mailako PZko graduatze tasa gordina (teknikaria)	% 27,0	% 27,0		↑
Gizonak	% 32,5	% 27,9		↑
Emakumeak	% 21,2	% 26,1		↑
Goi mailako ikasketetako tituludunen ehunekoa gazteen artean				
25-34 adin tartean goi mailako hezkuntza duten biztanleen ehunekoa	% 57,7	% 50,5	42,0	↑
Gizonak	% 57,1	% 44,1	36,5	↑
Emakumeak	% 58,4	% 57,0	47,6	↑
16 Helduen prestakuntza maila				
25-64 adin tartean Bigarren Hezkuntzako 2. etapatik beherako prestakuntza duten helduen ehunekoa	% 27,8	% 35,8	% 21	↑
25-64 adin tartean Bigarren Hezkuntzako 2. etapako prestakuntza duten helduen ehunekoa	% 28,3	% 36,1	% 46,2	→
25-64 adin tartean goi mailako ikasketak dituzten helduen ehunekoa	% 48,7	% 41,1	% 32,8	↑
25-34 adin tartean Bigarren Hezkuntzako 2. etapatik beherako prestakuntza duten helduen ehunekoa	% 20,7	% 26,5	% 14,7	↑
25-34 adin tartean Bigarren Hezkuntzako 2. etapako prestakuntza duten helduen ehunekoa	% 21,6	% 22,9	% 44,8	↓
25-34 adin tartean goi mailako ikasketak dituzten helduen ehunekoa	% 57,7	% 50,5	% 40,5	↑
17 Jarduera tasa eta langabezia tasa prestakuntza mailaren arabera				
Jarduera tasa prestakuntza mailaren arabera				

Jarduera tasa 25-64 urteko biztanlerian	% 84,1	% 81,9	% 79,7	↑
Jarduera tasa 25-34 urteko biztanlerian	% 85,5	% 86,3		↑
Jarduera tasa 25-64 adin tartean Bigarren Hezkuntzako 2. etapatik beherako hezkuntza maila duen biztanlerian	% 71,8	% 72,9		↑
Gizonak	% 79,7	% 81,6	% 75,3	↑
Emakumeak	% 61,5	% 62,5	% 51,4	↑
Jarduera tasa 25-64 adin tartean goi mailako ikasketak dituen biztanlerian	% 92,2	% 90,2	% 89,4	↑
Gizonak	% 91,7	% 91,6	% 92,6	↑
Emakumeak	% 92,8	% 89,1	% 86,8	↑
Langabezia tasa arabera	prestakuntza mailaren arabera			
Langabezia tasa 25-64 urteko biztanlerian	% 8,7	% 11,8	% 6,3	→
Langabezia tasa 25-34 urteko biztanlerian	% 11,4	% 14,5		↑
Langabezia tasa 25-64 adin tartean Bigarren Hezkuntzako 2. etapatik beherako hezkuntza maila duen biztanlerian	% 17,5	% 17,7	% 12,6	↓
Gizonak	% 16,0	% 14,5	% 11,6	↓
Emakumeak	% 19,9	% 22,7	% 14,2	↓
Langabezia tasa 25-64 adin tartean goi mailako ikasketak dituen biztanlerian	% 4,2	% 7,1	% 4,4	↑
Gizonak	% 3,8	% 5,8	% 4,1	↑
Emakumeak	% 4,6	% 8,2	% 4,7	↑
Langabezia tasa 25-34 adin tartean goi mailako ikasketak dituen biztanlerian	% 5,6	% 10,2		↑
Gizonak	% 6,4	% 9,6		↑
Emakumeak	% 9,6	% 10,7		
18 Jarduera tasa eta langabezia tasa prestakuntza mailaren arabera				
Lanagatiko batezbesteko diru sarrerak goi mailako Bigarren Hezkuntzatik beherako ikasketak dituen biztanlerian (INSN 0-2), eurotan		13.156	13.928	
Lanagatiko batezbesteko diru sarrerak goi mailako Bigarren Hezkuntzako ikasketak dituen biztanlerian (INSN 3-4), eurotan		15.824	17.196	
Lanagatiko batezbesteko diru sarrerak goi mailako ikasketak dituen biztanlerian (INSN 5-8), eurotan		21.571	23.606	